



Begirada kritikoak borroka feministekin konprometitutako lankidetzarako



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
INSTITUTUEN BARRUTIA ETEN GARAPENEN BARRUTIA INSTITUTUA



Begirada kritikoak

borroka feministekin

konprometitutako

lankidetzarako

Argitalpen hau Eusko Jaurlaritzako Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzaren eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziaren (AECID) finantza-laguntzari esker egin da. Argitalpenaren edukia HEGOaren erakundearen erantzukizuna da, eta ez du zertan islatu Eusko Jaurlaritzaren eta AECIDen iritzia.

Proiektu hau kofinantzatu duten erakundeak:



Koordinatzailea: Amaia del Río Martínez
Argitaratzailea: Hegoa



Bilbao

Zubiria Etxea. UPV/EHU
Lehendakari Agirre etorbidea, 81 • 48015 Bilbao
Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40 • hegoa@ehu.es

Donostia-San Sebastián

Villa Soroa. UPV/EHU
Ategorrieta, 22 • 20013 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 01 74 64 • maribi_lamas@ehu.es

Vitoria-Gasteiz

Arabako Campus-eko Liburutegia, 138 kutzatila.
Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. Faxa: 945 01 42 87 • gema_celorio@ehu.es

www.hegoa.ehu.es

2012 Martxo


Lege zenbakia: BI-574-2012

ISBN: 978-84-89916-64-7

Euskarazko itzulpena: Labayru Ikastegia

Inprimaketa: Lankopi S.A.

Diseinua eta maketazioa: Marra Servicios Publicitarios, S.L.

 Aitortu-Ez komertziala-Lan Eratorririk Gabe 3.0 Generikoa Espainia Creative Commons-en lizentziapean dago. Aske zara lan hau kopiatzeko, banatzeko eta publikoki hedatzeko, betiere kontuan hartuta lanaren kredituak aitortu behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza xedetarako erabili. Ezin duzu lan hau bestelakotu, eraldatu edo lan eratorririk sortu hartatik abiatuta.

Baimen osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0>

Aurkibidea

Aurkezpena	5
Emakumeen eskubide ekonomikoak: zenbait gogoeta eta bilaketa feminismoaren ikuspegitik <i>Morena Herrera eta Laura Romero,</i> Tokiko Garapenerako Talde Feminista, El Salvador	11
Elkartasunean topo egitea, posible den beste errealitate bat <i>Maya Alvarado,</i> Guatemalako Emakumeen Batasun Nazionala, Guatemala	39
Emakumeen parte-hartze politikoaren zein ehunekok aldatu duen Peruko historia (eta zein eginkizun bete duten prozesu horretan iparraldeko garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek) <i>Gaby Cevalco, Flora Tristán, Perú</i>	59
Finantziario-erakundeek emakumeen jabeakuntza ekonomikoari eta eskubide ekonomikoei emandako laguntza <i>Eduarne Bengoetxea</i>	89
Generoa, justizia eta kaltea konpontzea gatazka armatuko eta gatazka ondoko egoeretan: emakumeen aldetik bakea eraikitzen <i>Mila Ramos</i>	127
Garapenerako laguntzaren arloan konpondu gabeko arazoa: subjektu femenino plurala eraikitzea <i>Begoña Zabala</i>	157

Aurkezpena

Argitalpen hau Hegoaren Garapenerako Hezkuntzarako taldearen “*GGKEetan teoria eta praktika feminista lortzeko bidean: garapenerako hezkuntzan eta lankidetzan lan egiteko hausnarketa eraldatzaileak*” ekimenaren barruan dago sartuta. Ekimen horren helburua da generoko ekitateaz modu estrategikoan jabetzea, eta ildo feministako lan-ildoak eraikitzea, garapenerako lankidetzaren agente tradizionalak inspiratzeko.

Eta zer modu hoberik hori egiteko, -oso sarritan ahaztuta dauden- feministak gonbidatuz baino, lankidetzaren esparruko planteamenduak zalantzan jar ditzaten, GGKE gisa egiten ditugun praktiketan, zein lan horiek finantzatzen dituztenen kokapen ideologikoan. Uste dugu herri txirotu eta aberastuetako feministak direla, euren ekarpenekin eta bokazio kritiko zorrotzarekin, garapenaren logika patriarkal eta teknokratikoei aurre egin diezaieketenak, eta, euren borroken bitartez, gizarte justu eta libreagoak sor ditzaketanak, non emakumeen kontrako opresioak eta esplotazioak lekurik izango ez duen.

Modu horretan, alde batetik, hegoaldeko emakumezko egileei eskatu genien euren erakundeen proposamen politikoa deskribatzeko eta GGKE gisa egiten dugun lana ebaluatzeko, eta, bestetik, iparraldeko emakumezko egileei eskatu genien hausnarketa kritikoa egiteko finantziazio-erakundeen zereginari buruz, bai eta erakunde horien politikei buruz eta benetako prozesu emantzipatzaile eta feministak babesteko erabiltzen dituzten tresnei buruz ere. Hemen aurkezten diren testuek azken garaietan jorratu ditugun gaiak aipatzen eta sakontzen dituzte. Interes handiko gaiak dira, aldarrikapen globala egiten dutelako: emakumeen eskubide ekonomikoak, emakumeen aurkako indarkeria motak eta gatazkak, eta emakumeen partaidetza herri-tarra eta eragin politikoa.

Argitalpenak sei kapitulu ditu. Kapitulu horietako bakoitzak oso iritzi kritikoak egiten ditu, eta lankidetzaren esparruan lan egiten dugun agenteen profila krisian jartzen duten argumentuak plazaratzen dira bertan. Era berean, zalantzan jartzen dira gure lan egiteko modua, gure balioak eta gure identitatea bera. Ildo horretatik, *egurra ematen digute*, astindu egiten gaituzte, baina, batez ere, zenbait proposamen eskaintzen dizkigute garapeneraren neutraltasun faltsuan eta axolagabekeria jarraitu nahi ez dugunoi.

Lehenengo kapitulua Morena Herrerak eta Laura Romerok (Tokiko Garapenerako Kolektibo Feminista, El Salvador) egin dute, eta, bertan, emakumeen eskubide ekonomikoak sustatzeko esperientziak aurkezten dira, garapeneraren eta lankidetzaren politiken arloan indarrean dagoen ereduaren barruan. El Salvadorreko ekintzaile horiek diotenez, *“Estandar neoliberalak eta merkataritza askeko itunak nagusitzen diren testuinguru sozioekonomikoak desabantaila handiak dakartza, zeren eta, bertan, eskasia dago inbertsioan, emakumeen ekimenek produktibitate urria dute eta emakumeen produktua merkaturatzeko babes instituzional gutxi dago”*. Esperientzia horretatik abiatuta, adierazten dute GGKE askok babesten dituzten proiektu ekonomikoek garrantzi handiagoa ematen dietela merkatuko balioei, ekonomia solidario feministaren ikuspegiari baino, eta, ondorioz, *“oinarri sozial konprometitua eta beste gizarte-mugimendu batzuekiko aliantzak galduz doaz; besteak beste, mugimendu feministarekikoa”*.

Maya Alvaradoren testuak (Guatemalako Emakumeen Batasun Nazionala) proposamen bat eskaintzen du, Guatemalan demokraziaranzko trantsizioa eta bakea eraikitzeke borrokan ari den ezkerreko erakunde feminista baten ikuspuntutik. Gatazka armatuan sexu-indarkeriatik bizirik irtendako emakumeekin justizia bilatzeko antolakuntzan, laguntza psikosozialean eta eskubideen trebakuntzan egin duen lanaren esperientzia dela-eta, bere ustez, estrategikoa da *“emakumeen aktoretza sozial eta politikoa eta euren bizitzen subjektu bizitzeko duten gaitasuna kokatzea, euren eskubideez goza dezaten”*. Hain zuzen ere, lan-ildoak eta ekintzak definitzeko deia egiten du, modu bateratuan arituz euren prozesuetako aktore diren emakumeekin. Horrela, aipatutako ekintza horiek ez dira lankidetzaren, GGKEen edo tokian tokiko erakunde bulegoetatik definituko. GGKEei zuzentzen zaie, herrialde aberastuetan kontzientziak mugiaraziko dituzten kanpainak garatzeko proposamenarekin: *“Kontua ez da soilik “begoaldeko herrialdeetako emakume txiroekiko” sentsibilitatea izatea edo emakume horiek ikustea. Kontua da begirada euren gizarteetan jartzea, euren bizi-esperientzietan, eta kontsumo-maila gisa ulertutako “ongizatean” oinarritutako bizi-ereduak sorrarazten*

dituen distortsioen azterketan”.

Hirugarren kapitulua Gaby Cevascoren eskutik dator (Flora Tristán Emakume Perutarren Zentroa). Peruko emakumeen partaidetza politikora hurbiltzen da, zenbait gako definituz mugimendu feministatik, eta GGKEek prozesu honetan izan duten zereginaren berri emanez. Egile hau optimistagoa da, eta dio GGKEak aliatu garrantzitsuak izan direla eta direla, eta *“orain arteko elkarrizketa ia horizontala” izan dela ere adierazi du*. GGKEen eta erakunde feministen arteko harreman ona eta kointzidentziak gorabehera, partaidetza politikoari buruzko proiektuak definitzen direnean, adierazten du deialdi irekietan *“generoa kontzeptu tekniko biburtzen dela, gaitasun politiko orotatik hustua, eta emaitzak helburuen bitartez eskatzen direla; hain zuzen ere, horrek ez du erakusten emakumeek politikara heltzeko izan beharreko prestakuntza-prozesuaren zailtasunak eta aberastasuna, adibidez”*.

Laugarren kapituluaren izenburua “Finantziazio-erakundeek emakumeen jabeakuntza ekonomikoari eta eskubide ekonomikoei emandako laguntza” da, eta Edurne Bengoetxeak garatu du. Bertan erakusten zaigun eszenatokian, badirudi diskurtsoa eta generoko praktika kontraesanean daudela. Edurnek iradokitzen du finantziazio-erakundeek maizago eta modu aktiboagoan eskatzen dietela GGKEei genero arloko zenbait irizpide betetzea, eta, aldiz, ez dutela hain sarri euren instituzioetako barne-koherentzia bermatzen, adibidez, generoko aurrekontu publikoen garapenaren bitartez. Eskubide ekonomikoei dagokienez, hauxe planteatzen du: *“Emakumeen eskubide ekonomikoen eta emakumeen jabeakuntza ekonomikoko prozesuen babesa dela-eta, emakumeak subjektu ekonomiko gisa ikusten dira, egiten dituzten lan ugariak eta giza garapenari egiten dioten ekarpena ikusgarri biburtuz eta baloratuz, eta generoaren araberrako lanaren banaketa zailantzan jarriz, hori baita emakumeek borrokatzen duten bazterkeriaren faktore gakoetako bat”*.

Mila Ramosek eskaintzen duen panorama atsekabegarria da, baina baita erreala eta ukaezina ere; bertan diotenaren arabera, emakumeen aurkako indarkeria da gehien egiten den delitua, eta zigorgabetasun-kuotarik handienak dituen. Honela dio: *“Genero-indarkeriaren zigorgabetasuna eta ohituraren bizioa hain da handia gatazkaren edo gatazka osteko testuinguruetan izaten dituen forma ugarietan, pentsatu beharke litzatekeela, besterik ez bada ere ariketa intelektual gisa, ea benetan gobernuak ezagutzen duten nolako eragin desproporzionatua duen horrek emaku-*

me eta neskatuen bizitzetan... Argi dago ezagutzen dutela. Orduan, zer?". Modu horretan, diruz lagundutako proiektuei dagokienez 1325 Ebazpenaren ezarpenerako Espainiako Gobernuaren Ekintza Planak ekarri duena aztertzen du; era berean, zalantzan jarri du, modu kritikoan, horrek emakumeen bizitzan duen benetako eragina. Finantziazio-erakundeei eskatzen die berehala jokatzeko, gatazka egoeran edo gatazka osteko egoeran dauden herrialdeetako generoko agenda gehiago ez atzeratzeko; horrekin batera, "baliabide ekonomikoak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak jarri behar dira, inplementazioa abalbidetzeko; eta, era berean, gatazka egoeran edo gatazka osteko egoeran dauden herrialdeetako emakumeen erakundeek egindako adierazle-sorta bat prestatu behar da, ekintza-planak betetzen ari diren edo ez neurtzeko. Gainera, planok bete ezean, garrantzitsua da zein neurri hartu beharko diren zehaztea".


Azken ekarpena Begoña Zabalak egin du: iparraldeko finantziazio-erakundeen politikak aztertzen saiatzen da, subjektu politikoaren eraikuntzari dagokionez, subjektu hori emakume gisa, norbanako gisa eta kolektibo gisa hartuta; eta politika eraldatzaile posibleak eskaintzen ditu, emakumeen taldeak eta talde feministak aldaketarako eragile bihur daitezzen. Azken ildo horretan, subjektu femenino askotarikoa eraikitzearen alde egiten du, "asmo unibertsalistari aurre eginez". Gainera, dio "Garapenaren paradigmaren oinarritzko printzipioak ez lirakekeela berdintasuna, ekitatea edo jabekuntza izan behar, ezpada emakumeen eskubideak, kontuan izanik eskubide horiek ez direla gizonezkoek euren buruentzat hartu dituzten eskubide berberak". Eta eskubide horien birformulazio interesgarri baten ondorioz, "adibidez, emakumeek modu librean erabakiko lukete beste leku batzuetara joatea, inor arduratu barik emakume horien lekualdaketez edo emakume horiekin trafikatu barik. Modu horretan, adibidez, emakumeek modu librean erabakiko lukete prezio bidezko sexu-zerbitzuetan aritzea, prostituitua izan beharrean. Emakumeek erabakiko lukete zenbat seme-alaba izan, politika demografikoen, sinesmen erlijiosoen edo menperatze patriarkalaren erabakien esanetara aritu beharrean. Emakumeek erabakiko lukete zein izan beharko litzatekeen euren izena, senarrari erreferentzia egiten dion izena erabili beharrean".

Espero dugu sei atal hauetan jasotako begiradek autokritikarako balio izatea, bai eta garapenerako lankidetzaren agenda eraldatuko duten hipotesiak eta praktikak berrikusteko ere. Izan ere, modu horretan, guztiaren oinarrian dagoen eredu patriarkal eta heteronormatiboa ere berrikusiko litzateke. Uste dugu GGKE gisa dugun erantzukizuna erakunde feministen ikasketei

laguntza ematea izango litzatekeela, bai eta euren aldarrikapenen bozgorailu izatea eta emakumeak eskubideen subjektu gisa ikusten dituzten prozesuen konplizeak izatea ere.

Aurkezpen honi amaiera emateko, eskerrak eman nahi dizkiet egileei, mailtasun handiz; izan ere, ahalegin handia egin dute artikulua idazteko, eta eskerrak eman nahi dizkiet, gainera, abentura honetan sartu direlako. Eskerrik asko, era berean, proiektu honen aholkularitza Batzordeari eta, bereziki, Yolanda Jubetori, beti nirekin batera egon delako, hausnarketak eta ideiak eskainiz. Eskerrik asko, era berean, Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziari eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziari, material hau finantzatzeagatik eta proiektu honetan sartutako ekintzak egiteko eman diguten laguntzagatik.

Amaia del Río Martínez



Emakumeen eskubide ekonomikoak: zenbait gogoeta eta bilaketa feminismoaren ikuspegitik

Morena Herrera eta Laura Romero

Tokiko Garapenerako Talde Feminista, El Salvador

Artikulu hiru zatitan egituratuta dago: lehenengoa Tokiko Garapenerako Talde Feministaren aurkezpena da; bigarren zatian emakumeen eskubide ekonomikoak sustatzeko esperientzia zehatzei buruzko gogoeta egiten da; eta hirugarrenean garapen-ereduan eta lankidetzeta-politiketan sakontzen da, esparru horretan garatzen baitugu gure jarduera, bai hegoaldeko herrialdeetako erakundeek, eta baita iparraldeko herrialdeetako GGKEek¹ ere. Atal honen amaieran erakunde feministek hainbat proposamen egiten dizkiete GGKEei, elkarrekin lan egitea ahalbidetzeko.

I. Proposamen feminista honek begiradak erakarri eta ekintzak antolatu nahi ditu tokian bertan, nazio mailan eta mundu mailan

Hurrengo ataletan Tokiko Garapenerako Talde Feminista nola sortu zen azaltzen da: inguruneak, eskubide ekonomikoen eta emakumeen autonomiaren aldeko borrokaren egungo lan-esparruak, Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeekin (GGKE) izandako harremanetan, gure esperientziaren ikuspegia barne hartuta.

1. Ibilera berriak bide zaharretan

Tokiko Garapenerako Talde Feministaren (TGTF) jatorriak lotura zuzena du emakumeen mugimenduak indartzeko alternatiben bilaketarekin; eta bereziki kezkatu izan ditu tokiko emakumeen erakundeak erakundeen arteko sarea sortzeko egiten ari dien ahaleginak antolatzeak. Izan ere, erakundeak hainbat lurraldetan kokatuta daude, eta ez dute elkar ezagutzen; hori dela eta, energia asko galtzen zen mugimenduan bertan eskema zentralistekin koordinatu nahian, eta era berean, erakunde horien protagonismoa galtzen zen eragin politikoko prozesuetan, tokian bertan nahiz nazioartean.

¹ Artikulu honetan, Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek (GGKE) buruz hitz egiten denean, garapenerako lankidetzan aritzen diren erakundeek buruz ari gara. GKEek buruz hitz egitean, berriz, hegoaldeko herrialdeetako eta, bereziki, El Salvadorreko, erakunde feministez edo beste era bateko erakundeez ari gara.

Kezka horrekin lotuta, aliantza pluralistak eraikitzekeo beharra ikusi zen, gizarte erakundeen eta emakumeen arteko harremanean herentziak eta praktika sektarioak gainditzeko helburuarekin. Eta, aldi berean, hainbat talde politikotako emakume municipalistak identifikatu ziren, tokiko gobernuen balizko aliatuak izateko eta emakumeen mendekotasuna indartzen duten gizarte egiturak nahiz harremanak eraldatzeko.

Ahalegin hori 2004an gauzatu zen, *Asociación de Mujeres por la Dignidad y la Vida, Las Dignas* (Duintasunaren eta Bizitzaren aldeko Emakumeen Elkarte, Duinak) delakoaren Partaidetza Politikoaren eta Tokiko Garpenerako Programaren autonomia prozesuaren ondotik. Laurogeita hamarreko hamarkadan programa horren helburu nagusia emakumeen tokiko erakundeak indartzea izan zen, euren autonomiaren eraikuntza sustatzeko asmoarekin, eta, halaber, erkidego eta udalerrietako tokiko garpenerako prozesuetan eragina eta protagonismoa izateko gaitasuna handitzeko; baina hiriburuko erakunde feminista arduratzen zen koordinazio-lanez, eta hori oztopoa zen tokiko erakundeen artean aliantza handiagoa eta autonomoagoa lortzeko.

Beharrezkoa zen, baita ere, emakumeen erakundeen eta udalerrietako zinegotzi emakumezkoen arteko aliantza pluralistak bultzatzea, eta emakumeen partaidetza politiko aktiboa sustatzea tokiko erabaki-hartze esparruetan, eta, bereziki, tokiko gobernuetan. Era berean, garrantzitsua da emakumeek organo legegilean eta hauteskunde-organoan duten eragina handitzea, emakumeen partaidetzaren aldeko mekanismoak onar daitezen.

Agendako puntu garrantzitsuetako bat izan zen, eta da oraindik ere, genero-politikak eta emakumeen aldeko ekintza positiboko planak egin eta aplikatzeko tokiko gobernuetan eragina izatea, aholkularitza eskaintzea eta baterako kudeaketa bultzatzea. Lurralde mailako lanaren garrantzia zela eta, programak berak pisu handiagoa hartu zuen eta lurralde osoan hedatu zen; horregatik, pixkanaka, “laneko ardatza” izateari utzi zion, eta proposamen zabalago eta osoagoa bihurtu zen.

Autonomia prozesua zehaztu zenean, programako kideek Tokiko Garpenerako Talde Feminista sortu zuten, eta helburu nagusi bat izan zuten gogoan: emakumeen mendekotasuna eta bereizkeria errotik kentzen laguntzea. Horretarako, oinarrizko ardatza jo zuten, batetik, emakumeen mugimendua eraikitzea subjektu politiko gisa, eta bestetik, partaidetza politiko sustatzea, betiere, emakumeen eguneroko errealitate zehatzak tokiko

testuinguruan kontuan hartuta, horien premiak, arazoak eta potentzialtasunak ahaztu gabe.

Egun, TGTFa (2010ean eratu zen legez elkarte gisa) hogeita hamar emakumek osatzen dute; euren burua feministatzat dute guztiek, eta bere egiten dituzte laurogeita hamarreko hamarkadan garatu ziren gaiak eta lehentasunak, lortutako esperientzia eta jakinduriaren haritik. Ildo horretatik, 2011-2015erako misioa hau da: *“...genero desberdintasunak agerian uztea, gizarte bidezkoa, solidarioa eta demokratikoa lortzeko, emakumeen autonomia eta eraldatzeko, antolatzeko nahiz politikan eragiteko abalmena indartuz, betiere, tokiko zein naziko lurralde-errealitateen arabera.”*².

Talde Feminista helburu jakin batekin sortu zen: erakundeekin eta erakundeen artean harreman berriak sortzea, ahaleginak eta baliabideak sakabanatzea eragozteko, eta alde batera uztea ordura arteko esku-hartzearen logika, non emakumeen erakundeak “onuradun” moduan eratzen baitziren, eta ez subjektu aktibo gisa, erabakitze gaitasun kritikoarekin. Ildo horretatik, talde feministak bere izaera “*mugiarazlea*” sustatzen jarraitzen du, besteekin batera egiteko nahia, adostasunak bilatuz eta plano horizontalean eraikiz.

2. Ingurunea, lan eta laguntza esparruak

Hasiera-hasieratik, Tokiko Garapenerako Talde Feministak bi antolamendu-instantzia zabalaren arteko aliantza politikoa nabarmen indartzen lagundu du. 1998an El Salvadorreko Zinegotzi, Sindiko eta Alkate emakumezkoen Elkarte Nazionalaren (ANDRYASAS) sorrera bultzatu zuen, eta, 2004an berriaz, Emakumeen Tokiko Elkartearen Batasun Nazionala (Emakumeen Batasuna), elkarteetako emakumeen artean loturak sortzeko helburuarekin, betiere, euren ingurune eta errealitateak kontuan hartuta, tokian tokikoak nahiz nazio mailakoak, eta era horretan eragin handiagoa izateko politika publikoetan eta aldaketa kulturaletan.

ANDRYASAS herrialdeko gremio-erakunde bakarra da, alderdi askorekin osatua eta bertara atxikitzea borondatezko ekintza da. Tokiko gobernue-tako kideak diren eta izan diren emakumeak osatzen dute erakundea. Ki-

² Tokiko Garapenerako Talde Feminista, Misioa, Plan Estrategikoa 2011-2015.

deen arteko desberdintasunek talde anitza egiten dute, alderdi, lurralde, belaunaldi eta egoera sozioekonomiko askotako emakumeek osatzen baitute. Emakumeen Batasuna emakume-erakundeen sare iraunkorra da, eta proposamenen truke nahiz eraikuntza kolektiboa sustatzen du. Egun, nazio mailako 42 erakundek baino gehiagok osatzen dute Emakumeen Batasuna, gehienak lurralde mailakoak, landa-ingurune nahiz hirikoak; baina Emakume Itsuen Elkarte ere Batasuneko kidea da, eta emakume itsuen arazo zehatzez arduratzen da.

Tokian-tokian, TGTFak laneko aliantza politikoa sustatzen du lurralde-elkarteekin, emakume-erakundeetako ordezkariak osatutako koordinazio-espazioekin, udal gobernuekin, gobernuko instantziekin, lankidetz-agenziekin eta ikastetxeekin, besteak beste. Elkarte horietako batzuk hauek dira: Suchitoto udalerriko Emakumeen Elkarte (Cuscatláneko departamentua), Ekialdeko Emakumeen Elkarte, Los Nonualcoseko Emakumeen Elkarte, Morazángo Emakumeen Elkarte.

Nazio mailan Talde Feminista “Prudencia Ayala” Elkarte Feministako kidea da; elkarte horren barruan daude GKE eta aktibista feministak, eta, bertatik, emakumeek politikan eragiteko prozesuak bultzatzen dira, emakumeen eskubideak aitortu eta bete daitezzen. Aipagarriak dira zenbait lege onartzeko elkarte horrek bultzatu dituen prozesuak, zehazki, *Berdintasun legea, zuzentasun legea eta emakumeen aurkako diskriminazioa desagerrarazteko legea, eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitza aske baten aldeko lege berezi integrala*³.

Erdialdeko Amerikan, TGTFak 10 urte daramatza hainbat erakunde feministen ahaleginak antolatzen, eta lehenetsi den espazioetako bat Kultura Patriarkala Eraldatzeko Amerika Erdialdeko Aliantza Feminista da, Nikaragua, Honduras, Guatemala eta El Salvadorreko erakundeekin osatua; horiekin guztiekin batera, TGTFak hainbat ahalegin egin ditu hezkuntzan, ikerketan eta emakumeen Amerika erdialdeko sareen sustapenean. Duela gutxitik hona, Giza Eskubideak Babesteko Erdialdeko Amerikako Ekimenaren Emakumeen Talde Bultzatzaileko kide ere bada (IM-DEFENSORAS); espazio horretan erantzun solidarioak ikertu eta sustatzen dira, Mexikon eta Amerika erdialdean giza eskubideak babesten dituzten emakumeen aurkako giza eskubideen urraketak geroz eta ugariagoak baitira.

³ Legebiltzarrak lege horiek onartu zituen 2011ko martxoaren 17an eta 2011ko azaroaren 25ean, hurrenez hurren.

Erdialdeko Amerikan, TGTFa hainbat mugimendu feminista antolatzeke ahaleginetan parte hartzen ari da, eta mugimendu horietatik nazioarteko instantzietan eragin nahi izan da. Lehenetsi den espazioetako bat Latinoamerika eta Karibeko Emakumea eta Habitat Sarea izan da; sare horretatik hainbat ekimen sortu dira espazio publikoak emakumeentzako leku seguru bihurtzeko. Horren harira, TGTFak “Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko hiriak, guztientzako hiri seguruak Eskualdeko Programa” bultzatu du El Salvadorren; aipatutako programako metodologiak aplikatu ditu San Salvadorren eta Suchitoton, eta hitzarmenak sinatu ditu tokiko, nazioko zein nazioarteko instantziekin.

TGTFak 2011-2015erako esparru edo ildo estrategikoak definitu ditu; garrantzitsuenak hauek dira:

- Elkartea indartzea eta emakumeen elkarreak zein elkarte feministak antolatzea, lidergoak eta kontzientzia feminista indartzeko; elkartze-prozesuak eta emakumeen erakundeen antolaketa sustatzea, euren eskubideak babesteko proposamenak bultzatzen.
- Sexu eta ugalketa eskubideak, herrialdean abortua despenalizatzeko ekintzak bultzatu eta bideratzeko, bai eta sexu eta ugalketa eskubideez baliatzeko ezagutzak sakontzea ere.
- Emakumeen aurkako indarkeria eta hiriko segurtasuna, emakumeen erakundeek indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea bere egin dezaten eta defenda dezaten, hiritarren segurtasunerako eta segurtasun publikorako politiken barruan.
- Munizipalismoa eta tokiko gobernagarritasun demokratikoa, herrialdeko udalerrien gutxienez erdietan emakumeek udalaren kudeaketan parte hartzeko duten eskubidea ziurtatuko duten genero berdintasuneko politikak instituzionalizatzen laguntzeko.
- Emakumeek politikan parte hartzea, udal-hauteskundeetan, hauteskunde legegileetan eta presidentetzarako hauteskundeetan, eta, horrenbestez, partaidetza politikoa, emakumeen presentzia eta kargu publikoak dituzten emakumeen genero-kontzientzia mailak handitzea.
- Ekonomia feminista, emakumeei autonomia ekonomikoa izaten lagunduko dien pentsamendu eta praktikak garatzeko, eta, ildo horretatik, diru-sarrera propioak izatea, produktuak ekoitzi eta merkaturatzea,

eta emakumeek bultzatutako ekimen ekonomikoak, norbanakoenak zein kolektiboak, iraunkorrek izatea.

Proposatutako ildo estrategikoak modu iraunkorrean garatu ahal izateko, TGTFak garatutako baliabideen kudeaketan aliantzak sortzea bultzatu da, besteekin elkarlanean egiteko printzipioari jarraiki, eta horrela ahaleginak batu eta eragin handiagoa lortzea.

Lurraldeetan garatzen diren esperientziek inbertsio ardaztua eta jarraitua behar dute, eta, horregatik, proiektuen bizitzak ez ditu definitu esku-hartzeen denborak; aitzitik, lana garatzen jarraitzeko, baliabideen kudeaketa etengabea da, emakume eta gizonen artean berdintasun eta zuzentasunean oinarritutako harremanak eraiki nahi dituzten eraldaketa-proposamenen barruan; eta, era berean, emakumeek euren eskubideak erabiltzea bermatuko duten politika publikoak ezartzea bilatzen da.

Aipagarria da Suchitoto udalerrian (Cuscatláneko departamentua) garatutako esperientzia: baliabideak eta ahaleginak modu ardaztuan bideratzen ditu garapenekeo estrategia oso batean, eta, gainera, estrategia horren baitan sartzen ditu emakumeen erakunde-sarea, tokiko gobernuko nahiz nazio-gobernuko instantziak, lankidetz-erakundeak eta lurraldean lan egiten duten GKE mistoak.

Era berean, TGTFak elkarriketa eta esperientzia-trukea bultzatu ditu GGKEkin izandako harremanetan, harreman politikoko esparru batean, eta esparru horretan elkarrekin ikasi eta hausnartzeko espazioak ezarri nahi dira, tokian bertan garatzen diren prozesuak ezagutzera eman eta hobeto ulertzeko alternatibak eztabaidatzeko espazioak, hain zuzen.

Talde Feministak, askotan aliantzak osatuz, lankidetz-baliabideak jaso ditu azken urteetan Belgika eta Suediatik; baliabide horiek kooperatiben arloan emakumeen ahalduentze ekonomikoko prozesua indartzeko, erakundeak indartzeko, eta legediaren berritzean eragina izateko erabili dira batik bat. Lankidetz-harreman horrek ia sei urte iraun du, eta horrek prozesu iraunkorragoak eta eragin handiagokoak garatzea ahalbidetzen du.

Euskal Herriko eta espainiar Estatuko beste erkidego batzuetako (Katalunia) instantzia publiko eta elkarteetatik ere jaso dira baliabide finantzarioak eta giza baliabideak, emakumeen eskubide ekonomikoekin lotura dutenak bereziki.

II. Antolatu zitezen nahi genuen... baina eurek diru-sarrerak eta proiektu produktiboak nahi zituzten

Emakumeen eskubideen sustapenaren eta ahalduntze ekonomikoaren esperientzia ez zen aurrez planifikatu, edo, behintzat, ez zen hori izan lehen helburua. Egiatan, lehenengo asmoa emakumeak antolatu eta kontzientziatzeko prozesuak bultzatzea zen, euren eskubideen defendatzaile bihurtzeko. Bidean, behin eta berriz, erakundeetako emakume liderrek azpimarratu zuten –eta oraindik ere azpimarratzen dute– ahalduntze pertsonal nahiz kolektiboko ahaleginak osatzea beharrezkoa eta garrantzitsua dela, eta horretarako alternatibak bilatu behar zaizkiola egoera ekonomikoari, askotan larria baita.

Tokiko Garapenerako Talde Feministak emakumeen autonomia ekonomikoa eta ahalduntzea lortu nahi duten emakumeentzako diru-sarrerak sortzeko estrategiak bultzatu ditu. Bost urte baino gehiago daramatza ekimen ekonomiko kolektiboei laguntzen, batez ere artikulu erabilgarri nahiz apaingarrien artisau-ekoizpena bultzatzen, eta baita beste arlo askotako ekimenak bultzatzen ere, hala nola hauekin zerikusia dutenak: higieena, medikuntza, jantzigintza eta masajea zein garbitegiko hainbat zerbitzuren salmenta. Eta, gainera, bi aurrezki- eta kreditu-kooperatiba sortzen lagundu du, artisau-ekoizpena eta merkaturatzea bultzatu ditu, eta nekazaritza eta abeltzaintzako proiektuak babestu ditu.

Arlo horretako ikerketan ere egin du ekarpena, eta emakumeek ekoitzi eta merkaturatzeko egiten duten lana agerian jarri du. Era berean, izatera publikoko jarduerak egin ditu kontsumo era solidarioagoa ezagutzera eman eta sustatzeko, eta merkaturatzearen bidez produktuak ezagutzera emateko; eta, gainera, Estatuko instituzioei eskatu die ekoizleak babesteko politikak bultzatzeko.

Esparru horretan, aipagarria da El Salvadorreko Emakumeen Tokiko Erakundearen Batasunarekin batera egindako lana; lehen aipatutako moduan, nazio mailako erakundea da, eta bere ardatz estrategikoen artean dago emakumeentzako autonomia ekonomikoa sortzea, euren ekimen ekonomikoei laguntza antolatua emanez, eta hori da, hain zuzen ere, Merkaturatze-sareak egiten duena. Sare horren eginkizunak etengabeko prestakuntza, kalitatea kontrolatzea, merkaturatzea eta eskubide ekonomikoen politikan eragitea dira.

1. Emakumeen Batasuneko Merkaturatze Sarea

Egun, Emakumeen Batasuna osatzen duten emakumeen 42 elkarteetatik, gutxienez 22 elkartek era askotako jarduera ekonomikoak garatzen dituzte, eurentzako eta euren familientzako diru-sarrerak izateko. Mikroenpresa horiek guztiak kolektiboak dira, landa-eremuko zein hiriko emakumeekin osatuak; gehienak hezkuntza maila baxua dute, eta baliabide ekonomiko nahiz ondasun urriak dituzte. Emakumeen ekimen txiki horiek indartzeko zailtasun gehien dituen arloetako bat merkaturatzea da.

Testuinguru horretan sortu zen Merkaturatze-sarea, ekimenen lan antolatua sustatzen duen espazioa hain zuzen; eta bere helburua da enpresa horiek teknikoki nahiz administratiboki indartzea, eta kudeatzeko gaitasun handiagoa ematea, bai eta baterako sustapena eta merkaturatzea bultzatzea ere. Sarea, gainera, gobernu zentralean eta tokiko gobernuetan eragiteko tresna gisa ikusten dute emakumeek, emakumeen, eta euren ekoizpen- eta merkaturatze-jardueren alde egingo duten politika ekonomikoak sortu eta baliabide publikoak esleitzeko. Arlo ekonomikoan proposamenak eraikitzekeo prozesu horretan, taldeetako zenbait emakumeen lidergoa indartzen da.

Merkaturatze-sareak (legez kooperatiba bihurtua 2007an) izaera nazionala du, eta helburu nagusia da emakumeen partaidetza aktiboa, bidezkoa eta solidarioa sustatzea El Salvadorreko tokiko garapen ekonomikoan, eta, era horretan, genero arrazoiengatik emakumeak baztertzeko dituzten botere-harreman bidegabeak eraldatzea.

Berariazko helburu hauek proposatu dira:

- Tokiko eta nazioko politikan eragitea, emakumeek laneko eskubide nahiz eskubide ekonomiko guztiak izan ditzaten.
- Era askotako artisauro- produktuak egiteko ekoizpen-prozesuak indartzea, eta, era horretan, tokiko kultura berreskuratzea, kalitate handiko produktuak eginez; eta, ondoren, produktu horiek tokiko, nazioko zein nazioarteko merkatuetara eramatea, bezeroari zerbitzu egokia emanez.
- Trebetasun eta gaitasun teknikoak, administrazioarekin eta kudeaketarekin lotura dutenak, garatzea, emakumeek izan daitezkeen euren ekimen ekonomikoen benetako jabe eta protagonistak.

- Ekimenen bidez lortutako diru-sarreraren banaketa sustatzea, alegia, emakume ekoizleei, saltzaileei eta emakumeen elkarteei irabaziak helaraztea, eta, era horretan, sarearen autoiraunkortasuna ahalbidetzea.
- Baterako lana sustatzea, bai eta taldeen arteko ezagutza-trukea, erantzukizun bateratua, bidezko merkataritza eta emakumeen arteko solidaritatea ere.

Testuinguru horretan, TGTFak ekimenak indartzeko ekintzak sustatu, babestu eta bultzatu ditu Merkaturatze-sarearen bidez; eta gauza bera egin du artisau-ekoizpeneko nekazaritza eta abeltzaintzako proiektuekin, Cuscatlángo Suchitoto udalerriko Emakumeen Elkartearekin, hain justu. Beste elkarte batzuekin batera, geure egin dugu emakumeen ekimen ekonomikoak indartzeko erronka, hala nola ekimen kolektiboak; horretarako, ekonomia solidarioa sustatu dugu, eta, aldi berean, emakumeen eskubiak aintzatetsi ditugu, betiere, ikuspegi feminista batekin.

Urte hauetan guztietan izandako esperientziek nahikoa panorama zaila erakusten dute: prozesu horiek arrakastatsuak izatea erronka da, emakume antolatuek oso egoera zailtan ekoizten eta merkaturatzen baitituzte euren produktuak. Egungo testuinguru sozioekonomikoan, desabantailak oso handiak dira, izan ere, estandar neoliberalak eta merkataritza askeko itunak dira nagusi, eta emakume horien lanaren ezaugarri nagusiak, berriz, inbertsio eskasia, ekimenen produktibitate eskasa eta euren produktuak merkaturatzeko instituzioen laguntza urria dira.

Aipagarria da, baita ere, ekimen ekonomiko horietako bakoitzean parte hartzen duen emakume kopurua oso txikia dela, ia guztiek izaera esperimentalak diren gainera, eta ez da erraza esperientzia errepikatzea. Lurralde-banaketak baditu indarguneak, baina baita eragozpenak ere produkzio-kateetan antolatzeke eta merkatuetara iristeko.

Talde feministak *Emakumeen ekimen ekonomikoak sustatu eta babesteko emakume-mugimenduaren estrategiak* izeneko azterlana egin zuen 2008an, eta, bertan, hainbat erakunde feministak azken hamarkadan herrialdean hasitako estrategiak aztertzen dira. Ekimen horien garapenak maila ekonomikoan izan duen eraginaren berri ematen du aipatutako ikerketak, bai eta zer baldintzatan garatu diren eta zer estrategia erabili diren ere. Esperientziatik eratorritako zenbait alderdi irakaspen garrantzitsuak dira, eta horietako batzuek lotura dute emakumeen lan-baldintzekin, ekoizten dituzten produktu motekin, produktuak merkaturatzen diren testuinguruarekin, irabazien banaketarekin eta ekimen kolektibo horien izaerarekin.

Esperientzia horretatik aipagarria da emakumeek euren produktuak ekoizten dituzten egoeraren ezaugarri nagusiak honako hauek direla: oinarriko ekipamenduan eta lehengaietan inbertitzeko ekonomia eskasia, ikasketa mailarekin lotura duten zailtasunak, kalitate gutxiagoko produktu merkeekin betetako merkatua, eta ekoitzi ahal izateko denboraren mugak, izan ere, emakumeek etxeko lanak egin eta euren familiak zaindu behar dituzte, batez ere etxeko lanen banaketa negoziatzeko ahalduntze mailarik lortu ez dutenean.

Emakumeen eskubide ekonomikoak betetzea lortzeko alternatibak aintzatetsi eta bilatu nahi dituzten laguntza-estrategien bidez, era askotako prestakuntza jasotzen dute: euren eskubideak ezagutzen dituzte, laguntza teknikoa jasotzen dute, merkatura modu bateratuan heltzeko modua erakusten zaie, trebakuntza teknikoa jasotzen dute, eta administrazio tekniko nahiz finantzarioan trebatzen dira, besteak beste. Askotan, gaitasun teknikoei lotutako zailtasun horiek izan dira, baita ere, emakumeen aldeko mugimendu hori indartzeko lan egiten duten GKEen ezaugarrietako bat, eta, alde horretatik, oraindik ahaleginak egin behar dira teknifikatzeko eta espezializatzeko.

Edonola ere, aurkako baldintzak gorabehera, beharrezkoa da emakumeentzako baliabideak sortzen dituzten jarduera ekonomikoak bultzatzen jarraitzea, gehiengoa pobrezia egoeran bizi delako, eta beharrezkoa delako euren ahalduntzea eta autonomia sustatzea. Esparru horretan, oso garrantzitsua da emakumeek bizi duten pobrezia egoeraren azterketa politizatzea, harreman- eta egitura-izaerari buruzko hausnarketak sakonduz, pertsona zaugarri eta behartsu gisa ikusarazten dituzten ikuspegiak gainditzeko.

Emakume mugimenduak azken hamarkadan sustatu dituen proiektu gehienak gatazka armatuaren ondorengo birgizarteratzea lortzeko ekimenak izan dira, bai eta kreditu-poltsak sortzeko ekimenak ere, non garrantzitsuenak emakumeen espazioen antolamendua indartzea baitzen, eta, era berean, ekimenak iraunkorrak izatea lortzea.

Ekoizpen-proiektuez gain, baliabideak sortzeko jarduerak sustatu dira, lanbide tradizionalak oinarri hartuta; horretarako, mikro-kredituak baliatu dira, eta, neurri txikiago batean, prestakuntza-prozesuak eta emakumeen artean ezohikoak diren enpresa txikiak bultzatu dira, hala nola mekanika automotrizza edo zurgintza.

Ekonomia solidarioaren printzipioak onartzeak abantaila asko dakartza: ekoizpenean egindako lanari balioa ematea, garaian ordaintzea eta emakumeentzako diru-sarrerak. Baldintza horietan, produktuek prezio handiagoa dute merkatuan, eta hori desabantaila da, produktu merkeagoekin lehiatu behar baitute, eskala handiagoetan ekoiztutako produktuen aurka hain zuzen, nahiz eta azken horiek kalitate txikiagoa izan. Horregatik, merkatu alternatiboak bilatzea lehentasuna da. Estatuak ez du laguntza nahikoa ematen diru-sarrerak sortzeko ekimenentzat, eta, batez ere, ez du produktuen kontsumo solidarioa sustatzen, eta tokiko ekoizpenari ez zaio baliorik ematen. Hori dela eta, nekazaritzako elikagaien merkatuak eta baterako merkaturatze-saltokiak indarra hartzen ari dira emakumeen erakundeek bultzatutako alternatiben artean.

2. Lankidetzak, eta lankidetzak emakumeen eskubide ekonomikoak bete daitezen ematen duen laguntza

Esperientzian oinarrituta, egun, GGKEek garrantzi handia ematen diote emakumeen eskubide ekonomikoak betetzea lortu nahi duten proiektuak iraunkorrek eta errentagarriak izateari, eta, abiapuntu gisa, diagnostikoak eta egingarritasun-faktoreak izatea, eta, baita ere, aurreikusitako ekintzek ingurumenean izango duten eragina neurtzeko adierazleak izatea. Eta, beraz, eskakizunak handiagoak dira ekoizteko antolatu nahi duten emakumeentzat. Merkaturatzea eta merkaturako sarbidea izatea erronka da oraindik ere egungo egoeran.

Askotan, ekonomia solidarioak merkatuko balioei buruz duen ikuspegiari aurka egiten zaio ikuspegi feministatik, baita ekimen ekonomikoak bultzatzen dituzten GKEetatik ere, izan ere, tentsioa dago batak eta besteak sustatzen dituzten balioen artean: alde batetik, ekintzailtza, arrakasta, enpresagintza, lehiakortasuna, eta abar; eta, bestetik, antolaketaren garrantzia, baterako lana, solidaritatea, justizia.

Alde horretatik, bai GGKEek eta baita GKEek ere, uste dute beharrezkoa dela gizarteak balioestea emakumeek ekonomia nazionalari eta familia-ekonomiari egiten dioten ekarpena. Etxeko lanak eta familiaren zaintza lan-karga handia dira emakumeentzat, eta, horrenbestez, denbora eta energia gutxiago dute beste alternatiba batzuk sortzeko, edo emakumeen osasunaren kaltetan izaten da.

Gauza batean ados daude guztiak: ekimenek iraunkorrek izan behar dute, hala kolektiboek nola banakakoek. Baina ezin da alde batera utzi ekoizti ahal

izateko emakumeen antolatzeke modua, eta, askotan, merkatuan arrakasta izateke faktoreek talka egiten dute emakumeen antolatzeke moduarekin eta euren itzaropenekin; eta, era berean, ezin da ahaztu, egun, eskualdean oso kezagarria den faktore bat: delinkuentzia maila altua.

Ekimen ekonomikoak bultzatzen jarraitzen duen GKE eta tokiko emakumeen erakundeek geroz eta kontzienteago dira ezin dela negozio-aukera bat babestu egingarritasun eta iraunkortasun aukerak identifikatu gabe, emakumeen inguruneke baldintzak aztertu gabe. Adostasuna geroz eta handiago da beste gai baten inguruan ere: beharrezkoa da tokiko garapen ekonomikeko prozesuetatik ikasbideak sortzea, horiek are gehiago zabaltzea maila kontzeptualean, eta esperientzia arrakastatsuek bultzatzea.

Eta, horrenbestez, GGKEek bultzatzen dituzten enpresa-alderdi arrakastatsuek talka egiten dute ekonomia solidarioaren printzipioekin. Era berean, laguntzak lehenetasuna ematen die lurraldeak lehenesteko edo pobrezia maila handienak kokatzeko politika ofizialei, eta, askotan, GKEek ez dute ikuspegi hori partekatzen.

Ildo horretatik, GKEek eta GGKEek tentsioak dituzte:

- Laguntza, ekimen kolektiboentzat edo norbanakoen ekimenentzat?
- Ekimenen arrakastak baino pisu handiagoa al du emakumeen antolamenduak?
- Nola lehiatu ingurune neoliberal batean ekonomia solidarioaren printzipioekin?
- Nola sustatu kontsumo solidarioa Merkataritza Askeko Itunen testuinguru batean, eta kalitate-estandar baxuko produktuen merkatuetan?
- Zer egin daiteke emakumeen ekimen ekonomikeak iraunkorrak izan daitezen, emakumeentzako baldintza mesedegarriak sortzeko Estatua-ren laguntzarik gabe?
- Nola sor daitezke emakumeek teknologia erabili ahal izateke baldintzak?
- Nola arindu daiteke emakumeen etxeko karga, aukera izan dezaten alfabetatzeko, antolatzeke, eta abar?
- Nola hobetu daitezke kontuak emateke mekanismoak eta gardentasuna, emakume ekoizleen talde barruan?

Orain arte, merkaturatzearen balorazio ekonomikoa lehenetsi da ekoizpe-naren kaltetan, eta, horregatik, beharrezkoa da merkaturatzeko alternatibak bilatzea, ekoizpen-alternatibak ahulak bihurtu eta giza kostuak nahiz materialaren kostuak gutxien dituzten faktoreak gutxitzeko.

TGTFen lehentasunetako bat da, besteak beste, hurrengo urteetan merkaturatze-alternatibak bilatzea –Merkaturatze-sarea bezala–, emakumeen ekimen ekonomikoak babestu eta bultzatzeko, eta prozesuak iraunkorrak izateko, betiere, ikuspegi feministatik. Horrez gain, Estatuako instantzietan eskatzen jarraituko da emakumeen eskaerak tokiko nahiz nazioko garapen ekonomikoko programetan sar ditzatela.

Era berean, emakumeen elikadura-segurtasuna eta burujabetasuna lortzeko estrategiak bultzatuko dira, ezinbesteko ardatza baitira euren eskubide ekonomiko, politiko, kultural eta sozialez baliatzeko. Etxean eta familia zaintzen egiten duten lana ere bistaratu nahi da, tokiko zein nazioko ekonomiarako ekarpen gisa balioetsia eta aintzatetsia izan dadin.

Lankidetzaharremana bilatzen dugu, non lehentasunak eta aukerak adostasunetik jaioko baitira, tokian tokiko esperientzia zehatzetatik eta objektu komunaren identifikaziotik. Edonola ere, ezin dugu ahaztu lankidetzaren inguruan nazioarteko akordioak daudela, eta akordio horiek eragin zuzena dutela emakumeen ekimen ekonomikoak garatzeko moduan, lehentasunetan eta estandarretan.

III. Nolako garapen-ereduaz ari gara?

Emakumeen eskubide ekonomikoei buruz pentsatu eta horien alde jarduteko, ezinbestekoa da garapen-ereduen proposamenei begiratzea, izan ere, horien paradigmatik orientabide gisa erabiltzen dira nazioarteko zein nazioko politketan, lankidetzaprogrametan, gizarte harremanetan, eta a priori emakume eta gizonentzat egokitzen jotzen den paperean.

1. “Hazkunde ekonomikora” bideratutako lankidetzapolitikak

Feministentzat, eta justizia sozialaren alde lan egiten duten beste talde batzuentzat, kezkarria da iparraldeko herrialdeetako lankidetzagentziek zenbait kontzeptu berreskuratu izana azken urteetan, eta, ondorioz, hazkunde ekonomikoa garapen sozialarekin identifikatzea berriro ere. Esate baterako, *Hazkunde integratzailea eta garapen iraunkorra babesteko*

EBren garapen-politika. EBren garapen-politikaren eragina hobetzea (2010) izeneko liburu berdea. Bi aldiz bakarrik aipatzen da “desberdintasuna” hitza liburu horretan, eta “diru-sarreraren birbanatzea” berriz, ez da aipatu ere egiten dokumentu osoan. Era berean, kohesio sozialaz hitz egitean, era honetako kontzeptuak erabiltzen dira: inbertsio iraunkorrak, kapitala, kreditua, esparru finantzario erregulatuzailea; horiek guztiek ez dute garrantzitsuak ematen desberdintasunaren aurkako borrokan.

El Salvadorren, eta Hego Amerika osoan, aberastasuna populazioaren segmentu txikien esku dago, eta herritarren portzentaje handi bat pobrezia egoeran bizi da: horixe da herritarrek bizi duten harreman bidegabeen adierazpen garbientako bat, eta bistakoa da EBko politika horrek nekez lagunduko duela desberdintasun horiek sortzen dituzten arrazoiak eraldatzen.

Horregatik ez da harritzekoa Latinoamerikaren garapenerako EBren lankidetzaprograma garrantzitsuenetako bat *Latinoamerikan inbertitzeko erraztasunak* izeneko izatea (LAIF, ingelesezko siglak); ofizialki Madrilgo goi-bileran ezagutarazi zen (2010eko maiatza), eta azpiegituren garapenari lotutako sektorea lehenesten du (energia, garraioa eta ingurumena), non EBk interes ekonomiko eta estrategiko garrantzitsuak baititu. Funts horiek eragile europarrei emango zaizkie, eta horiek kide bat bilatu beharko dute inbertsioa egingo den Latinoamerikako herrialdean; kide hori izango da, hain zuzen, inbertsioaren kopuru handi bat jarriko duena. Bistakoa da ekoizle emakumeen erakundeak ez direla bihurtuko era horretako programen kideak.

Politika horrek argi erakusten du geroz eta garrantzi handiagoa ematen zaiola sektore pribatuari garapenerako eragile gisa, uste baita sektore pribatua sustatuz lortuko dela hazkunde ekonomikoa. Aliantza publiko pribatuak dira joera horren adierazpenetako bat: funts publikoak erabiltzen dira pobreziaaren aurka borroka egiteko, eta, era horretan, enpresa-garapenerako espazio egokiak sortzeko, baina ez herrialde hartzailearenak bakarrik, baita emailearenak ere; horrenbestez, garapenerako ekimen pribatuak sustatzen dituzten enpresa horiek ezartzen dira Latinoamerikako herrialdeetan.

Testuinguru horretan, garrantzitsua da arkitektura berria deiturikoa aztertzea, Parisko Adierazpenaz (2005) geroztik garatzen ari den laguntza eraginkorra izan dadin; 2008an Accrako Ekintza Agendan aztertu zen gaia, eta 2011an Busanen egin zen Goi Mailako 4. Foroa. Hasiara-hasieratik definizio

gisa erabili ziren bi kontzeptuek argi erakutsi zuten zer ikuspegi eman nahi zitzaion. Alde batetik “laguntza” kontzeptua erabili zen, baina alde batera utzi zen “garatzeko eskubidea”; horren harira, herrialde aberatsen erantzukizuna da merkataritza-trukeko arau bidegabenez baliatuz bereganatu dituzten baliabideak birbanatzea, alegia, herrialde pobreei itzultzea, bere garaian euren baliabide naturalez eta nekazaritzako produktuez jabetzeagatik, hasieran, menderatze kolonialaren bidez, eta gero, bidegabeko merkataritza-harremanen bidez; horren guztiaren adierazpena dira Merkataritza Askeko Itunak, zeintzuk Estatu Batuetan nahiz Europar Batasunean inposatu baitira. Erakunde sozialek egindako presioari esker, Busanen “laguntza” kontzeptua baztertu da, eta Aliantza orokor bat definitu da, garapenerako lankidetzaren eraginkor baten alde. “Laguntza eraginkorra” erabili ordez “garapen eraginkorrerako lankidetzaren” erabiltzea izan da Busanen lortutako aurrerapauso txikiaren bat, baina, hala ere, ez zen konpromiso zehatzik hartu hori gauzatzea lortzeko.

Eta, gainera, horri gehitu behar zaio kezka nagusia dela “laguntza” hori, edo orain “garapenerako lankidetzaren”, “eraginkorra” izatea. “Eraginkorra” izatea lortzeko kontuan hartzen diren irizpideak aztertuz gero, ikus dezakegu eskualdatutako baliabideen kudeaketari buruzko irizpide teknikoak direla funtsean, eta horien helburua dela herrialde hartzailearen gaitasuna indartzea, kontrol-mekanismoak sendotzea eta baliabideak herrialde hartzaileak definitutako lehentasunetarako erabiltzea.

Zalantzarik gabe, irizpide horiek garrantzitsuak dira Estatu indartzeko eta baliabideen erabilera gardena izan dadin, eta baita ere lehentasunak herrialde hartzaileak defini ditzan. Nolanahi ere, ezinbestekoa da zenbait alderdi aztertzea: hasteko, gobernuak da azken batean “laguntza” jasoko duten lehentasunak zein diren erabakitzen duena, eta erakunde sozialek oso eragin eskasa dute lehentasun horien definizioan, izan ere, ez da adierazle garbirik aurreikusi gizartearen prozesu horretan duen benetako partaidetza neurtzeko.

Kontuan hartu beharreko beste alderdietako bat da, “laguntzaren eraginkortasunari” buruzko jarraipena egitean, ez direla neurtzen pobrezia eta bazterte sozioekonomikoko indizeak gutxitzeko gauzatu diren benetako eraldaketak; era berean, ez dira kontuan hartzen laguntza jasotzen duen herrialdean dauden genero-desberdintasunen arrakalak, aitzitik, laguntza hori exekutatzeko modu “eraginkorra” hartzen da kontuan; horixe da hain zuzen *Laguntzaren Eraginkortasunari buruzko Txostena 2005-2010: Paris*

Adierazpenaren ezarpenean egindako aurrerapenak izeneko txostenak aztertzen duena (ELGA, 2011ko irailak 22). Txosten horretan erabili diren adierazleen bidez, alderdi hauek lortu diren egiaztatu nahi da: “Herrialdeek garapen-estrategia eraginkorrak dituzte”, “kudeaketa publikoko sistema nazionala fidagarria da”, “laguntza-fluxuek bat egiten dute lehentasun nazionalekin” edo “herrialdeko finantza publikoak kudeatzeko sistemen erabilera”; guztiak dira gai garrantzitsuak, baina beren kabuz ez dute aurrerapen zehatzik ziurtatzen herritarren eskubideen aintzatespenean, eta are gutxiago emakumeenean.

2011ko abenduan, Busanen egin zen Laguntzaren Eraginkortasunari buruzko Goi Mailako 4. foroak ez du aurrerapen handirik ekarri emakumeen agendan. Estatu Batuen eta Hegoaldeko Korearen ekimenez, Hilary Clintonek Genero berdintasunari eta Garapenari buruzko Ekintza Plana aurkeztu zuen inaugurazio saioan; plan horren helburua zen emakume gehiagok lan-merkatuan sarbidea izatea, baina ez zuen bermatzen sarrera hori eskubideen esparruan egitea, emakumeen benetako ahalduntze ekonomikoa bideratuz. WIDE Network eta BetterAid-eko Kasia Staszewskaren hitzetan *“Emakumeen abalduntzea hazkunderako motor gisa erabiltzea baino askoz gehiago da. Dokumentu honek ez ditu emakumeen eskubideak aintzatesten”*. Ikuspegiaren ildotik, horrek Garapenean Generoaren (GG) ikuspegia bultzatzeko ahaleginen ahultzea ekar dezake, eta kontzeptualki zein politikoki gainditua dagoen Emakumeak Garapenean (EG) ikuspegia berriz, indartuta atera daiteke. Azken urteetan zehar, eta bereziki Emakumeari buruzko IV. Mundu Konferentziaz geroztik (Beijing, 1995), garapenerako lankidetzaren agentziek eta hainbat GGKEk bere egin dute generoaren ikuspegia garapenean, euren lanaren lehentasun edo zeharkako ardatz gisa, eta nahiz eta modu mugatua izan, erakunde feministek emakumeen eskubide ekonomikoak lortzeko egiten ari garen lanean baliabideak bideratzea ahalbidetu du. Horregatik, Busango azken adierazpenak atzerakada garrantzitsua ekar dezake emakumeen eskubideen aintzatespenean.

Testuinguru horretan, garapen-ereduari buruzko eztabaidak disolbatzeko joera du, hazkunde ekonomikoak eta “laguntzaren kudeaketa eraginkorrak” garapen ekonomikoa eta soziala bermatuko dutela uste baita, pobrezia, bazterkeria eta desberdintasunak gutxituz eta kohesio soziala nahiz gobernantza sustatuz. Aberastasunaren banaketa bidegabearen azterketa baztertu egiten da, eta, beraz, ez dirudi beharrezkoa denik bidegabekeria hori eragiten duten arrazoiak eraldatzen laguntzea. Pobreziaren feminizazioa eragin duten arrazoen inguruko hausnarketak are urrutiago daude;

fenomeno horrek eredu ekonomiko baztertzailen ondorioak genero harremanetan oinarritutako desberdintasunekin lotzen ditu.

Testuinguru horretan, pertsona guztien, eta bereziki emakumeen, eskubide ekonomikoen aldeko lana ez da lehentasuna garapenerako laguntzarentzat. Lehen esan den moduan, merkatuko ekonomiak gidatutako garapen-ereduaren alde egiten da, non sektore pobretuek merkatu ireki eta ez-arautuan lehiakorak diren ekimen ekonomikoak sustatu behar baitituzte; merkatu horiek Estatu Batuetatik edo Europar Batasunetik datozen nekazaritzako produktuekin beteta daude, diruz lagunduak gainera, edo bestela Txina zein Asiako beste ekonomia batzuetako industria-produktuekin. Herrialde horietan ekoizpen bolumena oso handia da, eta ezin da prezioekin lehiatu. Arropa eta erabilitako beste hainbat produktu ere sartzen dira era horretako merkatuan, kontsumismo handiko herrialdeek baztertu egiten baitituzte, eta, beraz, pobretutako herrialdeetako merkatuetan sartzen dira prezio baxuan.

Ekonomia globalizatu horretan, gobernu nazionalak Merkataritza Askeko Itunei lotuta daude, Merkataritzako Mundu Erakundearen arauen menpe, eta, ondorioz, arazoak dituzte tokiko ekonomiei laguntzeko politikak aplikatzerako garaian, eta, era berean, emakumeen ahalduntze ekonomikoa bultzatzeko erakunde feministen estrategiek oztopo eta zailtasun ugariarekin topo egiten dute. Ohiko alternatibekin saiakerak egin dira: mikro-kredituak, ekimen txikiak, kreditu- eta merkataritza-kooperatibak, artisau-garapena, produktu naturalen ekoizpena, eta abar. Ekimen horiek izan dituzten arrakasta zehatz batzuez haratago, nahikoa garbi dago hazkuntza ekonomikoan bakarrik oinarritutako garapen-ereduaren esparruan, proposamen horiek esperientzia pilotuak izango direla, eta esperientzia horiek ikasteko balioko dutela, baina oso zaila izango da horiek orokortzea, ingurune ekonomiko eta soziala aldatzen ez bada behintzat.

Horregatik, garapenerako laguntzaren helburuak ezin du izan emakumeen pobrezia gutxitzen laguntzea, ez baditu, aldi berean, erakunde feministak eta emakumeen erakundeak babesten tokiko zein nazioko garapenerako estrategia eta politika publikoen onarpen eta ezarpenean eragiteko jardueretan. Aipatu estrategia eta politikek ekoizpen-prozesu endogenoak sustatu beharko lituzkete, eta tokiko zein nazioko gobernuak erraztasunak eman beharko lituzkete produktu horiek prozesatu, garraiatu eta merkaturatzeko; horrez gain, produktuen kontsumoa sustatu beharko litzateke herritarren artean, kontratazio publikoko sektoreetan produktu horiek lehenetsi

beharko lirateke, giza kapitala sortzeko prestakuntza, ikerketa eta aholkularitza teknologikoko programak garatu beharko lirateke, ekimen ekonomiko txiki eta ertainetan inbertitzeko finantzazio-erakundeak eta bermeak ezarri beharko lirateke, eta asoziazionismoa zein antolamendua bultzatu beharko lirateke produktuak ekoitzi, prozesatu eta merkaturatzeko.

2.Aukera bila

Latinoamerikan eta munduko beste hainbat tokitan izandako esperientzia batzuek zalantzan jartzen dute merkatuak menderatutako garapen-eredua, zeinak eremu desberdinetatik aukerak eraikitzen joatea bultzatzen baitu. Emakumeen mugimenduak eta mugimendu feministak uste dugu beharrezkoa dela esperientziak gehiago ezagutzea, eta ikustea, esperientzia horietan, emakumeen ahalduntze ekonomikoa lortzeko irakasgai erabilgarriak badagoen. Esperientzia horietako batzuk aipatuko ditugu labur:

- Elikadura-burujabetasuna. Nekazarien bidea delakoak herriek euren politika ekologiko eta iraunkor propioak definitzeko duten eskubidea defendatzen du, elikagaien ekoizpen, banaketa eta kontsumoari dagokienean, eta, era horretan, elikadura elikagarria, ziorra eta kultura zein ingurumenarekiko errespetuzkoa lortzeko. Era berean, nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpena, tokikoa zein nazionala, eta tokiko merkatua babesteko eskubidea erreklamatzeko du, eta soberakinak tokiko populazioaren beharrak bermatuta izatean bakarrik merkaturatzea. Emakumeek bertako material genetikoak eta elikadura tradizionala zaintzen dute, euren papera oso garrantzitsua da; eta, gainera, ezinbestekoa da ekoizpen-prozesuei egindako ekarpena eta ekoizle gisa duten balioa aintzatestea.
- Ekofeminismoa. Ekialdeko modernotasuna eta ekonomia ortodoxoa sostengatzen duten imajinarioa salatzen du, zeinak natura eta emakumeak ikusezin bihurtu eta esplotatzen baititu.
- Garapenaren ostekoa. Planeta mugatu batean hazkunde mugagabea ezinezkotzat jotzen du, eta, horregatik, garapen eta hazkunde mugagabeko errezeta unibertsalen aurrean, tokian tokiko egoerara egokitu-tako eredu kulturalak defenditzen ditu. Proposamen horrek ekonomia klasikoaren arrazionaltasuna zalantzan jartzen du, eta, era berean, ekonomia feministak agente ekonomikoen ordezkagarritasuna kritikatu du; Julie Nelsonen (Espino, 2010) hitzetan, “homo economicus ez da emakumearen deskribapen egokia, baina ezta gizonarena ere”.

- Bizimodu ona (Sumak Kawsay). Andeetako indigenen mundu-ikuskeraren defendatzen du: mendebaldeko kulturak berezkoak dituen produktibitatearen eta ezin iraunezko ingurumenaren aurka, izaki bizidunen eta naturaren arteko lotura sustatzen dute, errespetu eta harmoniazko harremanean, izaera kosmikoko bizi multzoa baita. Ekuador eta Peru herrialdeek euren Konstituzioan sartu dute, eta beraz, naturak (Pachamama) eskubide propioak ditu.

Eta, gainera, herrialde latinoamerikarrek hainbat urte daramatzate euren garapen ekonomikoko ereduetan zenbait aldaketa egin nahian, eta, horretarako, baliabide naturalak nazionalizatzen ari dira (petrolio, gasa, mineralak), Estatuak diru-sarrerak izan ditzan irabaziak birbanatzeko gizarte zerbitzuetara, eta baita baliabideak sektore pobretuetara bideratzeko programak ere; era horretan, pobreziaren zirkulua hausten laguntzen da, haurren hezkuntza eta osasuna hobea izan dadin, eta, gainera, barne eskaera dinamizatzen da kontsumoaren bidez.

Era berean, azken hamarkadan, harreman ekonomikoak eta lankidetzaharremanak eraikitzeke hainbat ekimen sortu dira Hego Amerikako eskualdeetan; ekimen horien helburua da herrialdeek autonomia handiagoa izatea eta produktuen trukea bidezkoa izatea (MERCOSUR, UNASUR, Comunidad Andina de Naciones –Andeetako Nazioen Erkidegoa–, ALBA, PETROCARIBE). Ekimen horien muga eta zailtasunetatik haratago, garrantzitsua da kontuan hartzea eraldatu, sendotu edo desagertuko direnak, agertoki ekonomiko berriak baitira, baina dagoeneko badute nolabaiteko eragina gure herrialdeetako ekonomian.

3. Zaintzaren ekonomiaren globalizazioa

Emakumeen ahalduntze ekonomikoa sustatzeko alternatibak aztertzean, kontuan hartu behar da, baita ere, azken faktore bat: zaintzaren ekonomia nazioz haraindi hedatzea. El Salvadorren eta Erdialdeko Amerikako herrialde gehienetan, diru-sarrera handiagoko herrialdeetara joatea bihurtu da pobreziaren aurka borroka egiteko estrategia, eta herritar asko eta asko ari dira erabaki hori hartzen. Milioika pertsonaren migrazio ez arautua, batez ere AEB, Kanada eta Europara, bihurtu da herrialde askoren ordainketa-balantzari eusten dion oinarri ekonomikoa, eta, horri eskerrak, pobrezia-indizeak zertxobait jaisten ari dira.

Fenomeno horrek arrisku handiak ditu migratzen duten pertsonentzat, deserrotzea eta familiarik banantzea baitakar; eta, gainera, emakume migratzaile

gehienak harrerako herrira heltzean, etxeko-lanak edo garbiketa-lanak egiten dituzte, haurrak, zaharrak edo ezintasunen bat dutenak zaintzen dituzte, eta emakumeek enpresaren batean lan egiten badute, gehienetan zerbitzu, garbiketa edo ostalaritza arloko enpresak izaten dira. Eskubide eta babes sozialik gabeko eskulan merke horrek jatorriko herrian zituzten paper eta lan-egoera berberak sortzen ditu harrerako herrian.

Eta, gainera, harrerako herrialdean legezko estatusa lortzen ez den bitartean, ezin du familia berriro elkartu, seme-alabak, pertsona helduak eta zaharrak berarekin eramanez. Hori dela-eta, beste emakume batzuk, izan amonak, izebak, arrebak edo alaba nagusiak, gainerako senideak zaintzen geratzen dira. Familiaren eta gizartearen garatzea nazioaz haraindi hedatzen da, izan ere, diru-sarrerak herrialde batean sortzen dira, eta diru-sarrera horien zati bat jatorriko herrialdean familia mantentzeko erabiltzen da. Fenomeno horren ondorioz, emakume batzuek, atzerrian, ordaindutako lana izan dezaten, nahiz eta beste familia bateko kideen zaintzaile gisa izan, emakume horien familiako beste emakume batzuek euren seme-alabak zaintzen geratu behar dute, eta, ondorioz, zaila da nahikoa denbora izatea euren komunitatean diru-sarrera propioak sortzeko jarduerak garatu ahal izateko.

4. Garapenerako laguntzaren joera berrien eragina iparraldeko GGKEetan

Iparaldeko herrialdeetako GGKEek ere badute aldaketa horien berri, eta hausnarketa nahiz sakontze-lan handia egiten ari dira sustatzen duten garapen-ereduari buruz, eta, halaber, diru-laguntza ematen dieten Estatuko agentzien zein agentzia pribatuen diskurtso eta lehentasunetara egokitzeko pragmatismo handia erakusten dute, horiengandik jasotzen baitituzte erabiltzen dituzten funtsen portzentaje handi bat.

Errealitate horrek zenbait kontraesan sortzen ditu, izan ere, erakunde feministen eta beste erakunde sozial batzuen aurrean diskurtso mota bat erabiltzen dute, baina gizartea eraldatzeko erradikalagotzat jotzen diren proposamenak –horien artean, erakunde feministenak)– hegoaldeko erakundeen agendetan lehenesteko mugak dituzte. Gobernuako lankidetzeta-agentziek edo Europar Batasunak ematen dituzten diru-laguntzak lortzearren, emakumeak ahalduentzeko lan-proposamenak “mozorrotzeko” estrategiak helarazten dizkigute erakunde feministei, eta, horrela, osasun- eta hezkuntza-

zerbitzuak emateko programak edo ekonomia tradizionalako programak aurkezten dituzte.

Azken hamarkadan emakume-mugimenduaren eragina eta ekintzak areagotu egin dira, eta, ondorioz, zenbait agentziak genero berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea kontuan hartu dute euren laguntza-politiketan, baina kontzeptu horien aplikazio praktikoa oso eskasa da, zenbait GGKEk eta agentzietako teknikoek ez dutelako gai horrekiko konpromiso politikorik; esate baterako, proiektu mistoetan parte hartzen duten emakumeen kopurua kontabilizatu egiten da, nahiz eta, askotan, ez izan inolako eraginik genero desberdintasuneko arrakalen gutxitzean. Emakumeentzako ekimen ekonomikoetan, ohikoa izaten da lanaren banaketa tradizionala aurkitzea: Nekazaritzako produktuen etaazienda larriaren ekoizpena gizonentzat, etaazienda xehea, etxeko baratzak eta artisau-lanak emakumeentzat; pentsa daitekeenez, zenbatekoak handiagoak dira gizonentzat egiten dituzten jarduerentzat, eta txikiagoak emakumeen ekoizpen-jardueren gastuentzat.

Nolanahi ere, garrantzitsua da nabarmentzea, pixkanaka, agenda progresistagoa duen GGKEen sektore bat genero berdintasuna txertatzen ari dela laguntza-programako lehentasun gisa; baina, kasu askotan, ez dira definitzen ebaluazioa eta jarraipena egiteko adierazle garbiak, genero berdintasunerako erabiliko diren gutxieneko zenbatekoen portzentajea, eta, gainera, teknikari guztiek ez dute generoaren teoria eta tresnen inguruko prestakuntza jasotzen, eta, beraz, ezin da ziurtatu konpromisoak egoki beteko direnik. Baina, paraleloki, haurrei eta baztertuei laguntzen dieten GGKEek baliatzen dituzten kopuruak eta baliabideak hazten ari dira, eta, horrenbestez, Estatuak beren gain hartzen ez dituzten arreta- eta zerbitzu-beharrak estaltzen dituzte.

Parisko adierazpenarekin eta “laguntzaren eraginkortasuna” sustatzen duen filosofiarekin, lehentasun-aldaketaren beste efektu bat indarra hartzen ari da: GGKEen burokratizazioa eta teknokratizazioa geroz eta handiagoa da, eta, ondorioz, kudeaketaren kultura garatzen ari da, erakundeek ekintza politikoaren kaltetan; diskurtso “aseptiko eta neutralak” ari dira garatzen tentsiorik ez izateko euren herrialdeetako administrazioekin, ez eta jarduera garatzen duten herrialdeetako gobernuekin ere. Horren guztiaren ondorioz, oinarri sozial konprometitua galtzen ari dira, eta baita beste mugimendu sozial batzuekin aliantzak egiteko aukerak ere, horien artean mugimendu feminista.

5. Erakunde feministek eta iparraldeko GGKEEK elkarrekin lan egiteko proposamenak

Azken urteetan, Latinoamerika eta Karibeko erakunde feministen multzo batek Dialogos Consonantes (elkarrizketa bateratzaileak) izeneko foroak antolatzeke deialdia egin zuen, eta, horrenbestez, kontinenteko hainbat ordezkari feministaren eta nazioarteko laguntzaren ordezkarien arteko eztabaidarako bidea eman zen; nazioarteko ordezkari gehienak espainiar Estatukoak ziren, baina Nazio Batuetako beste instantzia batzuetako ordezkariak ere parte hartu zuten.

Foro horietan emakumeen ahalduntze eta autonomiarekin lotura duten hainbat proposamen sortu ziren, eta horien artean hauek dira aipagarrienak:

1. Mugimendu feministak eta emakumeen mugimenduak eragile politiko eta sozial garrantzitsuak, autonomoak eta ugariak direla onartzea, eta, era berean, mugimendu horiek indartzeko aurrerapausoak ematea, bereziki instituzioen garapenean eta eragiteko gaitasunean.
2. Estatu espainiarreko laguntzaren eragileen, erakunde feministen eta nazioarteko erakunde parte-hartzaileen artean antolamendu-instantzia berriak sortzea, elkarrizketetan (Montevideo 2008, Lima 2010 eta Antigua-Guatemala 2010) lortutako adostasunak oinarri hartuta, esparru etiko bat eraikitzeke konfiantza politikoa, gardentasuna eta elkarrekeko erantzukizuna indartu eta handitzeke.
3. Arrazakeria, etnozentrismoa eta emakumeen aurkako indarkeria eta bazterkeria mota guztiak ezabatzea, euren gorputzen gaineko askatasuna handitzeke eta autonomia politikoa, ekonomikoa, soziala eta kulturala lortzeke. Etxeko lanak eta zaintza-lana balioestea; jarduera horiek leku garrantzitsua izan behar dute garapenerako laguntzaren eraginkortasunaren agendan.
4. Sexu eta ugalketa eskubideak aintzatetsi eta horietaz baliatzeke baldintza gisa, eskubide-estatuaren jadanekotasuna eta haren izaera laikoa defendatzen duten mugimendu feministen eta emakumeen mugimenduen ekintza estrategikoak indartzea.
5. Mugimendu feministek eta emakumeen mugimenduek indarkeriaren eta zigorgabetasunaren aurka egiten dituzten ahaleginak babestea, eta baita justiziarako sarbidea ere.

6. Latinoamerika eta Karibeko mugimendu feministak antolatzen diren prozesuak babestea.
7. Estatu espainiarrean garapenerako laguntzaren esparruan aritzen diren eragileen arteko sinergia politikoak sustatzea, eta gauza bera egitea Latinoamerika eta Karibeko mugimendu feministak eta emakumeen mugimenduekin, bereziki Laguntzaren Eraginkortasunari buruzko Goi Mailako IV. Foroan (Seul 2011) eragina dutenekin eta emaitza nabariak lortu dituztenekin, elkarrizketa horietan esandakoarekin bat etorritz.

6. Hausnartzeko eta batera lan egiteko beste proposamen batzuk

- Garapenerako gobernuko agentzietan eta agentzia pribatuetan eragitea, euren garapen-politiketan lehentasuna eman diezaieten emakumeen ahalduntze ekonomikorako baliabideei; eta, horrenbestez, lurren eta etxebizitzaren titulartasuna emakumeena izateko edo titulartasuna bikoteekin partekatzeko programak sustatzea, emakumeentzako berariazko bankuak eta kreditu-funtsak sortzea, emakumeen kredituak bermatzeko berme-funts nazionala sortzea, emakumeentzako asistentzia teknikoko eta ekoizpen-gaikuntzako programak egitea, eta merkaturatzeko erraztasunak ematea.
- Emakumeen ahalduntzea sustatzeko garapenerako laguntzaren berrantolaketa ahalegina neurtzea ahalbidetuko duten adierazleak, helmugak eta baliabideen portzentajeak definitzea.
- Gure herrialdean jarduerak dituzten enpresa transnazionaleri jarraipena egiteko behar diren eragileak sortzea, euren herrialdeek Lanaren Nazioarteko Erakundearekin (LNE) berretsi dituzten hitzarmenetan ageri diren arauak eta lan-betebeharrak bete ditzaten, eta dagozkien zergak, gizarte segurantza, pentsioak eta abar ordain ditzaten indarreko legeak diotenen arabera.
- Iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeen arteko merkataritza askeko hitzarmenen negoziazioan, onarpenean eta jarraipenean eragiteko prozesuak garatzea, hegoaldeko herrialdeen eskubideak urratzea, ekosistemak kaltetzea, euren ondare naturalak edo publikoak –ura, besteak beste– pribatizatzea eragozteko. Herrialde batek garapenerako eman dezakeen laguntzak ez du inolako zentzurik euren merkataritzako politiketik eta praktiketik laguntza jasoko duen herrialderen pobretzea ekartzen badute.

- Iparraldeko herrialdeetan kontsumo arduratsuko eta bidezko merkataritzako praktikak sustatzea, garapen-eredu kontsumista eta harrapakarietan aldaketak eta egokitzeak eskatuko dituzten gizarte arduratsuagoak eraikitzeko.

Erabilitako bibliografia

Better Aid (2011): “Declaración Política del Foro Global de las Mujeres de Busán. Para el 4to Foro de Alto Nivel sobre la Eficacia de la Ayuda (FAN4)”. <http://awid.org/es/Las-Noticias-y-Analisis/Anuncios/Declaracion-Politica-del-Foro-Global-de-las-Mujeres-de-Busan> Kontsulta-data: 2012ko urtarrila.

Diálogos Consonantes (2010eko iraila): “Los Derechos de las Mujeres en los Instrumentos la cooperación al Desarrollo. Acuerdos y consonancias. Democracia, Desarrollo, Diversidad, Interculturalidad y Feminismos”. Guatemala www.dialogosconsonantes.org/3dialogos_declaracion.pdf Kontsulta-data: 2012ko urtarrila.

Espino, Alma (2010eko abuztua): Economía Feminista: enfoques y propuestas. Mintegi birtuala: “La Economía Feminista y los Debates del Desarrollo en América Latina”. Red Internacional de Género y Comercio argialetxea.

Europar Batzordea (2010): “Libro verde. Política de desarrollo de la UE en apoyo del crecimiento integrador y el desarrollo sostenible. Mejorar el impacto de la política de desarrollo de la UE” Bruselas, Ed. Comisión Europea. http://ec.europa.eu/development/icenter/repository/GREEN_PAPER_COM_2010_629_POLITIQUE_DEVELOPPEMENT_ES.PDF Kontsulta-data: 2012ko urtarrila.

European Think-Tanks Group (2010): “Nuevos desafíos, un nuevo comienzo: Próximos pasos en la cooperación al desarrollo europea”. www.fride.org/uploads/OP_Forcedefrappe_Resumen_feb10.pdf Kontsulta-data: 2012ko urtarrila.

Foro sobre la Eficacia del Desarrollo de las OSC (Open Forum) (2011): “Consenso de Siem Reap de las OSC sobre el Marco internacional para la eficacia del desarrollo de las OSC”. Camboya. www.ccong.org.co/files/89_at_Spanish_FRAMEWORK_FOR_CSO_DEV%20EFF.pdf Kontsulta-data: 2012ko urtarrila.

Landa, A. Escobar, R. Romero L. (2010): Estrategias del movimiento de mujeres para la promoción y apoyo a las iniciativas económicas de las mujeres. El Salvador, Colectiva Feminista para el Desarrollo Local.

OCDE (2011): “Informe de Eficacia de la Ayuda 2005-2010: Progresos en la implementación de la Declaración de París”. Korea. [www.aideeffectiveness.org/busanhlf4/images/stories/hlf4/Executive_Summary-Progress_since_Paris.pdf](http://www.aideffectiveness.org/busanhlf4/images/stories/hlf4/Executive_Summary-Progress_since_Paris.pdf) Kontsulta-data: 2012ko urtarrila.

Open Forum (2010): “Principios de Estambul para el trabajo de las OSC como actoras del desarrollo. www.aideffectiveness.org/busanhlf4/images/stories/hlf4/PrincipiosdeOSC-Estambul-Final.pdf Kontsulta-data: 2012ko urtarrila.

Plataforma 2015 y más (2011): “Resumen de las jornadas sobre eficacia del desarrollo: una mirada autocrítica desde las ONGD”. www.2015ymas.org/spip.php?article546 Kontsulta-data: 2012ko urtarrila.



Elkartasunean topo egitea, posible den beste errealitate bat

Maya Alvarado,

Guatemalako Emakumeen Batasun Nazionala, Guatemala

1. Sarrera

Ekarpen hau egitea dagokigu, Guatemalako Emakumeen Batasun Nazionalan (UNAMG) hausnarketa kritikoak egiten ari diren unean, hain zuzen ere, ezkerreko proposamen feministaren mugimenduan eman ditugun hogeita hamaika urteotan gure jardun politikoak izan dituen eraginei buruz.

Bide hori, ondo zein txarto egindako gauzekin, ez dugu bakardadean egin, eta derrigorrez aipatu behar dira Guatemalan zein gure mugetatik at batzuekin zein besteekin sortu ditugun aliantzak. Ziurtasunik gabe ibiltze horren helburua sistema barruko egiturak aldatzea izan da; horrela, une honetan, genozidioarekin konprometitutako pertsonaiek herrialdeko magistraturarik gorenera heltzeko aukera dute, eta hori guztiz gertakari sinbolikoa da, zeren eta beti izan dute herritarren gaineko boterea eta kontrola. Jakin badakigu Guatemalan gertatzen dena ez dela zerbait aleatorioa, eta horren atzean mundu mailako botere hegemonikoa dagoela, eta botere horrek antolatatu duen logikaren baitan mugitu garela, kontzientzia gehiagorekin edo gutxiagorekin.

Botere horrek funtzioak eta estatusak finkatu ditu edozein kontinentetako herrialde guztietarako, Jules Falquetek dioen moduan: *“...ez goaz mundu hobea eta orekatuago baterantz globalizazio neoliberalari esker; aitzitik, esplotazio-sistema guztiak indartu egiten dira, batez ere klase eta arraza arloko sistemak, bai eta sistema patriarkal globala ere”* (Falquet, 2011:22).

Adostasun ideologikotik indartzen den fenomeno globalizatzaile hori kontuan hartuta, beharrezkoa da feministak eta guk osatzen ditugun erakundeak gune berean elkartzea, alternatiba eta hizkera bateratuak bilatzeko asmoz, garenaren eta gure planetako txoko honetan eraiki dugunaren aitorpenetik eta baloraziotik.

Begirada bat gure ibilerari

1996an bakea sinatu zenetik, *“UNAMGek Bake Akordioetan adierazitako agendaren aurrerapenari ekarpenak egiteko etengabeko ardurak izan du, eta, horretarako, programa eta ekintza zehatzak sustatu dira, emakumeen eta beste aktore sozial batzuen erakundeekin aliantzak sortu dira, eta bakearen instituzionalizaziorantzko eragin politikoa eta akordio-en betearazpena martxan jarri eta zaintzeko ardurak duten gainerako erakundeak indartu dira”* (Méndez Gutiérrez eta Barrios-Klee, 2010:11).

Izan ere, gure eguneroko borroketatik, “arloan formalean” eskubideak bermatzen dituzten marko juridikoak handitu ditugu. Hala ere, bakea sinatu zenetik hamalau urte igaro direnean, eta gaur eguneko baldintza sozial, politiko eta ekonomikoak eta bizi dugun indarkeria kontuan hartuta, uste dugu ibilitako bideari buruzko hausnarketa egin beharra dagoela.

Zein izan da ibilian-ibilian egin dugun ibilbidea? Lege eta politika publiko mota guztien aldaketak egiten saiatu gara, eta, esate baterako, Estatuaren ustezko deszentralizaziorako diseinatutako egituretan hartu dugu parte, tokian tokiko jardunean. Hori gure erakundeetatik egiten dugu, baina, emakume jakin batzuen eta zenbait mugimenduren eskutik sortu denez, jardun bakartia da; hori dela eta, lorpenak eskas samarrak dira. Estatuak, bere aldetik, ez die kasurik egin lege eta politika horien inplementazioari, eta sortu dituen instantziek ez dute ezer konpontzen; aitzitik, emakumeen eta, oro har, herritar guztien aldeko ustezko “ekintzak” justifikatzeko balio dute.

Guatemalako eta munduko errealitatea kontuan hartuta, erakunde gisa dugun historiari berriro ekin behar diogu. Oinarrizko erakunde gisa sortu arren, historiaren bilakaera dela-eta, batzuetan, behar baino energia gehiago inbertitzen dugu gure ekintzen garapenerako baliabideen gaian, ekintzetan beraietan baino. Gure arteko eta beste batzuen arteko sinergiak eta artikulazioak eraiki behar ditugu, betiere, beste horiek, munduko botere hegemonikoen alternatibak eraikitzeaz gain, munduko demokraziaren hustasunari eta narriadurari aurre egingo dieten eraldaketa erradikalak sortzen badituzte. Modu horretan, eta María Zambranok dioen moduan, *“bakoitzak pertsona izateko baimena edukitzeaz gain, bakoitzak pertsona izateko betebeharra ere izango luke”* (Zambrano, 1958).

2. UNAMG: hiru hamarkada baino gehiago Genero-berdintasunaren, Justizia Sozialaren eta bakearen alde borrokan¹

UNAMGen historia 70eko hamarkadaren erdialdean hasi zen, unibertsitatean ikasten ari ziren ezkerreko emakume-talde batek emakumeak antolatzeke lanari ekin zionean. Interes hori nazio eta nazioarte mailako testuinguruan sortu zen, non emakumeen eskubideek garrantzia hartu baitzuten; esate baterako, Nazio Batuek 1975a Emakumearen Nazioarteko Urtea izendatu zutenean, eta, modu berean, Nazio Batuek Emakumearen Hamarkada (1975-1985) sortu zutenean. Garai hartan, nazio mailan, gizarte-mugimenduen goraldia egon zen Guatemalan.

Lehenengo ahalegin hura zuzendu zuten emakumeak hauek izan ziren: Olga Jiménez, Marta Herrera, Lesbia Gálvez, Ana María García, Lourdes Martínez, Aura Bolaños, Silvia Gálvez, Elida Barrios, Ana Echeverría, Flor de María Padilla eta Blanca Ester Silvia. Garrantzitsua da aipatzea Guatemalako San Carlos Unibertsitateko Gizarte Laneko Eskolako adiskideen babesak izan zutela.

Antolakuntza-lana hiru eskualdetan hasi zen: hiriburuan, Quetzaltenangon eta Alta Verapazen. Leku horietan, zenbait sektoretako emakumeekin egin zen lan: nekazariak, gazteak, herritarrak eta maila ertaineko eta unibertsitarioko ikasleak. Sektore bakoitzarekin, batzarrak egin ziren emakumeen egoerari buruz eztabaidatzeko eta emakumeen aldarrikapen eta beharrezko nagusiak finkatzeko. Batzar horietan, herrialde barruko eta hiriko zenbait sektoretako emakumeak bilduko zituen erakunde bat eraikitzeke beharrezko ikusi zuten.

Modu horretan, 1980ko martxoaren 8an Guatemalako Emakumeen Batasun Nazionala eratzeke batzarra egin zen, eta, bertan, 300 ordezkari hartu zuten parte. Bertan, indigenek, nekazariak, langileak, ikasleak, profesionalak, etxeakoandreak eta inguru baztertuetakoko herritarrek hartu zuten parte, denak ere emakumeak. Gainera, Emakumeen Nazioarteko Federazio Demokratikoko (FDIM) bi ordezkari ere izan ziren bertan, gonbidatu gisa.

Une hartan, emakumeen emantzipaziorako borroka herrialdeko aldaketa sozial iraultzaileen aldeko borroka estuki lotuta zegoen. Hori dela eta, emakumeen aldarrikapen zehatzen alde lan egiteaz gain, diktadura militarren aurkako eta eraldaketa sozial eta ekonomikoaren aldeko borroka zabalagoa ere egon zen.

¹ UNAMG 2006-2011 Plan Estrategikotik hartua.

80ko hamarkadan, UNAMGek oso egoera zailean egin zuen lan, garai hartako errepresio-giroaren ondorioz. Hala ere, lanean aurrera jarraitu zuen: Emakumearen Etxea ireki zen; bertan, gaitasunak ematen ziren, baina armadak etxea astindu zuenean, lan mugikorrari ekin zitzaion. Silvia Gálvezen ekimenez, haurtzaindegia ireki zen, baina, 1985eko abenduan, armadak Gálvez bahitu eta desagerrarazi egin zuen. Une hartatik aurrera, UNAMGek herrialdetik kanpora baino ez zuen lan irekia egin.

UNAMG erbestean (1985-1996)

UNAMGek, beste erakunde sozial askok bezala, 80ko hamarkadaren hasieran armadak indartutako errepresioa jasan zuen, eta, ondorioz, erakundeko kideetako askok Guatemalatik irten behar izan zuten.

1982an, UNAMGen Kanpo Batzordea eratu zen Costa Rican, emakume errefuxiatu eta erbesteratuak antolatzeko asmoz. Gainera, batzorde bana eratu ziren Mexikon eta Nikaraguan. Garai hartan, erbesterako emakumeak antolatu eta Guatemalarekiko nazioarteko elkartasuna lortu nahi izan zen. Gainera, Emakumeari buruzko Munduko III. eta IV. Konferentzietan hartu zuten parte, bai eta emakumeen nazioarteko mugimenduko beste ekimen batzuetan ere.

Mexikon, errefuxiatutako eta erbesteratutako emakumeei zuzendutako lehenengo aterpetxea sortu zen, baina denbora gutxi iraun zuen. 90eko hamarkadako lehenengo urteetan, lana bi ardatzen inguruan mugitu zen: emakumeen prestakuntza eta gaikuntza, eta generoko teoriari ea feminismoari buruzko ikerketa, emakumeen opresioari amaiera emateko mugimendu sozial eta teoria sozial gisa. Tailerrak egin ziren zenbait erakundetako kide ziren eta Mexikon bizi ziren emakume guatemalarrekin.

Prestakuntza-prozesuen ondorioz, jakin ahal izan zen, emakumeen egoera soziala ulertu eta eraldatzeko, kontuan izan behar dela gizarteak ez daukela soilik klaseetan bananduta, ezpada generoetan ere, eta, Guatemalako osaera etnikoa kontuan hartuta, bazterketa etnikoaren analisisa ere gehitu behar zela.

UNAMGen berreraikuntza (1996-2005)

1996ko Bake Akordioak sinatu ostean, UNAMGek berreraikuntza-prozesu sakonari ekin zion. Genero arloko sentsibilizazio eta prestakuntza ekintzak

egin ziren, bai eta herrialdeko egiturak eta koiunturak dituzten arazoei buruzko analisiak ere. Oinarrizko taldeen sarea eratu zen; gaur egun, talde horiek erakundearen parte dira. Bulego nagusia ireki zen Guatemala hirian, eta beste bulego txikiago bat Quetzaltenangon. Emakumeen kolektiboen antolakuntza-garapenari laguntza eman zitzaion, herrialdearen mendebaldean eta iparraldean.

90eko hamarkadako azken urteotako lehentasunik nagusienetakoa Guatemalan bakea eta trantsizioa eraiki nahia izan zen, emakumeen mugimendutik, betiere.

1999an, UNAMGek irabazi asmorik gabeko erakunde zibilaren izaera juridikoa lortu zuen. 2001ean, UNAMGek Planifikazio Estrategikoari buruzko hausnarketa eta lanketa egin zuen; horrek 2000. urtetik 2005era bitarteko lana bideratu zuen.

UNAMGek emakumeen mugimenduak azken urteotan gidatutako borroka nagusietan hartu du parte, eta borroka horiek bultzatu ditu. Emakumeen nazioarteko mugimendu mailan, FDIM indartzen lagundu du, *Beijing+5* bileran hartu zuen parte, eta bake-prozesuetan emakumeen partaidetza sustatzeko ekimenetan ere aritu izan da.

Finkatze-aroa (2005. urtetik aurrera)

2005. urtetik aurrera, IV. Batzar Nagusian, Guatemalako Emakumeen Bata-sun Nazionala finkatze-aroan sartu zen, bere eragin politikoa areagotu zuen eta hobeto kokatu zen nazio mailako aldarrikapenetan. Gainera, lan handia egiten du, emakumeak tokian tokiko boterean indartzeko asmoz.

Gure historiaren jardun autokritikotik, etengabeko bilaketak (ez beti arrakastatsua) “baliokidetasunaren” etikan aritzea ekarri du; hau da: eragitea, baina dibertsitatearekin dugun antzaren kontzientzia jarritzuztiaren erdigunean. Kontzientzia horri esker, beste emakume eta gizarte-mugimendu batzuekin batera, proposamen alternatiboak eraiki ditzakegu, Guatemalako emakumeen generoko izaera soziala modu integralean jorratzeko behar diren egiturak aldatu ahal izateko.

Herrialde plurikultural eta multietniko batean generoko izaera sozial hori azaltzeak dakarren konplexutasuna ez dugu saihesten; aitzitik, beharrezkoa balitz bezala hartzen saiatzen gara, Guatemalako eta munduko beste leku

batzuetako emakumeen gorputzetan elkartzen diren opresio mota guztien sustraiak ukitzera heltzeko; izan ere, gure aniztasunaren ezaugarri batzuk baino ez aipatzearren, jatorri etnikoaren, klase sozialaren edo generoko identitatearen arabera, opresio mota desberdinak izaten dira.

Onartu beharra dago eztabaida-arrazoiak eman dizkiguten jarrera eta herrialdeen arloetako teorikoez elikatu garela gure jardunerako, eta, modu horretan, genero, politika eta ekonomia arloan emakumeek dituzten egoera sozialak eraldatzeko egiten ari garen borroka bermatu ahal izan dugula.

Hala ere, beharrezkoa izan da eta oraindik ere beharrezkoa da gure historian sustraituago dauden borroka-motak eta analisiak sustatzea. Gure genealogia propioak berreskuratu behar dira, eta gure arbasoek ibilitako borroka-bideak identifikatu.

Emakumeek munduko beste leku batzuetan egiten duten borrokari laguntza emateko aukera ikusten dugu jardun honetan; eta, zalantzarik gabe, denok gauza bera egin behar dugu, aintzatespenean elkartu gaitzen eta ez hierarkian; izan ere, azken kasu horrek esan nahiko luke soilik munduko leku batean sortuko litzatekeela ezagutza, eta gainerakook hortik ikasi beharko genukeela. Uste dugu denok dugula zerbait esateko eta gure esperientziaren zati batek on egin diezaiokeela munduko beste emakume batzuen esperientziari.

3. UNAMGen lehentasunak, denboren erronkei aurre egiteko

Dituen egiteko eta helburu estrategikoetatik abiatuta, UNAMGek ardatz tematiko eta ildo estrategikoen inguruan antolatzen du bere lana, eta, hortik, lehentasunezko neurriak sortzen dira. Hori guztia subjektu politiko feministaren eraikuntza indartzen duten ekintza politikoetan islatzen da.

Ardatz tematikoek UNAMGen espezializazio-esparruak osatzen dituzte, eta helburu zehatzen inguruan daude egituratuta. Ildo estrategikoak erakundeak lehenetsitako bideak dira, helburu zehatz horiek lortzeko. Ardatz tematiko bakoitzak zenbait ildo estrategikoren artikulazioa eskatzen du.

Ardatz tematikoen eta ildo estrategikoen definizioa hainbat faktoreren emaitza izan da: nazioaren testuingurua, emakumeen egoera, eta UNAMGek pilatutako balio, historia, egiteko, helburu, indar eta esperientziak daude tartean, besteak beste.

Ardatz tematikoak:

1. Herritarren partaidetza eta partaidetza politikoa
2. Indarkeria eza eta bakearen eraikuntza
3. Justizia ekonomikoa

Ildo estrategikoak:

1. Antolakuntzaren garapena
2. Prestakuntza eta jabeakuntza
3. Gizarte-mobilizazioa
4. Eragin politikoa
5. Gizarte-komunikazioa
6. Ikerketa

Gure jardunaren ondorio dialektiko gisa, prozesu integralen beharrezana identifikatu dugu. Beharrezan horietan oinarrituta, gurekin lan egiten duten talde, kolektibo eta sareetako emakume guztiek euren prozesu pertsonal eta kolektiboak garatu ditzakete, subjektu sozial izatera heltzeko eta, horrela, euren ikuspegitik, beste aktore sozial batzuek osatutako subjektu politiko alternatiboa indartzeko. Hain zuzen ere, beste subjektu horiekin proiektu politiko emantzipatzailea eraiki ahal izango lukete, historiaren eta memoria guztien aintzatespenetik.

Emakumeak Guatemalan, eta justiziaren bilaketa

Emakumeenganako indarkeria sustrai historikoak dituen egiturazko arazoa da. Gaur egun, Guatemalan, arazo honek proportziorik gabeko kopuruak ditu. Baina, komunikabideetan behin eta berriro esan izan dugun moduan, ez da kopuru kontua: eraildako emakume bakoitzaren atzean, lehenengo eta behin, pertsona bat dago, errepikatu ezin den bizitza bat, zapuztutako bizi-proiektu bat. Egunero agertzen dira bortxatu eta bortizkeriaz eraildako emakumeen kasuak, batez ere hiriguneetan, eta gertakari horiek ez dute inongo zigorrik izaten.

Soilik 2010ean, 720 emakume erail zirela dago jasota². Krime horietatik, %98k zigorrik gabe jarraitzen dute. Zifra horiek ikaragarriak dira, eta feminizidioaren

² Auzitegiko Zientzien Institutu Nazionalaren (INACIF) kopurua.

gaineko analisia Guatemalako emakume gehienek pairatzen duten txirotasun, analfabetismo, langabezia eta osasun-zerbitzurik ezaren baitan ulertu behar da, aipatutako zifrak gizarte mota horretan gertatzen dira eta. Hori horrela, garrantzitsua da aipatzea Estatuaren politikak helburu bezerozaleekin daudela diseinatuta, eta emakumeak soilik gobernu-programen onuradun gisa hartzen direla, eskubidedun subjektuak direla aitortu beharrean.

Bakea sinatu zela ia 15 urte igaro direnean, sinatutako akordioak betetzeaz gain, herrialdeetako ekonomiak gidatzen dituzten mundu mailako organismoek ezarritako agenda neoliberalaren inplementaziorantz jo da. Hori horrela, Guatemalako legedia aldatu egin da, merkataritza-itunak sinatu ahal izateko; Ipar Amerikarekiko Merkataritza Librearena eta Puebla-Panamá Plana, besteak beste.

Egoera horri haziz doan kriminaltasuna gehitu behar zaio; faktore horrek gizon zein emakumeengan dauka eragina, baina emakumeen gorputzetan erabakitzen dira gizonen lurraldetasun-gatazkak. Narkotrafikoa eta krimen antolatua bezalako arazoek egoera zaildu dute, eta gero eta salaketa gehiago jartzen dira bortxaketengatik eta beste sexu-indarkeria mota batzuentatik.

Sexu-indarkeria, barne-gatazka armatuak iraun zuen bitartean

Guatemalan 30 urtez baino gehiagoz izandako barne-gatazka armatuan, sexu-bortxaketa Estatuko agenteek egindako praktika orokor, masibo eta sistematikoa izan zen matxinatuen aurkako politikaren parte gisa. Gainera, jardun hori gerrako arma gisa eta izua sortzeko tresna gisa erabili zen, giza eskubideak eta nazioarteko eskubide humanitarioak urratuz.

Sexu-bortxaketa emakumearen menderatze patriarkalaren sintesia da (Lagarde, 1990), eta emakumeen bizitzan zeharkako eragin handiena duen indarkeria mota da. Hainbat ondorio eragiten ditu, eta, kasu askotan, desegituratu egiten du, intimitatearen, duintasunaren eta askatasunaren aurka egiten du eta. Bortxaketa-mehatxu hutsak nabarmen murrizten ditu emakumeen eskubide guztiak.

20 edo 25 urtez, sexu-indarkeria mota horretatik bizirik irten diren emakumeek krimen horren ondorio fisiko, psikologiko, sozial, ekonomiko eta politikoei egin behar izan diete aurre; gainera, emakumeen genero-izaera

dela-eta, krimen horren erruduntasuna biktimei egozten zaie lehenengo eta behin, beste ezein krimenekin egiten ez den moduan. Horren aurrean, emakumeak isilik egon dira, duela gutxi duintze-ekintza jakin batzuk egin diren arte; besteak beste, *Guatemalako Barne-gatazka Armatuan Emakumeek Jasandako Sexu-indarkeriaren aurkako 1. Kontzientzia Auzitegia*.

Emakumeek ez dute justiziara sartzetik izan, eta, ordainen bat egon den kasuetan, horrek efektu berbiktimatzailea izan du, batez ere ordain ekonomiko eta materiala izan delako, eta ez delako erabatekoa izan eta ez delako beste konponketa-neurririk eskaini. Gaur egun arte, arduradunetako bat ere ez da epaitua eta zigortua izan. Zigorgabetasun-giroak emakumeenganako indarkeria betikotzen laguntzen du.

Hori dela eta, 2002. urtetik, UNAMGek, Giza Eskubideetako beste erakunde batzuekin³ eta feminista autonomoekin batera, laguntza psikosozialeko, eskubideen prestakuntzako eta antolakuntza arloko lanari ekin zion, Guatemalako gatazka armatuan sexu-indarkeriatik bizirik irten ziren emakumeen justizia lortzeko asmoz. Hain zuzen ere, Guatemalako hiru departamentutan egin zen hori: Chimaltenangon, Huehuetenangon eta Alta Verapazen.

Lan hau *Aldaketarako Emakumezko Aktoreen Partzuergoa* deitutakoan egon zen artikulatuta⁴. Lan honen helburu nagusia, bidean izandako antolakuntza-aldaketak gorabehera, emakumeen aldaketa indartzera dago bideratuta; hain zuzen ere, emakumeak, biktima izatetik, euren bizitzetako, familietako, komunitateetako eta herrietako aldaketaren aktore nagusi izatera pasatzen laguntzera.

Prozesu honetan, Guatemalako eta beste herrialde batzuetako emakumeen mugimenduko eta mugimendu feministako emakumeek hartu dute parte. Era berean, GKE feministek prozesu hau babestu izan dute, babes finantzarioa baino harago doan konpromiso etikotik.

³ Azterketa Komunitariorako eta Ekintza Psikosozialerako Taldea (ECAP); 2009an, Emakumeak Mundua Eraldatzen (MTM) justiziaren bilaketarako taldearekin bat egin zuen.

⁴ 2008an, "Aldaketarako Emakumezko Aktoreen" Partzuergoa desartikulatu egin zen, baina, 2009an, ECAPek eta UNAMGek "Emakumeak Isiltasuna Hausten" izeneko aliantza osatu zuten, eta Emakumeak Mundua Eraldatzen ere bertan sartu zen. Aliantza horrek laguntza psikosozialeko, emakumeen jabekuntzako eta justiziara sartzeko prozesuak sustatzen jarraitzen du.

Trantsizioko justizia: emakumezko subjektu politikoak eraikitzekeo abiapuntua

Giza Eskubideetarako Nazio Batuen ordezkari gorena zen Louise Arbourrek 2006an esan zuen moduan, iraganeko gehiegikerien ardura duten funtzionarioak zigortzeko legezko prozedura ezak ekarri du Guatemalako gaur egungo olde kriminala. *Iraganeko bortxaketetarako araua zigorgabetasuna den lekuan, ez da harritzekoa gaur egungo krimenetarako ere horixe izatea arau nagusia*⁵. Iragana eta oraina lotuta doaz, eta Guatemalako feminizidioen gaur egungo historiak agerian uzten du egia hori. Gaur egun indarkeria eta krudelkeria handiz bortxatzen eta erailtzen dira emakumeak, eta hori emakumeen aurkako antzinako opresio-sistemaren emaitza da, bai eta barne-gatazka armatuak iraun zuen bitartean euren aurka erabili zen indarkeriaren inguruan sortutako zigorgabetasunaren eta isiltasunaren emaitza ere. Izan ere, garai hartan, sexu-bortxaketa Estatuako agenteek egindako praktika orokor, masibo eta sistematikoa izan zen matxinatuen aurkako politikaren parte gisa, giza eskubideak eta nazioarteko eskubide humanitarioak urratuz. Argitze Historikorako Batzordeak (CEH), aitortuz “*sexu-indarkeriaren inguruko zifrek azpierregeroia osatzen dutela... giza eskubideen beste bortxaketa batzuei dagokienez...*”, sexu-indarkeriako 1.465 gertakari erregistratu zituen, eta, horietatik, 285 kasu dokumentatu ahal izan zituen. Indarkeria mota hori, %99an, emakumeen aurka zegoen zuzenduta, eta, horietatik, %80 indigenak ziren.

Emakume horiek ez dute justiziarako eta konponbiderako aukerarik izan, eta, orain arte, arduradun bat ere ez da epaitua eta zigortua izan; hori zenbait faktoreekin dago zuzenean erlazionatuta: gobernuen borondate politikorik ezarekin, gatazka armatuan Giza Eskubideen bortxaketaren biktima izandakoei erabateko konponketa ekarriko dien politika faltarekin, gerran edo bakean sexu-indarkeria zergatik gertatzen den edo hori zer den azaltzen duten imajinario sozialekin, gizarte zibileko erakundeek biktimen alde egiteko eta Estatuaren aurrean jokatzeko orduan duten ahuldadearekin, legezko marko aproposen faltarekin, eta aurkeztutako demandak bideratzeko orduan justiziako eragileek duten sentsibilizazio eta gaitasun tekniko ez nahikoarekin.

Barne-gatazka armatuko testuinguruetan egindako sexu-bortxaketa genozidiotzat edo gizateriaren betebeharren aurkako delitutzat jo daitekeen arren,

⁵ 2006an Guatemala bisitatu zuenean emandako prentsa-hitzaldia.

auzilariek demandetatik baztertzen dituzte, diotelako teknikoki ezinezkoa dela hori gertatu zela frogatzea, eta uste dutelako demanda onartzeak murriztu egingo lituzkeela beste demanda batzuen arrakastarako aukerak. Sexu-bortxaketak sartu diren kasu urrietan, ez fiskaltza eta ez auzi-jartzailea ez dira gai izan ikerketa kongruente, serio eta profesionala egiteko, eta aurreiritzi misogino eta sexisten oinarriarekin eraikitako estandar frogagarri tradizionalaren arabera frogatzen saiatu dira. Ondorioz, ezin dira aplikatu emakumeen giza eskubideak babesten dituzten arauak, ez eta euren eskubideak urratu izana ikertu eta zigortzeko prozedura judizialak abiarazi ere.

Prozedura-markoari dagokionez, Ministerio Publikoak ez du izan barne-gatzaka armatuan gertatutako sexu-indarkeriako kasuak modu eraginkorrean ikertzeko ildo instituzionalen gaineko argibide orokorrik, baina, gaur egun, argibide hori prestaketa-fasean dago, eta, Ministerio Publikoak jarrera ireki hartu duenetik, gaia jorratu dugun erakundeek iritzia eman dezakegu.

Erakunde Judizialean ere zaila da eragitea⁶; izan ere, ez du kasu horiek modu eraginkorrean auzipetzeko ildo instituzionalekiko Akordiorik, eta Auzitegiko Zientzien Institutu Nazionalak ez du ekintza-protokolorik kasu horiek ikertzeko.

Bizirik iraun duten emakumeei dagokienez, beste erakunde batzuekiko aliantzan aritzen saiatzen gara⁷ gizarte zibiletik, euren jabekuntza-prozesuaren alde egiteko, eta jabekuntza ulertuz euren bizitzetako indarkeriazko gertakariei modu psikosozialean ekiteko modu gisa. Aldi berean, baina, euren jardun sozial eta politikoa aldarrikatzen eta indartzen dugu, bai eta euren bizitzetako subjektu bihurtzeko duten gaitasuna ere, eskubideak gauzatu ditzaten. Gure lanaren helburuetako bat biktimizazioa gainditzeko prozesuan laguntza ematea da, beraiek izan daitezen erabateko konponketarako eskubide osoa baliatuko dutenak.

Egiten ditugun ekintzak eduki politiko eraldatzailea dute, eta, hori dela eta, ekintza horien bitartez, geure bizitzaren irakurketa egiteaz gain, Gualtemalako eta munduko beste leku batzuetako emakumeek bizi dugun

⁶ Duela astebete, Telma Aldana magistratua izendatu zuten Erakunde Judizialeko presidente. Izendapen horrek lorpenetarako zenbait itxaropen irekitzen ditu, emakumeenganako justiziari dagokionez.

⁷ Azterketa Komunitarioako eta Ekintza Psikosozialerako Taldea (ECAP) eta Emakumeak Mundua Eraldatzen (MTM).

errealitatearen gaineko irakurketa egiten dugu. Era berean, alde guztietako teoriko feministen testuak irakurtzen eta berrirakurtzen ditugu, eta beraiek, euren azterketetatik, gure jarduna orientatzen dute.

Giza Eskubideen inguruan dugun predikua, sarri askotan, arlo anbiguo eta exogenotik abiatzen da, emakumeen gorputza zeharkatu gabe. Eta horrek ez du harreman praktikoa eta zuzenik eguneroko bizitza intimo, pertsonal eta tokian tokikoarekin. Ikuspuntu honetatik, prestakuntza prozesuek elkartasunerako eta babeserako beharrezko oinarria kentzen diote Guatemalako eta munduko emakumeen eskubideen betebeharrari.

4. Zein kontzepziok zeharkatzen dituzte gure harreman ekonomikoak

Artikulu hau antolatzeko eskatu diguten terminoetatik bertatik, munduaren kontzepzio bitarra sumatzen dugu, oso bat datorrena pentsamendu patriarkalarekin eta pentsamendu horren egituretan nagusitzen diren opresio-sistemekin. UNAMGetik uste dugu iparra-hegoa bezalako kontzepzioek nolabaiteko hierarkizazioa erakusten dutela; bertan, iparra jakintzen eta baliabideen jabe gisa hartzen da, eta hegoan gaudenok “behetik” heldu gaitezke bertara, “kanpotik”.

Kontzepzio horiek, nola edo hala, ez dute aitortzen emakume bakoitzak duen protagonismoa, herrialde txirotuetatik erresistentzia eta asaldura arloko ekintzak egiten dituztenean munduko sistema kapitalistaren gose asezinaren aurrean.

Ez ditugu hemen aipatuko munduan dauden txosten ugariak, erakunde ekonomiko nagusien egiturazko birdoitzeek munduko bizilagun gehienengan duten eraginaren berri ematen dutenak. Txosten horien arabera, populazio horren portzentajerik handiena emakumeak, neskatok eta mutikoak dira.

Birdoitze horien efektuek euren lurraldeetatik familiekin eta komunitateekin batera botatako emakumeen gorputzak zeharkatzen dituzte; arrazoi ekonomikoengatik eta biziraupen arloko arrazoiengatik botatzen dituzte euren jatorrizko herrialdeetatik, gero eta arriskutsuagoak diren migrazioetarantz; esklabotzaren antz handia duen lanera botatzen dituzte, eta maquiletan aritzen dira, azken horiek irabazi ederrak lortzen dituztelarik langileen lan

“kalifikatu gabearekin”; eta tokian tokiko enpresak aberasteko balio duten soldatekin bizirauten dute, izan ere, enpresa horiek euren nahierara manipulatzeko dituzte legeak, soldatepeko populazioaren eta bereziki emakumeen lan-baldintzak malgutzeko asmoz.

Feministek aztertu dute sistema ekonomikoa zelan indartzen den lanaren banaketa sexualetik, eta zelan sistema horrek sorrarazten dituen injustizien pisu osoa emakumeen gainean geratzen den.

Justizia Ekonomikoko programatik, UNAMGen asmoetako bat da emakumeekin batera erakustea zelan elkartzen diren gure gorputzetan hainbat opresio; besteak beste, generokoa, klasekoa eta etniakoa. Baina analisi hori ez da lankidetzaren agentzien interesik handiena pizten duena. Kezkaz ikusten dugu generoaren kategoria hutsik geratu dela, eta, gero eta gehiago, nazioarteko lankidetzak kontzeptu hori birfuntzionalizatzen duela, gure aginduetara egon “behar” den kapitalaren interesetarako.

Ildo horretatik, lankidetzaren agentziak gehien erakartzen dituzten proiektuetako batzuk “proiektu produktiboak” deritzenak dira. Proiektu horiek “orain eta hemen” dauden beharriak asetzen dituzte, pobrezia arrazoi historiko, politiko eta ekonomikoak azaldu gabe. Proiektu horietako asko enpresen logikatik eraikitzen dira, biziraupenerako baliabideak sortzeko, eta ez modu duinean eta lehenengo pertsonan bizitzeko.

UNAMGek kontu-ikuskaritza sozialeko eta aurrekontuen azterketarako prozesuak garatu ditu, betiere, generoko ikuspegiarekin. Esperientzia horiek aberasgarriak izan dira, eta komunitateetako emakumeen dinamizazioa ekarri dute, euren herritartasuna aurrera eramanez ahal izan dezaten. Hala ere, begirada kritikotik, esan beharra dago hori ez dela nahikoa guretzat, horiek ez direla emakumeen justizia ekonomikoaren aldeko borrokan derrigorrean ikusten ditugun bide bakarrak, eta gure ekintzak sakondu eta erradikalizatzeko premia sumatzen dugula.

Horri dagokionez, 2010etik aurrera, aldaketa bat izan dugu: euren lurraldeen defentsan dauden emakumeei laguntza ematen diegu; izan ere, lurralde horiek enpresa transnazionalak okupatzen dituzte, eta enpresa horien asmoa aire zabalean meatzaritza-proiektuak jartzea da, pertsonen eta naturaren bizitzari kalte eginez. Gaur egun nabarmen geratzen den gauza bat da kontua ez dela soilik aberastasunaren banaketa, ezpada aberastasuna sortzea, baina errespetutik eta harmoniatik.

5. Nola baloratzen dugu babesten gaituzten GGKEen lana?

Aitortu beharra dago kasurik gehienetan elkartasunezko eta lankidetzazko bokazioa aurkitzen dugula, hurbilketarako lehen urrats gisa. Kasurik onenetan, gainera, helburu komunen erabateko identifikazioa ere izaten dugu. Hala ere, sarri askotan, hurbilketa horrek beste zentzu batzuk hartzen ditu, lankidetzaren baliabideak tartean daudenean. Hori harreman konplexua izan ohi da, eta, batzuetan, kontraesan ez betea (norberarenak zein kanpotik datozenak).

Nazioarteko lankidetzak, ekonomia neoliberalaren parte den aldetik, “bere agendatik” jartzen du finantziarioa, txirotutako herrialdeetako gizarte zibilek baliabideak erabil ahal izan ditzagun, baina, betiere, egoerak “lasaitu” arren, desberdintasunaren eten suntsitzaileen arrazoiak errotik aldatuko ez dituzten proiektuetarako. Era berean, jarraitu beharreko edo agentziek eskatutako ereduak ez dira derrigorrez gure errealitateari erantzuten dioten ereduak.

Gainera, garrantzitsua da aipatzea lankidetzarako funtsak jasotzen ditugun herrialdeetan zehazten diren aliantzetako asko funts horiek definitzen dituztela, berauek kudeatzen dituzten GGKEen bitartez. Gure ustezko aliantzak sendotzeko erabiltzen den “artifizialtasun” horrek kostu politikoak ditu toki mailako ekintzak definitzeko orduan; izan ere, ekintzak gero eta gutxiago planteatzen dira sistema patriarkal, kapitalista eta arrazistaren aurreko kontrahegemoniatik.

Finantziarioa lortzeko orduan, “iparraldeko” GGKEek garrantzi handiko rola jokatu dute, ia beti aliatu gisa, baina, nahiko genukeena baino maizago, hierarkia finak maneiatuz. Batzuetan, hierarkia horiek nolabaiteko sendotasuna izan dezakete, batez ere, egiaz arnasa luzeko prozesu pertsonal eta subjektiboak direnak proiektuen emaitza gisa itzultzeko orduan. Esperientzia desatseginak ere izan ditugu, geuk egiten dugun lanaren eskuratze publikoa dela eta.

Esperientzia horiek ez dira berez biolentoak; izan ere, kontua gure arteko aitortza eza da, eta eragin negatiboa dute egin ditzakegun eta sustatu behar ditugun aliantzetan. Hain zuzen ere, aliantza horiek gure bizitzak eta gizarteak zeharkatzen dituzten injustiziak eraldatzeko borroketan oinarritzen dira, berdin “iparraldean” zein “hegoaldean”.

Maltzurkeria hori, barruan sartuta ditugun agindu patriarkalen bizioa ere badena, ez da soilik gertatzen herrialde aberastuetako GGKEetan. Batzuetan,

euren prozesuetako aktore diren emakumeekin egiten dugun lanean ere errepikatzen da; izan ere, sarri askotan, tokian tokiko edo maila nazionalako emakumeen elkarteen beharrez gabe, prozesuak sustatzen dituzte euren komunitateetan, euren bizi-esperientzietatik abiatuta eta ezartzen dizkieten baldintza sozial, politiko eta ekonomikoek eragindako mugak gorabehera.

Azkenik, garrantzitsua da esatea euren prozesuen aktore diren emakumeekin batera egin beharreko lan eta ekintza ildoak definitu behar direla. Askotan, gaiak eta ekintzak idazmahaietan definitzen dira: lehenengo, lankidetzaren idazmahaietan; bigarrenik, “iparraldeko” GGKEen idazmahaietan; eta, hirugarrenik, lotura horiei eusten dien tokiko erakundearen idazmahaietan.

Kate hori apurtu eta alderantzizko prozesuak egin behar dira; bertan, emakumeak izango dira, euren ahotsekin, ekintzak planifikatu eta definituko dituztenak, eta gu ekintza horiekin aliatu gaitzake eta aliatu behar gara. Ekintzak bat etorriko dira emakume horien testuinguruekin, eta beraien izango dira protagonistak. Bakea sinatu ostean, garrantzitsua izan da egin diren eta oraindik ere egiten diren tailerren dinamika osoa, baina modu kritikoa hausnartu behar da horri buruz, pauso bat gehiago emanaz.

6. Gure harremanetan patriarkatua desmuntatzeko premia

Emakume guztiak zeharkatzen gaituen ikasketa patriarkala osatzen duen logika hierarkikoa desmuntatzeko premia dago. Izan ere, gauden lekuan gaudela agertzen da logika hori, eta, bertatik, ia ezinezkoa da emakumeen mugimendua toki mailan zein munduan indartuko duten proiektu eta utopia komunik eraikitzea eta emakumeen arteko topaketa egitea.

Ez dugu gogorik purismo absurduetarako, ez emakume batzuentzat ez besteentzat; aitzitik, erabat saneatu behar ditugu baliabideak eskaintzen dizkiguten mekanismoak; izan ere, mekanismo horiek, gehienetan, pertsonen eta ekosistemen aurkako opresio, esplotazio eta indarkeriazko makineria bere horretan mantentzeaz arduratzen diren instantzietatik etortzen dira.

Justiziaren aldeko borroka, bere dimentsiorik zabalenean, planetako emakume guztien borroka komuna da. Era berean, justizia hori lortzeko erabiltzen diren estrategiak ugariak dira, eta denon ahalegina eskatzen dute. Hain zuzen ere, esperientzia arrakastatsuak daude gure harremanetan, eta,

harreman horiei esker, mekanismo juridikoak mundu mailan hedatu ahal izan dira; era berean, emakumeen aurkako sexu-indarkeria ere ikusgai jarri da, modu mingarrian aurrera jarraitzen duten eta genozidioa sorrarazten duten krimen gisa (beraz, gizateriaren betebeharren aurkako krimena da, eta preskribatzen ez duen gerrako krimena).

Horren adibide bat Espainiako Audientzia Nazionalen ezagutzen den genozidio kasua da, zeina handitu egin baita, emakumeen aurka gerrako testuinguruetan izaten den sexu-indarkeria ere bertan sartuz. Duela oso denbora gutxira arte, sexu-indarkeria albo-kalte soiltzat hartzen zen gerretan, eta emakumeen nazioarteko mugimenduaren borroka eta munduko alde guztietatik finkatu ditugun aliantzak dira lorpen hauen arduradunak.

Guatemalatik, munduko herrialderik biolentoenetako batetik, feministek eta gure erakundeek errealitate hau salatuko duten ahotsak biderkatzea da behar duguna; izan ere, indarkerian, zigorgabetasunean, misoginian, kolonizazioan, opresioan eta esplotazioan oinarritutako errealitatea da. Hala ere, ez gaituzte soilik hartu behar testuinguru honen biktima gisa; aitzitik, garrantzitsua da gure borroka eta erresistentziak aitortu eta hedatzea. Herrialde aberastuetan kontzientziak mobilizatuko dituzten sentsibilizazio kanpainak eta ekintzak egitea dira “iparraldeko” GGKEek sustatu ditzaketen ekimenetako batzuk. Kontua ez da soilik “hegoaldeko herrialdeetako emakume txiroekiko” sentsibilitatea izatea edo emakume horiek ikustea. Kontua da begirada euren gizarteetan jartzea, euren bizi-esperientzietan, eta kontsumo-maila gisa ulertutako “ongizatean” oinarritutako bizi-ereduak sorrarazten dituen distortsioen azterketan.

Mundu mailako botere ekonomikoaren agenden benetako edukia azaleratu behar da, eta gaur egun Europako hiriburuetan eta antzina-antzinako lurraldeetako komunitate indigenetan sistemaren aurka egiten diren mobilizazio ugariak ere agerian jarri behar dira.

Badakigu, zoritxarrez, indarkeria emakume guztiei dagokigun gaia dela. Hala ere, herrialde aberastuetatik ari diren feministek zalantzan jarri behar dute zergatik heldu diren euren herrialdeak ongizate-baldintza horietara. Bide batez esanda, egoera horiek jada ez dira iraunkorrak, sistema bere kontraesanen menpe geratu denetik. Ongizaterako baldintzak dituzten herrialdeetako gizarteek gutxitan hausnartzen dute baldintza horien jatorriari buruz; izan ere, mundu mailako eredu ekonomiko kapitalistak sortutako baldintzak dira. Pertsonen arteko eta herrialdeen arteko desberdintasunen

arrazoi historikoei buruzko hausnarketa kritiko gutxi dago. Feministok azterketa kritiko hori bultzatzeko erantzukizuna dugu, emakumeek eskualde bakoitzean duten esperientziatik abiatuz eta mundu mailan generoaren araber bereizitako krisiaren eraginak kontuan hartuz.

Aliantza garrantzitsuak egin behar dira, eta, era berean, mundu mailako potentziek gizarte-mugimenduak desartikulatzeko, agendak inposatzeko eta borroka-adierazpenei formatu jakinak ezartzeko erabiltzen dituzten mekanismoak salatu behar dira.

Gure lurraldetik ere, oinarri sozial sendoko erakundeak sortzeko erabili genuen espirituari ekin behar diogu berriro; izan ere, erakunde horiek ez zuten baliabide askorik behar sistemari aurre egiteko, eta historia egin eta bideak finkatu zituzten. Orain, gu bide horietatik goaz aurrerantz, Estatuaren terrorismoak eta matxinadaren aurkako indarkeriak irentsitako gure fundatzaileekin batera.

Emakume guztiok berriro ekin behar diogu elkartasunari; ez fede-ekintza gisa, ezpada beste errealitate posible hori eraikitze bide gisa. Izan ere, gure borroka eta matxinada komunek eman diguten esperientziagatik, badakigu beste errealitate bat posible dela.

Bibliografia

- Amorós, Celia (2005): *Teoría Feminista de la Ilustración a la Globalización*. III. liburukia. Madril, Ediciones Minerva.
- Falquet, Jules (2011): *Por las Buenas o por las Malas; Las mujeres en la Globalización*. Bogotá, Argitalpen Zentroa, Giza Zientzien Fakultatea.
- Fulchiron, Amandine, Olga Alicia Paz eta Angélica López (2010): *Tejidos que lleva el Alma. La memoria de las mujeres mayas sobrevivientes de violencia sexual durante el conflicto armado interno*. ECAP-UNAMG, Guatemala, F&G Editores.
- González, Paola (koord.) (2007): *Caminando hacia la consolidación de nuestra lucha a favor de la equidad de género, la justicia social y la paz. Plan estratégico UNAMG 2006-2011*. Guatemala, komunikazio integratua.
- Lagarde, Marcela (1990): *Cautiverios de las mujeres: madresposas, monjas, putas, presas y locas*. Mexiko, Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa

(UNAM). Méndez Gutiérrez, Luz eta Walda Barrios-Klee (2010): *Caminos Recorridos: Luchas y situación de las mujeres a trece años de los Acuerdos de Paz*. 2010, UNAMG, Guatemala, F&G Editores.

Zambrano, María (2004): *Persona y Democracia*. Espainia, Editorial Siruela.

**Emakumeen parte-hartze politikoaren
zein ehunekok aldatu duen Peruko
historia (eta zein eginkizun bete
duten prozesu horretan iparraldeko
garapenerako gobernuz kanpoko
erakundeek)**

Gaby Cevalco,
Flora Tristán, Perú

Perun, emakumeak gune politikoan agertzeko izan den prozesua motel joan da, eta aurrera eta atzeraka ibili da aldi berean. Gaur egun ere, erronka bat da. Alde batetik, emakumeek ordezkari gehiago izan dezaten lortu nahi da, eta, bestetik, politika egiteko beste molde bat sortu nahi da, zehazki, emakumeak aintzat hartzen dituen molde bat, gizonezkoen molde patriarkala ez bezalakoa dena.

Gaur egun, emakumeak gizonen arerio zailak dira Peruko politikaren esparruan. Hala ere, emakumeek ez dituzte beti izaten feministek nahiko genituzkeen profilak, eta, era berean, emakumeen agenda ez da beti lehenetasuneko haientzat. Beste herrialde batzuetan bezala, emakumeak modu konplexuan sartu dira politikaren eraikuntzan, kargu politikoa baliatzean duten jokaerak itxaropen gehiago pizten baitu, eta, hortaz, jendeak zorrotasun gehiagok “epaitzen” baititu emakumeak. Iritzi-inkesten arabera, hautagai diren emakumeei botoa emateko dauden arrazoien artean honako hau aipatzen da: kargu publikoak betetzean zintzoagoak izango direla uste da. Hala ere, ez dago argi horren arrazoia zein den: bizirauteko borrokan izan duten protagonismoaren ondorioa ote den, edo ama gisa betetzen duten rolaen ondorioa.

Kontua da emakumeak gehiago agertzen direla erabakiak hartzeko dauden gune guztietan. Orain dela urte batzuk, berriz, protagonismo hori ez zen gune politikoan islatzen. Hala ere, emakumeek eginkizun garrantzitsua bete zuten krisi politikoaren aurrean bizirauteko estrategiak bilatzerakoan, eta, horren ondorioz, indarkeriaren biktima izan ziren barneko gatazka armatuaren garaian; era berean, zeregin garrantzitsua bete zuten desagertutako lagunak bilatzerakoan.

Deszentralizazioa lagungarria izan da, emakumeek herrialdeko politikan gehiago parte har dezaten. Prozesu hori hainbat eskualdetan zegoen pobrezia aurre egiteko jarri zen abian, eskualdeetan zeuden gaitasunak gartzeko itxaropenez. Izan ere, doikuntza ekonomikoko politiken ondorioa zen pobrezia hori. Bestalde, gobernagarritasuna eta demokrazia sendotzeko ere proposatu zen deszentralizazioa. Departamenduei ahalmen gehiago

eman nahi zieten erabakiak hartzeko, eta, hala, herritarrek parte hartzeko tresnak sortu ziren, esate baterako, tokiko koordinaziorako kontseiluak eta eskualdeko koordinaziorako kontseiluak. Era berean, Perun eta Latinoamerikan, zera lortu nahi zen deszentralizazioaren bidez: estatua “herritarren beharrian, eskaera eta kontroletatik hurbilago egon zedin”¹.

Sortutako gune horiek aukera berriak ekarri zizkieten emakumeei parte hartzeko, eta, hala, Centro Flora Tristán bezalako erakundeek emandako bultzadaz eta laguntzaz, beren gaitasunak sendotzeari ekin zioten, erkidegoen alde lan egiten zuten eskarmentua baliatuta. Alejandra Massolok idatzitakoaren arabera, “*emakumeek samaldaka parte hartu zuten bizirau-pena bermatzeko janari-programetan, erkidegoaren bizitza-baldintzak hobetzeko sortu ziren auzo-elkarteetan, osasun-batzordeetan, herri-jantokietan eta abarretan. Era horretan, tokiko guneetan zegoen erkidegoko gizarte-ehuna dinamizatu zuten, eta emakumeak gizarte-ongizatea lortzeko bitartekari gisa eta udal-agintarien ordezkari gisa aritu ziren*”².

Emakume asko hasi ziren kargu publikoak betetzen, batez ere tokiko eta eskualdeko gobernuetan; baina, hala ere, artean haien ordezkaritza ez zertorren bat beraien herrietan egiten zuten lanaren garrantziarekin.

Emakumeek maila horretan egiten duten lana sustatuko duen alde bat da zinegotziak edo alkateak sareen bidez antolatuta daudela eskualde guztietan, eta sare horiek guztiak egituratuz Red Nacional de Mujeres Autoridades-RENAMA sortu dela (Emakume Agintarien Sare Nazionala). Sare horri hainbat erakunde feministak ematen dio aholku, besteak beste, hauek: Centro Flora Tristán, Movimiento Manuela Ramos, Asociación de Comunicadores Calandria eta Centro de Estudios Sociales y Publicaciones-CESIP.

Sareak ikaskuntza eta trukerako gune garrantzitsuak dira, eta, aldi berean, emakume agintarien ahotsa sendotu dute. Dena dela, oraindik lan asko dute egiteko, gizonezkoek menderatzen duten gune politikoan gizonezkoekin batera protagonista izateko.

Errepublikako Kongresuari dagokionez, bi eragile hauek lagungarriak izan dira emakumeen agerpenari begira: lehentasunezko botoa eta 1995etik ezartzen den kuoten sistema. Emakumeek zailtasun handiak dituzte oraindik alderdien

¹ Alejandra Massolo. “Descentralización: los puntos de vista de la perspectiva de género”, 1. or.

² “Participación femenina en el poder público municipal y políticas de equidad de género. Una mirada regional”, 1. or.

barneko hauteskundeetan onurarik hartzeko; hauteskunde horiek, gainera, ez dituzte emaitzak ia aintzat hartzen, eta, bestalde, normalean zerrendako azken tokietan jartzen dituzte emakumeak. Hala ere, ustelkeriako salaketa larriak izan dituzten biltzarkideak daude, eta, horren ondorioz, lehentasunezko botoa kentzea eztabaidatzen ari da. Feministek aldizkatze parekidea proposatu dute, hau da, zerrendetan gizon bat eta emakume bat agertzea aldizka. Emakumearen Ministerioak proiektu bat aurkeztu zuen aurreko legegintzaldian, baina artxibatu egin zen. Oraingo titularrak gai hori atera nahi du berriz.

Eskubide baten aldeko borroka

Emakume perutarrek 1955eko irailaren 7an lortu zuten hautatzeko eta hautatuak izateko eskubidea. Urte hartan, Manuel A. Odría diktadoreak 12391 zenbakiko Legea eman eta onetsi zuen, ez sineste sendoa zuelako, baizik eta emakumeen botoa bere alde egongo zela uste zuelako. Urte horretako hauteskundeetan, lehenbiziko aldiz, bederatzi emakume hautatu zituzten, bat Senaturako eta gainerako zortziak Diputatuen Ganberan aritzeko.

Legea atera zen garaian, aldaketa nabarmenak izan ziren emakumeentzat: samaldaka sartu ziren unibertsitateetan eta lan-merkatuan; pilula iritsi zen herrialdera, eta, harekin batera, ugalkortasuna kontrolatzeko aukera ere bai; adinez nagusia izateko adina 21 urtetik 18 urtera jaitsi zen; landaguneetan, emakumeek eginkizun nagusia betetzen zuten lurrak lortzeko borrokan... Hala, bada, baldintza egokiak zeuden emakumeak politikan sar zitezen eta alderdi politikoetan parte hartzen has zitezen. 1928. urtean, emakume bat egon zen Alianza Popular Revolucionaria Americana (APRA) alderdiko sortzaileen artean, hain zuzen ere, Magda Portal; eta zera adierazi zuen:

“Hala, beraz, emakumearen borroka gizonarena baino askoz sakonagoa eta osoagoa da. Emakumeak ez du soilik arlo ekonomikoan gizatiaragoa eta duinagoa izango den bizitza lortu nahi; gizarteko borrokaren bideetatik abiatuta, emakumeak eskubidea lortu nahi du bere nortasuna azaleratu abal izateko, baztertuta baitago, aurreiritziek eta ulertu ezinak zokoratuta”³.

³ Hacia la mujer nueva, 49, Daniel R. Reedyk hemen aipatua (173. or.): Magda Portal, la pasionaria peruana. Biografía intelectual. Flora Tristán Ediciones. Lima, 2000.

Portalek neke gabe bultzatu zuen emakumeek politikan parte hartzeko borroka, eta halaxe adierazi zuen *Hacia la mujer nueva* izeneko lanean (1933): etxea utzi behar zuen, emakume iraultzaile bilakatzeko.

1950eko hamarkada iritsi aurretik, herrialdeko bizitza errepublikanoan, emakumeek murriztuta zituzten eskubideak. 1933ko Konstituzioaren arabera, emakumeak ezin zituen kargu hauek bete: “Errepublikako presidente, Estatuko ministro, Kongresuko ordezkari, Indar Armatuetoako kide, kontsulta-batzordeetako kide”⁴.

Karta Magna atera aurretik egindako eztabaidan, Konstituzioko Batzordeak emakumei boto politikoa ematea erabaki zuen, alde batetik, zuzentasun, justizia eta gizarte-erabilgarritasuneko oinarriak kontuan izanda, eta, bestetik, ez zuelako arrazoirik aurkitu “gizonaren eta emakumearen arteko gaitasun politikoan desberdintasunik zehazteko”⁵. Proposamen hori atzera botatzeko erabili ziren argudioak era askotakoak izan ziren, baina honelakoak gailentzen dira oroz gain: “emakumearen arreta galaraziko du horrek, eta gizartean eta familian bete behar duen eginkizun gorenetik desbideratuko du” eta “emakumeen autonomia eza”⁶.

Emakumeen udal-bozketarako eskubidea onartu zen, irakurtzen eta idazten zekiten emakumeentzat, adinez nagusiak zirenentzat, ezkondata zeudenentzat edo egon zirenentzat, eta familiako amentzat, nahiz eta adinez nagusiak ez izan. Eta idazten eta irakurtzen jakinez gero, alkate edo zinegotzi hautatu ahal zituzten, hala titular nola ordezko⁷.

Magda Portal iritsi aurretik, emakumeen eskubideen aldeko borrokan, funtsezko bi une hauek izan ziren: bat 1870eko hamarkada izan zen, emakume ikasien lehenengo belaunaldia azaldu baitzen. Tartean, Cuscoko Clorinda Matto eta Moqueguako Mercedes Cabello nabarmentzen ziren. Biek jardun zuten emakumeek hezkuntzara eta lanera iristeko sarbidea izatearen alde, haien ustez, ate horietatik igarota, emakumeek gainerako eskubideak lortu ahal izango baitzituzten, eta, aldi berean, oinarritzko eginkizuna beteko

⁴ Pedro Patrón Faura, *Legislación de la mujer peruana*. Lima, 1947.

⁵ Diana Miloslavich Tupac. “La extensión del voto universal como factor determinante en el desarrollo de los partidos políticos en el Perú. Evolución del voto: el voto femenino”. 2004, 6. or. Agiri argitaratu gabea.

⁶ Ibid, 9. or.

⁷ Pedro Patrón Faura, *Legislación de la mujer peruana*. Lima, 1947, 11-12. or.

baitzuten estatuko historian. Cabellok zera adierazi zuen: “...*Eman lana emakumeari, zeren, hori egitean, moraltasun eta aberastasun publikorako iturri bat zabalduko baita*”⁸.

Hala ere, Mercedes Cabelloren ustez, eskubide politikoak indarrez sortu ziren, eta, beraz, eskubide horiek “*txarrak*” ziren, hala emakumeentzat nola “*gizateria osoarentzat*”. Idazlearen ustez, “*politika berez elkorra da, eta ez du batere zerikusirik emakumearen izaerarekin*”. Hargatik, galdera hau egin zuen: “*Zer lortuko luke emakumeak, eskubide politikoak eskuratuko balitu? Ezer ere ez. Ez aringarririk bere nabigabeak arintzeko, ez argirik bere adimenerako, ez euskarririk bere bertuterako. Grina politikoen drama horretan bilduko luke bere burua, ez besterik; eta, hor, maltzurkeria eta faltsukeria dira nagusi...*”⁹.

Beharbada, politika arbuizatzen zuen, aretoetako fribolotasunean kargu publikoak nola negoziatzen ziren edo itunak nola egiten ziren ikusita, hor emakumeek eginkizun garrantzitsua baitzuten, eta berak zalantzan jarri baitzuen hori guztia *Blanca Sol* eleberrian. Hala Mercedesek nola Clorindak, biek errepikatzen zuten emakumeak hezi behar zirela, eta lana eman behar zitzaizela, “*gizartean zuten tokia zabaltzeko*”, “*emakumeak mendekotasunetik askatzea baitzen premiarik handiena*”¹⁰.

XX. mendearen lehenengo bi hamarkadak beste une gogoangarri bat izan ziren, ordukoa izan baitzen feminismo perutarren lehenbiziko uhina. María Jesús Alvarado (1878-1971) izan zen uhin horren adierazgarri nagusia, ahotsa goratu baitzuen emakumeen, neska-mutikoen eta indigenen alde.

Urte honetan bete da lehen urteurrena, María Jesús Alvaradoren “El feminismo” lanaren jendaurreko irakurketa egin zen egunetik (1911ko urriaren 28an). Peruko feminismoaren sortze-testutzat hartzen da lan hori, eta garai hartako emakumeek zituzten eskaera nagusiak jasotzen ditu:

⁸ “Necesidad de una industria para la mujer”. Ismael Pinto Vargasek hemen jaso: Sin perdón y sin olvido. Mercedes Cabello de Carbonera y su mundo, 194. or. Universidad de San Martín de Porres. Lima, 2003.

⁹ Influencia de la mujer en la civilización. IV. 1874ko irailaren 26a. Ismael Pinto Vargasek hemen idatziz emana: Sin perdón y sin olvido. Mercedes Cabello de Carbonera y su mundo. Universidad San Martín, Lima 2003, 174. or.

¹⁰ Maritza Villavicencio. Del silencio a la palabra. Mujeres peruanas en los siglos XIX-XX. Ediciones Flora Tristán, 1992, 99. or.

“Laburbilduta, honako hauek dira oinarri horri eutsita feminismoak eskatzen dituen erreformak: 1. Emakumea bezteko prozesua zabaltzea eta erraztea, emakumeak adimena eta gaitasunak garatu ahal izan dituzan gizonak bezalaxe; 2. Lan publikoan eta lanbide liberaletan sartzeko aukera ematea, berak egindako ahaleginari esker aurrera egin ahal izan dezan, bere egoera ekonomikoa eta soziala hobetuta; 3. Emakumeari gizonak dituen eskubide zibil berberak ematea, eta legeak ezarritakoari jarraiki senarraren mende dagoen emakume ezkondua mendekotasun horretatik askatzea, ezkongabe zegoenean zituen eskubideak galdu baititu; 4. Eskubide politikoak ematea, estatuko helburuetan zuzenean parte hartu ahal izan dezan...”¹¹.

Artikuluen aniztasunak eta egokitasunak argi erakusten dute María Jesús Alvaradok oso zeregin eraginkorra bete zuela emakumeen eskubideen aldeko borrokan, eta, besteak beste, parte-hartze politikoaren aldeko borrokan. Alabaina, emakumeak ohartzen ziren aldatu nahi zituzten kontu gehienak guztiz barneratuta zeudela *“legerian, eta, beraz, ia ezinezkoa zela aldaketa horiek egitea gizarteko oinarri asko azpitik zulatu gabe”¹²*.

Alvaradok “Evolución femenina” izeneko argitalpena sortu zuen. Bertan, gutun ireki bat irakur dezakegu (1923), Kode Zibila eraldatzeko Batzordeko buruari zuzendutakoa, garai hartako emakume gailen askok sinatutakoa. Lehen, emakumeek eskubide batzuk zituzten, eskubide gutxi batzuk baizik ez baziren ere; hala ere, 1851ko Kode Zibilaren bidez kendu zizkieten, senarraren menpe jartzean, senarrari ahalmen osoa emanda. Hala, beraz, berriro berreskuratu nahi zituzten eskubide horiek:

“...emakumeak senarrak agindutakoa bete behar du, berarekin bizi, eta bere atzetik joan behar du, hari bizitzeko egoki iruditzen zaion tokira. Emakumeak ezin du epaiketa batean azaldu senarraren baimenik izan gabe... Senarra da elkarrekiko irabazi guztien kudeatzailea, eta nahi duena egin ahal du irabazi horiekin, emaztearen baimenik izan gabe. Hala ere, emazteak ezin ditu bere ondasun parafernalak –hau da, bere ondasunak– erabili, senarraren baimenik ez badu...”¹³.

¹¹ Evolución femenina, 7-8. or. Lima, 1911. Azpimarratutakoa nik nabarmendu dut.

¹² Emakumeen Kontseilu Nazionaleko buru zen Mercedes Gallagher de Parksen gutuna, 1922ko abenduaren 22a. Elsa M. Chaney de Castorinok aipatua (1962). “Significado de la obra de María Jesús Alvarado. Cuadernos culturales serie II. Cendoc Mujer, Lima 1988.

¹³ “Reivindicación civil de la mujer”, 2. or. Evolución femenina, Lima 1923.

1994ko Kode Zibilak eskubide eta betebeharrak berberak ezarri zituen ezkontideentzat, emakumeek egindako mobilizazio handiei esker, batez ere bigarren uhineko feministek egindako borrokari esker. Horiek hirurogeita hamarreko hamarkadan sortu ziren mugimendu gisa.

Bestalde, emakumeen adierazpide gisa prentsak bete zuen eginkizuna nabarmendu behar dugu: *Luis Miguel Glaveren ustez, "emakumeek eginkizun nagusia bete zuten egunkarietako orrietan", garai hartan "prentsa baitzen sortzen ari ziren errepubliketako pentsaeretan paradigma berriak bilatzeko gunerik garrantzitsuena"*¹⁴. Gaur egun, prentsak herrialdeko agenda politikoa finkatzeko boterea du, baina, hala ere, helburu ideologikoak edo ekonomikoak ditu oinarrian, eta, gaiei heltzerakoan, sentsazionalismoaren mugan ibiltzen da. Horiek horrela, emakumeak erreferentzia-puntu bilakatzen dira, batez ere emakumezkoen arazoetan, eta politikek egindako hutsak iseka gehiagoz epaitzen dira.

Garai hartan, bestalde, ahaleginak egin zituzten emakumeek aurrera egiteko lagungarria izan zitekeen instituzionalizazioa ezartzeko. 1975. urtean, Juan Velasco Alvaradok gidatzen zuen gobernu militarrek Comisión Nacional de la Mujer Peruana-CONAMUP sortu zuen (Emakume Perutarren Batzorde Nazionala); eta lehenengo aldiz dei egin zien auzo xeheetako, sindikatueta eta kultura-arloko emakumeen erakundeei, taldeei, profesionalei eta feministei. Emakumearen Mundu Mailako I. Biltzarra prestatzen ari zenean hartu zuten erabaki hori (Mexiko, 1975). Urte horretan, 1975. urtea "Emakume Perutarren Urtea" zela ezarri zuten, dekretu bidez. Hala ere, suhertasunak ez zuen luze iraun, eta 1976. urtean CONAMUP kendu zuten.

1983. urtean, Emakumearen Bulegoa sortu zuten Justiziako Ministerioaren barruan, emakumeen aldeko ekintzak koordinatzeko. Emakumeen gobernu kanpoko erakundeei eta herriko erakundeei gonbit egin zieten ordezkari bat izenda zezaten.

Alan Garcíak zuzendu zuen APRA alderdia gobernuan egon zen garaian (1985-1990), Emakumearen Eskubideen aldeko Batzorde Berezia sortu zen (1986). 1987. urtean, Instituto Nacional de Apoyo a la Mujer Peruana-INAMUP sortzea proposatu zuten (Emakume Perutarri laguntza emateko Institutu

¹⁴ "Imagen y proyección de la mujer en la república", in: Carmen Meza eta Teodoro Hampe (konp.), *La mujer en la historia del Perú (siglos XVI al XX)*. Fondo Editorial del Congreso, Lima 2007, 540. or.

Nazionala). Institutu horren xedea hauxe zen: herrialdeko ekonomia-, gizarte-, politika- eta kultura-arloko jardueretan emakumea barne hartzeko politika nazionala finkatzea. Feministek gogor kritikatu zuten proposamena, estatuak instituzioak kontrolatzeko egindako ahalegina zela uste zutelako.

Parlamentuan ere hainbat ekimen izan ziren, esate baterako, ohaidegoa legeztatzeko erregistroa zabaldu zen, etxekoandreentzako gizarte-asegurua sortu zen, eta lege-proiektu bat idatzi zen Kode Penalean abortuari buruz jasotako pasartea aldatzeko. Proposamen horietatik, azkenean, etxekoandreentzako gizarte-asegurua izan zen ebatzi zen bakarra.

Egoera horretan, feministek zeregin eraginkorra bete zuten, baina ez zeuden bakarrik. 1950eko hamarkadatik aurrera, emakumeen herri-erakundeak sortzen hasi ziren, hiriburuko bazterretan etorkinen biztanle-guneak azaltzarekin bat. Bestalde, emakumeak gero eta gehiagotan agertzen ziren alderdi politikoetan. Maritza Villavicenciok “*isurialde feministak*” deitu zien, eta hiru hauek zehaztu zituen: *feministak, politikoak eta “hirugarren isurialdea, isurialde hiri-herritarra, mende basieran izandako industrializazio eta urbanizazioko prozesu beraren ondorioz sortzen ari ziren langileen mailetako eta herriko emakumeei zegokiena”* (167. or.).

Isurialde horietako bakoitzak dinamika eta helburu desberdinak zituen. Feministek herrialdean zeuden genero-arloko hierarkiak zehaztu eta eraldatu nahi zituzten. Politikoez indar handiagoz agertu nahi zuten alderdian, eta alderdien barruan eta jardunean zeuden generoko harremanak aldatu nahi zituzten; eta hirugarren isurialdeak bere beharrezkoak bete nahi zituen, eta horien sorburua ugaltze-arloan zuten zeregina eta eraikitzen ari ziren biztanle-guneetako baldintzak ziren, oinarritzko zerbitzuak behar baitzituzten bizitza-baldintzak hobetu ahal izateko.

Feminismoak beste bi isurialdeak iragaztea lortu zuen. Mugimendu feministari buruzko azterketa batean (1992), Virginia Vargasek honela definitu zituen isurialdeak: “*gune horietan emakumeak beste modu bat aurkitzen ari dira emakume izateko, nortasun berriak izateko oinarriak eraikiz. Eguneroko bizitzan ainguratutako guneak dira, eta, horietatik, emakumeek mendekotasunaren konplexutasuna eta mendekotasunari aurre egiteko moldeak aurkitzen dituzte*”¹⁵.

¹⁵ El movimiento de mujeres en el Perú: vertientes, espacios y nudos, en *Feminismos en América Latina. Su aporte a la política y a la democracia*. Centro Flora Tristán, Universidad Nacional Mayor de San Marcos, Programa Democracia y Transformación Global. Lima, 2008.

Gaur egun, isurialde horiek emakumeen mugimenduari buruzko ikuspegi berria eskaintzen digute, baina tirabiraz beteriko unea izan zen haien artean, Alberto Fujimori gobernuan zegoen garaian (1990-2000). Garai horretan, bestalde, autoritarismoa, giza eskubideak urratzea eta ustelkeria izan ziren nagusi. Gobernuan egon zen hamar urteetan, lehenik eta behin, Emakumearen eta Haurraren Eskubideen Batzorde Iraunkorra sortu zen, Justiziako Ministerioaren Giza Eskubideen Kontseilu Nazionalaren barruan (1993). Emakumearen Mundu Mailako IV. Biltzarraren esparruan, emakumeari buruzko gaia bereizi zen, eta Emakumearen Eskubideen Batzorde Iraunkorra eratu zen. Erakunde feminista batzuek –eta, haien artean, Centro Flora Tristán erakundeak– ordezkariak izan zituzten.

1996an, Emakumearen Ministerioa, Herriaren Defentsa Bulegoa –eta, haren barruan, Emakumearen Defentsa Bulego Espezializatua– eta Kongresuko Emakumearen Batzordea sortu zituzten. Gune horiek eratuta, feministek hainbat agiritan eta alditan adierazitako nahiak ase nahi zituzten. Hala ere, gune horiek formaz sortu arren, horrek ez du esan nahi estatuak generoko berdintasun eta zuzentasunaren aldeko politikak eta programak sortzeko aukera eman zuenik. Aski da aipatzea 1999. urterako, 300.000 emakume zeudela antzututa¹⁶, gehienak gogoz kontra eta baldintza negargarrietan; eta, Herriaren Defentsa Bulegoak egindako txosten baten arabera, urte horretan 17 emakume hil zirela horren ondorioz.

Bestalde, gobernu horrek izaera autoritarioa zuten emakumeen talde bat izan zuen; talde horrek presidentea eta haren kudeatze-lana gotortu zituen, eta, estraditatu ondoko epaiketan, babestu egin zuen (2010). Salbuespenen bat gorabehera, gehienek ez zuten emakumeen agendaren berri izan, eta ukatu egin zuten erregimenaren garaian giza eskubideak urratu zirenik. Emakume horietako batzuk Kongresura itzuli dira azken hauteskundeetan.

Cecilia Blondetek dioenez, *“Fujimorirentzat, emakumeak xake-joko bateko piezak izan ziren. Erregearen peoiak edo alfilak. Hau da, presidentearengandik hurbil zeuden politiko edo exekutibo profesional moduko zerbait ziren, edota gobernuaren laguntza-programen onura*

¹⁶ Familia Plangintzako zuzendari den Jorge Parra Vergara jaunak El Comercio egunkariari egindako adierazpenak (1999ko maiatzaren 4a). Ezarritako helburuei jarraiki, kopuru horri 45.000 gehiago gaineratu behar zaizkio urte berean.

*jasotzen zuten milaka emakumeek eratzen zuten gizarte-masako zati baten modukoak*¹⁷. Biztanleek ondo ikusi zuten agerpen hori, eta, haien eraginkortasuna onartzeaz gain, zintzoagoak zirela uste zuten. Hori lagungarria izan zen “*presidenteak boterean finkatzeko behar zuen errespetuaren, ordenaren, iraunkortasunaren eta gobernu onaren irudia sendotzeko*”¹⁸.

Bestalde, emakumeek Sendero Luminoso mugimendu subertsiboan bete zuten eginkizuna azaldu behar da. Sendero 1980ko maiatzean hasi zen jardunean, Chuschi izeneko erkidegoan, hain zuzen ere (Ayacucho). Hasieran, “*eskualdeko alderdi bat zen, funtsean, eta oso gune txikiak zituen Ayacuchotik kanpo, Ayacuchon baitzegoen bere oinarri nagusia. Mugimendua eratzen zuten gebienak unibertsitateko ikasleak eta irakasleak, eta maisu-maistrak ziren...*”¹⁹, eta, horien artean, emakumeek gune garrantzitsua eratu zuten. Robin Kirken arabera, Peruko agintariek hauxe uste zuten:

*“Sendero Luminosori leporatutako ekintza terroristak egiteko salaketa jaso duten pertsonen heren bat emakumeak dira. 1990. urtetik aurrera, poliziaaren inteligentzia-zerbitzuek egin dituzten ikerketen arabera, zortzi emakume egon dira Alderdiaren Batzorde Nagusi ezkutuko 19 kideen artean, eta Politburoa eratzen duten bost kideetatik bi emakumeak dira. Izan ere, normalean, emakume bat arduratzen da Sendero Luminoso mugimenduaren suntsitzeko eskudroi trebatuek erasoan jotako ofizial poliziaiei eta militarrei azken tiroa emateaz. Sendero Luminosok dioenez, mugimenduko kideen %40 emakumeak dira”*²⁰.

Zer dela-eta erakarri zituen Senderok emakumeak, hainbesteko suharta-sunez eta erabakitasunez? Senderoren agiriak berrikusiz, Narda Henríquezek adierazi zuen hauek direla, laburbilduta, Senderok emakumeei buruz zuen proposamenaren alderdi nagusiak:

¹⁷ Emakumeen parte-hartze politikoari buruzko irakaspenak. Demokrazia, gobernu eta giza eskubideak. 12. zenbakiko programako agiria. 2004ko ekaina. Gizarte Garapenerako Nazio Batuen Ikerkuntzako Institutua, 2. or.

¹⁸ Cecilia Blondet, ibid, 3. or.

¹⁹ Carlos Iván Degregori. Qué difícil es ser Dios. El Partido Comunista del Perú-Sendero Luminoso y el conflicto armado interno en el Perú: 1980-1999. Instituto de Estudios Peruanos. Lima 2011. Obras escogidas I del autor.

²⁰ Grabado en piedra. Las mujeres de Sendero Luminoso. Instituto de Estudios Peruanos. Lima 1993, 14. or.

“a. Emakumearen burujabetza langileen borrokari eta jabetza pribatuari buruzko auziari lotuta dago; burujabetza hori “jabetzako eskubidea suntsitzeko” prozesuari dago lotuta.

b. Emakumeak “zapalkuntza hirukoitza” pairatzen du: estatuarena, familiararena eta senarrarena; hirurek batera “sistema feudalaren ideologia” bezurmamitzen dute, eta, beraz, “burujabetza lortzeko, gizartea eraldatu behar da”.

*c. Emakumeek borroka armatuarekin bat egin behar dute*²¹.

Egile horren ustez, *“gatazka armatua izan den testuinguruan, emakumearen aurkako indarkeria errealitate arrunta da eguneroko bizitzan”*, eta, askotan, indarkeria politikoarekin *“bat egin eta nabasten da”* indarkeria hori. *“Emakumearen aurkako indarkeria-moldeak berriz agertzen dira, eta erasotzaileak biderkatu egiten dira, baina indarkeriaren oinarriek bere horretan jarraitzen dute ukitu gabe, eta generoko kodeak areago hedatzen dira, eta gerran barneratzen dira”* (81. or.).

Emakume horien aurrez aurre, herri-erakundeetako emakume buruzagiak bakearen sinbolo bilakatu ziren, eta, horretarako, zuzen egin behar izan zioten aurre subertsioari. Hor dugu, adibidez, Federación Popular de Mujeres de Villa El Salvador erakundeko kidea zen Elena Moyano: Senderok krudelki hil zuen, baina horrek, aldi berean, talde subertsiboaren amaiera ekarri zuen.

Bestetik, trantsizioko gobernuaren garaian (2000), emakume feministek estatuko kargu gehiago eskuratu ahal izan zituzten, eta joera horrek areago egin du gora Ollanta Humalaren oraingo gobernuarekin, Emakumearen Ministerioko titularra aspaldiko emakume feminista eta sozialista bat baita. Titular horrek ministerioa indartu nahi du, generoko politiken organo zuzentzailea den aldetik; eta kargu hori bere aurretik bete zuten emakumeek, berriz, ez zuten xede hori bilatu edo lortu, gobernuan zeuden sektore kontserbadoreen eraginez.

Laurogeiko hamarkadatik aurrera, feministak lanean aritu dira estatuko botereen gainean eragina izateko, eta, zehazki, arauak aldatu eta/edo emakumeen aurrerapenerako lagungarriak izan daitezkeen lege eta politika berriak

²¹ Narda Z. Henríquez Ayín. Cuestiones de género y poder en el conflicto armado en el Perú. Consejo Nacional de Ciencia, Tecnología e Innovación Tecnológica-CONCYTEC. Lima, 2006. 20. or.

aurkitzeko. Horretarako, nazioarteko tresnak eta onespenak erabili dituzte; horiek guztiek lotu egiten dute Peruko estatua, eta, beraz, estatuak egin beharreko aldaketak egin beharko ditu, emakumeek aukera osoa izan dezaten beraien eskubideak eskuratzeko eta gizartean dituzten egoera eta jarrera eraldatzeko. Lorpen garrantzitsuak izan dira, eta, horrenbestez, emakumeak eskubideak dituzten herritarrak dira gaur egun; eta, inkesten arabera, iritzi publikoaren %70ek baino gehiagok uste du feministak direla lorpen horiek sustatu dituzten bultzatzaile nagusiak.

Emakumeak Perun

Hala ere, gauza asko dago egiteko oraindik, emakumeen bizitza benetan eraldatu ahal izateko. 2007ko estatuko erroldako datuen arabera, Perun, emakumezkoak %50,3 dira (13.789.517), gizonezkoak baino zertxobait gehiago, gizonak %49,7 baitira. Emakumeen %48,5 landa-guneetan bizi da. Arlo horretan metatzen da emakume analfabetoen kopururik handiena (810.768). Bestalde, landa-guneetan, handiagoa da emakumeen batez besteko seme-alaben kopurua: 2,5ekoa da, eta estatuko batez besteko kopurua, berriz, 1,7koa da.

Beste adierazle nabarmen bat da nortasun-agiririk ez duten emakumezkoak, guztira, 319.462 direla. Horren ondorioz, emakume horiek ezin dute pobrezia aurkako borrokako programen onurarik jaso, eta, era berean, ezin dituzte seme-alabak erregistratu, ezta ondasunik edo krediturik eskuratu ere. Hala, beraz, estatu perutarrentzat emakume horiek ez dira existitzen. Horrez gain, kontuan izan behar da 1.922.295 emakume etxeko buru direla, batez ere sektorerik pobreenetan.

Perun, amen heriotza-tasa 103koa da, bizirik jaiotako ehun mila haurreko²². Bestalde, pobrezian bizi diren hamar lagunetik zortzi landa-gunean bizi dira²³. Hortaz, emakumeak egoera ahulagoan daude haurdunaldien aurrean. 2007ko estatuko erroldaren arabera, erroldan jasotako erkidegoen %59,1ek ez zuen osasunerako establezimendurik, eta gainerakoek –hau da, %40,9 erkidegok– botika-kutxa baizik ez zuten. Hala, bada, ez zuten profesionalen laguntzarik, ez eta ekipamendu egokirik ere.

²² ENDES 2009-Familiako Osasunari buruzko Inkesta Demografikoaren arabera, amen heriotza-tasa gutxitu egin da, 185etik (2000. urtean) 103ra, bizirik jaiotako ehun mila haurreko. Instituto Nacional de Estadística e Informática-INEI. 2010.

²³ INEI. Informe técnico: Situación de la pobreza en el 2008, 32. or.

Nerabeen artean, haurdunaldiak gora egin du, %12,2tik %13,7ra. 1924tik hona, Perun legezkoa den abortu-modalitate bakarra abortu terapeutikoa da. Hala ere, ez du protokolo nazionalik ezartzeko, eta, hortaz, osasun-arloko profesionalek uko egiten diote abortua egiteari osasun-egoerak eskatzen duenean. Sexu- eta ugaltze-arlokoak eskubideak dira, gaur egun ere, emakumeen eskubideen agendan dagoen gairik eztabaidatuena, bereziki abortua; eta gai horiek dira, hain zuzen ere, erabakitzaile politikoek gehien erasotzen dituztenak, sektore kontserbadoreen eraginez.

Gaur egun ere, indarkeria da bereizkeriaren adierazpen nagusia. Hilean 10 emakume hiltzen dira batez beste feminizidioaren ondorioz; eta, ENDES-2010 inkestaren arabera, emakumeek adierazi dutenari jarraiki, emakumeen %38,4k mutil-lagunak egindako indarkeria fisikoa edo sexuala jasan du.

Ikusten denez, Peruko emakumeen agendak zabala izan behar du, eta premiazko hainbat gai hartu behar du barne, emakumeen bizitza-baldintzek gutxieneko estandarrak bete ditzaten. Hala ere, azken hauteskundeetan, gobernuko planek zerikusi gutxi zuten emakumeen eskubideekin. Salbuespen bakarra hauek ziren: Fuerza Social (Limako oraingo alkatearen alderdia), “generoko zeharkako ikuspegia” baitzuen, eta gobernura iritsi zen Gana Perú ituna, “generoko zuzentasunerako politikei” buruzko atal bat aurkeztu baitzuen.

Gabezia horren ondorioz, hauteskunde-kanpainen generoko proposamenak ia ez ziren agertu hedabideetan, aurtengo otsailaren 9tik martxoaren 10a bitartean egindako azterketa batek adierazten duenez²⁴: irratian %1,7; telebistan %0,5 eta idatzitako prentsan %0,3. Hiru hedabideetan, gehien aztertu zen gaia sexu- eta ugaltze-arloko eskubideak izan ziren; eta eztabaida gehien piztu zuten gaiak, berriz, abortua eta homosexualen arteko batasun zibila izan ziren.

Erakunde feministak etengabe aritu ziren zaintza-lana egiten, alderdiek generoko kuota bete zezaten Kongresurako hautagaien zerrenda prestatzean, baina, hala ere, emakumeak azken postuetan kokatu zituzten gehienbat. Aurreko iturri berberarekin jarraituta, bost indar nagusiek emakume hautagaien ehuneko hauek lortu zituzten: Gana Perú (governuko alderdia): %38;

²⁴ “Elecciones generales 2011”, Idea Internacional, Centro de Asesoría y Promoción Electoral y Transparencia- zentroak egina. Boletín Datos Electorales 5. zk., Lima, 2011ko martxoaren 22a.

Fuerza 2011: %40; Alianza por el Gran Cambio: %40; Alianza Perú Posible: %40; Alianza Solidaridad Nacional: %39.

Azterketa horren arabera, Kongresurako hautagai ziren gizonezkoek emakumeek baino estaldura gehiago lortu zuten hedabideetan: idatzitako prentsan %85,2 (emakumeek, berriz, %14,8); telebistan %80,7 (emakumeek, berriz, %19,3); eta irratian %78,5 (emakumeek, berriz, %21,5).

Hala, bada, egoera zaila dugu politikan aritzen diren emakumeei begira. Alde batetik, zailtasunak dituzte proposamenak egiteko eta herritarrengana hurbiltzeko; bestetik, egoera ahulagoan daude salaketen eta prentsako kanpainen aurrean, lehen esan dugunez.

Biltzarkide batzuek, batez ere alderdi kontserbadoreetako kideek, ezer gutxi dakite emakumeen agendari buruz, indarkeriari dagokion gaia alde batera utzita; edo, bestela, ez dira emakumeen eskaerekin engaiatzen, haien ustez gai horiek ez baitira auzi garrantzitsuekin nahastu behar.

Aurreko legegintzaldian (2005-2010), Peruko Emakume Parlamentarien Mahaia eratu zen, eta mahai horren jarduera aldatu egin zen, mahaiburu zen biltzarkideak zuen joeraren arabera. Ahultasun hori gorabehera, zeregin garrantzitsua bete zuen, emakumeen aldeko proposamenak aurkezteko bitartekari gisa.

Mugimendu feministak emakumeek politikan parte har dezaten egindako proposamenak

Emakume feministek egindako lanaren ezaugarri nagusia da estatuan eta beste herrialde batzuetan egituratzen dela, hala emakumeen beste mugimendu batzuekin, nola giza eskubideen aldeko mugimenduekin. Era horretan egituratzeko, sare espezializatuak daude, emakumeen agendatik harantz doazen sareak, ingurumenaren eta kultura- nahiz sexu-aniztasunaren aldeko borrokan ere aldarri egiten dutenak. Emakume indigenek –eta haien artean Amazoniako indigenek– eginkizun garrantzitsua hartu dute eskubideen aldeko borrokan, batez ere indarkeriaren aurkako borrokan; eta transexualek areago zabaldu dute feministen agenda.

1990eko hamarkadan, garrantzi handia izan zuen Foro Permanente Mujer (Foro-Mujer) deitutakoak (Emakumearen Foro Iraunkorra). Foro hori Centro Flora Tristán erakundeko Virginia Guzmánen ekimena izan zen, eta honako

hauek osatu zuten: Centro Flora Tristán, Aurora Vivar, Movimiento Manuela Ramos, Cendoc-Mujer, Centro de Estudios Sociales eta Publicaciones-CESIP eta Mujer y Sociedad erakundeek. Foroaren xedea zen gune bat sortzea politikariek hitz egiteko, eta eragina izatea erabakiak hartzen diren tokietan, hala nola, batzorde betearazlean eta legegilean. Gune garrantzitsua izan zen, politikoen eta emakumeen mugimenduen arteko zubi bat irudikatu baitzuen, eta izaera propositiboa izan zuen. Horretarako, hiru isurialdeetako emakumeei dei egin zien, eta premia-azko agenda proposatu zuen.

Hauteskundeetako emaitzak jakin ondoren, bigarren aldiz dei egin zien parlamentuko kideei (emakumezkoei), Nekazaritzako Erreformari buruzko Legea aldatzeko proposamenen berri emateko, horrek bazterrean uzten baitzituen emakumeak. Era berean, Merkataritzari buruzko Kodea aldatzeko proposamenak ere aurkeztu zizkien, emakumeek jarduerak egin ahal izan zituzaten senarraren baimenik behar izan gabe. Ildo horretan, familiako indarkeriari buruzko lege bat azaldu eta eztabaidatu zen, eta 1993ko abenduan onetsi zen, 26260 zenbakiko Legearen bidez.

1994ko martxoan, Foro-Mujer foroak Emakumeen Biltzar Politikoa antolatu zuen, eta, bertan, feministek, herri-erakundeetako buruzagiek eta etxeko langileek parte hartu zuten, besteak beste. Garai hartan, Sendero Luminoso eta Movimiento Revolucionario Tupac Amaru mugimenduek ikara eragiten zuten herrialdean, atentatuak eta hilketak eginez, eta giza eskubideen aldeko mugimenduak presioa egiten zuen, lege antiterroristak alda zituzten, akats judizialak eta bidegabekeria eragiten baitzituzten. Hauteskundeen aurreko giroa badaezpadakoa zen, eta emakumeen eskaerak eta proposamenak bigarren mailan azpiratuta agertzen ziren, bai eta hirugarren mailan ere, esate baterako, abortua despenalizatzea edota indarkeria²⁵.

Biltzar horretan “Emakumeentzako kuota-sistema onartzeko” proposamena aurkeztu zen. Urte horretako Biltzar Eratzaile Demokratikoan prestatu zuen proposamen hori, martxoaren 8aren inguruan²⁶. Proposamen horretan, eskaera egiten zen Alderdi Politikoen Legean artikulua bat sartzeko, honako

²⁵ Edith Montero. Tres temas de debate: consecuencias del ajuste estructural, la defensa de los derechos humanos y el clima pre electoral, in: Propuestas políticas desde las mujeres. Conferencia política de mujeres, Lima, 3 y 4 de marzo de 1994 (ponencia y resúmenes), 8. or.

²⁶ 1992. urtean, Alberto Fujimori Kongresua itxi zuen, eta Batzar Eratzailerako dei egin zuen. 1993. urtean, iritzi publikoak horretara bultzatuta, erreferendum baterako deia egin zuen, Konstituzioaren proiektu berria onesteko.

hau jarrita: “*Alderdi politikoek emakume hautagaiak sartuko dituzte beraien zerrendetan, gutxienez %30 sartu ere, bala alderdi barruko erakundeetarako hauteskundeetan, nola hauteskunde orokorretarako eta udaleko, eskualdeko edo bestelako hauteskundeetako prozesuetan*”²⁷.

Bestalde, Foro-Mujer foroak estatuko eta nazioarteko kanpaina bat antolatu zuen abortua homizidio gisa hartzen zuen proposamenaren aurka, Biltzar Eratzaile Demokratikoko Osasun Batzordeak horixe proposatu baitzuen. Era berean, Camino a Beijing Talde Bultzatzaile Nazionalarekin koordinatuta, Kongresuan Emakumearen Batzordea sortzea proposatu zuen.

1995. urtean, hauteskunde-kanpaina bete-betean zegoela, Foro-Mujer foroak *Propuestas desde las mujeres: políticas públicas* (Emakumeek egindako proposamenak: politika publikoak) eman zuen ezagutzera, argitalpen txiki batean. Argitalpen horrek honelako gaiak ekiten zien: parte-hartze politikoa, osasuna, hezkuntza, lana, elikadura eta baketzea, dagozkien ikusmolde politikoekin.

Ikusten denez, Foro-Mujer foroa leku garrantzitsua izan zen, emakume politikoek eta feministek bat egin zezaten, eta, aldi beran, hasiera eman zion parte-hartze politikoaren ildoko lanari, zehazki, instituzioetan era sistematikoagoan egiten zen lanari, hala nola, Centro Flora Tristán erakundeak egindakoa. Gero, egituratzeko beste molde batzuk sortu ziren, eta, horietan, bat egin zuten “*talde feminista askok, bakoitzak bere dinamika bereziarekin, denek laurogeita hamarreko hamarkadako mugimenduen utzitako hutsuneei erantzuna eman nabian, leku berrietatik baina aktore zabarrekin arituta*”²⁸. 1996. urtean, Movimiento Amplio de Mujeres-MAM taldea sortu zen. 1997. urtean, berriz, Mujeres por la Democracia-MUDE azaldu zen, Centro Flora Tristán erakundeko feministek eta giza eskubi-deen aldeko erakundeetako emakumeek bultzatuta. Biak ala biak noiz-behinka baizik ez ziren agertzen artean, baina zeregin garrantzitsua bete zuten mobilizazio demokratikoa pizteko, Alberto Fujimori hirugarren aldiz hauta zezaten saihesteko, presidentetziari uko egin ziezaion lortzeko, eta, horrenbestez, trantsizio demokratikoari bidea zabaltzeko.

Hori baino lehen, 1994-95 urteetan, “Eman botoa emakume baten alde” kanpaina egin zen. Besteak beste, Aurora Vivar, Mujer y Sociedad eta Centro

²⁷ Foro Mujer. Adopción del sistema de cuota para mujeres (propuesta de articulado para ser incluido en la Ley de Partidos Políticos). Ibid, 24. or.

²⁸ Virginia Vargas V. El movimiento feminista en el horizonte democrático peruano (décadas 1980-1990). Centro Flora Tristán. Lima, 2006.

Flora Tristán erakunde feministek bultzatu zuten, eta azken erakunde hori arduratu zen Cusotik (Kanada) heldutako baliabideak kudeatzeaz.

Centro Flora Tristán erakundeak Parte-hartze Politiko eta Herritartasunerako Programa sortu zuen, eta, hortik aurrera, hori hartuko du abiaburutzat gai horri buruzko ekintzak antolatzeko. Gero, programa horren ordez, Parte-hartze Politiko eta Herritartasunerako Unitatea azaldu zen; horrek Henry Böll (Alemania) eta Diakonia (Suedia) erakundeen funtsak baliatzen zituen jarduerak egiteko. Gaur egun arte, Diakonia erakundeak funtsezko zeregina izan du, emakume politikoekin egiten den lana sendotzeari begira.

Azpinarratu behar da gaur egun Centro Flora Tristán erakundeak bost programa dituela: giza eskubideak, eskubide sexualak eta osasuneko herritartasuna, landa-garapena, ikasketak eta eztabaida feminista, eta parte-hartze politikoa eta deszentralizazioa. Era egituratuan, lan egiten dute emakumeen gaitasunak sendotzeko, gizarte zibileko zati bat diren aldetik, hartara, zaintzeko eta proposamenak egiteko eginkizuna izan dezaten, baina, aldi berean, erabakiak hartzen diren tokietan ere gehiago ager daitezten.

Emakume zinegotzien lehen elkarte (2004) Ayacuchon sortu zen, Netherlands Development Organisation-SNV (Holanda) erakundeak emandako funtsei esker. Gaur egun, sareak herrialde osotik hedatuta daude, eta Centro Flora Tristán erakunde arduratzen da haiekin lan egiteaz, Diakonia erakundeak emandako laguntzari esker.

Hasieran, Diakonia erakundeak hiru plataforma zituen lan egiteko: tokiko garapena, justizia ekonomikoa eta giza eskubideak. Generoari dagokion ildoan lehen plataforman lantzen zen. Centro Flora Tristán erakundeak generoko plataforma bat sortzea proposatu zuen; eta, hasieran, Centro Flora Tristán eta Asociación de Comunicadores Calandria erakundeek eratu zuten, besteak beste.

Gero, USAID agentziaren funtsak erabiliz, lau urtez, Emakumeen Elkarrizketarako Mahaiak eta Emakumearen Eskualdeko Kontseiluak antolatu ziren, eta, pixkanaka, eredu horiek herrialde osotik hedatuz joan ziren²⁹.

²⁹ Centro Flora Tristán erakundeak parte-hartze politikoan lan egiteko zuen prozesuari buruzko informazioa Diana Miloslavichekin izandako elkarrizketa batetik jaso genuen (2011ko urriaren 29an). Diana Miloslavichek Foro-Mujer prozesuan parte hartu zuen, Centro Flora Tristán erakundeko kide gisa. Erakundearen Parte-hartze Politikoko Programa eraikitzeke lanean ere aritu zen, eta programako koordinatzailea izan zen.

Centro Flora Tristán erakundeak parte-hartze politikoari buruz egin duen lanak lau sarrera hartzen ditu barne: lehenengoa da jardun politikoa emakumeen ikuspegitik berriz kontzeptualizatzea, gizonezkoen neurrira eginda baitaude hala nozioak nola politika gauzatzea bera; bigarrena, emakumeak erabaki politikoak hartzen diren lekuetara irits daitezen bultzatzea eta paretotasuna lortzea; hirugarrena, eragin politikoa izatea emakumeen agenda eztabaida publikoan sar dadin eta estatuko botere guztien arauetan eta politiketan egon dadin; eta laugarrena, azkenik, lanean aritzea estatu, eskualde eta tokiko guneetan generoko arkitektura eraikitzeko, eta, hortik abiatuta, emakumeen aurrerapena sustatuko duten planak, politika eta legeria eraiki ahal izateko.

Helburu hori izanda, lanean aritzen da emakumeen elkarriketarako mahaiak, zaintza eta eraginerako mahaiak, emakumearen eskualdeko kontseiluak eta emakume zinegotzien sareak sortzeko eta indartzeko, eta Emakume Agintarien Sare Nazionalako aholku-batzordeko kidea da. Emakumeek eskualdeko garapenerako kontseiluetan eta tokiko garapenerako kontseiluetan parte har dezaten, emakumeen erakundeak sor daitezen bultzatzen du, kanpaina eta aholkularitza-lana eginez, parte-hartze politiko eta deszentralizazioa eta giza eskubideak sustatzen dituzten programen bidez. Bestalde, landa-guneetako emakume buruzagientzako prestakuntza politikoko eskolak bultzatu ditu (Landa Garapenerako Programan). Nabarmendu behar da hiriko eta landa-guneetako emakumeekin lan egiten duela, Andeatako eta Amazoniako emakumeekin nahiz emakume aimarekin. Hori guztia egiteko, honako hauen laguntza jasotzen du: Alemaniako Garapenerako Eliza Ebanjelikoak-EED (Alemania), Paz y Solidaridad (Espainia), Cruz Roja Española (Espainiako Gurutze Gorria), Asociación de Investigación y Especialización sobre Temas Iberoamericanos-AIETI (Gai Iberoamerikarrei buruzko Ikerkuntza eta Espezializazioko Elkarte), Medicus Mundi (biak Espainiakoak) eta Diakonia.

Prozesu horretan, Centro Flora Tristán erakundeak askatasuna izan du ekimen eta edukien aldetik. Hala erakunde horrek nola iparraldeko gobernu kanpoko erakundeek abiaburutzat hartu dute behar-beharrezkoa dela emakumeen gaitasunak eta lidergoa sendotzea, gizarte zibileko kide diren aldetik, era horretan, protagonismo handiagoa izan dezaten beraien erki-degoetan, eta parte har dezaten erabaki politikoak hartzen diren tokietan.

Prozesua aberatsa eta askotarikoa izan da, baina emakumeek ekintza politikoan aritzeko izan duten lekurik garrantzitsuenak ez dira alderdi po-

litikoak. Alde batetik, haien instituzionalizazio-prozesua ahula da, batez ere 1990eko hamarkadatik aurrera; eta hori argi islatzen da, besteak beste, barneko prozesuak errespetatzen ez direlako. Beraien zerrendetako zati handi bat gonbidatuek osatzen dute, hain zuzen ere, %45,71. Emakumeei dagokienez, gainera, kopuru hori areago handitzen da, %45,71ra iritsi arte³⁰. Erabaki horietan, bereziki garrantzitsua da ibilbidea, eta, era berean, kanpainak aurrera ateratzeko dagoen gaitasun ekonomikoa. Emakumeak, normalean, zerrendetako azken postuetan uzten dituzte, eta, beraz, feministek txandakatzen aritzea proposatzen dute.

Máximo Galloren ustez, alderdien instituzionalizazio-prozesuaren lau osagaik zuzeneko harremana dute “*emakumeek alderdien barnean indar gebiago izan dezaten dauden baldintzekin*”: 1) *alderdien militantzia*, 2) *zuzendaritzako karguak*, 3) *alderdien barneko demokrazia*, eta 4) *gonbidatutako hautagaiak*³¹.

Gallok azterketa bat egin zuen, Hauteskundeetako Epaimahai Nazionalak eman zion informazioa abiaburutzat hartuta (2006an); bertan, alderdi politikoetako militanteei buruzko datuak agertzen ziren, sexuaren arabera bereizita. Azterketa horretan frogatu zuenez, “*ez zen guztiz egia alderdietan gizonak gebiengo izugarria zirela zioen baieztapena; izan ere, batez beste, Kongresuan ordezkariak lortzen zuten alderdietan, militanteen %45 baino gebiago emakumeak ziren*”³².

Alderdi nagusiei begiratuta, APRA alderdian, militanteen %50,89 emakumeak dira. Partido Popular Cristiano alderdian, emakumeak %50,89 dira. Cambio 90 alderdian, %48,69. Perú Posible alderdian, %41,56. Hala ere, emakumeen agerpen hori ez da erabakiak hartzen diren organoetan islatzen, hor, Gallok adierazten duenez, emakumeen agerpena %26ra jaisten baita.

Alderdien ahultasunari zera gaineratu behar diogu: erakunde horietako asko hauteskunde-prozesuetan sortzen dira, eta hautagaiak aurkeztea da haien xede bakarra. Hori ohikoagoa izaten da udal eta eskualdeko hauteskundeetan. Bestetik, emakume batzuk, hauteskundeetan esperientzia izan ondoren, alderdi batzuen barruan sartzen dira.

³⁰ Máximo Gallo. Mujeres y participación electoral. Los retos de la institucionalidad partidaria. “Chacarera” aldizkaria, 37. zk. 2008ko otsaila. Centro de la Mujer Peruana Flora Tristán, 36. or.

³¹ Ibid, 32. or.

³² Ibid. 34. or.

Ildo horretan, emakumeekin eta alderdi politikoekin lan egitea erronka bat da. Erakunde feminista batzuk horretan saiatu dira, baina ez da emaitza esanguratsurik lortu. Lan hori emakumeen idazkaritzekin egin da gehienbat, baina idazkaritza horiek ez dute oraindik eragin nabarmenik; hala ere, bi alderditan, emakumeak izan dira alderdiburu. Oraingo egoeran kontu garrantzitsua da. Izan ere, era horretan, alde batetik, emakumeen parte-hartzea sendotzen ari da, eta, bestetik, alderdiak beraiek sendotzen ari dira, eta, horrekin batera, baita herrialdeko demokrazia ere. Alabaina, hori egin ahal izateko, emakumeek kultura politikoa aldatu beharko dute, gaur egun gizonezkoek eta beraien estiloak menderatzen baitute kultura politikoa.

Emakumeen parte-hartze politikoa sustatzeko lanak hainbat beharri zani eman nahi die erantzun. Lehenengo beharra etxeko lana da. Seme-alabak hezteko eta, oro har, etxeaz arduratzeko erantzukizuna zailtasun handia izaten da. Biltzarkidea eta presidentetzarako hautagaia izan den APRA alderdiko Mercedes Cabanillasek esaten duenez, *“sinesten ez bada ere, kultura patriarkalak gizarteko eragile guztiak blaitzen ditu oraindik, goikoak, erdikoak eta behe-mailakoak. Landa-guneetan, are larriagoa da arazo, hor kontserbadoreagoak baitira, eta oraindik uste baitute, funtsean, emakumearen zereginak barreman estua duela familiaren esparruarekin eta ugaltzeko eginkizunarekin”*³³.

Nola “lapurtu” denbora etxeko lanei eta seme-alaben zaintzari, zer-eta beraien burua prestatzen emateko, edota hautesleekin harremanetan jartzeko, gizonezkoek menderatzen duten alderdiko bizitzako erronkei aurre egiteko, edota herririk herri ibiltzeko, kanpaina nekagarriak eginez? Horrez gain, emakumeentzat oso zaila da baliabide ekonomikoak lortzea ibilbide politikoa egin ahal izateko.

Beste beharri zana prestakuntza da, emakumeei tresnak ematea kudeatze-lan ona egin eta proposamenak aurkeztu ahal izan ditzaten. Emakume zinegotziek aditzera ematen dutenez, udalerrietan, normalean, Edalontzi esnearen programa izenekoren erantzukizuna eman nahi diete (haurrei, adinekoei eta haurdun dauden emakumeei zuzendutako programa da), edota ugaltzeko zereginen luzapen bat diren beste batzorde batzuetan, bestela. Zenbat eta gaikuntza gehiago izan, orduan eta aukera gehiago

³³ Alicia del Águilak ondoko ikerketan jasotako adierazpena: *Mujeres en los partidos políticos del Perú. Situación y mecanismos para su promoción*. Transparencia. Lima, 2004, 28. or.

izango dituzte gizonzkoekin lehiatzeko, garapenarekin lotuago dauden batzordeetako buru izateko.

Prestakuntza horren bidez, emakumeen autoestimua indartu behar da, emakumeei politikan sartzeko sorrarazten dien segurtasun ezari aurre egiteko, gehienetan kontra izaten baitute familiako enbiziak. Era berean, emakumeak ahulagoak dira bizitza politikoak maiz ekartzen duen ziurgabetasunaren aurrean, eta, hortaz, hauskorragoak dira porroten edo akatsen aurrean.

Agintariak diren emakumeek maiz beraien adierazpenetan azaltzen duten beste arazo bat indarkeriarena da, eta ekintza fisikoaren eta psikologikoaren bidez ematen da aditzera. Isildutako egoera bat da hori, edo salatu denean behar zuen zuzentasunaz aztertu ez den egoera bat, eta, batez ere, zinegotzi diren emakumeek nozitzen dute.

Horrez gain, ahozko eta idatzizko erregistroa menderatu beharra dago. Ez da aski beraien erkidegoen alde lanean aritzea politikan arrakasta izateko; horrez gain, oso garrantzitsua da hautesleengan barneratu ahal den erregistroa erabiltzea. Emakume politikari bat zailtasunez adierazten dela entzutean, maiz “ez dagoela prest” entzuten da, are gehiago bere ama hizkuntza bertako hizkuntza bat baldin bada.

Hortaz, lan asko egin behar da emakumeak sarriago ager daitezen, eta, aldi berean, haien gaitasunak indartu behar dira, eta bat egin behar dute emakumeen agendarekin.

Nabarmendu behar da, oro har, Centro Flora Tristán bezalako erakunde feministek egiten duten lana beste erakunde eta sare batzuekin itunduta egiten dutela, hala estatuan nola nazioartean, eta sare horiek, beraien berezitasunetik abiatuta, mugimendu feministaren eginkizun proposatiboa eta ekintza-presioa egiteko nahiz giza eskubideak babesteko zeregina indartu nahi dutela.

Comité de América Latina y el Caribe para la Defensa de los Derechos Humanos de la Mujer-CLADEM oso sare garrantzitsua da (Latinoamerika eta Karibeko Emakumeen Giza Eskubideak Babesteko Batzordea). Gaur egun, Centro Flora Tristán erakundea arduratzen da CLADEM-Peru batzordea koordinatzeaz. Colectivo Fem-Tv taldearekin egiten den lana nabarmendu behar da. Hor, emakumeek hedabideetan duten irudia lantzen da, batez ere publizitatekoa. Colectivo Lima Sur elkarteak solaskide garrantzitsua da hiriburuko udal-hauteskundeetako hautagaien aurrean.

Movimiento Ciudadano para que no se Repita izeneko mugimendua ere azpimarratu behar da. Barneko gatazka armatua bukatu ondoren, Egia eta Adiskidetzarako Batzordeak emandako gomendioak betetzen ditu. Conferencia Nacional de Desarrollo-CONADES ere nabarmendu behar da (Garapenerako Biltzar Nagusia), batez ere emakumearen batzordea. Sexu- eta Ugaltze-arloko Eskubideak Zaintzeko Mahaia ere hor dago. Osoko Hezkuntza Sexualerako Ituna ere bai, testuinguru edo data batzuk hurbiltzean garrantzia hartzen duten beste sare edo talde batzuekin batera, hala nola, Colectivo 25 de Noviembre eta Colectivo 8 de Marzo taldeekin batera.

Nazioartean, Sexu- eta Ugaltze-arloko Eskubideetarako Biltzarrerako Kanpaina azpimarratu behar da. Articulación Feminista Marcosur taldeak kontinenteen arteko Diálogos Feministas ezagunak antolatzen ditu –gu zuzendaritza-batzordeko kideak gara–; gaur egun, emakume indigenekin eta afroen ondorengoak diren emakumeekin ari dira hizketan. Red de Educación Popular-REPEM sarea ere aipatzeko modukoa da –hor ere zuzendaritza-batzordeko kideak gara–. Red de Trabajadoras Rurales de América Latina y del Caribe-REDLAC sareko kide anitzeko idazkaritzan sartuta gaude (Latinoamerikako eta Karibeko Landa-guneetako Emakume Langileen Sarea).

Azken sare horiek justiziaren eta beste globalizazio-molde baten alde lan egiten duten indar sozial globalen adierazpidea dira, eta gizarte-mugimenduen beste adierazpide batzuekin bat egiten dute hainbat guneetan –hala nola, Munduko Gizarte Foroan–, besteak beste, indigenekin, sindikalistekin, ekologistekin, gizarte-arloan edota aniztasun sexualaren alde borrokatzen dutenekin. Ildo horretan, Virginia Vargasek zera adierazten du: “*Feminismoak, toki eta eskualdeetan dituzten eraginei eutsiz, global bilakatu dira, eta begirada eta aztarna berriak sorrarazi dituzte, paradigma berriak hornitzeko, agenda feministak zabaltzeko/hedatzeko, eta erresistentziaren eta, orobat, globalizazio neoliberalarekin batera azaldutako indarrei aurre egiteko hautabideen kultura sortzeko... , betiere, muturreko ikuspegi demokratiko batetik abiatuta*”³⁴. Hala, bada, Centro Flora Tristán erakundea engaiatuta dago estatuko, tokiko, eskualdeko eta mundu osoko mugimendu feministarekin, eta harekin batera jarduten du agenda feminista dagokion tokian kokatzeko eta betearazteko.

³⁴ “Los feminismos latinoamericanos y sus disputas por una globalización alternativa”, in: *Feminismos en América Latina. Su aporte a la política y a la democracia*. Universidad Nacional Mayor de San Marcos, Programa Democracia y Transformación Global, Centro Flora Tristán. Lima, 2008.

Articulación Feminista erakundeko kide izanik, Munduko Gizarte Foroko Nazioarteko Batzordeko eta, orobat, Diálogos Consonantes-en antolakuntzako kide ere bada. Azken horiek eztabaidatzeko gune modura sortu ziren, zehazki, Latinoamerikako eta Karibeko sare feministek eta Espainiako lankideek elkarren artean eztabaidatzeko gune gisa, era horretan, emakumeen aurrerapenari zuzendutako laguntza eraginkorragoa izan zedin.

Ondorioak

Emakumeek aurrerapen nabarmenak lortu dituzte Perun, emakume feministek, politikoez eta erakundeetako emakumeek beren artean egin duten itunari esker. Hala ere, eskubide eta aukera aldeko berdintasuna erronka bat da oraindik. Aurrera egin da emakumeak nola edo hala baztertzen zituzten arauak aldatzeko, eta, era berean, haien aurrerapenerako oztopo izango ez den legeria berria onesteko. Lege horien artean, Aukera Berdintasunerako Legea dugu, estatuko maila guztietan genero-arloko politikak arautuko dituen araua.

1995. urtetik Kuoten Legea dago indarrean; lege hori 2002. urtean zabaldu zen, eskualdeak sortu ziren garaian. Orduko aukera horretan, Konstituzioaren 191. artikulua aldatu zen, eta “gutxieneko ehunekoak finkatu ziren, generoko, erkidego natiboetako eta hasierako herrietako ordezkariak eskualdeetako kontseiluetan sartzeko modua izan zezaten”. Tratamendu bera baliatzen zen udal-kontzejuekin.

2004. urtean, Andeetako Parlamentu aurreko Ordezkariek hautatzeko Legea eman zen, 28360 zenbakiko Legearen bidez. Hori beste instantzia bat izan zen, emakumeen parte-hartze politikoa eskatu eta generoko kuota finkatu baitzuen.

Kuoten Legearen ondorioz, emakumeak %22 dira Errepublikako Kongresuan, eta eskualdeko eta udaleko kontseiluetan, berriz, %28³⁵. Hurrengo urratsa txandakatzea da. Eta ildo horretan aritu dira lanean emakumeen mugimenduan izan diren hiru isurialdeak.

Alderdi Politikoaren 28094 Legeak (2003) generoko kuota ezarri zuen zuzendaritzako karguetako hautagaien zerrendetan eta barneko hauteskundeetan. Emakumeek alderdietako militante gisa hartzen dute parte, baina

³⁵ *Carta de las mujeres a las congresistas de la república 2011-2016*. Movimiento Manuela Ramos-Unión Europea. Lima, 2011.

zuzendaritzako karguetara iritsi behar dira, bai eta hautagaien zerrendako postu hobeagoetara ere. Horretarako, baina, ekintzak koordinatu behar dira alderdietako emakumeekin, alde batera utzi behar dira egon litezkeen desberdintasun ideologikoak, ahal baldin bada, eta, betiere, alderdi horiek giza eskubideak eta bereziki emakumeen eskubideak errespetatzen badituzte.

Emakumeek eskubideak lortzeko aurkitu duten zailtasun handienetako bat estatu laikoaren gabezia izan da, bereziki sexu- eta ugaltze-arloko eskubideei dagokienez. Nola lortu emakume politikariek, kargu bat onartzeko orduan, beren sinesmenak alde batera utz ditzaten, eta lehenetsuna eman diezaieten emakume guztien eskubideei, inolako mailarik bereizi gabe? Perun, feministak izan ziren gai hori aldarrikatu zuten lehenengoak, eta lehenetsunezko gaia da haien agendan.

Garrantzizkoa da nabarmentzea iparraldeko garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen eta feministen erakundeen artean dauden bat-etortzeak, parte-hartze politikoa bezalako gaitan, proiektuak zehazterakoan. Zailena deialdi irekiak egitea da. Oro har, generoa kontzeptu tekniko bihurtzen da, duen indar politiko guztiaz hustu ondoren, eta haren emaitzak helburuen bidez eskatzen dira, baina helburu horiek ez dituzte adierazten emakumeak politikara iristeko prestakuntza bezalako prozesuek dakartzaten zailtasunak eta aberastasuna. Centro Flora Tristán erakundeak izan duen lan-esperientziaren bidez, ondo ikasi du, emakumeen elkarrizketarako mahaiak, kontseiluak edo batzordeak eraikitzeko, egonarriz egin behar dela lan, eta aurre egin behar zaiela, alde batetik, emakumeek banaka dituzten mugei, eta, bestetik, emakumeen pobrezia-egoerari, hezkuntza urriari, bizitzan jasaten duten indarkeriari, horrek haien gaitasun psikologikoak eta fisikoak mugatzen baititu. Horrez gain, kontuan izan behar da kultura patriarkala dela nagusi, batez ere, landa-guneetan; eta, horren ondorioz, hala uste da oraindik: gizonezkoa dela familiaburua, hornitzailea, eta, emakumeen lana ikusezin bihurtzeaz gain, haien gaitasunei ere ez ikusiarena egiten diete.

Peruko batez besteko sarreraren kopuruak ikusita, bistan da baztertuta dauden lagunen ehunekoa biztanleria osoaren heren batetik gorakoa dela, eta tartean emakumeak ditugu. Ezinbestekoa da instituzio-, ekonomia-, gizarte- eta kultura-arloko oztopoez arduratzea, berdintasuna eta justizia herrialdera ekartzeko. Funtsezkoa da emakumeekin batera lanean jarraitzea, erabateko autonomia lortzeko, autonomia ekonomikoa, fisikoa eta erabakiak hartzekoa.

Helburu hori lortzeko, iparraldeko garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak aliatu garrantzitsuak izan dira eta dira, orain dela bi urtetik

hona –nahiz eta orain zailtasun gehiago izan, lehen munduan dagoen krisialdi ekonomikoaren ondorioz– lehentasuna eman baitiete herrialderik txironei, eta, batez ere, Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialdeak hartu dituzte ardatz gisa. Ildo horretan, funtsak urriagoak dira, eta gehienbat azpiegiturara daude zuzenduta, edo, bestela, bi estaturen arteko lankidetzari ematen zaio lehentasuna, eta, hor, erakunde feministek ez dute esku-hartzerik. Era berean, jarduerak egiteko finantziarioa ematen da, baina ez, ordea, giza baliabideak ordaintzeko, eta are gutxiago proiektuaren kudeaketari dagozkion administrazioko gastuak eta gastu orokorrak ordaintzeko.

2000. urtean, estatuek hitz eman zuten Milurtekoaren Garapenerako Helburuak beteko zituztela 2015. urterako. Garapen-bidean dauden herrialdeek –hala nola, Peruk– zuten lehentasuna pobrezari eta desberdintasunari aurre egiteko politikak sortzea zen. Gure herrialdean izan diren aurreko gobernuek ez zuten osoko politikarik izan helburu horri begira, eta lehentasuna eman zioten hazkunde ekonomikoari, pertsonen eskubideak bigarren mailan utzita. Gobernu berria dugu aurrean, eta haren kudeatze-lanaren emaitzak ikusi beharko ditugu ezer esan aurretik.

Bestetik, Milurtekoko Adierazpenari jarraiki, generoko berdintasunak oinarritzko zeregina du gure herrialdeen aurrerapenari begira. Hala ere, hori ez da helburuetan, xedeetan eta adierazleetan aditzera ematen, eta, hortaz, Beijingeko Adierazpenetik hona atzerapausoak izan dira. Feministek ahaleginak egin zituzten emakumeen eskubideak barne hartzeko aukera gisa ikusteko, eta adierazle osagarriak ere prestatu ziren. Hala ere, epea betetzeko urte gutxi falta dira, eta ezer gutxi lortu da, helburuak lortzeko baliabideen esleipenarekin hasita.

Horiek horrela, UNIFEMek –gaur egun Nazio Batuak-Emakumeak denak– zeregin garrantzitsua bete du, ahalegin berezia egiten ari baita, hazkunde ekonomikoa egon arren –batez ere Latinoamerikako herrialdeetan–, genero aldetik arrakala handiak daudela erakusteko. Horrez gain, aditzera eman du alde horiek berdindu behar direla, eta, horretarako, laguntza bideratu behar dela, eta hegoaldeko herrialdeei eskatu behar zaiela beren politike-tan lehentasuna eman diezaioten gai horri.


Bestalde, lehen munduan dauden garapenerako gobernuz kanpoko erakundeekin egindako ituna nabarmendu behar da. Horri esker, Milurtekoaren Garapenerako Helburuetatik harantz jo ahal izan da, eta horrek aurrerapen nabarmena ekarri du politiken esparruan, eta generoko gaiak instituzionalizatu

dira, laguntzaren helburuak harmonizatu eta baliabide ezin hobeak lortu baitira. Lehen esan bezala, gaur egun arte, elkarrizketa horizontala izan da ia beti, eta elkarrizketa hori areago sendotu behar da iparraldean eta hegoaldean, emakumeentzako berdintasuna eta justizia benetan gauzatu ahal izateko.

Bibliografia

- Alvarado, M. J. (1911): “El feminismo”. *Evolución femenina* aldizkaria. Lima.
- Alvarado, M. J. (1923): “Reivindicación civil de la mujer”. *Evolución Femenina* aldizkaria. Lima.
- Blondet, C. (2004): Lecciones de la participación política de las mujeres. Democracia, gobierno y derechos humanos. Documento del programa número 12. Instituto de Investigación de las Naciones Unidas para el Desarrollo Social.
- Cabello, M. (1874): “Influencia de la mujer en la civilización I”, Ismael Pinto Vargasek hemen jasoa: *Sin perdón y sin olvido. Mercedes Cabello de Carbonera y su mundo*, 153-155 or. Lima, Universidad de San Martín de Porres. Escuela Profesional de Ciencias de la Comunicación, 2003.
- Cabello, M. (1875): “Necesidad de una industria para la mujer I”, ibid, 192-197 or.
- Chaney de Castorino, E. (1988): *Significado de la obra de María Jesús Alvarado*. Cuadernos culturales serie II. Lima, Cendoc Mujer.
- Degregori, C. I. (2011): *Qué difícil es ser Dios. El Partido Comunista del Perú-Sendero Luminoso y el conflicto armado interno en el Perú: 1980-1999*. Lima, Instituto de Estudios Peruanos. Obras escogidas I del autor.
- Foro Mujer (1994): “Adopción del sistema de cuota para mujeres (propuesta de articulado para ser incluido en la Ley de Partidos Políticos”, in: *Propuestas políticas desde las mujeres. Conferencia política de mujeres, Lima, 3 y 4 de marzo de 1994 (ponencia y resúmenes)*.
- Gallo M. (2008): “Mujeres y participación electoral. Los retos de la institucionalidad partidaria”. *Chacarera* aldizkaria, 37. zk., otsaila. Lima, Centro de la Mujer Peruana Flora Tristán, 36 or.
- Glave, L. M. (2007): “Imagen y proyección de la mujer en la república”, in: Carmen Meza eta Teodoro Hampe (konp.): *La mujer en la historia del Perú (siglos XVI al XX)*. Lima, Fondo Editorial del Congreso.

- Henríquez Ayín, N. Z. (2006): *Cuestiones de género y poder en el conflicto armado en el Perú*. Lima, Consejo Nacional de Ciencia, Tecnología e Innovación Tecnológica-CONCYTEC.
- Instituto Nacional de Estadística e Informática-INEI. *Informe técnico: Situación de la pobreza en el 2008*. Lima.
- Kira, R. (1993): *Grabado en piedra. Las mujeres de Sendero Luminoso*. Lima, Instituto de Estudios Peruanos.
- Massolo, A. (d/g): “Descentralización: los puntos de vista de la perspectiva de género”.
- Massolo, A. (d/g): “Participación femenina en el poder público municipal y políticas de equidad de género. Una mirada regional”.
- Miloslavich Tupac, D. (2004): “La extensión del voto universal como factor determinante en el desarrollo de los partidos políticos en el Perú. Evolución del voto: el voto femenino”. Argitaratu gabeko agiria.
- Montero, E. (1994): “Tres temas de debate: consecuencias del ajuste estructural, la defensa de los derechos humanos y el clima pre electoral”, in: *Propuestas políticas desde las mujeres. Conferencia política de mujeres, Lima, 3 y 4 de marzo de 1994 (ponencia y resúmenes)*.
- Patrón Faura, P. (1947): *Legislación de la mujer peruana*. Lima.
- Portal, M. (1933): *Hacia la mujer nueva*, Daniel R. Reedyk aipatua, 173 or., in: *Magda Portal, la pasionaria peruana. Biografía intelectual*. Lima, Flora Tristán Ediciones, 2000.
- Vargas, V. (2006): *El movimiento feminista en el horizonte democrático peruano (década 1980-1990)*. Lima, UNIFEM, Centro Flora Tristán.
- Vargas, V. (2008): “El movimiento de mujeres en el Perú: vertientes, espacios y nudos”, in: *Feminismos en América Latina. Su aporte a la política y a la democracia*. Lima, Centro Flora Tristán, Universidad Nacional Mayor de San Marcos, Programa Democracia y Transformación Global.
- Vargas, V. (2008): “Los feminismos latinoamericanos y sus disputas por una globalización alternativa”, in: *Feminismos en América Latina. Su aporte a la política y a la democracia*. Lima, Universidad Nacional Mayor de San Marcos, Programa Democracia y Transformación Global, Centro Flora Tristán.
- Villavicencio, M. (1992): *Del silencio a la palabra. Mujeres peruanas en los siglos XIX-XX*. Lima, Ediciones Flora Tristán.



**Finantziazio-erakundeek
emakumeen jabetasuna
ekonomikoari eta eskubide
ekonomikoei emandako laguntza**

Edurne Bengoetxea

1. Garapenerako Lankidetzak: gaur egungo ikuspegiak eta tresnak

II. Mundu Gerra amaitu ondoren, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak lehenengo urratsak eman zituenetik, bere ikuspegia bilakatu eta aldatu egin da, munduko sistema ekonomikoan eta garapenaren zein nazioarteko harremanen kontzeptioan bertan gertatutako eraldaketan arabera.

XX. mendeko 80ko hamarkadan, garapenerako lankidetzaren arloan ziurgabetasuna eta krisia nagusi izan baziren ere, hurrengo hamarkadan munduko herrialde eta GGKE gehiagok parte hartu zuten nazioarteko goi-bileretan. Bertan, hain zuzen ere, zenbait gairi buruz zituzten proposamen eta kezka berriak eman zituzten jakitera: ingurumena, biztanleak, txirotasuna edo emakumeen partaidetza garapen-prozesuetan. Ekarpen teoriko handienak, gainera, honako nozio hauen ingurukoak ziren: giza garapena, garapen iraunkorra, toki-garapena eta berdintasuna zein genero-ikuspegia.

Garapenerako lankidetzaren gaur egungo ikuspegia giza garapen iraunkorrean (GGI) dago oinarrituta. Giza garapenaren ikuspegiaren arabera, garapen-prozesua pertsonen gaitasunak eta aukerak hedatzeko prozesua da, eta, horren ondorioz, bizi-itxaropenak, osasunak, hezkuntzak eta bizitza duinerako beharrezko baliabideen lorpenak hobera egiten dute. Nagusi den garapeneko ekonomiari egindako kritika moduan sortzen da, eta, berretzat, hazkuntza ekonomikoa helburua da. Dena dela, baieztatu egiten du hazkuntza bera ez dela garapenaren helburu nagusia izan behar, bere erreferenteetako baizik. Gainera, lotune onak ezartzen ditu hazkuntza ekonomikoaren eta pertsonen aukeren artean. Bestetik, garapen iraunkorraren kontzeptuan, etorkizuneko belaunaldiek euren premiei aurre egiteko daukaten gaitasuna kolokan jarri gabe oraingo belaunaldiaren premiei aurre egiten dien garapena hartzen da kontuan.

Emakumeak garapen-prozesuetan sartzen dituzten ikuspegiak bilakaerari dagokionez, egoera ekonomikoaren eta epealdi bakoitzeko garapen-nozio nagusien eraginpean ere egon da. Bertan, gainera, oso aberasgarriak izan dira mugimendu feministak eta garapeneko teoriarik feministek egindako ekarpenak, nazioarteko bileretan eta konbentzioetan parte hartzean. Generoa Garapenean (GG) delakoaren gaur egungo ikuspegiak, emakume eta gizonen

arteko botere-harreman desberdinetako aldaerak eta faktoreak hartzen dira kontuan; esate baterako, sexua-generoa sistema, generoen araberako lan-banaketa, emakumeen zeregin hirukoitza eta baliabide nahiz mozkinen lorpena eta kontrola. Bestetik, plangintza egiteko orduan kontuan hartu beharrekoak ere egongo lirateke: emakumeen premia praktikoak eta interes estrategikoak, emakumeen baldintzak eta posizioa, partaidetza-mailak, eraldaketarako ahalmena eta erakundeen azterketa. GG korranteak agerian uzten du garapen-prozesuak ez direla neutralak, eta nabarmendu egiten du genero-ikuspegia ere sartu behar dela bertan, emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanak kontuan hartuta. Hori dela eta, emakumeek garapen-prozesu guztietan berariaz parte hartzen ez badute -plangintza, betearazpena eta ebaluazioa-, baliteke euren egoerak txarrera egitea hobera egin beharrean. Ikuspegi horretako jabekuntzarako eta zeharkakotasunerako estrategiak -biak osagarriak eta beharrezkoak dira, genero-desberdintasunei aurre egiteko-, sendotu egin dira 1995ean Beijingeko Biltzarra egin zenetik. Horrez gain, estrategia horiek onarpen teoriko handia dute, eta nazioarteko lankidetzarako jardunean hasi dira kontuan hartzen. Izan ere, lankidetzako zein garapeneko esperientzien bilakae-raren emaitza dira, eta azken hamarkadotan MED¹ estrategiak abian jartzean antzemandako arazoei eman nahi diete erantzuna. Batetik, nahiz eta emakumeentzako politiken bidez euren baldintza materialak hobetu egin diren, euren botere ekonomiko eta soziala ez da hobetu gizonen boterearen aldean. Bestetik, emakumeen iritziak eta ikuspuntuak alde batera utzi dituzte garapen-prozesuetan, baina, batez ere, instituzioetan, estatuko burokratizetan eta lankidetzarako erakundeetan egindako plangintzari begira (López eta Sierra, 2000).

Azken hamarkadan nazioarteak zehaztu eta lehenetsi dituen garapen-helburuen artean, 2000. urteko Milurtekoko Adierazpenean ezarritako konpromisoak nabarmentzen dira, batik bat. Bertan, gainera, Milurtekoaren Garapenerako Helburuak (MGH) zehazten dira. Adierazpenean, honako konpromiso hau hartzen dute gobernuek: *“genero-berdintasuna eta emakumeen sendotasuna indartzea, modu eraginkorrak direlako txi-rotasunari, goseari eta gaixotasunari aurre egiteko eta benetako garapen iraunkorra suspertzeko”*. Adierazpenean bertan, honako hau ere azaltzen da: *“emakume eta gizonen eskubide eta aukera berdintasuna lortu behar da”*, eta *“emakumeenganako edonolako indarkeriari aurre egiteko eta CEDAW² ezartzeko”* konpromisoa hartu behar da. MGH horiek oso

¹ Emakumea Garapenean.

² CEDAW, Emakumea Baztertzeko modu Guztiak Apurtzeari buruzko Hitzarmena, Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartutakoa 1979an.

garrantzitsuak dira, lehen aldiz egiaztatu eta ebaluatzeko moduko xede eta adierazle argiak ezarri direla data zehatz baterako -2015- eta helburu bakoitzerako. Gainera, oinarritzko premia sozialekin eta, horren ondorioz, GGirekin oso lotuta dauden sektoreak ere aipatzen dira bertan.

Emakumeen mugimenduak MGHen inguruko kritika egiten du, generoaren arloko gaiak oso era mugatuan hartzen dituelako kontuan, besteak beste. Genero-berdintasunaren eta jabekuntzaren helburuak hezkuntzarekin lotutako xede batean baino ez dira zehazten. Horrez gain, emakumeak eurak ama edo neskatila moduan jartzen dituzte agerian eta ez ekoizle ekonomiko moduan. Nahiz eta 3. helburua genero-berdintasunarekin lotuta egon, berdintasuna ez da zeharka agertzen gainerako helburuetan, eta lehendik zeuden genero-desberdintasunak uzten dira alde batera. 3. helburu hori oso zabala da, eta, gainerakoan aldean, asmo larregikoa, gainera. Helbururako ezarritako xedea -*“irakaskuntzan generoen arteko desberdintasunak desagerraraztea”*- oso mugatua da, helburuaren zabal-tasunari begira. Adierazleak, gainera, are mugatuagoak dira, eta badirudi ikasbiderik atera ez dela, lehen hezkuntzaren unibertsalizazioak ere ez duelako inolako aldaketarik sortu eta, emakumeen hezkuntza handiagoa izan arren, ez delako genero-berdintasuna lortu. Horrez gain, ez dira zenbait gai garrantzitsu aipatzen; esate baterako, emakumeen aurkako indarkeriaren desagertzea, emakumeek garatutako era guztietako zereginen ekarpen ekonomikoa -ordainpekoak izan nahiz izan ez-, sexu zein ugalketa arloko eskubideak eta zenbait faktoreren arteko elkarlotura (etnia, gizarte-maila, adina, sexu-orientazioa...). Izan ere, emakumeen bizi-modu anitzen osagai dira guztiak. Beraz, MGHek beharrezko gutxieneko xedeak kontuan hartzen badituzte ere, kritikatu egiten da GGiri begira nahikoak ez direla eta aurreko lorpenak ordezkatu beharko ez lituzketela -CEDAW eta Beijiingeko Konferentzia, esaterako-. Izan ere, MGHak tresna moduan erabili behar ditugu, aldarrikatu eta abian jarri ahal izateko (Mur-guialday, 2006).

Txirotasunean bizi diren emakume eta gizonen datuak aztertzen baditugu, agerikoa da garapen-politikek porrot egin dutela txirotasunari aurre egiteko orduan, oraindik ere gaur egungo garapen-ereduaren gertakari latzena delako. 2007an Nazio Batuek (NNBB) MGHen betearazpenaren bilakaerari buruz egindako txosteneko emaitzen arabera, argi eta garbi dago gaur egungo joerek bere horretan badiraute, txirotasunaren aurkako estrategia nagusiak porrot egingo duela erabat. Horrez gain, ezinbestean aipatu behar dugu azken hamarkadotako gertakari nabarienetakoa, hau da, txirotasunaren

emakume-aurpegia³, diru-sarrerak edo premia sozialak eta bizitza duinaren garapena eragozten duten dimentsio guztiak kontuan hartuta. Gainera, txirotasun hori termino absolutuetan adierazten bada ere, emakumeak eta gizonak gero eta txiroagoak ere badira termino erlatiboetan. Herrialde aberatsetako biztanleekiko haustura handitu egin denez, egiturazko prozesu progresiboa da desberdintasuna. Desberdintasun hori, gainera, gizon eta emakumeen arteko harremanaren ezaugarria ere bada. Aukeren eta emaitzen arloko desberdintasunak garapenaren esparru guztietan ematen dira: osasunaren, hezkuntzaren eta elikaduraren eskurapena; baliabideen, auke- ra ekonomikoen eta mozkinen lorpena eta kontrola; ordainduta ez dagoen ugalketa-lanaren banaketa; parte hartzeko, eragina edukitzeko eta erabakiak hartzeko gaitasuna; eta euren eskubide indibidual zein kolektiboen indarraldia eta sustapena (Eusko Jaurlaritza, 2008).

Nazioarteko gaur egungo agendak ezin die gaur egungo testuinguruak inposatutako erronka globalei aurre egin, agenda horren ezaugarriak eta oinarritzat hartu duen garapen-eredua nolakoak diren kontuan hartuta. Borondate politikoa hazkuntza ekonomikoa sustatzea izan da eta ez GGI. Beraz, ez dituzte inolaz ere kontuan hartu mugimendu sozialak eta biztanle txiro gehienek proposatutako eskariak eta helburuak. Nazioarteko politikak eta ekimenak ez dira sistemikoak eta integralak, eta eragin kontrajarriak sortzen dira euren ondorioz. GGIrekin lotura handiena daukan agenda Garapenerako Laguntza Ofizialean (GLO) baino ez dago oinarrituta ia-ia, eta ez du inolako asmorik dimentsio guztietara iritsiko lirategiaren aldaketa orokorrak egiteko. Agenda hau garatzen duten garapen-erakundeak -batez ere, estatuak eta bertan oinarritutako alderdi anitzeko organismoak- ez daude behar bezala egokitututa arazo orokor handien premiei aurre egiteko, eta ez dute erabakitze-ko behar besteko gaitasunik eta eskumenik. Horrez gain, epe laburrerako borondate partzialetan ere badago oinarrituta garapen-agenda.

Lankidetzeta-politikek eragin handiagoa izan behar dute, fondoak gehitzeko orduan eta kalitatearen aldeko apustu irmoa egiteko orduan, hau da, gainerako garapen-politikekin bat etorri behar dira, eraginkorrak izan behar dira eta baliabideak behar bezala erabili behar dituzte. XXI. mendeko lehen bost urteetan, nazioarteko zenbait foro eta biltzar egin dira, GLOrako fondoak gehitzeko. Edonola ere, konpromiso horiek bete ez direnez, zehaz-

³ Horrela deitzen zaio emakumeen artean pobreziak duen eraginaren eta nagusitasunaren goranzko joerari. Generoko harremanetan emakumeek duten mendekotasun egoera da horren arrazoia; izan ere, emakume izate hutsak pobrezia pairatzeko arrisku handiagoa dakar.

tutako adierazleen betearazpena jarri da arriskuan, nazioarteko konpromiso horiek ez direlako derrigorrezkoak eta fondo horiek kudeatzeko besteko gaitasuna daukan egitura globalik ez dagoelako.

Garapenerako Finantziarioari buruzko Nazioarteko Biltzarraren ondorioz sortutako Monterreyko Hitzarmenean aipatutakoaren arabera, nazioarteko konpromisoak betetzeko, ezinbestekoa zen -eta oraindik ere bada- zenbat baliabide zeuden jakitea. Garai hartan, ez ziren nahikoak, eta gaur egun ere ez⁴. Hitzarmenean, onartu egiten zen oso kezkarria zela GLO jaitsi izana, eta GLOrako BPGren %0,7 lortzeko konpromisoa berretsi zen berriro, inolako egutegirik ezarri ez zen arren. Hitzarmenaren ahulezia handien artean, nabarmendu behar da hazkuntza ekonomikoan⁵ oinarritutako garapen-eredua izan zela nagusi, giza eskubideen (GGEE) ikuspegiaren gainetik. Hitzarmenean kontuan hartutako genero-diskurtsoari dagokionez, generoari begira sentikorrak ziren kalifikatzaileak baino ez ziren erabili, eta genero-ikuspegi apal-apala baino ez zen kontuan hartu, inolako konpromiso politiko argirik ezarri gabe (Berdintasunaren alde Mugitu, 2009). Beraz, honako gai hauek utzi zituzten kanpoan (Neuhold, 2002 in Mugitu, 2009): Beijingeko Ekintza Planeko -batez ere, txirotasunaren zein ekonomiaren arloak- eta CEDAWko gomendioen ezarpena; emakumeen inguruko eraldaketa ekonomikoen ondorioak; eta emakumeen partaidetza politika ekonomikoei buruzko erabakiak hartzeko prozesuetan.

Lankidetzaren kalitateari dagokionez, erronka handiak daude, eta aurre egin behar diegu. Lankidetzapolitikak ez dira gainerako politika publikoen barruan sartzen. Beti-beti, euren helburua ez da txirotasunaren aurka borrokatzea, eta, estatuen edo erakundeen beste interes -geopolitiko edo komertzial- batzuen menpe daudenez, GGiren azken helburua desitxuratu egiten da erabat. Ez daude estrategien arabera zehaztuta, ekimenen baturaren arabera baizik. Beraz, ez dute behar besteko eraginik sortzen. Bestetik, ez dituzte zeharkako ikuspegiak kontuan hartzen (esate baterako, generoberdintasuna, giza eskubideak, partaidetza eta iraunkortasuna), eta ez dira zenbait eragileren eta instituzioren artean koordinatzen.

Lankidetzaren kalitatearen gabeziari aurre egiteko asmoz, 2005ean GLOren Eraginortasunari buruzko Parisko Adierazpena aurkeztu zen. Bertan, hain

⁴ CADen 2007ko zifren arabera, CADeko 22 kideetatik soilik 5ek betetzen zuten BPGren %0,7ko helburua (Danimarka, Luxenburgo, Norvegia, Herbehereak eta Suedia).

⁵ Instituzioetan sartutako emakumeen ugalketa eta gizarte arloko funtzioei esker eutsia, ekoizpen-eredua babesteko.

zuzen ere, argi eta garbi zehaztutako 5 helburu eta 12 adierazle agertzen ziren 2010. urteari begira. Dena dela, zenbait arlotatik adierazten denez, beharrezkoa izango litzateke zenbait ezaugarri ñabartzea eta kalitatearekin lotutako beste irizpide batzuk kontuan hartzea. Batetik, lankidetzaren deszentralizatuan parte hartzen duten tokian tokiko eragile eta erakunde ugariak hartu behar dira kontuan, ez dutelako inolako ordezkartzarik ez xedeetan ez adierazleetan. Bestetik, genero-berdintasuna eta zeharkako beste ikuspegi batzuk ez dira kontuan hartzen ez helburuetan, ez xedeetan, ezta adierazleetan ere. Beraz, garapen-estrategien artean geratzen dira lausotuta. Azkenik, oso kontuan hartu beharra dago lankidetzaren bat etorri behar dela gainerako garapen-politikekin eta bere azken helburua txirotasunaren zein desberdintasunen aurka borrokatzea izan behar dela, beste interes osagarriak eduki gabe.

Emakumeen eskubideen aldeko ekintzaileak oso kezkatuta daude, garapenaren eraginkortasunari begira adierazpenak ez duelako kontuan hartzen ez generoaren ikuspegia⁶, ez berdintasunarekiko konpromisoen garrantzia, ezta emakumeen jabetasuna ere (Berdintasunaren alde Mugitu, 2009). Horrez gain, AWID⁷, WIDE⁸, UNIFEM⁹ eta beste erakunde batzuek egindako ikerketetan, egiaztatu egin da laguntzaren eraginkortasunaren hobekuntzarako erabilitako irizpideek garapenerako laguntzaren fluxuetatik kanpo utzi dituztela emakumeak eta euren erakundeak.

Accran egindako lehen berrikuspenean (2008), ahalegin handia egin zen generoa eta emakumeen jabetasuna adierazpenaren barruan kontuan hartzeko. Nabarmendu behar da garapen-politikei begira txirotasunaren desagertzea, giza eskubideak eta genero-berdintasuna lehenetsi zituztela Accrako Ekintza Agendako (AEA) azken testuan, *“funtsezkoak direlako eragin iraunkorrak lortzeko orduan”*. Nolanahi ere, aurrerapausoak ez ziren uste bezalakoak izan azkenean, berdintasun eta emakumeen jabetasunazko aurrerakuntzak neurtzeko moduko xede edo adierazle berririk ez zegoelako eta horretarako beharrezkoak ziren baliabideen inguruko konpromisorik ez zegoelako. Hori dela eta, berriro ere, ageri-agerikoa

⁶ Parisko Adierazpenak bere 50 paragrafoetako batean baino ez du aipatzen genero-berdintasuna, oso hizkera ahulean aipatu ere, esanez ahaleginak harmonizatu behar direla generoa bezalako zeharkako gaiekin.

⁷ Emakumeak Garapenean Dituena Eskubideen Aldeko Elkarteak.

⁸ Emakumeak Garapenean Europan.

⁹ Nazio Batuen Emakumearen Garapenerako Funtsa.

zen herrialde dohaintza-emaileen, herrialde hartzaileen eta alderdi anitzeko agentzien arteko konpromiso politikorik ez zegoela.

Beraz, argi eta garbi dago nazioarteko gaur egungo agendan bi joera daukela eta tentsio dialektikopean daudela. Globalizazio neoliberalaren eredia sendotzeko joera eta, lotesleak ez diren konpromiso partzialen bidez, GGI protagonista nagusitzat hartu nahi duen ikuspegia. Horren ondorioz, zenbait garapen-arlotan aurrera egin dugun arren, gaur egungo agenda ez da GGiren erronkari aurre egiteko gai, inondik inora.

2. Emakumeen eskubide ekonomikoak eta jabekuntza-prozesuen dimentsio ekonomikoa

Nazioartean, hiru fase bereizi daitezke giza eskubideen bilakaerari dagokionez. Lehenengo fasean, Nazio Batuen Gutuna (1945) eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1948) onartu ziren. Bigarren fasean, ordea, emakumeek eta gizonak eskubide berberak zituztela baieztatu zen nazioarteko zenbait konbentzioren bitartez, sexuagatiko bereizkeriaren debekua garatu beharra zegoela ikusi ondoren. Hirugarren fasean, emakumeak kategoria sozio-legal moduan bakarrik aipatzen dituzten arauzko neurriak ezarri ziren, emakumeen giza eskubideen onespeneraren aldeko emakumeen mugimenduak presioa egin ondoren. Horrez gain, genero-arloko gaiak ere hartu ziren kontuan.

Emakumeen giza eskubideak erredundantzia nahasgarritzat hartu daitezke, baina egiaztatuta da giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen garapena partziala eta androzentrikoa izan dela oro har, gizonen mundu-ikuskerari emango diolako lehentasuna, emakumeek gairitu beharreko premiazko arazoak alde batera utzita. Emakumeen giza eskubideen era guztietako urraketek eragin zuzena dute euren duintasunean, askatasunean, nortasunaren garapen askean, garapen pertsonal zein sozialerako dituzten aukeretan, euren herrialdeen etorkizunean parte hartzeko eta gizarte-eredua eratzeko duten gaitasunean eta eredu hori egituratzeko arau juridikoen sorreran (López, 1999). Errealitate hori eta mugimendu feministak sustatutako ekintza zein hausnarketa kontuan hartuta, giza eskubideen kontzeptua generoaren ikuspegitik zehaztu behar izan da berriro, emakumeen esperientziak giza eskubideen erabileran zein diskurtsoan agertu zitezten. 1993an Vienan Giza Eskubideei buruz egindako Biltzarrean, lehen aldiz adierazi zen emakumeen eta neskatilen eskubideak giza eskubide unibertsalen zati

bestereinezina eta banaezina direla. Gainera, gai hori behin eta berriro nabarmendu da 1995eko Beijingeko Munduko Ekintza Planean (MEP) nahiz Adierazpenean.

Emakumeen giza eskubideei dagokienez, 1979an onartutako CEDAW da nazioarteko zuzenbideko tresna lotesleena. Hain zuzen ere, arlo zibil, politiko, sozial, ekonomiko eta kulturean bereizkeria sexualaren inguruan agertu daitezkeen faktore guztiak hartzen ditu kontuan, eta kontrolerako mekanismoa ere ezartzen du. Horren arabera, CEDAW berretsi duten estatu guztiak behar besteko txostenak egin beharko dituzte, bertako xedapenak bete diren ala ez jakin ahal izateko. Ekintza Positiboa¹⁰ eta emakumeen eskubideek arlo publikoan zein pribatuan dituzten urraketak ulertzeko premia onesten dituen nazioarteko zuzenbideko tresna bakarra da, hain zuzen ere. Konbentzioan bertan, emakumeen eskubide zibilak eta izaera juridiko zein soziala ez ezik, giza ugalketari buruzko eskubide guztiak ere hartzen dira kontuan, giza eskubideei buruzko beste itun batzuen aldean, baita faktore kulturek emakumeen eta gizonen arteko harremanetan dituzten ondorioak ere. Beraz, giza eskubideen kontzeptuaren interpretazioa osatzen da. Aitortu egiten da kultura eta tradizioa estereotipo, ohitura eta arauetan adierazten dela eta hainbat erataria mugatzen dutela emakumeen aurrerakuntza. Izan ere, honako hauxe azpimarratzen da hitzaurrean: *“emakumeen eta gizonen erabateko berdintasuna lortzeko, emakumeek eta gizonek gizartean zein familian betidanik izan duten zeregina aldatu beharra dago”*.

14. artikuluan, hain zuzen ere, zehatz-mehatz aipatzen dira landa-inguruneke emakumeek gainditu behar dituzten arazo bereziak. Era berean, nabarmendu egiten da zeresan handia dutela euren familien biziraupen ekonomikoan eta ekonomiako sektore ez-monetarioetan lan egiten dutela. Estatuari eskatzen zaie behar besteko neurriak ezartzeko, landa-inguruneke emakumeen aurkako bereizkeria desagertu dadin eta landa-garapenean

¹⁰ Ekintza positiboak aldi baterako neurriak hartzean oinarrituko dira; modu horretan, praktikan aukera-berdintasuna lortzeko asmoz, pertsonak mentalizatu eta praktika edo sistema sozial baztertzailleen ondorio diren egoerak zuzendu ahal izango dira. Hau da: nahita hartutako jarrera baztertzailleetatik derrigorrez sortzen ez diren eta, batez ere, ohitura sozialetatik datozen zeharkako bazterketen aurka egin nahi da. Emakume eta gizonek gizartean dituzten rolen banaketa tradizionalari buruzko ideian oinarritutako jarrera, portaera eta egituretatik eratortzen dira emakumeentzako kaltegarriak diren ondorioak, ekintza positiboek suntsitu edo konpentsatu nahi dituztenak. Terminoa eskubide zibilei buruzko 1965eko legedian sortu zen, AEBetan, arrazaren araberako bazterketari amaiera emateko asmoz. 1967an, sexu-bazterkeriaren aurka ere aplikatu zen modu esplizituan.

zein mozkinetan gizonak bezalako baldintzetan parte hartzen dutela bermatu dadin. Horretarako, honako hauxe eskuratzeko eskubidea izango dute: aukera ekonomikoak, nekazaritzako kredituak eta maileguak, merkaturatzeko zerbitzuak, teknologia egokiak eta nekazaritza eraldatzeko planetan jaso beharreko tratu berbera, besteak beste.

Dena dela, izaera lotesle hori mugatuta dago, edukia¹¹ desitxuratzen duten erreserba handiak daudelako, betearazi egiten dela bermatzeko eza-rritako mekanismoek behar besteko indarririk ez dutelako eta, betearazten ez denean, inolako zehapenik ezartzen ez delako (López, 1999 eta 2005; Maquieira 2006). 1993an Vienan Giza Eskubideei buruz egindako Biltzarreko eztabaiden ostean, bete-betean lan egin zen, Konbentzioko Protokolo Fakultatiboa onartzeko -2000. urtean sartu zen indarrean-. Horrela, bada, emakumeek banakako edo taldekako salaketa zuzenak jarri zitzaizketen, estatu kide batek urraketa zehatzak egiten zituenean. Horrez gain, Ebaluazio Lantaldeak ofizioski sustatu ditzake emakumeen eskubideen urraketa larri edo sistematikoei buruzko demandak. Beijingeko Adierazpenean eta Milurtekoko Adierazpenean egiaztatu den bezala, CEDAW bera Nazio Batuetako estatu kide guztiek inolako erreserbarik gabe berretsi beharko lukeen tresna da. Era berean, ispilu horretan bertan alderatu beharko lirakeke emakumeen giza eskubideak errespetatzen omen dituzten herrialdeen ekintzak eta hutsegiteak (López, 1999 eta 2005; Maquieira 2006). Gaur egun, 185 herrialdek berretsi dute CEDAW -hau da, Nazio Batuetako estatu kideen %90ek baino gehiago-. Edonola ere, 90 herrialdek baino ez dute protokoloa berretsi. Seguruenik, ez daude horretarako prest, bertan zehaztutako kontrol-mekanismoen ondorioz. Espainiak CEDAW berretsi zuen 1987an; eta protokoloa, 2002an.

Nazio Batuetako Emakumeen Nazioarteko Biltzarretan emakumeen eskubide ekonomikoei emandako tratamenduari dagokionez, 1975ean Mexikon egindako Biltzarrean lehen aldiz eskatu zieten herrialdeetako gobernuari emakumeen egoerari buruzko informazio estatistikoa bildu zezatela. Izan ere, lehentasunezkoa izango zen honako arlo hauetan esku hartzea: nazioarteko lankidetzak, hezkuntza eta enplegua, familia, etxebizitza, komunikabideak, partaidetza politikoa, osasuna eta biztanleak. Legegintzako neurriak hartzea

¹¹ Erreserba formal gehien izan dituen Giza Eskubideei buruzko nazioarteko tresna da. 2006an 53 estatuk egin zizkieten erreserbak Hitzarmenari, eta horietako askok partikular-tasun kulturalaren defentsa aipatzen zuten, erlatibismoaren eta unibertsaltasunaren arteko tentsioa planteatuz.

gomendatu zen, *“emakumeek eta gizonek euren eskubide pertsonalen eta jabetza-eskubideen arloan erabateko gaitasun juridikoa zeukatela bermatzeko. Bertan, hain zuzen ere, jabetzak erosteko, administratzeko, gozatzeko, erabiltzeko eta heredatzeko eskubidea ere hartzen zen kontuan”*.

Mexikon hartutako neurriak bete ziren ala ez berrikusi ondoren, 1980ko Kopenhageko Biltzarrean onartutako Ekintza Plan berriak osasunari, hezkuntzari eta enpleguari eman zien lehentasuna, hazkuntza ekonomikoak emakumeei ongizate handiagoa emango zielakoan eta euren herrialdeetako garapen sozial zein ekonomikoan parte hartzen lagunduko zielakoan.

1985ean Nairobin egindako Biltzarrean, egiaztatu zen emakumeen bizi-baldintzek txarrera eta txarrera egin zutela, datuen arabera euren diru-sarrerek eta baliabide kontrolatuek behera egin zutelako, hezkuntza eskuratzeko zailtasunak zituztelako, euren osasun-arentzua urria zelako eta euren txirotasuna areagotu egin zelako, besteak beste. Horrez gain, emakumeen berdintasuna eta aurrerapena eragozten zituzten oztopo nagusiak antzeman ziren, eta, euren artean, agerikoa zen artean ere bere horretan zeudela zeregin estereotipatuak, herrialde garatuek inposatutako neurri ekonomiko eta politiko hertsatzaileak (esate baterako, blokeoak, kanpo-zorra eta egituren egokitzapenerako politikak -PAE-), diru-sarreraren eta enpleguaren arteko desoreka, emakumeen partaidetzarik eza garapenaren plangintzan eta txirotasunaren emakume-aurpegi handiagoa -PAEen ondorioz larriagotua-. Emakumeen Aurrerakuntzarako Etorkizuneko Estrategiek nabarmendu egiten zuten legegintzako xedapen baztertzailak -kode zibilek, batez ere emakumeen gaitasun juridikoa eta estatusa mugatzen jarraitzen zutela, baita ondasunak heredatzeko, edukitzeko eta kontrolatzeko zeuzkaten aukerak ere. Era berean, oso-oso kontuan hartu zen etxeko buruak ziren emakumeek euren premiak zituztela eta oso baztertzaila zela familia-buruak beti gizonak zirela esatea (Deere eta León, 2002).

1995eko Beijjineko Biltzarrean, aurrerapauso kuantitatiboa eta kualitatiboa eman zen, bertan 185 gobernu-ordezkaritzak parte hartu zutelako eta nazioarteak onartu egin zuelako emakumeek arlo sozial, politiko eta ekonomiko guztietan bete-betean eta eraginkortasunez parte hartu behar zutela, garapenean aurrera egin ahal izateko. Nabarmendu zen generoaren ikuspegia politika, programa eta proiektu guztietan hartu behar zela kontuan eta emakumeen jabetzaren kontzeptua sustatu beharra zegoela. Jabetzaren eta mainstreamingaren edo genero-zeharkako-

tasunaren kontzeptuak biltzar honetan sortu ziren, eta bi estrategiak osagarritzat hartzen dira. Bestetik, egiaztatu zen 1985-1995eko hamarkada oso desegokia izan zela berdintasunaren, garapenaren eta bakearen aurrerakuntzari begira. Horrez gain, aurreko biltzarrean antzeman zen bezala, ageri-agerikoa zen emakumeen aurrerakuntza eragozten zituzten egiturazko oztupoek bere horretan zirautela eta, askotan, indartu ere egin zirela. Aurrera egin arren, aurrerapenak oso desberdinak ziren, baina, batez ere, emakume txiroentzat.

Beijingeko MEPen arabera, XXI. mendeko emakumeen arazoak 12 «esfera kritiko kezagarritan» daude sailkatuta, eta, bertan, helburu estrategiko moduan ematen dira irtenbideak. MEPEk izaera juridikorik ez daukan arren, ezin da ukatu oso tresna garrantzitsua dela termino politikoetan, nolako prozesuaren ondorioz sortu zen eta bertan garatutako kontzeptuak, helburuak eta estrategiak zeinen zehatzak diren kontuan hartuta. Nazioarteko generopolitikako mugari historikoa da, baita emakumeen mugimenduak nazioarteko lankidetzaren arloan erdietsitako lorpen handiena ere. Beraz, argi eta garbi geratu da emakumeek euren kabuz hitz egin dezaketela, euren ahotsa entzunarazi dezaketela, genero-interes bateratuak antzeman ditzaketela eta desberdintasunak proiektu bateratuan txertatu ditzaketela, euren gizarteetan dauzkaten baldintzak eta posizioa hobetzeko asmoz (López, 2005). Adierazpena eta MEP 189 herrialdek sinatu zituzten, baita Espainiak berak ere.

“Emakumeak eta txirotasuna” esferan, egiaztatu egiten da txirotasunaren emakume-aurpegia gero eta handiagoa dela eta, faktore ekonomikoetan ez ezik, honako beste faktore hauetan ere badagoela oinarrituta: gizarteak generoaren arabera esleitutako eginkizunen zurruntasuna -gainera, lanaren genero-banaketaren ondorioz, emakumeak lanez gainezka daude-; emakumeek boterea, hezkuntza, prestakuntza eta ekoizpen-baliabideak eskuratzeko daukaten aukera mugatua -esate baterako, kreditua, lurraren jabetza eta herentziarako eskubidea-; eta botere ekonomikoa banatzean generoan oinarritzen diren desberdintasunak. Aipatu egiten da politika eta estrategia makroekonomikoek emakumeen ekimenak eragozten dituztela eta ez dutela kontuan hartzen eragin desberdina daukatela emakumeen eta gizonen artean. Beraz, ezinbestekoa da biek txirotasunari aurre egiteko formulazioan bete-betean parte hartzea eta, aldi berean, partaidetza demokratikoa sustatzea, egitura ekonomikoak aldatzea, genero-ikuspegia kontuan hartzea eta neurri positiboak ezartzea. Emakumeen txirotasuna aukera eta autonomia ekonomikorik ezarekin omen dago lotuta.

“Emakumeak eta ekonomia” esferan, egiaztatu egiten da emakumeen eta gizonen artean desberdintasunak daudela, egitura ekonomikoetara iristeko eta bertan boterea edukitzeko orduan. Emakumeen enplegua eta aukera ekonomikoak murrizten dituzten faktoreen artean, honako arlo hauetako be-reizkeria azpimarratu beharra dago: hezkuntza, kontratazioa, ordainsariak, lanpostu-igoera, lan-baldintzak, ekoizpen-baliabideen lorpena eta familiako zereginen banaketa. Emakumeak lan-arloan parte hartzen hasi badira ere, ez da etxeko lan bateratua birbanatu, eta ez dute autonomia ekonomikorik lor-tu. Nahiz eta Nazio Batuetako Kontu Nazionalen Sistemari eta, horren ondorioz, nazioarteko arauetan emakumeen zeregin ordaingabeen lan-estatistikak kontuan hartu, oraindik ere ez daude behar bezala balioetsita eta erregistra-tuta. Hori dela eta, emakumeek garapenean duten ekarpena gutxiesten da, euren onespenez soziala mugatzen da eta oso zaila da etxeko ardurak birba-natzea. Helburu estrategikoen artean, emakumeen independentzia, eskubide ekonomikoak eta baliabideen kontrola sustatzea proposatzen da.

“Emakumeen eskubideak” esferan, baieztatu egiten da eskubide guztiak, hau da, eskubide zibilak, kulturalak, ekonomikoak, politikoak eta sozialak, baita garapenerako eskubidea ere, unibertsalak, banaezinak eta elkarmen-pekoak direla eta euren artean daudela lotuta, 1993an Vienan Giza Es-kubideei buruz egindako Munduko Biltzarrean adierazi zen bezala. Bertan, gainera, baieztatu ere egin zen emakumeen eta neskatilen giza eskubideak giza eskubide unibertsalen zati besterenezin, integratzaile eta banaezina zirela. Emakumeek eskubide horiek erabiltzeko orduan dauzkaten eragoz-pen eta zailtasunen artean, honako hauexek aipatzen dira: zenbait herrial-detako legeen eta nazioarteko zuzenbidearen artean dauden desadosta-sunak eta familia, gizarte, zigor, lan eta merkataritzaren arloko kodeen edo legeen betearazpenik eza. Helburu estrategikoen artean, emakumeen giza eskubideak sustatzea eta babestea proposatzen da, eta, horretarako, giza eskubideen arloko tresna guztiak eta, batez ere, CEDAW bera ezarri behar direla adierazten da.

Emakumeen lurrerako eskubideak MEPEko helburu estrategikoen osagai garrantzitsua izan ziren. Horrez gain, eskubide horiek ez ziren emakumeen emankortasuna areagotu nahi zuten eraginkortasun-argudioetako elementu bat bakarrik. Izan ere, eskubide ekonomikotzat hartu ziren, eta argi eta garbi onetsi zen lurrerako eskubideek garrantzi handia zutela emakumeen negoziazio-boterean, jabekuntzan eta autonomia ekonomikoaren bilake-tan (Deere eta León, 2002). MEPEk argi eta garbi nabarmendu zuen oso garrantzitsua dela emakumeek lurra edukitzea eta kontrolatzea, emanko-

rragoa izateko -eraginkortasunaren argudioa-. Era berean, ezinbesteko eskubide ekonomikoa ere bada, euren ongizatea sustatzeko eta autonomia ekonomikoa zein independentzia lortzeko -jabekuntzaren argudioa-. “Emakumeak eta ekonomia” atalean garatu beharrean, azpimarratu behar da GGKEen proposamenean lurrerako eskubideei buruz egindako eztabaida luzeagoa izan zela “Emakumeen aurkako indarkeria” atalean. Bertan adierazitakoaren arabera, emakumeentzat funtsezkoa zen baliabideak eskuratzeko aukera edukitzea, etxean bertan negoziatzeko botere handiagoa eduki ahal izateko (1994:27 Foroa).

Emakumeen Batzorde Juridiko eta Sozialak estatu kideek MEP behar bezala betetzen duten aztertzen du. 2000. urtean, egiaztatu zen emakumeen mugimenduak gizartean zein politikan jarduteko eta eragiteko gaitasun mugatua zeukala eta estatuak hitzarmenak betetzeko benetako borondaterik ez zeukatela. 2005eko berrikuspenean, berriro nabarmendu zen ezarpena oso mugatua zela, eta hamarkada honen balioespen anbiguala egin zen. Batetik, aurrerapausoak eman dira legegintzaren arloan, eta garapen instituzionala handia izan da zenbait herrialdetan. Gainera, eskualdeen artean aldeak badaude ere, zenbait joera orokor daude agerian: gobernu gehienek sentibilizazio-maila handiagoa da, gero eta gehiago onesten da munduko gertakariak eragin desberdina dutela emakumeen artean (globalizazioa, merkatuen liberalizazioa, migrazioa...), emakumeek gero eta partaidetza handiagoa dute arlo publikoan, amen eta umeen heriotza-tasa gutxitu egin da, hezkuntzarako aukerak hobera egin dute... (Folguera, 2006). Bestetik, hausturek bere horretan diraute, eta batzuk sakondu ere egin dira. Txirotasunaren atalean, argi eta garbi adierazten da kulturaren, ekonomia-aren, hezkuntzaren eta politikaren esparruko zenbait faktore iraunkorren ondorioz txirotasunak emakume-aurpegia duela. Beraz, lan-bereizkeriak, soldaten arteko desberdintasunek eta ekoizpen-baliabideak eskuratzeko desberdintasunek desberdintasunak betikitzen dituzte. Ekonomiaren atalean, gainera, egiaztatu egiten da estereotipoek bere horretan dirautela, eta uztarketa-neurriak indartzeko deia egiten da (López, 2005). Horren ondorioz, XXI. mendeko lehen urteetan, bere horretan dirau politiken eta jarduketaren arteko haustura handiak.

MEPen bertan, erakunde finantzarioei eskatu zieten euren politikak, prozedurak eta langile-zuzkidura berrikusi zitazela, inbertsioak emakumeen mesederako zirela eta garapen iraunkorra sustatzen zutela bermatzeko. Horrez gain, emakumeen berdintasun eta jabekuntzarako baliabide finantzarioak mobilizatzeko konpromisoak ere hartu ziren, eta honako hauxe onartu

zen: *“oro bar, baliabide finantzario eta pertsonalak ez dira nabikoak izan, emakumeek aurrera egiteko, eta, horrez gain, aurrerapena bera ere motel-
du egin da”*. Bertan, nabarmendu egiten da *“politiken eta programen in-
guruko aurrekontuei buruzko erabakietan generoaren ikuspegia kontuan
hartu”* beharra dagoela. Nazioartean, herrialde dohaintza-emaileei eskatzen
zaie ahalegin adierazgarria egin ditzatela, BPGren %0,7 GLOrako erabili
ahal izateko eta MEPen ezarpenerako jardueren finantziazioaren ehunekoa
handitzeko (Mugitu, 2009).

Beijingen ostean, 1996. urtean FAOk¹² Munduko Elikagaien Goi Bilera
antolatu zuen Erroman, eta, bere Ekintza Planen helburuen artean, honako
hauxe zegoen: *“emakumeen jabeakuntza eta genero-berdintasuna bermatzea”*.
Gobernuek behar besteko konpromisoa hartu zuten, Beijingen erabakitakoa
babesteko eta ezartzeko, politika guztietan genero-ikuspegia sartzeko, *“eko-
nomian emakumeen erabateko eta berdintasunezko partaidetza sustatzeko,
generoaren inguruko legeria egokia ezartzeko eta emakumeei ekoizpen-ba-
liabideen lorpen eta kontrolerako aukera berberak eta seguruak emateko,
kredituak, lurra eta ura¹³ kontuan hartuta”*. Harrezkero garatutako ekintza-pla-
nen arabera, bilakaera egonkorra izan da, emakumeek baliabideak eskuratzea
eta kontrolatzea zeinen garrantzitsua den aztertze orduan -baina, batez ere,
lurrerako eskubideak-. Izan ere, funtsezkoak dira emakumeen ongizatea sus-
tatzeko eta euren emankortasuna handitzeko, baina, gero eta sarriagotan, auto-
nomia ekonomikoa zein jabeakuntza lortzeko (Deere eta León, 2002).

Eskubideen eta legeen garrantzia kokatu behar dugu, betiere, gizarte-al-
daketarako ikuspegi politikoaren barruan kontuan hartzen badira. Emaku-
meen eskubideak defendatzeko eta giza eskubidetzat hartzeko egindako
lanaren ondorioak oso onak izan dira, eta lorpenak ere handiak izan dira
nazioarteko politiken arloan. Hala ere, ez da prozesuaren amaiera izan,
hasiera baizik (Schuler, 1995). Lanean jarraitu behar dugu, onespén-politika
horiek birbanaketarako politika bihurtu daitezén.

GG ikuspegiko Jabeakuntzaren Estrategiak epe luzerako prozesu integralera gara-
matza, eta emakumeen autonomia handiagoarekin dago lotuta. Autonomia hori,
hain zuzen ere, dimentsio anitzeko kontzeptutzat hartzen da, eta jabeakuntza-
prozesu guztiek kontuan hartu eta sustatu beharreko dimentsioak dauzka
kontuan: fisikoa, ekonomikoa, politikoa eta soziokulturala.

¹² Elikadurarako eta Nekazaritzarako Nazio Batuen erakundea.

¹³ FAO, 1997:91-92, 16. paragrafoa, a eta b.

Txirotasunaren aurkako borroka-estrategiaren osagaia izan behar da oinarritzko premia sozialei erantzuteko baliabideak eskaintzea. Izan ere, beharrezko abiapuntua da -nahikoa ez den arren-, edonolako garapen-proposamen eraldatzailek kontuan hartu beharreko aldaketa-subjektuen gaitasunak sustatzeko eta indartzeko.

UNIFEMen ustez, honako hauxe da jabeakuntza ekonomikoa: *“epe luzera begira baldintza iraunkorretan bizitzeko beharrezko baliabideak edukitzea eta kontrolatzea eta edukitzea zein kontrol horien onurak jasotzea”*. Beraz, jabeakuntza ekonomikoaren helburuetakoa da baliabideen eta onuren edukitzea eta kontrola emakumeen esku jartzea. Horretarako, funtsezkoa da euren jabetza emakumeen esku egotea, jabetzak lotura estu-estua duelako autonomia ekonomikoarekin eta etxean, familian, erkidegoan, merkatuan zein estatuan negoziatzeko gaitasunarekin. Emakumeen genero-desberdintasunak gainditzeko eta gizonekiko botere-harremanak desagerrarazteko, boterearen birbanaketarako tresnak eduki behar dira. Negoziaziorako posizio hori hobetzeko, gutxieneko autonomia ekonomikoa lortu eta bermatu beharra dago. Horrela, bada, jabeakuntza-prozesuen integritasunaren esparruan, berebizikoa da jabeakuntza ekonomikoa lortzea. Jabeakuntza ekonomikoa ez da bakarrik emakumeek diru-sarrerara gehiago sortzea, askoz prozesu konplexuagoa delako eta emaitzek emakumeen bizitzako hainbat dimentsiotan dutelako eragina -diru-sarreraren sorrera, aukera eta abagune gehiago, gaitasunen garapena, partaidetza eta antolakuntza handiagoak, euren buruarenganako konfiantza handiagoa eta buru-estimua handiagoa-.

Hori dela eta, emakumeen jabeakuntza-prozesuak sustatu behar dira, emakumeen baldintzak zein posizioa hobetzeko. Horretarako, emakumeen oinarritzko premiak estali behar dira -generoaren premia praktikoak-, eta, aldi berean, euren interes estrategikoen alde ere lan egin behar da. Oinarritzko premiei erantzutea barik, euren gaitasunak indartzea izan behar da azken helburua, eta, horretarako, ez da kontuan hartu behar ez ikuspegi asistentziala, ez eraginkortasunaren ikuspegiak, eskubidedun subjektuak direlako.

Jabetzaren sexukako banaketari buruzko azterketa gutxi-gutxi daude, baina behin eta berriro erabilitako eta Nazio Batuetako Emakumeen Nazioarteko II. Biltzarrerako bildutako datuetan oinarrituz gero (Kopenhage, 1980), hau da, munduko biztanleen erdiak emakumeak direla, lan-indarraren erregistro ofizialetan emakumeak herena direla, emakumeek lanaren bi heren egiten dutela, munduko diru-sarreraren hamarrena bakarrik irabazten dutela eta munduko jabetzaren ehuneko bat baino ez dutela kontuan hartuz gero,

benetan nabaria da nolako alde larria dagoen gizonen eta emakumeen artean, baliabideak kontrolatzeko orduan (Deere eta León, 2002).

Jabetzarako eskubidean berdintasun formala lortu bada ere -konstituzioak berrikusi ondoren eta CEDAWen osteko kode zibilak eraldatu ondoren, batik bat-, berdintasun hori ez da benetakoa izan ondasun ekonomikoak emakumeen eta gizonen artean banatzeko orduan. Aldea, gainera, are nabariagoa da landa-inguruneke emakumeei erreparatuz gero. Lanaren generokako banaketa eragin handiko faktorea da arlo horretan, gizonak nekazaritzat hartzen dituztelako; eta emakumeak, laguntzailatzat edo bigarren mailako familia-langiletzat baino ez, nekazaritzan zenbat lan egiten duten kontuan hartu gabe. Beraz, eurentzat oso zaila da jabetzaren inguruko eskarien zilegitasun soziala erdiestea. Horren ondorioz, inklusiorako estrategia zehatzak ezartzen ez badira -titularitate bateratua edo ekintza positiborako ekintzak-, oso zaila izango da emakumeen esku dagoen jabetza handitzea. Horrez gain, emakumeei lurrerako eskubideak aitortzen badizkiete, nekazaritzat ere hartu beharko dituzte. Hartara, ageritasun handiagoa izango dute nekazaritzan, eta genero-estereotipoa inpugnatuko da nekazari moduan daukaten okupazioan (Deere eta León, 2002). Baliabide ekonomiko orokorretara hedatuz gero, emakumeak subjektu ekonomikotzat hartuko dituzte, eta garatzen dituzten zeregin ugariak balioetsiko dira.

Emakumeen jabeakuntzak genero-harremanak eraldatzen ditu, eta gizon zein emakumeen berdintasuna lortzeko aurrebaldintza da. Beraz, emakumeek jabetza eta boterea eskuratzeko daukaten aukera eraldatu beharra dago. Jabeakuntza-prozesuko lehen urratsaren arabera, genero-bereizkeriaren inguruko kontzientzia barneratu behar da, eta, horretarako, emakumeek euren buruari buruzko irudia, gutxiegitasun-sentipenak eta euren eskubide zein gaitasunen inguruko sinesmenak aldatu behar dituzte. *“Jabeakuntza-kontzeptuaren garapeneko korrante nagusietakoa ekonomialari feministen eskutik dator, eta lotura zuzena dauka autonomia ekonomikoarekin, baita gizon zein emakumeek etxean, erkidegoan eta gizartean negoziatzeko daukaten posizioekin ere”*¹⁴. Emakumeen ondasun ekonomikoen jabetza eta etxeko zein erkidegoko negoziazio-boterea lotzen dituen ikerkuntza sistematiko gutxi egin bada ere, kasuen azterketak eta nabaritasun anekdotikoa dira proposamen horren bermeak.

Lehenengo MED ikuspegia oso garrantzitsua izan zen, emakumeak/ugalke-ta/ongizatea baliokidetasuna hausteko. Hala ere, emakumeak/ekoizpena/

¹⁴ Deere eta León, 2002, 33. or.

eraginkortasuna baliokidetasun berria ikuspegi bidegabea ere bada, emakumeak arlo ekonomikoko garapen-prozesuetan sartzeko oinarritzat hartzen delako eta ekoizpenerako garapen indibidualistaren ikuspegia lehenesten delako, ongizaterako harremanezko ikuspegia sustatu beharrean (Kabeer, 1994). Eraginkortasunaren ikuspegitik lan eginez gero, emakumeen eta gizonen agentzia ekonomikoa berdindu egiten da, eta emakumeen etxeko ardurak saihesten dira. Justizia sozialean eta ez berdintasun formalean oinarritutako genero-ikuspegidun plangintza sustatuz gero, lanaren generokako banaketak emakumeen eta gizonen bizimoduan eragindako desberdintasunak onesten dira, baita premietan, lehenetsunetan eta aukeretan dituzten aldeak ere. Eraginkortasunaren ikuspegia erabilgarria da, diru-sarreren birbanaketa eta antzeko desberdintasunak gainditzeko. Hala ere, desberdintasun horiek sorrarazten dituzten botere-harremanak kontuan hartzen ez direnez, oso zaila izango da emakumeek gizonen aldean duten posizioan aldaketak egitea.

3. Finantziazio-erakundeen diskurtsoa eta jarduna

3.1. Finantziazio-erakundeen esparru ideologikoa

Generoaren kontzeptua aurreragokoa bada ere, XX. mendeko 90eko hamarkadara arte ez zen garapenerako zein lankidetzarako prozesuetan ezarri. Lehenengo eta behin, arlo akademikoan eta emakumeen mugimenduen esparruan egin zen; eta, ondoren, politika publikoen arloan. Gaur egun, generoaren ikuspegiak nazioarteko zilegitasun handia dauka, baina, batez ere, 1995ean Beijingen egindako Nazio Batuetako Emakumeen IV. Biltzarren bultzadaren ondorioz (López eta Sierra, 2000).

Espainiako Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Agentziako (AECID), Eusko Jaurlaritzako (EJ) eta foru-aldundietako plan zuzentzaileak eta/edo estrategikoak honako honexen adierazgarri dira: estatu-mailan zein Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) garatzen den lankidetzaren ikuspegia, emakumeen jabekuntzaren eta genero-berdintasunaren inguruan duten konpromisoa eta emakumeen eskubide ekonomikoen alde egiten duten apustua edo ez.

Hona hemen AECIDeko 2009-2012ko Plan Zuzentzailean zehaztutako helburuak: laguntza-kopurua handitzea, laguntzaren kalitatea hobetzea eta Espainiako lankidetzako eragileen arteko adostasuna zein partaidetza lortzea. Izan ere, honako hauxe sustatzea du xede nagusi: giza garapen iraunkorra erdiestea, txirotasuna desagertzea eta giza eskubideak bete-betean

erabiltzea, prozesuaren, partaidetzaren, jabekuntzaren eta generoaren ikuspegia jarduketara eta maila guztietan kontuan hartuta. GG korrantea lehentasun horizontaletakoa da, jabekuntzaren zein zeharkakotasunaren estrategiak lehentasun osagarritzat dauzka, lehentasun sektorialetakoa da eta instituzioak 2007an egindako “Generoaren estrategia garapenean” agiria du indargarri. Bertan, honako hauxe berresten da: GGren inguruan hartutako nazioarteko konpromiso garrantzitsuenak -CEDAW eta Beijingeko MEP, esaterako-, alderdi anitzeko organismoentzako babesak -UNIFEM, INSTRAW¹⁵ eta DAW¹⁶- eta “*gizarte zibileko emakumeen eta feministen erakundeak indartzeko ekintzen*” babesak. “*Hartara, herritartasun demokratikoa eratu abal izango da genero-fondo berezien babesarekin, emakumeen benetako jabekuntza lortzeko eta genero-politika publikoen zein partaidetzazko demokrazien eraketan parte hartzeko*”¹⁷.

Aipatu egiten da emakumeek zeresan handia dutela elikaduraren segurtasunean, etxean bertan zein nazio-mailan. Hain zuzen ere, elikagaigintzaren %60-%80an esku hartzen dute garapen-bidean dauden herrialdeetan, baina, aldi berean, desberdintasun handiei aurre egin behar diete, beharrezko baliabideak eskuratzeko eta kontrolatzeko eta erabakiak hartzeko orduan. Era berean, honako hauxe ere sustatzen da: emakumeen lan-eskubideen onespina eta defentsa, emakumeen jabekuntza ekonomikoaren hobekuntza eta emakumeen eskubide ekonomikoen erabateko erabilerrak ekimenean sustapena. Nolanahi ere, GG ikuspegiaren zeharkakotasuna lehentasun sektorialen helburuen mailan lausotzen denez, ez dugu genero-desberdintasunak eurretako batean ere gainditzeko inolako helburu berezirik, GGren sektorialean ez bada, behintzat.

Planean bertan, alde biko lankidetzarako¹⁸ tresnak eta modalitateak azaltzen dira, garapenerako hezkuntzaren arlorako¹⁹ nahiz garapenerako ikerkuntzaren arlorako. Gainera, aipatu egiten da behar besteko konpromisoa hartu dela, sektoreka banatu daitekeen GLOren %15 genero eta ugalketa-osasunaren

¹⁵ Emakumearen Sustapenerako Nazio Batuen Ikerketa eta Gaitasunerako Nazioarteko Institutua.

¹⁶ Division of the Advancement of Women.

¹⁷ AECID, 2009:171.

¹⁸ Adibidez, laguntza programatikoa, lankidetzaren delegatua, lankidetzaren triangeluarra eta Hegoa-Hegoa lankidetzaren proiektua eta programak, lankidetzaren teknikoak, GGKEi ematen zaizkien diru-laguntzak, garapenerako elkarketarako akordioak, Garapenerako Laguntza Fondeoaren (GLF) aldaketa, Mikrokredituak Emateko Fondeoa eta kanpo-zorren kudeaketa.

¹⁹ Tokiko programen eta ggke, unibertsitate eta beste aktore batzuen finantziario zehatzen bitartez.

arloko programetarako erabiltzeko -%9, generorako; eta %6, ugalketa-osaunerako- eta, GLOn bertan, Errenta Nazional Gordinaren %0,7ra iristeko.

AECIDeko GG Estrategiari dagokionez (2007), esan behar da nazioarteko hiru erreferente saihestezinetan oinarrituta dagoela: MGH, Beijingeko Adierazpena zein MEP eta CEDAW. Estrategia hori justifikatzen duen diagnostikoan, nabarmendu egiten da herrialde askotan ez dutela sexukako estatistikarik egiten edo oso gutxi egiten dituztela. Hori dela eta, oso zaila da honako gai hauetan genero-bereizkeria eta bere adierazpideak antzematea: genero-indarkeria, feminizidioa eta txirotasunaren emakume-aurrepegiak, besteak beste.

Emakumeen egoerari buruzko diagnostikoaren ondorioen artean, azpimarratu behar da emakumeen giza eskubideen erabilera sendotu behar dela, txirotasuna desagerrarazteko. Hain zuzen ere, *“gobernuko erakundeek eta nazioarteko agentziek ez dute obiko azterketa zorrotz orokorrik egiten generoari buruz, eta, modu berean, ez dute epe luzerako jarduketarik sistematikorik ere egiten²⁰”*. Bestetik, emakumeak era askotara daude baztertuta, eta ez dute botererik. Emakumeen txirotasunak elkarlotura dauka eskubide ekonomikoak eskuratzean eta erabiltzean jasaten duten bereizkeriarekin, eta, horren ondorioz, euren autonomia oso mugatuta dago. Emakumeak garapena eratzen duten subjektu aktibotzat hartzen dituzte, baliogabetuta eta ezkutuan dauden arren. Horrez gain, partaidetza mugatua dute eskubide ekonomikoei buruzko erabaki politikoak hartzeko eremuetan. Era berean, *“muga handiak dituzte edo ez dute inolako eskubide aitorturik, jabetza pribatua, berentzia, lurra lortzeko, baliabideak kontrolatzeko eta kredituak zein beste zerbitzu finantzario eta ez-finantzario batzuk erdiesteko²¹”*. Lanaren sexukako banaketa baztertzaila da emakumeentzat, ugalketaren, zainketaren eta babesaren arloan dauzkaten eginkizunak naturalizat hartzen dituelako. Gainera, larregizko agerpena daukate ekonomia informalean, errentagarritasun gutxiko biziraupen-negozioetan, autoenpleguan, lanaldi mugatuko eta aldi baterako lanetan eta soldata, erantzukizun, ospe zein balioespen sozial txikiagoko lanetan.

Estrategia horretan, garapen-helburu orokorra zehazten da, eta beste 6 helburu berezi daude barruan, emakumeen giza eskubideen erabateko erabilera sustatzeko, txirotasunaren murrizketan eragina edukitzeko eta emakumeen desberdintasun-haustura gainditzeko. Horrez gain, lehentasunezko lerroak zehazten

²⁰ AECID, 2007:13.

²¹ AECID, 2007:13.

dira hiru mailatan: berdintasun formalerako, benetako berdintasunerako eta ekintza berezietarako. Horretarako, generoaren zeharkakotasuna eta jabekuntza bateratzen dira honako etapa hauetan: plangintza estrategikoa, kudeaketa, koordinazioa, politiken koherentzia, lankidetzako eragileen arteko harmonizazioa, jarraipena eta ebaluazioa. Aldi berean, GG sektorearen eta Plan Zuzentzailean zehaztutako lehentasunezko beste sektoreen arteko lehentasunezko sektore-ekintzak ere proposatzen dira estrategia horretan.

“Genero-berdintasunaren, berdintasun sozialaren eta ingurumen-iraunkortasunaren bidez txirotasuna murrizteko asmoz, emakumeen eskubide ekonomikoen erabateko erabilera bultzatzeko moduko ekimenak sustatzea” da emakumeen eskubide ekonomikoekin lotutako helburu berezia. Honako hauexek izango dira lerro estrategikoak: emakumeen ekonomia, lan eta sindikatu arloko eskubideei buruzko nazioarteko araudira egokitzea; emakumeen ekonomia, lan eta sindikatu arloko eskubideei buruzko politika publikoak, berdintasuna eta ez-bereizkeria indartzea, txirotasunari aurre egiteko eta emakumeentzako lan duina sustatzeko orduan; genero-ikuspegia kontuan hartzen duen babes soziala finkatzea; eta emakumeen erakundeak sendotzea, besteak beste.

Benetako berdintasunerako ekintza guztien artean, honako hauexek nabarmen-duko ditugu: emakumeak eskubide ekonomikoen eta jabekuntzaren inguruan trebatzeko programak; lanbide-heziketan eta emakumeei esleitzen ez dizkieten ekoizpen-ekimenetan emakume langileentzat antolatutako ekintza positiboak; txirotasuna murrizteko orduan genero-ikuspegia kontuan hartzen duten emakumeen ekimen ekonomikoak indartzeko laguntza; estatuetan eta toki-gobernuetan, generoa kontuan hartzen duten aurrekontu publikoak aztertzeke eta eraldatzeko ekimenen sustapena; emakumeen lan-eskubideei eta giza baliabideei buruzko zabalkunde-kanpainak; baterako erantzukizunaren eta bizimodu pertsonal zein profesionalaren uztarketaren inguruko sentsibilizazio eta zabal-kunderako programak eta legezko mekanismoak sortzeko laguntza; landa-inguruneke garapen integralerako programen eta proiektuen sustapena; generoari eta ordaindu gabeko lanari buruzko ikerketa, osasun-zainketaren eta ugalketaren ekonomiarekin lotuta ez dauden kostu ikusezinak daudela, aurrekontu publikoetan ageritasunik ez dutela eta nazioko zein tokian tokiko gobernuek kontuan hartu eta ezartzeko moduko plan eragileak garatu behar direla kontuan hartuta; eta globalizazioaren ondorioei eta emakumeen zein neskatilen bizimodu-
duan daukan eraginari buruzko azterketak eta kanpainak, besteak beste.

Emakumeen jabekuntzaren eta genero-berdintasunaren alde lan egiten duten taldeek eta GGKEek kritikatu egin zuten gizarte zibilaren partaidetzarako gune

adierazgarririk ez zegoela AECIDeko GG Estrategia egiteko prozesuan. Horrez gain, oso kezkatuta zeuden, honako hauxe ez zegoelako: plan eragilea, kronograma, lehenespena eta aurrekontua; xede eta adierazle neurgarriak; abian jartzeko beharrezkoak diren giza baliabideak; eta gizonek genero-desberdintasunen desagerpenean daukaten zeresanari buruzko aipamenak, genero-harremanak barik emakumeak eurak direlako helburu nagusi (Mugitu, 2009).

Bestetik, hona hemen EJKo Plan Zuzentzailean zehaztutako helburua: *“garapenerako kalitateko eta zentzuzko lankidetzaz-politika eraldatzailea eta koordinatua sendotzea, egiturazko txirotasunari aurre egiteko”*, egiturazko txirotasuna eta nortasun eraldatzailea funtsezko kontzeptuak izanda. Aipatu egiten da txirotasuna dimentsio anitzeko ikuspegitik jorratu behar dela, faktore ekonomiko edo sozialekin lotuta dagoela eta, horrez gain, faktore politikoak, kulturalak, ekologikoak eta generokoak ere hartzen dituela kontuan. Txirotasuna desagerrarazteko, gainera, ezinbestekotzat jotzen da ahulezia zein desberdintasuna sorrarazten dituzten arrazoiak sakon aztertzea. Alde horretatik, egitura horiek eraldatzeko, aldaketa-subjektuei laguntasuna eta jabekuntza emateko prozesuak jarri behar dira abian. Beraz, premiak arintzeko edo estaltzeko prozesuan barik, jabekuntzan bertan oinarritzen da ikuspegia, eta lotune zuzena dauka giza garapenarekin. Bertan, gainera, genero-berdintasuna proposatzen da zeharkako lerro moduan; eta emakumeen jabekuntza, arlo sektorial moduan. Funtsean, hiru jarduketa-arlo zehazten dira: garapenerako lankidetzaz, ekintza humanitarioa eta garapenerako hezkuntza, baita programak, hitzarmenak, bekak eta laguntzak ere. Esleitutako fondoek banaketa sektorialari dagokionez, egiaztatu egiten da GGirekin dagoela lotuta eta oinarritzeko premia sozialak nahiz toki-garapen ekonomikoa direla funtsezko lerroak, honako dimentsio adierazgarri hauek ahaztu gabe: emakumeen jabekuntza, toki-boterea eta giza eskubideak edo nortasun kulturala.

Bestetik, 3 foru-aldundietako Plan Zuzentzailean, herri eta erkidego txirotuei lagundu nahi diete GGI lortzen, emakume eta gizonen berdintasunean eta giza eskubideen errespetuan oinarrituta. Horretarako, garapenerako kalitateko lankidetzaz-politika koordinatua garatzea du helburu nagusi, txirotasunari aurre egiteko, genero-berdintasuna lortzeko eta kontzientzia sozial kritiko bezain eraldatzailea sortzeko. Bertan, hain zuzen ere, lankidetzaz deszentralizatuaren zeharkako lerro hauek zehazten dira: tokian tokiko giza garapena, genero-berdintasuna eta garapenerako hezkuntza.

Euskal lankidetzaz-instituzioen zeregina zuzentzen duten politikak eta tresnak aztertuz gero, agerikoa da GG ikuspegia eta zeharkakotasunaren zein

jabekuntzaren estrategiak kontuan hartzen dituztela. Biak, gainera, beharrezkoak eta osagarriak dira, gizon eta emakumeen arteko genero-desberdintasunak eta botere-harremanak gainditzeko. Gaur egungo garapen-ereduaren txirotasuna aztertzean, aipatu egiten da bere eragina desberdina dela gizonen eta emakumeen artean, eta, era berean, txirotasunak emakume-aurpegia duela adierazten da. Bestetik, horren arrazoiaren artean, esaten da diru-sarrerarik ez dutela, premia sozialak dituztela eta bizimodu duinaren garapena eragozten duen guztiari aurre egin behar diotela (emakume moduan dituzten eskubide urriak, partaidetza politiko mugatua, euren eskubide bereziak mugatzen dituzten nortasun fundamentalistak...). Gaur egungo garapen-ereduan agertzen den desberdintasuna gizon eta emakumeen arteko harremanaren ezaugarria ere bada, eta garapen-arlo guztietan dauka eragina (EJ, 2008). Bertan adierazitakoaren arabera, genero-berdintasuna leku nabarian dago garapen-agendaren barruan, emakumeen baldintzak eta posizioa desberdinak direlako gizonak dituztenen aldean. Horretarako, genero-berdintasuna zeharkako lerro moduan erabiltzen da; eta emakumeen jabekuntza, arlo sektorial moduan. Beraz, errealitatea eraldatzeko besteko boterea duten kategoriak dira eta ez tresna tekniko hutsak. Bestetik, jabekuntza-prozesuak integralak, dimentsio anitzekoak, konplexuak eta epe luzerakoak direnez, unean uneko ekintzekin lotuta ez dauden epe ertain eta luzerako laguntasun-estrategiak ezarri behar dira.

Emakumeen jabekuntza» atala garatzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak 2002-2007ko epealdian abian jarritako proiektuetan, fondo guztien %12 inbertitu dira, eta erakundeak behar besteko konpromisoa hartu du, lankidetzarako aurrekontuaren %10 gutxienez emakumeentzako, emakumeen erakundeentzako edo gizon eta emakumeen arteko desberdintasunen desagertzerako ekintzetan erabiltzeko²². Horrez gain, GGKEen esku jartzen du genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoak eta partaidetzazko diagnostikoak egiten laguntzeko deialdia -2008. urteaz geroztik-. Hartara, genero-zeharkakotasunaren ezarpenerako prozesuak sustatzen dira.

Bestetik, garapen-ereduaren txirotasun bereizgarria aztertzean, foru-aldundiek (2009) txirotasunak emakume-aurpegia duela aipatzen dute. Bertan, hain zuzen ere, emakumeak gizonak baino txiroagoak dira, diru-sarrerarik ez dutelako, ordaindutako lanak lortzeko aukera gutxiago dituztelako eta euren premia zein interes estrategikoei erantzuteko behar besteko denborarik ez daukatelako. Izan ere, emakumeek garatzen dituzten lan gehienak ez

²² Portzentajea %20ra heltzen da, 2010eko Memoriaren arabera.

dira ordainpekoak. Gertakariaren arrazoiaren artean, honako hauexek aipatzen dituzte: botere-harreman desberdinak; emakumeek gizonen aldean baliabideak eta zerbitzuak lortzeko eta kontrolatzeko dauzkaten mugak; sexu eta ugalketa arloko eskubideen onespenik eza; eta emakumeen aurkako indarkeria. Era berean, nabarmentzen dute gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna euren harremanaren ezaugarria dela, emakumeen artean ordaindu gabeko ugalketa-lana dela nagusi eta, arrazoiaren artean, eredu neoliberal eta patriarkala dagoela, lanaren sexukako banaketa betikotzen duelako eta emakumeen autonomia eragozten duelako. Bestetik, esaten dute giza garapenaren ikuspegiak suposamendu feministak hartu behar dituela kontuan, genero-arloko partaidetzazko eta berdintasunezko oinarri demokratikoen arabera egituraturako mundu eta giza ongizaterantz aurrera egiteko. Hori dela eta, emakumeen jabekuntza lortu beharra dago arlo ekonomiko, sozial, kultural eta politikoan, gaur egun emakume zein gizonen artean dauden botere-harremani aurre egiteko eta emakumeak aldaketako eragile nahiz protagonista aktiboak direla onartzeko eta ez sektore ahulak edo garapenerako erabili beharreko baliabideak. Euren ustez, oso garrantzitsuak dira Bejingeko MEPen zehaztutako funtsezko bi estrategiak: generoaren zeharkakotasuna eta emakumeen jabekuntza. Emakumeen jabekuntzarako funtsezko jarduketaren artean, honako hauexen sustapena hartzen da kontuan: eskubide ekonomikoak, funtsezko eskubide sozialak, eskubide kulturalak, eskubide zibil eta politikoak eta sexu zein ugalketaren arloko eskubideak. 2004-2008ko epealdian, «Genero-ikuspegia» irizpidearen pisu portzentualaren batezbestekoa %6,8tik %8,67ra igo da hiru aldundietan, eta gehienezkoa %12 izan da, plan berriko guztizkoa kontuan hartuta. Bestetik, GGKEen esku jartzen dituzte behar besteko laguntza-tresnak, genero-ikuspegia proiektuen plangintzan eta zehaztapenean sartzeko -aurrekontuaren %2, gehienez ere- eta tokian tokiko erakundeetan genero-ikuspegia instituzionalizatzeko -%4, gehienez ere-.

Eusko Jaurlaritzako eta hiru foru-aldundietako plan zuzentzaileak aztertuz gero, euskal lankidetzaren instituzioek emakumeen eskubideak nola onesten dituzten eta nolako garrantzia ematen dieten balioetsi ahal izango dugu. Eusko Jaurlaritzari dagokionez, aipatu egiten du txirotasuna ez dela bakarrik diru-sarreraren edo premia sozialen esparruan ematen, bizimodu duinari garapena eragozten duen guztia hartu behar delako kontuan: emakumeek pertsona eta emakume moduan dituzten eskubide urriak eta euren eskubide bereziak mugatzen dituzten nortasun fundamentalistak, eskubide berezi horiek eskubide unibertsalen lorpenerako utzita. Era berean, emakumeek gizonen aldean euren eskubide indibidual eta kolektiboen

indarraldiari eta sustapenari begira jasaten duten desberdintasuna ere aipatzen du. Giza eskubideen lerro sektorialean, ordea, lehentasun berezia eman nahi die emakumeen eskubideei eta eskubide horien urraketari, baita euren eskubideen urraketa salatzeko eta eskubideok instituzionalizatzeko estrategia berezi guztiei ere.

Foru-aldundiei dagokienez, sexu zein ugalketaren arloko eskubideak eta emakumeen aurkako indarkeria aipatzen dituzte txirotasunaren emakume-aurpegiaren errudunak diren faktoreen artean. Era berean, euren esanetan, giza eskubideetan oinarritutako garapen-ikuspegi guztietan, emakume guztiak inolako salbuespenik gabe kontuan hartzen dituzten neurriak ezarri behar dira, baita unibertsaltasunaren printzipioa eta ez-bereizkeriaren printzipioa ere, euren eskubideen bermea dira-eta. Emakumeek tokian tokiko giza garapenerako prozesuetan parte hartu behar dutela aipatzean, partaidetza hori politikoa izan behar dela diote, hau da, eskubidedun herritartzat hartu behar dituzte eta ez laguntza behar duten subjektu homogeneotzat. Nabarmendu egiten da emakumeen mugimendu eta erakundeek izandako eragin politikoaren ondorioz eskakizun feministak hartu direla kontuan nazioarteko eta tokian tokiko arauzko esparruan: CEDAW, Beijingeko Adierazpena zein MEP eta AECIDeko GG Estrategia. Emakumeen jabe-kuntzaren estrategiaren barruan aipatzen denez, emakumeen giza baliabideen erabilera erabatekoa izan dadin eta gizon zein emakumeen arteko botere-harremanak gainditu daitezten, emakumeen eskubide ekonomikoak, sozialak, kulturalak, zibilak nahiz politikoak eta sexu zein ugalketaren arloko eskubideak bete behar dira. Izan ere, lehentasunezko ekintza-lerrotzat hartzen dira.

3.2. Finantziazio-erakundeen jarduna:

non ote dago emakumeen eskubideentzako dirua?

Diskurtso politiko zein sozialean eta nazioarteko zein nazio-mailako itun eta politiketan, onetsi egiten da arlo guztietako berdintasuna sustatu beharra dagoela, emakumeen giza baliabideen erabilera bermatu behar dela eta euren ekarpen politiko, ekonomiko eta soziala jarri behar dela agerian. Izan ere, funtsezko eskakizuna da, txirotasunari aurre egiteko eta GGI sustatzeko orduan. Edonola ere, hutsune handia dago diskurtsoaren eta jardunaren artean (Mugitu, 2009).

Zoritxarrez, borondate politikoa ez da behar bezainbeste islatzen ekintza berezietan, behar den moduko inbertsioan eta aldaketaren aldeko bene-

tako apustuan (Fdez - Layos Fdez, 2003). Gaur egun, gero eta jende gehiagok genero-ikuspegiari eta garapenerako lankidetzako prozesu zein tresnetan daukan ezarpenari buruzko jakintza espezializatuak dituen arren, oraindik ere gabeziak daude, generoaren azterketa zenbait gaitan eta jarduketasektoretan ezartzeko orduan. Itxurazko aurrerapenaren aldean, agerikoa da oraindik ere hutsune handiak daudela, oinarrizko nozioak ulertzeko orduan, nahiz eta tresnen sortak erabili: generoa, boterea, erakundearen kultura, partaidetza... Hori dela eta, generoaren gaia teknifikatu egiten da, eta eraldaketa-eduki politikoa galtzen du. Horrez gain, oraindik ere behin eta berriro adierazten da genero-azterketa garapen-proiektuan kontuan hartu beharreko zerbait dela (Navarro, 2003).

Proposamenek euren zailtasun eta erresistentziei aurre egin behar diete, abian jarri nahi ditugunean. Genero-ikuspegia kontuan hartzen denean, sakon hausnartu behar da, aldaketarako konpromiso irmoa hartu behar da eta bere oztopo nagusia boterearen inguruko gaiak dira. Diskurtso eraldatzailea eta jardun zehatza bat ez datozenez, genero-ikuspegia despolitizatuta dagoela eta, askotan, ia-ia kategoria teknikoa dela esaten da. Jakin badakigu genero-ikuspegia kontuan hartzea ez dela emakumeekin lan egitea, ez emakumeentzako ekintza bereziak garatzea, ezta hegoaldeko emakumeen eta/edo feministen erakunde kontraparteekin proiektuak sustatzea ere, horren ondorioz garapenaren kontzeptua ez ezik, honako hauexen kontzeptuak ere eraldatu eta osatu egiten direlako: lana, giza eskubideak, herritartasuna, esparru publiko eta pribatuaren arteko banaketa, antolaerak, premiak... Horretarako, aldaketarako ekintzen eta estrategien plangintza egiten da.

Zeharkakotasunaren estrategia integrazio-prozesua da, eta, oraindik, ez da behar bezala eta behar beste garatu (López eta Sierra, 2000). Estrategia hori behar bezala interpretatzen ez bada, praktikan bere edukia desitxuratu egin daiteke, edo aitzakia moduan ere erabili daiteke, genero-ikuspegia garapen-prozesuetan ez ezartzeko (López Méndez, 2003). Gogoan izan behar dugu zeharkakotasuna ekintza berezien estrategia osagarria dela eta, oraindik ere, ekintza horiek ezinbestekoak direla, emakumeen jabekuntza lortzeko eta genero-berdintasunean aurrera egiteko. Gainera, ulertu behar dugu horren ondorioz genero-dimentsioa garapenerako lankidetzako “korronte nagusian” lekuratu behar dugula, “bazterreko” politiketan zein politika “nagusietan, proiektuen mailan zein programen eta politiken mailan, “zenbait sektoretan” nahiz guztietan eta zenbait baliabidetan nahiz aurrekontu adierazgarrietan. Horren ondorioz, gainera, genero-faktoreek zeresan

handiagoa dute agendetan, erabakietan eta gizon zein emakumeek politiken eraketari eta garapenaren norabideari buruz dauzkaten iritzi eta ikuspegietan. Horretarako, baliabide zehatzak eta eraldaketa-prozesu zabalak ezarri beharko dira, eta, apurka-apurka, lankidetzarako programetan aurre egin beharko diegu. “Korrante nagusiko” integrazioa ez da berez sortuko, eta oso-oso kontuan hartu beharko ditugu orain arte gertatu diren aurrerakuntza guztiak; esate baterako, zilegitasun politikoa, landa-esperientzia metatua, nazioarteko foroak eta eragileen esperientzia (alderdi biko eta anitzeko agentziak eta GGKEak).

Nazioarteko lankidetzan garatutako esperientziaren arabera egiaztatu denez, emakumeentzako politiken bidez euren bizi-baldintza materialak neurri batean hobetu ahal izan badira ere, ez dira hain eraginkorrak izan, gizonen aldean daukaten posizio ekonomiko eta soziala hobetzeko orduan (López Méndez, 2003).

Zailtasun nagusien artean, nabarmendu behar da genero-berdintasunei buruzko informaziorik ez dagoela eta behar beste datu ez dagoela, MEPen, MGHen eta 3. MGHren arloko aurrerapenak ebaluatzeko. Jarraipena eta ebaluazioa -kuantitatiboa eta kualitatiboa- egiteko adierazlerik eta mekanismorik ez dagoenez, oso zaila da GLOk arlo horien aurrerakuntzan nolako ekarpena daukan aztertzea. Txirotasuna eta baliabideen banaketa bezalako arlo garrantzitsuetan, sexuen arabera sailkatutako informaziorik ez daukagunez, ez dakigu noren onurarako den gastua, nolako eragina duen genero-desberdintasunetan eta emakumeen artean eta zein den genero-politiken zein emakumeen jabeakuntzaren eragina (Mugitu, 2009).

MEP berrikustean, agerikoa da aurrerapausoak txikiak izan direla, herrialdeen arabera desberdinak direla beti, testuinguru batzuetan era larrian egin dutela atzera eta, batez ere, emakumeen aurkako indarkeriak zein txirotasunak bere horretan dirautela. Izan ere, berdintasuna lortzeko funtsezko oztopoak dira oraindik. Gainera, globalizazioak ekonomian eragin kaltegarria izan duenez, txirotasunak are emakume-aurpegi handiagoa dauka egunez egun, baina, batez ere, emakume ahulenen artean; esate baterako, emakumeen ardurapeko familiak, adineko emakumeak, neskatilak, nerabeak, emakume etorkinak, landa-inguruneko emakumeak eta emakume indigenak (Mugitu, 2009). Aurrerapenak aurrerapen, mundu zabaleko gobernuek hurbilketa partzial eta kuantitatiboa egin dute MEPen ezarpenarentz. Hala ere, ez da nahikoa izan, Beijinen egindako aginduetan eta ikuspegian islatutako eraldaketa politiko, sozial eta ekonomikoa lortzeko.

Genero-ikuspegia lankidetzan ezartzeko orduan, aurrerapenak egin badira ere, emakumeen benetako jabekuntzan erabiltzen den ehunekoa oso txikia da. Hori dela eta, emakumeen eskubideen agendak lankidetzaz-agentzien babes gutxi jasotzen du. Nazioarteko zenbait foro egin berritan²³, emakumeen eskubideen arloan oro har agertutako mehatxuak eta atzerapenak nabarmendu dira. Gainera, lankidetzako instituzioek ez dute behar besteko konpromisorik hartu, joera horiek erkatzeko eta emakumeak eskubidedun subjektutzat hartzen dituzten prozesuak sustatzeko (Calala, 2009).

Badirudi emakumeen eskubideen alde lan egiten duten erakundeentzako laguntza gutxitu egin dela (AWID, 2006). Generoaren zeharkakotasunaren ondorioz, gaian adituak ziren pertsonak murriztu dira, edo emakumeentzako programa bereziak itxi dira. Berdintasunaren eta emakumeen eskubideen aldeko apustu irmoa egin duten agentziek ezer gutxi erdietsi dute arlo horretan, eta zeharkakotasuna ez dela arrakastatsua izan uste dute.

Hurrengo datuen arabera, finantziario-erakundeek berdintasunarekin eta emakumeen jabekuntzarekin nolako konpromisoa duten aztertu ahal izango dugu: 2003an, gobernuek 68,5 mila milioi USD gastatu zituzten GLOn, armetan eta gerretan gastatu zituzten 900 mila milioi USDen aldean. 2003an, GLOn inbertitutako guztia kontuan hartuta, gutxi gorabehera 2,5 mila milioi (%3,6) genero-berdintasuna zeukaten helburu nagusi edo adierazgarri moduan; eta %0,6k baino ez, helburu nagusi moduan. 2003an, Europako Batzordeak laguntzaren %0,04 erabili zuen emakumeentzako proiektu eta programa berezietan. 2002an, UNIFEMek 36 milioi USDko aurrekontua zeukan, FNUAPen²⁴ 373 milioi USDen eta UNICEFen 1,5 mila milioi USDen aldean. Emakumeen erakundeen konfiantzako kontraparte batek, Hivosek, 10 milioi USD eman zizkien 2004an. Beraz, dohaintzen aurrekontu guztia-
ren %13 erabili zuen horretarako (AWID, 2006).

Bestetik, honako hauxe adierazi zuten AWIDek (2006) mundu-mailan egindako galde-sortari erantzun zioten emakumeen erakundeek: erdiek, gutxi gorabehera, euren erakundeak duela 5 urte baino finantziario gutxiago jasotzen duela diote -Latinoamerikan eta Kariben, batik bat-; emakumeen fondoak finantziario-iturri aipatuena dira, eta, ondoren, nazioarteko GKE eta alderdi biko eta anitzeko agentziak; eta askoz errazagoa da GIB/HIES,

²³ AWIDen XI. Foroa, azaroa, 2008; Latinoamerikako eta Karibeko XI. Topaketa Feminista, martxoa, 2009.

²⁴ Nazio Batuen Populazio Fondoa.

emakumeen aurkako indarkeria eta antzeko gaiak lantzeko finantziazioa lortzea sexua eta ugalketaren arloko eskubideak edo eskubide zibil eta politikoak jorratzeko baino. Aldi berean, zailtasun handiak daude, langileen soldatetarako, administratzaileentzako eta sendotasun instituzionalerako fondoak lortzeko. Hori dela eta, askoz errazagoa da komunikabideekiko lanearako, teknologiarako, komunikazioentzako, lidergoen garapenerako, beste erakunde batzuekiko lotunerako eta sareen sorrerarako fondoak erdiestea. Era berean, euren esanetan, gero eta denbora gehiago behar dute baliabideak kudeatzeko, eta, batzuetan, finantziazio-erakundeko agendaren arabera proposamenak aurkeztu behar dituzte. Hori dela eta, eraldaketa-agenda politikoagotik aldendu behar dira. Bestetik, estrategia integralak ezartzeko zailtasunak dauzkate, instituzioen funtzionamendurako kategoriak eta eskakizunak desberdinak direlako eta, horren ondorioz, oso zaila delako zentzuzko agenda proiektu isolatuetan txertatzea.

Hona hemen joera horren adierazgarri diren zenbait arrazoi (AWID, 2006): batetik, emakumeen eskubideak eta genero-berdintasuna lantzeko interesa eta babesak gutxitu egin dira -90eko hamarkadako biltzarren ondorioz-. Gaur egun, ez dago modan, nahikoa egin delako ustea zabaldu da, eta, gainera, finantziazioaren helburua gehiago oinarritzen da termino "seguru" samarretan, esate baterako, emakumeen osasuna edo arlo publikoarekin lotutako eskubideak. Beraz, askoz zailagoa da erabakitzeak eskubidearekin lotutako funtsezko gaietarako fondoak erdiestea. Bestetik, zeharkakotasuna dugu. Bere ezarpenari buruz egindako ebaluazioen arabera, horren ondorioz sortutako kontzeptu-nahasketak xedea bera desitxuratu du -genero-berdintasunak desagerraraztea-. Gainera, eraginkorra izan dadin, lidergo-konpromiso irmoa hartu behar da maila gorenetan: kontuen azalpena, baliabideen esleipena eta jakintzak. Baldintza horiek, ordea, ez dira kasu gehienetan ematen. Hori horrela izanik ere, finantziazio-erakunde askok horren aldeko apustua egiten dute, eta lehentasuna ematen diote, emakumeen erakunde zein agenda feministarentzako babesaren aldean. Ez da antzematen emakumeen eskubideentzako finantziazioa beharrezkoa eta iraunkorra izan behar dela eta zeharkakotasun arrakastatsurako betekizuna dela. Izan ere, urteen joan-etorrian emakumeen erakundeen premiarik izango ez duen fasea da eurentzat.

Horrez gain, laguntzaren arkitektura berriaren eta bere tresna berrien ondorioz, atzerapausoa eman da aurreko zenbait lorpenetan: CEDAW eta MEP. Eraginkortasunaren, espezializazioaren eta emaitzetarantzko orientazioaren arloan, eskakizun berriak ezarri direnez, batzuetan oso zaila izan daiteke

finantziariorako lotuneak ezartzea eta euren helburua gai teknikoak eta dohaintza-emaielen agendak izatea, estrategia partekatuei buruzko elkarriketa alde batera utzita. GGKEek ere fondoak eskuratzeko gaitasun txikiagoa dute, herrialde-kontraparteak zuzendutako estrategiei eman dietelako lehenetsuna. Modalitate berri horren eraginez, emakumeen erakundeek garapenerako fondoak eskuratzeko aukera galtzen dute, baina, batez ere, emakumeen eskubideen agenda lehenesten ez duten gobernuekin kritikoak diren erakunde independenteek. Jarraipen eta ebaluaziorako sistematik ahulak direnez, zaila da zehatz-mehatz jakitea zenbat fondo erabiltzen diren berdintasunerako eta emakumeen eskubideetarako. Zenbat emakume onuradun edo emakumeekin lotutako zenbat programa edo erakunde dau den zehaztean, ez dugu eraginari buruzko inolako informaziorik jasotzen, emakumeen eskubideen sustapenerako laguntza-ekarpena “puzteaz” gain.

Beste arrazoi bat diskurtsoaren eta jardunaren, erretorikaren eta baliabideen arteko haustura da. Azken hamarkadotan, genero-berdintasuna eta emakumeen jabekuntza garapenerako aurretziazko betekizuntzat hartzea zeinen garrantzitsua den zehazteko nazioarteko konpromisoak hartu arren eta jarduketarako tresna zein eredu ugari egon arren, ez da baliabiderik esleitu, ez da programaziorik edo ebaluaziorik egin eta ez da emakumeen eskubideen sustapenerako laguntza era adierazgarrian handitu -emakumeen erakundeek egindako landa-lana hartzen da kontuan-. Nahiz eta legezko erreferentzien eta politika publikoen esparruetan genero-berdintasunarekin lotutako helburuak egon, politikak “lurrundu” egiten dira honako maila hauetan: aurrekontuen esleipenak, ezarpena, ebaluazioa eta eraginaren neurketa. EBri dagokionez, 2003. urtean, emakumeentzako proiektu eta programa berezietarako babes laguntza guztiaren %0,036koa baino ez zen.

AWIDen azterketaren ondorioen arabera, finantziario-erakundeen eta emakumeen eskubideen alde lan egiten duten emakumeen erakundeen arteko harremanak birpolitizatu behar dira -eragile politikoak direla onartu behar da-. Elkarriketa-eremuak sortu behar dira finantziario-erakunde “aliatuekin”, azterketa partekatuetan eta agenda bateratuetan lan egiteko. Finantziario-erakundeek kontuak azaldu beharko dituzte, genero-berdintasunerako eta emakumeen eskubideetarako programek behar besteko baliabideak jasotzen dituztela eta emakumeen eskubideen alde lan egiten duten erakundeekin batera egiten direla bermatzeko. Tresnak hobetu behar dira, ebaluazioen bidez emakumeen erakundeek abian jarritako dinamika konplexuak eta eraldaketa-prozesuak biltzeko. Era berean, zeharkakotasunari buruzko eztabaidan murgildu eta berriro zehaztu beharra dago, eta,

horretarako, kontuak azaltzeko sistemak ezarri behar dira, eta CEDAW zein eskualde-konbentzioak erabili behar dira xedeetan, emakumeen aurkako bereizkeriari aurre egiteko eta emakumeen erakundeentzako baliabideak handitzea garrantzitsua eta beharrezkoa dela nabarmentzeko. Hain zuzen ere, azken helburuaren arabera, emakumeen eskubideen eta justizia sozialaren agenda eraldatzailea baieztatu behar du zeharkakotasunak.

4. Finantziario-erakundeentzako etorkizuneko proposamen eraldatzaileak

Garapenerako lankidetzak helburu eraldatzailea izan behar du, eta egiturazko txirotasunaren aurka borrokatu behar da. Horretarako, desberdintasun handienei aurre egin behar dieten subjektu ahulenen gaitasunak eta aukerak sendotu behar dira, eta pertsonak eskubidedun subjektuak direla hartu behar da kontuan, eta ez onuradunak. Txirotasunak emakume-aurpegia duela eta emakumeek gizonen aldean desberdintasunei aurre egiten behar dietela kontuan izanez gero, garapenerako lankidetzak ezinbesteko konpromisoa hartu behar du desberdintasun horiei dagokienez, eta, horretarako, emakumeen jabekuntzarako prozesuak sustatu behar ditu. Jabekuntza-prozesu horiek -indibidualak eta kolektiboak- epe luzerako emantzipazio-ikuspegi integrala izan behar dute, emakumeek gizonen aldean dituzten baldintzak eta posizio erlatiboa hobetzeko asmoz.

Hazkuntza ekonomikoak garapena dakarrela dioen eredia kolokan jartzean, oso kontuan hartu behar dugu garapen ekonomikoa gaitasunak sendotzeko eta jabekuntza lortzeko prozesuen osagaia dela. Beraz, dimentsio ekonomikoa -iraunkorra, soziala eta ekologikoa- edozein garapen-estrategiatan hartu behar da kontuan, baita garapen ekonomikoaren zenbait faktore osagarri ere; esate baterako, konfiantza handiagoa, partaidetza eta antolakuntza bateratua. Emakumeen jabekuntza sustatzean GG ikuspegia kontuan daukaten prozesuek boterea birbanatu eta gizon zein emakumeen arteko botere-harreman desberdinak gainditu nahi badituzte, funtsezkoa da emakumeen eskubide ekonomikoak, jabekuntza eta autonomia ekonomikoa sustatzea, gizonen aldean daukaten posizio erlatiboa hobetzeko eta negoziatio-botere handiagoa edukitzeko. Jabekuntza-prozesuen ikuspegi integral horren barruan, garapen-prozesuen dimentsio ekonomikoa ere kontuan hartu beharra dagoenez, emakumeen jabekuntza ekonomikoaren eta eskubide ekonomikoen alde lan egin behar da, funtsezkoak baitira emakumeen gaitasunak sendotzeko eta euren ahulezia murrizteko orduan.

Erakundeen garapenerako lankidetzaz-politikak gaur egungo GG ikuspegiaren oinarritu behar dira, eta zeharkakotasunaren zein emakumeen jabekuntzaren estrategiak uztartu behar dituzte, osagarriak direlako. Gainera, zeharkakotasuneranzko urratsa oraindik oso argi ez dagoela kontuan hartuta, emakumeen jabekuntzaren aldeko apustu sektorialari eutsi behar zaio. Bestela, genero-ikuspegia, emakumeen eskubideen aldeko apustua eta emakume zein feministen erakundeentzako laguntza zuzena lausotu egiten dira erabat.

Arlo formalean eta errealitatean, behar besteko borondate politikoa izan behar da, genero-ikuspegia garapen-prozesuetan, metodologietan, tresnetan, langileen artean, aurrekontuetan, zeharkako dimentsioan zein emakumeen jabekuntzaren dimentsioan ezartzeko. Horrez gain, erakundearen beraren barne-koherentziaren alde lan egin behar dute. Administrazioak eta finantziario-erakundeak aurretik joan daitezke, diskurtsoari eta GGKEekiko eta gainerako lankidetzaz-eragileekiko eskakizunei dagokienez -deialdiarako baremazioen eta tresnen bitartez-. Dena dela, horrek ez du esan nahi instituzioen euren barnerako lana egin behar denik, askoz errazagoa delako gainerako eragileekiko eskakizunetan aurrera egitea. Beraz, barne-koherentziak hobetu beharreko gabeziak dauzka -diskurtsoaren mailan garrantziaren berri ematen ez duten aurrekontu publikoak; eta, deialdi berean, erakunde feministaren aldeko apustua eta, emakumeekin lan egin arren, emakumeen zenbait eskubide defendatzen ez dituen erakundearen aldeko apustua egitea-.

Genero-ikuspegia kontuan hartzen duten aurrekontuak sustatu behar dira, honako arlo hauetako konpromisoek beharrezko fondoak jaso ditzaten: berdintasuna, txirotasunaren desagertzea, ongizatea eta babes soziala. Horretarako, baliabide gehiago erabili behar dira honako arlo hauetan: langileei genero-ikuspegia kontuan hartzen duten partaidetzazko aurrekontuei buruzko prestakuntza ematea; eta sexuaren arabera sailkatutako datuak biltzea eta erabiltzea, denboraren erabilerari buruzko inkestak kontuan hartuta. Horrela, bada, ordaindu gabeko lana eta ekonomia nazionalean daukan eragina neurtuko dira, emakumeek benetako ekonomian daukaten ekarpena agerian jartzeko, emaitzak kontu nazionalen sisteman ezartzeko eta horren araberrako politika ekonomiko eta sozialak diseinatzeko. Era berean, baliabide gehiago erabili behar dira, emakumeen eskubideen alde eta gizarte zibilaren ordezkari moduan lan egiten duten erakundeen partaidetzazko ohikoa eta adierazgarria izan dadin, genero-ikuspegia kontuan hartzen duten partaidetzazko aurrekontuetarako prozesuetan (Mugitu, 2009).

Gobernuak bete-betean sustatu behar ditu CEDAWren eta bere Protokolo Fakultatiboaren berrespena eta ezarpena, Europako edo nazioarteko testuinguruan nahiz herrialde bazkideekin garatutako elkarrizketa politikoan. Gainera, honako hauexen arteko politiken koherentzia bete eta bultzatu behar du: MGH, Parisko Adierazpena, Monterreyko Adostasuna eta berdintasun zein jabekuntzarako esparruak, hau da, CEDAW zein MEP. Era berean, emakumeen erakundeen partaidetza ere bultzatu beharko du politikei buruzko elkarrizketa-eremuetan eta politika publikoen jarraipen zein ebaluaziorako mekanismoetan. Aldi berean, bermatu egin beharko du GLOrako prozesuetan gobernuak elkarrekiko betebeharra eta erantzukizuna izango dituztela, honako hau guztiau betetzeko: arauak, nazioartean hitzartutako garapen-xedeak eta CEDAWn zein MEPen zehaztutako ekintzak, laguntza-hornidurarekin lotutako inposizio-rik eta baldintzatzailerik erabili gabe (Mugitu, 2009).

Bestetik, lankidetzeta-instituzioek Berdintasunerako Plan Estrategikoa eta 30/2003 Legea bete beharko dituzte. Horren arabera, generoaren eraginari buruzko txostena idatzi beharko dute gobernuaren lege-proiektu edo araudi guztietarako. Horrez gain, legearen arabera zehaztutako eremuak ere erabili beharko dituzte -esate baterako, Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua edo Ministerio arteko Batzordea-, emakume eta gizonen berdintasunezko tratua printzipioa Espainiako gobernuaren kanpo-ekintza osoan ezartzen dela ziurtatzeko. Kontraparteekin garatutako elkarrizketa politikoaren bidez, CEDAW eta MEP betetzeko ekimenak sustatu beharko dituzte tokian tokiko gizarte zibilaren eta, batez ere, emakumeen eskubideen alde lan egiten duten erakundeen laguntzarekin.

Finantziario-erakundeek emakumeen aurrerapenerako gobernu-mekanismoen ezartzen dituztenen, gaitasun teknikoa eta eragin politikorako ahalmena indartu beharko dituzte. Era berean, bermatu egin beharko dute egituraren bertan maila hierarkiko gorenera iritsiko direla eta generoaren instituzionalitatea oso-osorik indartuko dela. Horrez gain, emakumeen partaidetza sendotu eta areagotu ere egin beharko dute nazioarteko eta eskualdeko esparruetan, nazioarteko garapenerako eta lankidetzarako agenda zehazteko orduan. Bestetik, gizarte zibileko kideak diren emakumeen eskubideen alde lan egiten duten erakundeen partaidetzarako mekanismoen ezarri beharko dituzte egoitzan bertan zein landa-lanean eta garapen-prozesuetako fase guztietan.

Emakumeen eskubide ekonomikoak eta emakumeen jabekuntza ekonomikorako prozesuak babestean, emakumeak subjektu ekonomikotzat hartzen dira,

emakumeek garatzen dituzten zeregin ugariak eta giza garapenean daukaten ekarpena agerian jarri eta balioetsi egiten dira eta lanaren generokako banaketa jartzen da kolokan, emakumeek gainditu beharreko funtsezko bereizkeria-faktoreetako bat da-eta. Oso kontuan hartu behar dugu emakumeek ekoizle moduan zeregin nabaria izan dutela betidanik etxeko ekonomietan eta familiako nekazaritza-unitateetan. Beraz, emakumeen zeregin ekonomikoa gutxiestean, emakumeen jarduera ekonomikoak ez dira inoiz gizonenak bezainbeste balioetsi. Hori dela eta, bigarren mailakotzat edo osagarritzat hartu dituzte beti. Emakumeen jarduera ekonomikoa biziraupenerako nekazaritzarekin lotzen denez, eurentzat oso zaila da kredituak, ekoizpen-bideen jabetza, prestakuntza eta antolakuntza eskuratzeko eta euren trebetasunak zein ahalmenak garatzea. Hori guztiori dela eta, beharrezkoa eta funtsezkoa da emakumeak subjektu ekonomiko aktibotzat hartzea. Horrelako prozesuak babestean, helburua ez da emakumeen inbertitzeagatikoa kostu-mozkinaren balioespen onaren ondorioz sortutako eraginkortasuna bilatzea. Hain zuzen ere, emakumeen jabeakuntza bizitzako arlo guztietan lortzea eta jabeakuntza-prozesu guztietan beharrezkoak diren independentzia eta autonomia ekonomikoa erdiestea izan behar da helburua. Horretarako, beti-beti, eskubideen ikuspegia hartuko da kontuan.

Arlo honetako lana hobetzeko (Munduko Bankua, 2006), genero-ikuspegia ezarri behar da azterketa ekonomiko eta sektorialetan, baliabideak mobilizatu behar dira eta emakumeen botere ekonomikoari buruzko estatistikak zein jakintzak hobetu behar dira, ikerketen eta sexuaren arabera sailkatutako estatistikaren hobekuntzaren bitartez. Emakumeen partaidetza ekonomikoari buruzko estatistikak hobetu behar dira, ekonomian dituzten ekarpenak agerian jartzeko eta emaitzak ebaluatzeko.

Genero-berdintasunaren eta emakumeen jabeakuntzaren alde lan egitea zeinen garrantzitsua eta beharrezkoa den zehaztean, finantziario-erakundeek diskursoan adierazitako borondate politikoa horretarako erabilitako fondoen kopuruan islatu behar da. Batetik, finantziario-erakundeek GLO PNGren %0,7ra igotzeko konpromisoa bete eta sustatu behar dute. Genero-berdintasunaren eta emakumeen jabeakuntzaren helburuari begira, ordea, GLOren²⁵ %15 erabili behar dute. Bestetik, argi eta garbi azaldu behar dute GLOren esleipenak

²⁵ Portzentaje hori zenbait espaziotan zehaztu zen; adibidez, PSOEn hauteskunde-programan, Berdintasun Planean edo CSWren (Emakumearen Baldintza Juridiko eta Sozialaren Nazio Batuetako Batzordea) 52. saioan, non joera gisa baino ez baita agertzen, baina ez 2012rako lortu beharreko helburu gisa.

giza eskubideen konpromisoekin bat datozela eta, batez ere, emakumeen eskubideen arabera direla -CEDAW, MEP eta MGH-. Plan zuzentzaileen jarraipenean, MGHetarantz eta Beijingeko Plataformarantz egindako aurrerapenak agertu beharko dira. Horretarako, genero-ikuspegia kontuan hartzen duten adierazleak, tresnak eta metodologiak garatu beharko dira, laguntzaren kalitatea eta eraginkortasuna ebaluatu ahal izateko eta, genero-irizpideak kontuan hartuta, sexuaren arabera sailkatutako informazio estatistikoa hobetzeko. Hartara, emakumeen errealitatearekin lotura handiagoa duten azterketak egingo dira, eta garapen-prozesuen plangintza, negoziazioa, jarraipena eta ebaluazioa gauzatu ahal izango dira (Mugitu, 2009).

Genero-ikuspegiaren zeharkako ezarpena hobetzeaz gain, emakumeen jabekuntzaren aldeko apustuari eutsi behar zaio eta handitu egin behar da. Horretarako, laguntza zuzena eman behar zaie emakumeen eskubideen alde lan egiten duten erakundeei. Halakoetan, lankidetzako fondoak eskuratzeko orduan emakumeen erakunde gehienek gainditu beharreko zailtasunak konpentsatu beharko dira. Oro har, erakunde txikiak dira, eta, askotan, ez dute behar besteko gaitasunik eta tresnarik, euren lanaren epe ertain eta luzerako plangintza egiteko eta, horren bidez, euren iraunkortasunerako babes handiagoa lortzeko (Calala, 2009). Hori dela eta, zailtasun handiagoak dituzte, finantziarioa eskatzeko edo erakunde sendoagoekin lehiatzeko. Gainera, finantziario-sistema berrietatik kanpo ere geratu daitezke. Beraz, emakumeen erakundeen eraginkortasuna hobetu behar da, eta euren finantziario-mekanismoen sorrera eta hobekuntza bultzatu behar dira, gobernuen aurrean duten posizioa indartzeko eta berdintasunaren lorpenerako beharrezkoa den barne-presio politiko eraginkorra egiteko.

Horretarako, emakumeen erakundeentzat fondo eskuragarri bereziak ziurtatu beharko dira herrialde bazkideetan, baina, batez ere, emakumeen oinarritzko erakundeentzakoak. Finantziario hori malgua izan beharko da, eta era guztietako premiei erantzuteko baliabide dibertsifikatuak bermatu beharko ditu, proiektuak ezartzeko, langile eta funtzionamendu arloko gastuak ordaintzeko, trebetasunak sendotzeko, ikasteko, beste erakunde batzuekin trukeak egiteko, informazioa zabaltzeko eta sare-lana bultzatzeko. Horrez gain, finantziario-mekanismoetan, 3 eta 5 urte arteko gutxieneko denbora-esparrua ezarri beharko da, fondo aurreikusgarriak eta jarduketa-marjina zabalak sortzeko eta erakundeen premiei erantzuteko (Opex, 2008).

Emakumeen eskubideen alde lan egiten duten erakundeei bakarrik laguntzeko apustu hori osatzeko, badago Emakumeen Fondoetan²⁶ inbertitzerik. Fondo horiek, hain zuzen ere, nazioarteko lankidetzako fluxuak arautzen dituzten egiturei eta araei aurre egitea dute helburu nagusi, emakumeentzat baztertzailleak dira-eta.

Erakundeek ere garapen-prozesuen jarraipen eta ebaluaziorako mekanismoak hobetu beharko dituzte. Batetik, etengabe ebaluatu beharko da nolako eragin desberdina duten politika sozial eta ekonomikoei emakumeen eta gizonen artean. Bestetik, babestutako prozesuen jarraipen eta ebaluaziorako mekanismo malguagoak ziurtatu beharko dira adierazle kuantitatibo eta kualitatiboan bitartez, emakumeen bizi-baldintzen eta gizonen aldean duten posizioaren hobekuntzaren berri emateko. Ez diegu hainbesteko lehentasunik eman behar adierazle kuantitatiboetara -zenbat emakumek zenbat jardueratan parte hartzen duten...-, eta sortutako esparru horien kalitateari buruz hausnartu behar dugu, hau da, nola parte hartzen den, genero-ikuspegia ezartzen den, emakumeen giza eskubideak kontuan hartzen laguntzen duen...

Azkenik, esperientzien sistematizaziorako eta jarduera egokien bilketarako proposamenak sustatu beharko dira, antzemateko, agerian jartzeko eta aurrerapenen finkapenerako ikasbideak ateratzeko.

Amaitzeko, gaur egungo krisi ekonomikoa kontuan hartuta, aipatu egin nahi genuke aukera aparta izan litekeela genero-berdintasunaren eta emakumeen jabekuntzaren aurrerakuntzari begira. “Berdintasunaren alde Mugitu. Bidezkoa da” txostenean aipatzen den bezala (2009:95): *“azkenik, nabarmendu behar da gaur egungo krisiak aurrekaririk gabeko aukera eskaintzen duela, estatuak ekonomian duten zeregina berriro zehazteko. Etimologiari begira, “krisis” hitzak (greziera) erabakirako eta ekintzarako unearekin dauka zerikusia. Une horretan, hain zuzen ere, gizarte zibilak aukera aparta dauka, beste ikuspegi bat eskaintzeko eta egoera konpontzeko. Krisia noraino iritsiko den jakin ez arren, badirudi krisiaren ondorio sozialek hegoaldeko eta garapen-bidean dauden herrialdeetako emakumeen artean izango dutela eragin berezia: langabezia, laneko eta etxeko ardurak gehiago, diru-sarrera gutxiago eta genero-indarkeriaren gehikuntza. Hori*

²⁶ Calala, emakumeen eta emakumeei zuzendutako fondoak, 2009an sortutakoak, Latinoamerikako eta Karibeko emakumeen eskubideak, jabekuntza eta lidergoa sustatzen dituen nazioarteko lankidetzara bideratutako espainiar Estatuko lehenengo fondoak da. Horretarako, bere erakunde, sare eta mugimenduak indartzeko baliabideak erabiltzen ditu.

delá eta, emakumeen premia bereziak antzeman eta estali egin behar dira, eta ikuspegiak ezarri behar dira krisiaren ondorioen epe labur zein luzerako kudeaketa-neurrietan. Estatu-ereduari eta garapen-ereduari buruz eztabaidatzeko gaur egungo testuinguruan, estatuak oso gogoan izan behar dute nolako zeregina garatzen duten emakumeek ugalketaren esparruan (zainketaren ekonomía) zein ekoizpenaren esparruan. Beraz, emakumeek gai horiei buruzko erabaki eta elkarriketarako prozesuetan parte hartu behar dute²⁷.


Bibliografia

- AECID (2007): *Estrategia de “Género en Desarrollo” de la Cooperación Española*, Madril, Atzerri eta Lankidetzza Ministerioa, Nazioarteko Lankidetzarako Estatu Idazkaritza.
- AECID (2009): *Plan Director de la Cooperación Española 2009-2012*, Madril, Atzerri eta Lankidetzza Ministerioa.
- Alcalde González-Torres, A. eta López Méndez, I. (2004): *Guía práctica para la integración de la igualdad entre mujeres y hombres en los proyectos de la cooperación española*, Madril, Atzerri Ministerioa, Nazioarteko Lankidetzarako eta Iberoamerikarako Estatu Idazkaritza.
- Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia (2009): “2009-2011ko Garapenerako Lankidetzako Plan Zuzentzaillea”: www.gizaeskubideak.net/que-hacemos/cooperacion.php
- AWID (2006): *¿Dónde está el dinero para los derechos de las mujeres? Una evaluación sobre los recursos y el papel de las financiadoras en la promoción de los derechos de las mujeres y el apoyo a las organizaciones que trabajan por los derechos de las mujeres.*
- Bengoetxea Sorozabal, E. (2010): *La dimensión económica de los procesos de empoderamiento de mujeres en las ONG vascas*, argitaratu gabeko tesina.
- Berdintasunaren alde mugitu. Bidezkoa da (2009): *El papel de la Cooperación Española en el cumplimiento de las metas de la Plataforma de Beijing.*

²⁷ Nazio Batuen albiste-zentroa (2009). Women must be included in solving global economic meltdown, UN says.

- Calala (2009): *Documento de Presentación: CALALA Fondo de Mujeres*, Granada, Jardunaldi Feministak, abenduak 5-7. Hementxe dago ikusgai: www.calala.org
- Deere, C. D. eta León, M. (2002): *Género, propiedad y empoderamiento*, Mexiko, Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoko Programa.
- Eusko Jaurlaritzza (2008): *2008-2011ko Garapenerako Lankidetzako Plan Estrategiko eta Zuzentzailea*, Vitoria-Gasteiz, Etxebizitza eta Gizarte Gaie-tako Saila, Eusko Jaurlaritzza.
- Fdez-Layos Fdez, A. L. (2003): “De las palabras a los hechos: ¿promoviendo la equidad entre mujeres y hombres en los procesos de desarrollo?”, *Género en la Cooperación al Desarrollo*, Madril, ACSUR-Las Segovias.
- Kabeer, N. (1994 [1998]): *Realidades Trastocadas: las jerarquías de género en el pensamiento del desarrollo*, Mexiko, Paidós.
- León, M. (konp.) (1997): *Poder y Empoderamiento de las mujeres*, Bogota, Tercer Mundo, S.A.
- López, I. (1999): “La dimensión de género de los DDHH y la cooperación internacional”, *Relaciones de género y desarrollo*, Madril, Garapen eta Lankidetzarako Institutu Unibertsitarioa, Los Libros de la Catarata.
- López Méndez, I. eta Sierra Leguina, B. (2000): *Integrando el Análisis de Género en el Desarrollo*, Madril, Garapen eta Lankidetzarako Institutu Unibertsitarioa.
- López, I. (2005): “Género en la agenda internacional del desarrollo. Un enfoque de Derechos Humanos”, *Revista Económica de Relaciones Internacionales*, 2. zk., 2005eko ekaina, UAM-AEDRI.
- Maquieira, V. (ed.) (2006 [2010]): *Mujeres, globalización y derechos humanos*, 2ª edición, Madril, Cátedra, Feminismos Bilduma, Universitat de Valencia, Emakumeen Erakundea.
- Munduko Bankua (2006): *Igualdad de género: una estrategia rentable Plan de Acción del Grupo del Banco Mundial (Ejercicios 2007-2010)*.
- Murguialday, C. (2006): “El largo camino hacia la equidad de género”, Madril, *Revista Pueblos*, 20. zk., 2006ko martxoa.
- Navarro, N. (2003): “Cambiar el Chip: revisión de algunos conceptos para poder impulsar cambios organizacionales en pro equidad de género”, *Género en la Cooperación al Desarrollo*, Madril, ACSUR-Las Segovias.

Opex (2008): “La financiación a organizaciones de mujeres: apuesta imprescindible para la equidad del desarrollo”, *111/2009ko Opex Memorandoa*. Hementxe dago ikusgai: <http://www.falternativas.org/opex>



**Generoa, justizia eta kaltea konpontzea
gatazka armatuko eta gatazka ondoko
egoeretan: emakumeen aldetik bakea
eraikitzen**

Mila Ramos

1. Generoaren ilunantzak laguntzaren arkitektura berria

Garai hauetan eraginkortasunari buruzko irizpideak erabiltzen dira, eta, ildo horretan, merkatuak arautzen dira, haiek baitira demokrazien kudeatzaile eta diktadore gorenak. Nazioarteko finantza-sistemako eliteek zuzentzen duten gobernu bilakatu da demokrazia, eta elite horiek politikaren erritmoa finkatzen dute, globalizazio-garaiko gizarteetan ekonomiak duen erritmoaren arabera.

Dena bilakatzen da salgai, denak du prezioa, eta dena dago eskaintza eta eskaeraren legeen mende: emakumeak eta generoa ere bai, emakumeak eskubideak dituzten subjektu diren aldetik, eta generoa diskurtso politiko gisa.

Gogoeta horretatik abiatuta, esan dezakegu azken hamarkadetako ezaugarri nagusia hauxe izan dela: alde batetik, generoko berdintasunaren alde lan egiteak duen garrantziaren balioa aitortzea, eta, bestetik, gizarte zibilak eta bereziki emakumeen mugimenduak berdintasun hori asmo bat baino zerbait gehiago izan dadin egin dituen ahaleginak baliozkotzat jotzea. Hortaz, bada, tresnak jarri eta aukerak eman behar dira, asmoak eta adierazpenak lurrera ekarri, ukitzeko eta neurtzeko moduko gaiak izan daitezen epe laburrean munduko emakumeen bizitzan.

Mugimendu feministek hainbat aldiz aldarrikatu dute generoko zuzentasunari lotutako gaiak giltzarria direla pobrezia aurre egin ahal izateko. Izan ere, pobrezia emakumeen kontu bihurtu da, munduko pobreen 2/3 emakumeak baitira, eta, era horretan, nabarmen egin du gora emakumeek eta neskek inguruan dituzten arriskuen multzoak. Generoko berdintasunaren euskarria hauxe da: emakumeek autonomia eta independentzia eduki ahal izatea, hala arlo publikoan nola pribatuan. Oinarri horren aurrez aurre, Nazio Batuek 2010-2011 urtean emakumeak munduan zein egoeratan dauden aztertzeko egin duen txostenak datu adierazgarriak eskaintzen dizkigu; esate baterako, pobrezia-aren esparruan dagoen zuloaz gain, hauexek: munduko biztanle analfabetoen 2/3 emakumeak dira, mundu osoko 14 emakume baino ez dira presidente edo gobernuburu, munduko 500 enpresa nagusietatik 13 enpresatan baizik ez dute emakume bat zuzendari nagusiaren

karguan, eta lan berberaren truke jasotzen den soldatan dagoen arrakala %30 eta %40 artean dago herrialde askotan¹.

Desberdintasun ikaragarri hori gainditu ahal izateko, generoko zuzentasuna argudio ideologiko-politiko gisa hartu behar da, garapenerako plan guztiek berez hartu behar dute barne, eta 2015erako Milurtekoko Gailurrean zehaztutako helburuak bete nahi dituzten nazioarteko zuzentarau guztiek jaso behar dute. Alabaina, kontuak oso urruti daude egoera horretatik. Izan ere, Milurtekoaren Garapenerako Helburuak prestatu zituztenean, alde batera utzi zuten generoko ikuspegia, eta iruzur egin ziguten, nazioarteko genero-arloko politikak, baliabideak eta tresnak neutralak zirela esanda. Hala, bada, hori guztia oztopo handia izaten ari da helburu horiek lortu ahal izateko. Milurtekoaren Garapenerako Helburuei buruzko 2011ko txostenean, Nazio Batuen idazkari nagusia den Ban Ki-moonek zera onartzen du: *“...oraindik lan handia dago egiteko nesken eta emakumeen alde, garapen iraunkorra sustatzeko eta abulena babesteko”*.

“Laguntzaren arkitektura berria” deitutakoa ari gara ikusten. Arkitektura horren ingeniari-tza-lana egiteko ez zaie aholkurik eskatu emakumeen erakundeei, eta erakunde horiek ez dute ekarpenik egiteko aukerarik izan, batez ere hegoaldeko emakumeen erakundeek, horiek erabat gutxietsita geratu baitira: ikusezin bihurtuta. Hala, bada, garapenaren plangintza egiteko garrantzi handia duten agiriek-adibidez, Parisko Adierazpenak- itsukeriaz jokatu dute generoko gaiekin. Akkran ahaleginak egin ziren itsukeria horri konponbideren bat jartzeko, malabarismoak eginenez, berdintasuna goraka kotizatzen duen balio bihurtu nahian. Hala ere, hori itxura hutsa da, simulakro hutsa, atzean dauden asmoek ez baitituzte inondik ere bete nahi -ez, behintzat, orain arte- CEDAWek genero-arloko benetako berdintasunaren alde finkatu dituen nazioarteko zuzentarauak. Aurrerapenak izan badira ere, aurrerapen horiek emakume eta neskarik ahulenen bizitzan izan duten eragina ez da nabaritu ere egin. Ahuldadeen multzo horretan, gatazka armatuak ahuldadeen anplifikadore baten modukoak dira, izugarri larriagotzen baitituzte, testuinguru arabera, emakumeek eta neskek jasaten duten egiturazko desberdintasuna, mendekotasuna, babesgabetasuna, bazterkeria eta indarkeria.

2. Generoko indarkeria gatazka armatuan: desberdintasunaren adierazpen gorena

Gerra guztietan, emakumeei eta neskei zuzenean nahita eragindako indarkeriaren soberakin bat izaten da, eta, horren ondorioz, gaur egun inork ere ez du

¹ www.un-ngls.org

sinesten nagusi den maskulinitatearen imaginarioan noraezean dabilen tradiziozko binomioa. Binomio horren arabera, emakumeak atzeragoardian babes-tu behar diren betiereko adingabekoak dira, eta gizonek, berriz, aurrealdean jarrita emakumeen eta haurren segurtasuna eta ohorea bermatzen dituzte.

Ahalegin izugarriak egin dira gu konbentzitzeko, generoaren banaketa sozial eta sinboliko horretan gutariko bakoitzak zeregin bat bete behar genuela sinestarazteko. Era horretan, gutxiago edo gehiago, statu quoari eutsi ahal izango zitaion, gizarteko baldintzak era nabarmenean larritu arren, edo, nolahi ere, zatikatuko balitz eta aldi batez hautsiko balitz ere, atzera berriz konpondu ahal izango zen krisia bukatutakoan, ia pitzadurarik ere utzi gabe. Egia esan, hori fikzio hutsa da. María Molinerren hiztegiaren arabera, *retaguardia* hitzak, gerrari dagozkion adieran, zera esan nahi du: “*zona de una nación en guerra apartada de donde se combate*” (euskaraz, atzeragoardia, atzealde: gerran dagoen nazio batean, gatazka egiten den alderditik urrutiratuta dagoen gunea). Hala ere, inon ez dugu aurkitzen atzeragoardia “segurtasun-alderdi” gisa definituta. Hala izatekotan, nekez azaldu ahal izango genituzke, gerrak izan direla jakiteko datuak ditugunetik, emakumeek eta haurrek handitu duten “atzealde” horietan izaten diren espoliazioa, bortxaketak eta babesgabetasun erabatekoa eta basatia. Nolanahi ere, gaur egun ez du zentzurik atzeragoardiak eta guda-fronteak aipatzeak, gatazkek herrien bihotzean izaten baitira, eta biktima gehienak, zibilak.

Gerra guztietan, etsaia ahultzeko erabili den gerra-harrapakina izan dira emakumeak; eta, besteak beste, bortxaketa, esklabotza sexuala, nahitaezko prostituzioa, eta nahi izan ez dituzten haurdunaldiak eta abortuak nozitu behar izan dituzte. Era berean, hainbat ardura hartu behar izan dute beren gain: zutik iraun dena zaintzea, eta haurren, gaixoen eta adinekoen biziraupena bermatzea. Normaltasuneko gutxieneko kanonei eutsi behar izan diete, elkarrekiko laguntzarako kateak sortu dituzte, eta kaosaren erdian bizitzak aurrera jarrai zezan lortu dute, zerua gainera erori bazaie ere. Laurogeita hamarreko hamarkadan izugarrikeria ikusgai jarri zen mundu osoko telebistetan, eta zuzenean erakutsi ziguten Bosniako eta Ruandako emakumeak nola suntsitzen zituzten, nola bihurtzen zituzten gatazka-zelai. Hortik aurrera, oinarritzko bi gertakari hauek nabarmendu behar ditugu:

1. Ruandan eta Bosnian izan ziren krimenak epaitzeko, nazioarteko zigor-auzitegiak sortu ziren, eta, lehenbiziko aldiz historian, generoko krimenak auzipetzea proposatu zen.

2. Segurtasun Kontseiluaren bidez, Nazio Batuen sistemak bidea eman zien 1325 Ebazpenari (1325-E, 2000ko urria) eta, askoz geroago, 1820 Ebazpenari (2008 azaroa).

Azken arkatza bereganatzen duten horiek idatzi ohi dute historia, alegia, irabazleek. Horiek gertatutakoari buruz duten bertsioa kontatzen dute, eta zigorrak jartzen dituzte galtzaileen krimen-ekintzetarako. Normalean, irabazleek ez dute zigor-auzitegiara joan beharrik izaten, eta, beraz, ezin dugu ahaztu gerra batzuetako hondamendien ondotik eratu diren nazioarteko zigor-auzitegiek (PTI) garaitutakoak auzipetu dituztela, eta zigortu gabe utzi dituztela estatu-krimenak eta bestelakoak, hain zuzen, irabazleek egiten dituzten krimenak, horiek justifikatu ohi baitira, demokrazia, askatasun, justizia eta bakearen izenean egin direlakoan. Are gehiago, galtzaileak auziperatzean ere, irabazleen ustez krimena izan zen hori da auzitara eramaten dena. Hortaz, har dezagun adibide gisa Nurenbergeko Auzitegiaren kasua. Garrantzi handiko aurrekaria ezarri zuen, baina, hala ere, nazien krimenik nabarmenenak baidarik ez zituen epaitu, eta erabateko hutsunea utzi zuen emakumeen aurka egindako krimenen esparruan. Japoniako gerrako² krimenez arduratu zen Ekialde Urrunerako nazioarteko zigor-auzitegiak (Tokioko Auzitegiak) ez zuen inondik ere gerrako krimen gisa auzipetu “konfort emakumeak” deitutakoak kontra egin ziren horiek: Japoniako armadak 200.000 emakume erabili zituen esklabo sexual gisa –gehienak txinatarrak eta korearrak ziren–, eta, hala, prostituzioan aritzera behartu zituen eta ezin konta ahal umiliazio egin zizkien, baina, gaur egun, inork ez du justiziarik egin, inork ez ditu kalteak konpondu, ez baitago justiziarik kalteak konpontzen ez badira. Ezjakintasunak ez dio auzitegiari erantzukizunetatik salbuesten, baina kasu honetan, gainera, Tokioko Auzitegiak bazuen *konfort emakume* deitutakoak aurka egin ziren krimenen berri. Yoshiani Yoshimi historialaria 1992. urtetik aritu izan da *konfort emakume* izeneko kasua ikertzen eta salatzen. 2007. urtean Tokioko Auzitegiko hainbat artxibo eman zituen argitara Yoshimik, Hirofumi Hayashi historialariarekin batera, eta horietan argi ikusten zen Auzitegiak –gehienbat Estatu Batuetako karguek eraturiko Auzitegiak– krimen horien berri zuela (Yoshimi, 2010). 2007ko martxoan, Taichiro Kajimura kazetariak argitaratu zuen Tokioko Auzitegiaren aurrean aurkeztu ziren gobernu holandarraren 30 agiri aurkitu zirela, eta agiri horiek agerian uzten zutela 1944ko samaldakako nahitaezko prostituzioa. Tabuchik dioenez, Ekialdeko Timorrekoak ziren biktima batzuek

² <http://asiapacific.amnesty.org>

lekukotasuna eman zuten eta argitu zuten hilekoa izateko behar adina urte ere ez zutela behartu zituztenean, eta soldadu japoniarrek behin eta berriro bortxatu zituztela³. Erabatekoa izan zen zigorgabetasuna eta justizia eza, eta halaxe da oraindik.

Gorago adierazi dudanez, 1990eko hamarkadak aurre-aurrean jarri zigun Bosnia-Herzegovinako (BIH) eta Ruandako gerretan emakumeen aurka izan zen indarkeria: Bosnia-Herzegovinan 40.000 emakume bortxatu zituzten, eta Ruandan 500.000. Kontua ez da izugarrikeria zenbatzen jardutea, zauritutako emakume bakar batek aski izan beharko bailuke gatazka armatuko testuinguruetan genero-arloko indarkeria-mota guztiak gerrako krimenezat jotzeko. Alabaina, azterketa kuantitatiboan hoztasuna eta, ziurren, Bosnia-Herzegovinako eta Ruandako genozidioen aurrean izandako geldotasunak eta erantzun ezak sortutako zentzuzko erru-konplexua dela-eta, nazioarteko erkidegoak erantzun zuen, eta Bosnia-Herzegovinako eta Ruandako nazioarteko zigor-auzitegiak sortu zituen (1993an eta 1994an, hurrenez hurren). Nazioarteko zigor-auzitegi horiek itxaropena piztu zuten, justizia egiteko desirari begira, eta bide bat zabaldu zuten, errudunak auzitegietara eramateko, biktimek jasandako kaltea konpontzeko, eta, jakina, zigorgabetasuna berriz irabazian ez ateratzeko. Hala ere, argi egiaztatu ahal izan denez, nazioarteko bi zigor-auzitegiek muga nabariak zituzten (eta dituzte); adibidez, ez ziren independenteak, hein handi batean Europar Batasunaren pragmatismoak eta Estatu Batuen interes hegemonikoek baldintzatzen baitzituzten. Hala, bada, auzitegi horiek jarri zirenetik ia bi hamarkada igaro dira, eta gatazka horietako biktima izan ziren emakume gehienak justiziaren zain daude oraindik, beren larrutan pairatutako krimenak noiz konponduko, baina hori ezinezkoa izango da, kriminalak atxilo hartzen, epaitzen eta zigortzen ez dituzten arte, emakumeen bortxaketa sistematikoak gerrako estrategia makur gisa planifikatu zituzten goi-mailako kargudunekin hasita. Zalantzarik gabe, epai eredugarriak izan dira, adibidez, Ruandako “Akayesu kasua” izenekoa, edo Bosniako “Foca kasua”, besteak beste; baina hori ez da aski genero-arloko justizia dagoela esan ahal izateko.

1994. urtean, Bosnian emakumeen aurka egindako krimenak ikertzeko hasita nuen lana aurrera atera nahian, elkarrizketak egin nizkien armada serbiar-bosniarreko, HVO bosniar-kroaziarreko eta Armija bosniarreko arduradun politikoei eta militarrei. Arduradun horiek adierazi zidaten

³ *The Washington Post*, “Japan’s Abe: No Proof of WWII Sex Slaves”, Associated Press, 2007ko martxoaren 1a, Hiroko Tabuchi.

ez zekitela ezer beren soldaduek emakumeei egindako bortxaketei buruz edo emakumeen eskubideei egindako urraketei buruz. Ausartenek esan zidaten kasu bakan batzuk izan zirela, kontrolik gabe zebiltzan taldeek egindakoak, eta agintariak ez zutela gertakari horien berri. Hala ere, hiru armadek emakumeen bortxaketa baliatu zuten gerrako arma gisa, gehiago edo gutxiago. Baten batek bortxaketa horiek ukatzen dituen aldiro, emakumeen aurka egiten den indarkeria biderkatzen ari da, kopuruak ez baitira izenik gabekoak: izena eta kontatzeko moduko istorio bat aldean dituzten emakumeak dira. Gobernu guztiek eta nazioarteko erkidegoak baterako erantzukizuna dute, legeak betearaz daitezten eta krimenak zigortu gabe gera ez daitezten lortzeko, eta hori lortzen ez den bitartean gu denok gaizkideak izango gara.

Generoko indarkeria muga-mugako egoeretan abian jartzen den bat-bateko gertakaria dela pentsatzea ikuspegi murriztailea izango litzateke. Indarkeria hori aurrez marraztutako plan baten arabera eginda dago, arlo publikoan nahiz pribatuan, aurrez prestatutako estrategia baten arabera da. Plan hori gauzatzeko, ezinbestekoa da boterea edukitzea: ni bezalakoa ez den hori jipoituko dut, umiliatuko dut eta, behar izanez gero, hil egingo dut. Hau da: indarkeria erabiltzen dugu gure nagusitasunaz baliatuta, hala gerran, nola gerraren absentsia gisa gaizki ulertutako bakean gaudela. Dagoen desberdintasun bakarra, funtsean, kuantitatiboa da, gatazka-egoeretan indarkeria esponentzialki biderkatzen baita. Nazio Batuen arabera, 18 segundoro emakume batek tratatu txarrak jasaten ditu munduan. Orain, biderkatu dezagun kopuru hori, eta, ziurrena, aho zabalik geratuko gara emakumeen aurkako indarkeriaren egoera ikusita (ez dezagun galdu basakeriaz aho zabalik geratzeko ahalmena, hala nahiko nuke –eta hala desiratzen dut–), batez ere, ondo jakinda indarkeria hori ez dela halabeharrez azaltzen, eta, larriagoa dena, indarkeria hori saihestu ahal dela. Hala, bada, indarkeria jokabide bat da, ikasitako, atzemandako, barneratutako eta gizarteak onartutako jokabidea -bakearen eta gerraren zati bat den aldetik-.

Indarkeria ikasten eta berregiten dugun era berean, zigorgabetasuna zer den ikasten dugu, eta horrek areagotu egiten ditu giza eskubideak urratzearen ondorioak, harik eta ohitura bilakatu arte; eta, horren ondorioz, emakumeen eta nesken segurtasunean izaten duen eragina guztiz suntsiztailea izaten ari da. Gatazka armatuak ez du indarkeria asmatzen: berriz idazten du, haren bertsoa egiten du. Ezin zen bestela izan, kontuan hartzen badugu gizarte askotan emakumeak gaur egun bigarren mailako herritartzat hartzen dituztela –egitatez eta lege aldetik–, eta beste gizarte batzuetan herritartzat ere

ez dituztela hartzen. Emakumeek gizonak eskubide aldetik duten berdintasun bera erdietsi duten gizarteetan ere, egiatan, errealtatea oso bestelakoa da: soldata baxuagoak dituzte, lan-zama handiagoa dute, erabakiak hartzeko postuetara iristeko aukera gutxiago, etab. Gure etorkizunari buruzko erabakiak hartzeko aukerarik ez badugu, ez dugu ezer. Berriz esango dut: egiturazko desberdintasuna da indarkeriaren sorrera; eta, beraz, desberdintasuna irau-narazten dugun bitartean, era berean irauaraziko dugu indarkeria, genero-arloko harreman-mota gisa. Emakumeen aurkako indarkeria da gehien egiten den delitua eta, aldi berean, zigorgabetasun aldetik, zigorrik gabeko mailarik altuena duen hori. Gatazkako eta gatazka ondoko egoeretan generoko indarkeria –molde guztietan– baliatzeko ohitura gaiztoa eta zigorgabetasuna hain da handia, non galde egin ahal baitiogu geure buruari –adimen aldeko ariketa gisa bada ere– ea gobernuak benetan ohartzen diren horrek emakumeen eta nesken bizitzan duen neurritz gaineko eraginaren tamainaz... Jakina denez, ohartzen dira, eta, orduan zer?

Gaur egun, 30 gatazka armatu baino gehiago daude munduan barrena. 1998an, Erromako Estatutuaren bidez⁴, Nazioarteko Zigor Gortea sortu zen gerrako krimenak auzitara eramateko. Hago hirian egoitza duen gorte hori 4 gatazka armatu epaitzen ari da, eta kasu guztietan genero-arloko krimenak daude tartean (Uganda, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Afrika Erdiko Errepublika eta Sudan). Hala ere, askoz ere kasu gehiago egon litezke: Kolonia, Gaza, Birmania, Georgia, Boli Kosta, Sierra Leona, Somalia, Libia, Afganistan...

Era horretan, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak 2000ko urrian hartu zuen 1325 Ebazpena iritsi gara. Berriz esango dut, 1990eko hamarkadan egiten ari ziren genero-arloko krimenak salatzeke emakumeen mugimenduak egin zuen borroka etengabearen, eta haren iraukortsunaren eta borondate irmoaren emaitza da ebazpen hori. Besterik ez bazen ere, Nazio Batuek erantzuna eman behar zuten, kopuruak neurritik kanpokoak zirela ikusita, eta, horrela, arlo kuantitatibora itzuli gara berriz. Ildo horretan, Beijingeko Ekintza Plataformako akordioaren esparruan kokatu beharko genuke 1325 Ebazpena. Akordio horiek Nazio Batuek 1995eko irailean egin zuten emakumei buruzko IV. Biltzarraren ondoriozkoak dira. Biltzar horrek oinarriak finkatu zituen emakumeen parte-hartzeari buruzko etorkizuneko eztabaidei begira, hau da, gatazkak konpontzeke bileretan, bake-rako negoziazioetan, eta adiskidetzeko, berreraikitzeke eta bakea maila

⁴ Estatutua berretsi ez duten estatuen artean hauek ditugu: Estatu Batuak, Txina, India, Errusia, Israel, Kuba eta Irak.

guztietan iraunarazteko prozesuetan emakumeek parte-hartzeari buruzko etorkizuneko eztabaidei begira. Horiek horrela, Nazio Batuetako idazkari nagusiak adierazi zuenari jarraiki, “bakea ezinbestez lotuta zegoen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari eta garapenari...”. Hortik aurrera argi geratu zen bakea ez zela gerraren gabezia, besterik gabe; hala izatekotan, alde batera utziko baikenituzke emakumeek bizitzan barrena pairatzen dituzten gizarte eta egiturazko indarkeria-molde guztiak. Bestalde, maiz bakea gerraren absentsia gisa ulertu izan denez, bake-akordioetan alde batera utzi dira gatazka armatuen benetako arrazoiak, eta, era berean, hori dela-eta, gatazka horiek behin eta berriz agertzen eta sendotzen dira.

Ia hamarkada bat igaro ondoren 1325 Ebazpena eman zenetik, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak gatazka armatuetan gertatzen den sexu-indarkeriari buruzko 1820 Ebazpena onetsi zuen. Ebazpen horrek berariaz gaitzesten du sexu-indarkeria, eta argi adierazten du indarkeria hori “gerra-krimena, gizarte-riaren aurkako krimena edo genozidioa eragiten duen ekintza izan daitekeela”.

Espainia 1325 Ebazpena ezartzeko ekintza-plana duen 20 herrialdeen artean dago. Emakume, Bake eta Segurtasunari buruzko Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpena ezartzeko Espainiako Gobernuak duen Ekintza Plana 2007ko azaroan eman zen argitara. Planak sei helburu nagusi jasotzen ditu, eta bat datoz ebazpenak adierazten dituen horiekin:

1. Bake-zereginetan eta bake-zereginen erabakiak hartzeko organoetan emakumeen parte-hartzea sendotzea.
2. Bakea sendotzeko jarduera guztietan genero-ikuspegia sar dadin sustatzea.
3. Bakea sustatzeko zereginetan parte hartzen duten langileen berariazko gaikuntza bermatzea.
4. Gatazkak dauden tokietan eta gatazka ondoko egoeretan emakumeen eta nesken giza eskubideak babestea, eta emakumeen jabetasuna eta parte-hartzea bultzatzea, bake-akordioak negoziatzen eta ezartzen diren prozesuetan.
5. Emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasuna eta berdintasunezko tratua oinarria sartzeko Armagabetezko, Desmobilizatzeko eta Birgizarteratzeko jarduerak egitean eta plangintza prestatzean.
6. Espainiako gizarte zibilaren parte-hartzea sustatzea 1325 Ebazpenari dagokionez.

Espainiako Gobernuaren Ekintza Plana, agiri itxi bat balitz bezala aurkezten bada ere, zabalik dago, eta beharrezkotzat jotzen diren zuzenketak eta ekarpenak egin daitezke, plana ezartzeko prozesuaren jarraipenaren emaitzak ikusita. Zalantzarik gabe, garrantzizkoa da ekintza-plan bat izatea, horrek lekuan bertan sendotzen baitu 1325 Ebazpena ezartzeko prozesua, Espainiako Gobernuak parte hartzen duen eginkizun horietan. Hala ere, komenigarria da argitzea, plan hori onesteko dagoen borondate politikoa goresteke modukoa bada ere, ezer gutxi egin ahal izango dela, kontuan izanik planak ez duela aurrekontu nahikorik, ekintzak egiteko behar diren ekonomia, teknika eta giza baliabideak bermatzeko. Era berean, ez du prozesuaren betearazpenaren eta emaitzaren berri ematen duen adierazlerik. Plana onetsi zutenetik, bi txosten egin dira hari buruz. Hona hemen txosten horiei buruzko gai garrantzitsu batzuk:

- Emakume eta genero kontzeptuak erabiltzean argitasun eza dagoela suma daiteke, eta sinonimo gisa hartzen direla uler daiteke; horrek nahasmen gehiago sortzen du.
- Segurtasunari buruzko ikuspegi militarizatua dago, arlo politiko-militarrari baizik ez dagokion zerbait dela ulertzen da, gizakien segurtasunak duen garrantzia bazter utzita.
- Bakea gerraren absentzia gisa hartzen da, eta ez da egiturazko indarkeriaren absentzia gisa hartzen.
- Bake-eginkizunetan genero-ikuspegiarik egon ez dela aipatzen denean, berriz parekatzen dira generoa eta emakumeak, eta, hortaz, txostenei jarraiki, uste izaten da planaren 2. helburua ezartzeko emakumeen kopurua handitu behar dela armadetan, edo emakumeak kontratatu behar direla xede diren herrialdeetan. Alabaina, hori 1325 Ebazpena eman aurretik ere egiten zen, eta ez du zuzeneko harremanik genero-arloko ikuspegiarekin, ezta bakearen aldeko eginkizunetan emakumeek duten erantzukizuna indartzearekin ere.
- Ez da ekimenik jasotzen emakumeen erakundeak sendotzeko gatazka aurreko, gatazka ondoko edota gatazka egoeretan dauden herrialdeetan, gizartearen militarizazioa gainditu eta bake onuragarri eta iraunkorra eraikei ahal izateko.
- Ez dio aipamen zehatzik egiten gizarte zibilak bakea eraikitzeke lanean duen garrantziari; batez ere, ez ditu aipatzen gizarte-ongizatea eta garapena ikusgai jartzeko lana sustatzen ari diren emakumeen erakundeak, ez eta gizarte-ehuna sendotzeko, demokratizazioko prozesuak indartzeko eta hauteskundeetan eta Armagabetzeko, Desmobilizatzeke

eta Birgizarteratzeko prozesuetan emakumeen parte-hartzea sustatzeko lanean ari diren horiek; eta, oro har, ez da ezer aipatzen genero-arloko justiziaren esparruan erakunde feministak egiten ari diren lanari buruz.

- “Bakea lortzeko lanetan parte hartzen duten langileen berariazko gaikuntza lotzeko konpromisoari dagokionez”, txostenek ez dute behar adinako daturik ematen hori balioetsi ahal izateko.

Ekintza Plana argitara eman zenean, bakea eraikitzen jarduten dugun erakundeentzat itxaropenez beteriko ahokada bat izan zen, hala Estatu espainiarrean nola gatazka aurreko edo gatazka ondoko egoeretan eta gatazkan dauden herrialdeetan ditugun bazkideentzat. Hala ere, piztu ziren itxaropen horiek ez dira hezurmamitu, ez, behintzat, garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen eta gizarte zibileko beste erakunde batzuen ustez. Espainiako lankidetzari buruzko 2009-2012 Plan Zuzentzailearen arabera, bakea eraikitzea funtsezko gaia da, eta, gainera, Espainiako lankidetzak estrategia bat du bakea eraikitzeko. Zein ondorio du horrek Ekintza Planean jasota dauden proposamenak gauzatzeko funtsak esleitzean, eta bakea eraikitzeko lanetan emakumeak sendotzeko dauden gainerako tresnetan? Ekintza Planaren ondoko urteetan AECIDek garapenerako gobernuz kanpoko erakundeei dirulaguntzak emateko egin zuen deialdi arrunteko ebazpenak ikusiz gero (2008, 2009, 2010 eta 2011koak), hauxe aurkituko dugu:


- 2008. urtean, AECIDek 189 proiekturi eman zien finantziazioa, eta guztizko kopurua 46.306.970 eurokoa izan zen; horietatik, 5 proiektu Bosnia-Herzegovinan (1), Palestinako lurraldeetan (1), Serbian (1) eta Kolonbian (2) bakea eraikitzeko ekintzak bultzatzeko ziren, eta finantziazio osoaren %1,92 hartzen zuten⁵. Proiektu horiek ikusita, bakar batean baizik ez da osagai estrategikoa generoa.
- 2009. urtean, AECIDek finantziazioa eman zien 233 proiekturi, eta horietatik 3 proiektuk Bosnia-Herzegovinan (1) eta Kolonbian (2) bakea eraikitzeko xedea zuten; eta 2 proiektuk genero-arloko ikuspegi argia zuten. Guztizko aurrekontuari dagokionez (59.379976 €), proiektu horiek %0,97 dira⁶.
- 2010. urtean AECIDek 129 proiekturi eman zien finantziazioa, aurrekontuetako esleipena 35.351.860 € izan ziren guztira, eta kopuru horretatik

⁵ 2008ko uztailaren 9ko BOE.

⁶ 2009ko irailaren 17ko BOE.

%2,7 bakea eraikitze lanetara bideratu zen, zehazki, Kongoko Errepublikako proiektu batera eta Kolonbiako 2 proiektutara⁷.

- Azkenik, 2011. urteko deialdian, AECIDek proiektuetarako aurrekontu osoko %2,5 (37.920.922 €) bideratu du bakea eraikitze proiektuetarako, zehazki, Sudan, Palestina, Kongoko Errepublika Demokratikoa eta Kolonbiako proiektuetarako.



Iturria: Geuk egina.

Estatu espainiarreko beste agenzia batzuei erreparatuz gero –adibidez, Agencia Andaluza de Cooperación Internacional al Desarrollo, (AACID) edota Agencia Extremeña para la Cooperación Internacional al Desarrollo (AEXCID)–, ez dugu bakea eraikitze lanean generoko ikuspegia sustatzen duen ekimen bakar bat ere aurkitzen. Udaletako lankidetzak deszentralizatu eta Espainiako lankidetzak pribatuen ildo horretako oso ekimen gutxi dago.

Datu horiek hainbat galdera ekartzen dizkirate burura, batez ere bi.

Lehenengo galdera da ea zein neurritaraino bermatu ahal dugun generoko ikuspegia barne hartzen duten eta bakea eraikitze lanak bultzatzen dituzten proiektu horiek benetako eragina izango dutela emakumeen eta nesken bizitzan

⁷ 2010eko abuztuaren 17ko BOE.

eta segurtasunean, eta, era berean, ea zenbateraino beteko duten proiektu horiek 1325 Ebazpena ezartzeko Espainiako gobernuak duen Ekintza Plana.

Finantzatutako proiektuetatik, batek baizik ez du bereziki lantzen 1325 Ebazpena, Bosnia-Herzegovinan genero-arloko justiziarako tresna estrategiko gisa (horren deialdiaren urtea 2008 da). Bosnia-Herzegovinarekin jarraituta, Espainia gatazka horretan azaldu da, ondoz ondoko gobernuen bidez bake-rako misioetan parte hartuz; lehenik, Nazio Batuen banderapean (UNPROFOR) eta gero NATOren agindupean (IFOR, SFOR). Horrez gain, zuzeneko lankidetzan aritu da, garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen lana bultzatuz, enpresa-arloko harremanak sustatuz, etab. Aspaldi da Bosnia ez dela telebistan azaltzen, eta, beraz, “modatik pasa zen”, laguntza ahitu zen arte.

Espainiako soldaduak bertatik joan dira pixkanaka, eta, azkenik, Lankidetzarako Bulego Teknikoak behin betiko itxi zituen ateak 2011ko martxoaren 31n. Bosnia-Herzegovinako azken Plan Zuzentzailean (2009-2012) ez da azaldu ere egiten. AECIDen orrian agertzen den albiste labur batean, “eginkizun burutua”⁸ irakur dezakegu kakotx artean, eta, ohar batek azaltzen duenez, ia 20 urtez han egon ondoren etxera itzultzeko garaia heldu da... Eginkizun burutua? Zein eginkizun? Bosnian eginkizun asko egon ziren: herritar zibilak babestea, korridore humanitarioak finkatzea, baketzea, justizia indartzea, eta gerrako kriminalak auziperatzea eta espetxeratzea, Srebrenica bezalako segurtasun-alderdiak sortzea -bertan, Mladic gerrako kriminalak 8.000 musulman hil zituen (1995eko uztailaren 15ean, eta zigorrik gabe 15 urte baino gehiago eman ondoren atxilotu zuten), Thomas Karremans koronelaren agindupean zeuden 400 kasko urdin segurtasuna bermatzeaz “ahaztu” baitziren-.

Jakina, Espainiak emandako lankidetzak goraiatzeko moduko lana egin du, laguntza eman baitu herrialdea berreraikitzeke, batez ere azpiegiturak. Alabaina, gizarte-ehuna hautsita dago oraindik, eta horrek esan nahi du lana bukatu gabe dagoela, eta Espainiak jarraitu beharko lukeela Bosniari laguntza ematen, demokrazia, justizia eta bakea sendotzeko lanetan.

Kontua ez da bakarrik urte hauetan egin diren proiektuak eta programak zenbatzea, asko izan baitira; kontua da, gehienbat, proiektu horiek gizon eta emakumeengan izan duten eragina neurtzea. Kasu honetan, onuradunak aurkituko ditugu, azken 18 urteetan Bosnia-Herzegovinan izan den lan-

⁸ www.aecid.ba

kidetza espainiarraren eta garapenerako izan den gainerako lankidetzaren onuradunak, onuraren eragin ona jaso dutenak, “garapen eta elkartasunaren” negozioarekin kritikoen agertzen direnak. Nori galdetzen diogun, hala gertatu ohi da. Ziurrena, galde egiten badiegu Srebrenicako emakumeei, edo Tuzlan, Focan edo Mostarko hipodromoan bortxatu zituzten emakumeei, besteak beste, erantzungo digute gauza asko egin behar direla oraindik.

Zehazki, ia 20 urtez Espainiako lankidetzak Balkanetan egon ondoren, Gatazka Alderdiko Emakumeen erakundeak (MZC) diagnostikoa egin zuen, alderdi horretan 1325 Ebazpena nola zegoen ezarrita aztertzeko, 2009. urtean AECIDek finantzatu zuen proiektu baten barruan. Zene Bosnia-Herzegovinako gobernuz kanpoko erakundeak koordinatu zuen diagnostikoa (Bosnia-Herzegovinako Emakumeak), eta elkarte hauek eraginkortasunez aritu ziren parte hartzen: Visegradeko “Most” elkarteak, Bratunaceko “Forum Žena” elkarteak, Gorazdeko “AnimaN” elkarteak, “Sara-Srebrenica” elkarteak, “Srebrenicako amak” elkarteak, Trebinjeko “Ženski Centar” elkarteak eta Tuzlako “Viva Žene” elkarteak. Gainera, beste elkarte batzuei eta administrazio publikoari galdetegia helarazi zieten⁹.

⁹ Diagnostikoa Bosnia-Herzegovinako eta Sprska Errepublikako instituzio eta erakunde hauekin egin da: Justizia Ministerioa. Sarajevoko BIH Federazioaren Barne Ministerioa - Polizia Akademia. SIPA, Banja Luka Eskualdeko Bulegoa. Sprska Errepublikako Generoari buruzko Zentroa. Sprska Errepublikako Barne Ministerioa, Segurtasun Publikoko Zentroa, Trebinje. HNK-ko Osasun, Lan eta Gizarte Babeserako Ministerioa. Tuzla kantoiko Lan eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Gizarte gaietarako, Osasun eta Errefuxiatuentzako Ministerioa. Tuzla kantoiko Barne Ministerioa. HNK-ko Barne Ministerioa. Sarajevo kantoiko Barne Ministerioa. BPK-ko Barne Ministerioa. Srebrenicako polizia-etxea. Višegradeko polizia-etxea. Bilecako Udala. Trebinjeko Udala. Višegradeko Udala. Srebrenicako Udala. Bratunaceko Udala. Iliđzako Udala. Alijaseko Udala. Sarajevoko Gizarte Lanerako Kantoiko Zentroa. Milićiko Gizarte Lanerako Zentroa. Gobernuz kanpoko erakundeetatik, honako hauek bete zuten galdetegia: “VIKTORIJA” elkarteak, Jajce. “DERVENTA” elkarteak, Derventa. “ORHIDEJA” elkarteak, Stolac. Ikerketarako Dokumentazio Zentroa, Trebinje. “PRIRODA” elkarteak, Bratunac. “VIVA Uštriprača” elkarteak, Novo Goražde. “NOVE NADE” Zentro Demokratikoa, Foča. “EMINA” elkarteak, Ustikolina. “SNOP” elkarteak, Rogativa. “MOST” elkarteak, Višegrad. “VIVA ŽENE” elkarteak, Tuzla. “SNAGA ŽENE” elkarteak, Tuzla. “AMICA EDUCA” elkarteak, Tuzla. “PREPOROD”, lau seme-alaba edo gehiago dituzten gurasoen elkarteak, Berkovići. Emakumeentzako Zentroa, Trebinje. Garapenerako Ekimenen Zentroa, Gacho. “DONJA PUHARSKA” elkarteak, Prijedor. “ŽENE TO MOGU” elkarteak, Banja Luka. “TELEDOM”, Ljubinja. Helsinkiko Parlamentua, Banja Luka. “ŽENA I PORODICA” elkarteak, Gradiška. “GENESIS PROJECT” erakunde humanitarioa. “DUGA” emakumeen erakunde humanitarioa, Banja Luka. “UDRUŽENE ŽENE” elkarteak, Banja Luka. Gazteen Ekimena, Nevesinje. “MADRE Srebrenica” herritarren elkarteak, Srebrenica. “SARA-Srebrenica” gobernuz kanpoko erakundeak, Srebrenica. Gerrako biktimak zibilen herritar elkarteak, Goražde. “ANIMA N” elkarteak, Goražde.

Emaitzak aztertuta, emakumeen eskaerak puntu hauetan oinarritzen ziren:

- Laguntza ematea nazioarteko zigor-auzitegietan, deklaritzen eta behin eta berriz izugarrikeriak gogoratzen eta kontatzen jarraitu behar duten emakumeei.
- Bakea eraikitzeko lanetan parte hartu nahi duten emakumeen taldeak sustatzea, bakearen eraikuntza, gaur egun, fikzio hutsa baita Balkanetan: kaltea konpontzen ez bada, ez dago bakerik, ez eta justiziarik ere.
- Emakumeek erabakiak hartzeko prozesuetan duten parte-hartzea handitzea, hori ez baita lehentasun politikoa, ez Federazioko gobernuarentzat, ezta Sprska Errepublikakoarentzat ere.
- Genero-berdintasuna lantzen duten instituzio nagusiak bakartzeko dagoen joera gainditzea, sistema politikotik harantz dauden beste instituzio batzuetan.
- Generoa aintzat hartzen duen hezkuntza iraunkorra sendotzea, gaur egun ez baitago sartuta funtzionarioek dituzten nahitaezko prestakuntzako programetan.
- Genero-arloko aurrekontuetarako gobernuko arduraduna finkatzea, laguntza eman dezan genero-berdintasunean eta emakumeen giza eskubideetan oinarrituta dauden politika publikoak betearazteko.
- Ebaluazio etengabekoa, independentea eta kalitatekoa egitea, 1325 Ebazpena bultzatzen duten lege eta politika publikoak ezartzeak dituen ondorioei buruz (jendeak eskura dituen txostenen ardatza jardueren deskribapena baita, ez jardueren benetako emaitzak).
- Emakumeek erabakiak hartzeko prozesuan duten eragina neurtzea, ordezkapenean berdintasuna egoteak ez baitu nahitaez esan nahi benetako eragina dagoenik boterean eta erabakiak hartzerakoan.
- Bosnia-Herzegovinako lurraldean, eskumena duten instituzioek emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiak oraindik ere onartzen dituztela eta zigor desegokia ezartzen dutela salatzea, eta batere tolerantziarik ez izateko eskatzea.
- Nazio Batuen CEDAW Batzordeari eskatzea jarduerak ugaltu ditzan, Nazio Batuetako kide diren herrialdeetan –besteak beste, Bosnian eta Herzegovinan– Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpena ezartzeko

moduaren jarraipena egiteko.

- Arreta egitea Bosnia eta Herzegovinarako garrantzizkoak diren Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpeneko funtsezko bi arlori; hauek dira arloak: -emakumeek negoziazio politikoetan, erabakiak hartzean, eta emakumearen aurkako indarkeriari aurre egitean duten parte-hartzea handitzea. -Bosnia eta Herzegovinan CEDAW Batzordearen txostena prestatzea (2009ko urria).
- Eskaera egitea Bosnia eta Herzegovinako Genero Berdintasunerako Agentziak gardentasun gehiago izan dezan, Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpena ezartzeko Ekintza Plana prestatzerakoan (prozesu hori abian dago, eta ez dago gizarte zibileko ordezkarien parte-harteari buruzko daturik); eta, era berean, Bosnia eta Herzegovinako Genero Berdintasunerako Agentzia bultzatzea, emakumeen taldeak barne har daitezten Bosnia eta Herzegovinako Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpena ezartzeko Ekintza Plana prestatzeko lanetan.
- Bosnia eta Herzegovinako emakumeen sarearen bidez, Nazio Batuei eskaera egitea, Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpena ezartzeko prozesua kontrolatu eta horren berri emango duen arduraduna izendatu ditzan, hala Federazioan nola Sprska Errepublikan.

Diagnostiko horrekin batera, Gatazka Alderdiko Emakumeen (MZC) erakundeak bi azterketa gehiago egin ditu 2010-2011 denboraldian, Kolonbiako eta Palestinako¹⁰ genero-arloko justiziarri buruz eta 1325 Ebazpena ezartzeko prozesuari buruz, Kordobako Udalak emandako finantzazioari esker. Diagnostiko horietan, 1325 Ebazpenaz gain, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1820 Ebazpena hartu da aintzat, gatazka armatuetan izaten den indarkeria sexualari dagokiona.

Palestinari dagokionez, diagnostikoa egiteko lankidetzan aritu garenean gurekin harremanetan izan diren erakunde gehienek ustez, Nazio Batuen ebazpenek mesfidantza handia pizten dute herritarrengan, 1948. urte-tik orain arte bete gabe geratu baitira sistematikoki. Horiek horrela, 1325 Ebazpenak legezketasuna galtzen du, eta batzuetan arbuioa da haren aurrean nagusitzen den jarrera politikoa. Hala ere, egiten diren jarduera eta prozesu askok zuzenean edo zeharka bultzatzen, eskatzen eta sustatzen dute ebazpen horren ezarpena.

¹⁰ www.mzc.es

*“Palestinan gizarteak sinesgarritasun gutxi aitortzen die Nazio Batuen eba-
zpenei, okupazioan dugun esperientzia luzean ikusi abal izan dugumez,
Europar Batasunak, Nazio Batuek eta Estatu Batuek oso laguntza urria
eman baitute gure egoeraren alde. Baina ebazpen zebatz boni dagokio-
nez, nik uste dut laguntza lor dezakegula emakumeen bizitza-baldintzak
hobetze aldera. Eta, horretarako, ezinbestekoa da emakumeek ezagutu de-
zaten, jakin dezaten zer esanahi duen eta nola erabil dezakegun”. -GUPW.*

*“Adibidez, 1325 Ebazpenak, ebazpen horrek garrantzi handiagoa bai-
tu gainerako guztiek baino, esate baterako, errefuxiatuen itzulerari
buruzko ebazpenak baino, ebazpenen gaia ere badago tartean... azken
batean, hipokrita bilakatzen baikaituzte edo hala bilakatzen gara gu.
(...) Baina emakumeek begietara begiratzen dizute, eta zera esaten di-
zute, “bai, hori oso ondo dago, baina zer dela-eta da hobeia ebazpen
hori bestea baino”. Politika, emaielen agenda, zer esaten duzun, zerga-
tik du garrantzi handiagoa batek besteak baino”. - JWC.*

Diagnostikoa parte hartu duten Palestinako emakumeen mugimendua¹¹
fronte askotan aritzen da bakearen aldeko lanean. Fronte horietan, besteak
beste, zuzeneko arreta eskaintzen die emakumeek dituzten beharrianik
hurbilenei, eta 1325 Ebazpenaren erabilera ere sustatzen du, nazioarteko

¹¹ Diagnostikoa Palestinako eta Israelgo emakumeen mugimenduko elkarte hauekin egin da: Palestinako elkarteak: Women’s Programs Center Qalandia Camp, Miazsar al-Qam. Palestinian Working Women Society for Development - PWWS, Amal Khreshe. Association of Women’s Committees for Social Work - AWCSW, Saleem Dabbour. Palestinian Business Women’s Association - ASALA, Salma Suleyman. Handicraft Cooperative Qalandia Camp, Khadiyya eta Yasser Malaysheh. Women’s Center for Legal Aid and Counseling - WCLAC, Soraida Hussein. Women, Media and Development - TAM, Suheir Farraj. Women’s Affairs Technical Committee - WATC, Mona Hamed eta Lubna. The Palestinian Conflict Resolution Center - WIAM, Zoughbi Zoughbi. Psycho-social Counseling Center for Women Psycho-social Counseling Center for Women - PCCW, Khawla Alazraq. Jerusalem Center for Women - JCW, Mariam Ikerma. Palestinian Women’s Research and Documentation Center - PWRDC, Zahira Kamal. General Union of Palestinian Women - GUPW, Mona, Firjal, Iam eta Khawla Alazraq. Ministry of Women’s Affairs, Rabiha Diab. Stop the Wall, Aghsan Barghouthi. Miftah, Bisan Abu-Ruqti, programen zuzendaria. Women Studies Center - WSC, Sana Siuri, Hebroneko koordinatzailea nagusia. Palestinians, Wafa Andel Rahman, zuzendari nagusia. Israelgo elkarteak: Isha L Isha, Khulud Khamis (*“Emakumea, bakea eta segurtasuna”* programaren koordinatzailea) eta Rita Haikem (programa). Sareak: International Women’s Commission for a Just and Sustainable Israeli - Palestinian Peace - IWC. Israelgo adarra: Idit Avidan (koordinatzailea) eta Molly Maleker (Bat Shalom). Coalition of Women for Peace - CW4P, Lana Kaskia (koordinatzailea), Ilat (koordinatzailea) eta Lily Traubmann (kidea).

zuzenbideko tresna den aldetik, tresna horretan oinarrituta emakumeen eskubideak eskatzen jarraitzeko eta eskuratzeko, eta, era berean, Palestinako gizartean dauden generoko estereotipoak deseraikitzen jarraitzeko.

“Bi mailatan egiten dugu lan. Alde batetik, maila politikoan: emakumeek erabakiak hartzeko lekuetan duten ordezkaritza handitzen, emakumeen agenda estatuetako politiketara eramanez, eta generoko berdintasunean oinarritutako legezko sistema ezartzen saiatuz; eta, bestetik, maila sozialean: emakumeen beharrianak betez eta emakumeen gaitasunak indartuz”. - GUPW.

Kolonbiako emakumeen kasua guztiz aipagarria da, mugimendua oso heldua baita, emakumeek ia sei hamarkada eman baitituzte aurre egiten eta borrokatzen. Izan ere, sei hamarkada igaro dira gatazka armatua abiarazi zenetik, eta, harekin batera, emakumeen eskubideak etengabe bortxatu dira era guztietan. Sisma Mujer erakundeak egin du diagnostikoa, eta 2 zatitan egituratuta dago. Lehenengo zatiak Kolonbiako gatazka armatua eta emakumeen egoera azaltzen dizkigu.

Bigarren zatian, berriz, bake eta segurtasunaren arloko gaitan emakumeen gizarte-mugimenduak egin dituen esku-hartzeen mapa berreraiki nahi da, eta, horretarako, esku-hartzearen jatorria, ekintza nagusiak, eta azken 10 urteetan aktore armatuekin negoziatzeko ahaleginetan edo prozesuetan izan diren funtsezko egoeren aurrean izan duten jarrera eta eragina azaldu behar dira. Hori prestatzeko, Kolonbiako emakumeen erakunde nagusiak hartu dira ardatz gisa: Emakumeen Sare Nazionala, Emakumeen Ibilbide Baketsua, Kolonbiako Emakume Nekazarien eta Indigenen Elkarte Nazionala (ANMUCIC), Herri Erakunde Femeninoa (OFF) eta Bakearen aldeko Emakumeen Ekimena (IMP). *“Plataformen jarduerari eusten dioten bakeari buruzko ideiak ikertzean, argi ikus dezakegu ideia horiek guztiak bat dartzela gutxieneko baldintza hauetan: gerra praktika eta logika patriarkala dela uste dute, gizonezkoen jabetzakoa (baina jardute batzuek klase-arloko logikak azpimarratzen dituzte)... Ziur daude gatazka armatuak eragin zehatza eta neurritz gainekoa duela Kolonbiako emakumeengan. Herritarren kontrolaren, lurraldearen menderakuntzaren, biziraupenaren eta gizarte-ehunaren berreraikuntzaren ikuspegitik, emakumeek hartzen dituzte beren gain indarkeriaren kostu gehienak”* (Sisma Mujer erakundearen diagnostikoa, 2010). Diagnostikoak aukera ematen digu ikuspegi argigarria izateko Kolonbiako emakumeen mugimenduak 1325 eta 1820 ebazpenez egin duen erabilerei buruz eta horiek izan duten eraginei buruz, tresna

egokiak baitira Kolonbiako Estatuari eskatzeko generoko auziak bete ditzan gatazka armatuaren arloan. Ebazpen horietatik harantz joz, baliagarri izan zaigu emakumeak bakea eraikitzen eta generoko justiziaren alde egiten ari diren borrokan sakontzeko.

Emakumeen mugimenduak aho batez nabarmentzen du ebazpen horiek gatazka armatuek emakumeengan duten eraginaren onespén publikoa di-rela, eta, era berean, gatazkei aurre egitean eta konpontzean eta, orobat, bake iraunkorra eraikitzeko lanetan emakumeek duten zereginaren aitopena direla. Horrez gain, mugimendu horien ustez, oinarritzko tresnak dira, gerraren aurkako aktibismoa sendotzeko; eta nazioarteko tresnen multzo garrantzitsu baten esparruan kokatzen dituzte bi ebazpenak, nazioarteko tresna horiek aukera ematen baitute gerrak eta indarkeriak emakumeen bizitzan eta gorputzean dituzten ondorioak ikusgai jartzeko. Adostasun horretatik abiatuta, emakumeen erakundeak ez datoz bat ebazpenak ezartzeko eta baliatzeko orduan.

“inoiz ez diogu Kolonbiako Estatuari eskaera irmorik egin, eskaerak bete ditzan lortzeko, gure ustez beharrezkoa baita emakumeak solaskide baliadun gisa onetsita egon daitezen, eta gaikuntza izan dezaten mugimenduaren benetako eragina eta ordezkariaren arabera.” (Emakumeen Bide Baketsua).

Hartara, elkarren aurka dauden jarrerak ikus ditzakegu, alde batetik, erakunde batzuk erabiltzen ari baitira emakumeek erabakiak hartzeko postuetan duten agerpena sendotzeko, edota haien aplikagarritasunaz sentibera bihurtzeko; eta, bestetik, jarrera batzuek kritikoak baitira nazioarteko tresna horiekiko, haien ustez Kolonbiako Estatuak erantzukizunik hartu gabe berresten dituen dokumentu-sail batzuen artean baitaude, eta ezin baitute inola ere bermatu eskatzen diren eskubideak nagusituko direnik. Emakumeen mugimenduko zati batek 1325 Ebazpenak berekin dakarren segurtasunaren kontzeptua nabarmentzen du; haien ustez, ez du definizio egokirik hartzen emakumeek dituzten berariazko betebeharrei begira:

“Ebazpen horiek bete daitezen eskatzea hormen aurka joka aritzea da. Ez dute balio parte hartzeko eta emakumeen justiziara iristeko dagoen egiturazko arazoa konpontzeko. Hortaz, ez dugu gure bizitza haien alde emango, eta ez diegu denborarik ere eskainiko.” (OFP).

Azken batean, emakume bosniarrek, palestinarrek, kolonbiarrek, kongotarrek edo ruandarrek onartzen dute zeinen garrantzitsuak diren ebazpen

horiek, baina argi uzten dute, Segurtasun Kontseiluak ebazpen horiek aldarrikatzea erabaki aurretik, ebazpenek sustatzen duten horixe bera eskatzen ari zirela beraiek, nazioarteko zuzenbidearen mailaz eskatu ere. Gatazka armatuetan generoko auziak ikusgai jartzeak pizten duen gogo beroarekin batera, ezin dugu ahaztu zenbateko frustrazioa eta ezintasuna sorrarazten duen gatazkako edo gatazka ondoko egoeran dauden milioika emakumeentzat, emakume horiek zuzenean ikusten ari baitira nazioarteko tresna horiek asmo oneko adierazpenak baizik ez direla, edo zuzenketak egiteko proposamenak baizik ez direla, Nazio Batuek eratzten dituzten estatuen bilbeak beren erru-sentimendu arindu dezan, eta justifika dezan instituzio hori, nahiz eta, gaur egun, argi frogatuta egon beharrezkoa dela baina, zorritzarekin, ez dela eraginkorra.

Ekintza Planetik abiatuta izan diren proiektuen azken deialdietako datuek iradokitzen didaten bigarren galdera erakunde finantzatzaileek herrialde batean esku hartzeko eta beste batean ez esku hartzeko darabiltzaten irizpideei buruzkoa da. Ez da auzi erraza, batez ere kontuan hartzen badugu 2008. urtean 28 gatazka armatu izan zirela, 2009. urtean 31 izan zirela, 2010. urtean 30 izan zirela, eta 2011ko ekainean 31 gatazka armatu zeudela¹²; eta gatazka horietan guztietan sistematikoki urratu zituztela emakumeen eta nesken eskubideak. Zer egiten ari da emakumeen eta nesken aurkako indarkeria geldiarazteko eta gaitzesteko? Izan ere, orain dela hilabete gutxi, Nazioarteko Zigor Auzitegiak aditzera eman zuen nabaritasunak zeudela Libian indarkeria sexuala gerrako arma gisa baliatu dela esateko. Espainiako gobernua Kongoko Errepublika Demokratikoarentzat finantzatzen ari den proiektuetatik, zein ari da erabiltzen Kongon bortxatu dituzten 1,8 milioi emakumeekin justizia egiteko? American Journal of Public Health aldizkarian argitara eman den azterketa baten argitan, orduro 48 emakume bortxatzen dituzte, eta kopuru horrek 26 aldiz biderkatzen ditu Nazio Batuek dituzten estatistikak. Zer ari da egiten Espainiako gobernua Afganistanen, emakume afganiarren eskaerak betetzeko? Emakume horiek eskatzen baitute 2011ko abenduan Bonnen Afganistani buruz izango den Biltzarrean emakumeen parte-hartzea bermatzeko. Zertan hobetu da gatazka armatuko inguruneetan dauden emakumeen bizitza, 1325 eta 1820 ebazpenak jardute-eremuan azaldu zirenetik?

Erakunde finantzatzaileek, hala udal txikiek nola Europar Batasunak, asko maite dute adierazle kualitatiboak izatea, proiektu baten esparru zehatzean

¹² www.escolapau.uab.cat

neurtzeko moduko adierazleak, eta, beraz, erantzuna eman beharko lukete hau ikusita, hau da, denik eta adierazlerik gaiztoena ikusita: bortxatu, harekin trafikatu eta esklabo sexual bihurtu, torturatu edota desagerrarazi beharko diren emakumeen kopurua... zenbatek jasan beharko dute hori, nazioarteko erkidegoak erantzuna eman dezan eta estrategia irmoak abiaraz ditzan, emakumeen eta nesken segurtasuna bermatzeko, haiekin justizia egingo dela ziurtatzeko eta krimenak konpontze aldera krimenen egileak zigortzeko? Berme osoak behar dira, inprimatutako letrak duen malgutasunetik harantz joz: paperak dena jasan dezake, eta behin idazten jarrita, oso trebeak gara, orain ezinbestekoa da EKITEA ETA ORAINTXE BERTAN egitea. Tresnak badaude, baina borondate politiko eraginkorra behar da, generoko agenda segundo bakar bat gehiago ere atzeratu ez dadin gatazkan eta gatazka ondoko egoeretan dauden herrialdeetan. Gertakarietan oinarritu behar da agenda, bera abiarazteko behar diren baliabide ekonomikoak, teknikoak eta giza baliabideak behar dira, eta gatazkan eta gatazka ondoko egoeretan dauden herrialdeetako emakumeen erakundeek prestatutako adierazle-andana ere bai, adierazle-andana horren bidez neur-tu ahal izango baitugu ea ekintza-planak benetan betetzen ari diren edo ez. Horrez gain, garrantzizkoa da behar bezala zehaztea zein neurri hartu beharko den planak bete ezik.

3. Laguntzaren errentagarritasun politiko-ekonomikoa

Emaleen agenda ez dator beti bat laguntza jasotzen duten herrialdeek proposatzen dituzten agendetan dauden beharrianekin. Hortaz, behin baino gehiagotan gertatu da bakerako planak negoziazioko mahai batean prestatu dituztela, dagokion tokitik eta gatazka pairatzen duten gizon eta emakumeengandik hamaika kilometrora, eta "tout pour le peuple, rien par le peuple" moduko zerbait ezarri dela (dena herriarentzat, baina herririk gabe). Mendebaldeko pentsamendu etnozentristik abiaturata, uste osoz sinetsirik gaude, garatzeko bidean dauden herrialdeetan zer den komenigarrien erabakitzerakoan, "egia" geurea dela, ez baita halabehar hutsa herri horiek gatazka armatuan dauden herri gehienak izatea (denak dira garapen-bidean dauden herrialdeak, eta haietako %50 mundu osoko 20 herrialderik pobretuenen artean daude).

Laguntza-emaleen agendak eskakizun batzuk ditu, eta eskakizun horiek zerikusi handia dute estatu baten mapa geoekonomikoa eratzeko moduarekin. Idazki honen hasieran esan dugunez, merkatuek beren tirania

ezartzen dute, ekonomiak partida irabazi dio politikari, eta, hortaz, garapenerako lankidetzaz berriz poltsikoratu daitekeen laguntza-molde bat da, zor gisa ez, baina emalearentzat oso onuragarriak izango diren trukeen bidez berriz poltsikoratuko baita. Era horretan, emaleen agenda bera ez duten edo agenda horrentzat mehatxagarriak diren ikuspegiak dituzten erakundeak zentsuratu egiten dira, eta, beraz, erakunde horien programak nekez aterako dira aurrera, nahiz eta behar-beharrezkoak izan herrialde hartzaile horretako gizon eta emakumeentzat. Garapenerako gobernu kanpoko erakundeak, hein handi batean, diru-laguntza publikoen menpe daude. Hortaz, horrek haien lana baldintzatzen du, eta azkenean kontraesanetan sartzen da hegoaldeko herrialdeetako bazkideek diseinatu dituzten estrategiekin. Adibidez, Maliko kasua azalduko dut. Orain dela bi urtetik hona, gutxi gorabehera, Kanpo Arazo eta Lankidetzarako Ministerioak berariaz debekatu die garapenerako gobernu kanpoko erakundeetako kideei iparraldeko hiru eskualdeetara bidaiatzea (Gao, Kidal eta Timbuktu eskualdeetara). Bahiketak egoteko arriskuaren ondorioa da debeku hori; izan ere, arrisku hori egon daiteke, eskualde horietan Magrebeko Al Qaeda dago eta. Gainera, iparraldea ez dago Espainiako lankidetzak dituen lehentasunen artean. Hortaz, munduko herrialderik pobreenetako honen hiru eskualde horiek muturreko pobrezian eta isolatuta egotera zigortuta daude. Funtsezko bi eragile horiek ikusita, bistan da eskualde horietako herritarren giza eskubiak urratzen ari direla, eta ez dagoela egoera hori sala zezakeen behatzaille deserorik tartean. Maliko iparraldean dagoen gatazka munduan barrena isilduta dauden gatazka horietako bat da, eta emakumeek pairatzen dute bereziki. Iparraldea Saharako desertuan dago kokatuta, eta Maliren azalera osoko 2/3 hartzen ditu. Bertan, biztanleriaren %15 bizi da, milioi bat lagun gutxi gorabehera. 1990. eta 1995. urteen artean komunitateen artean izan zen gatazka armatuak areago pobretu zuen aldea, eta zeuden azpiegitura hondatuak suntsitu zituen. 1992. urtetik aurrera, Itun Nazionala sinatzearekin batera, bake-prozesurako oinarriak finkatu zituzten, eta, besteak beste, ekintzaile armatuak desarmatzea hartu zuten barne. Bake-prozesuak ez ditu ezertan ere aintzat hartu emakumeak, ez zien emakumeei aholkurik eskatu, eta, azken urte hauetan, erkidego eta etnien arteko liskarrak berriz piztu zirenetik, ez dituzte kontsultatu. Talde batzuek harri eta zur utzi dute Maliko Errepublikan, darabiltzan indarkeriaren bidez, hautatutako eraso armatuak jo baitituzte, batez ere bertako politikarien aurka. Liskarrak egon dira segurtasuneko kideen eta Bella komunitateetako kideen artean, eta talde sozialek edo etnikoek goi-mailako kargudun militarrek hil dituzte. Ekintza horiekin, izua eta mesfidantza zabaldu dira komunitateko talde guztien artean. Indarkeriazko giroaz babesturik eta desertuaren zabalera

handia baliaturik, kontrolik gabeko taldeek bidelapurreria bultzatzen dute eta segurtasun eza areagotzen dute.

2008. urtean lehenbiziko aldiz joan nintzen Gao eta Timbuktu eskualdeetara, eta bi astez tailer parte-hartzaileak egin ahal izan nituen elkarte eta federazioetan antolatuta zeuden emakumeekin. Harritzekoa da, benetan, emakume horiek antolatzeko duten maila izugarria, arlo guztietan hain baldintza gaitzez inguratuta egon arren. Bilera horietan, Gao eta Timbuktu eskualdeetako emakumeek indarkeria eta arma arinen arazoa jarri zuten ikusgai, eta haien segurtasunerako eta bizitzarako arrisku gisa aurkeztu zuten. Armagabetzeko, Desmobilizatzeko eta Birgizarteratzeko Mali iparraldean izan zen prozesuan, ez zituzten emakumeak aintzat hartu. Handik hamabost urtera, berriz utzi dituzte bazterrean. Izan ere, nazioarteko lankidetzako aktore bat ere ez baita orain arte haiekin lanean aritu, bakea eraikitzeko esparruan, nahiz eta horixe izan, hain zuzen, emakume horiek egin duten eskaeretako bat. Emakumeei galdetu egin behar zaie, haien beharrizan praktikoak eta interes estrategikoak zein diren jakiteko. Are gehiago: emakumeei galdetu behar zaie, herrien beharrizan zehatzak zein diren jakin ahal izateko.

Horretaz gain, lehorte etengabeak iparraldeko eskualdeak hondatu ditu. 2010. urtean gosete larria eragin zuen, eta bereziki gogorra izan zen Kidal eta Gao eskualdeetan. Esan beharrik ez dago goseteak areago larritzen dituela tirabirak, handitzen dituela indarkeria eta gatazkak, baliabideen urritasuna dela-eta, batez ere uraren eskasia kontuan hartuta. Berriz ere, emakumeek eta neskek pairatzen dute indarkeria horren eraginik zuzenena.

Azaldutakoa ikusita, arrazoi aski daude Maliko iparraldean esku hartzeko, generoaren eta bakearen eraikuntzaren arloan. Hala, beraz, nekeza egiten zait ulertzea zer dela-eta ez den engeiatzen AECID iparraldeko eskualdeetan dauden arazoetan. Izan ere, bere Plan Zuzentzailean Mali du sartuta lehentasunezko herrialdeen artean, eta gaitutako langileak dituzten Lankidetzarako Bulego Teknikoa eta enbaxada ditu han. Segurtasunagatik jokutzen al du horrela? Benetan segurtasun gutxiago al dago Maliko iparraldean, Gazan, Afganistanen, Iraken edo Kongoko Errepublika Demokratikoan baino? Zein segurtasun-mota nagusitzen da emaleen agendan, eta, zehazki, AACIDen agendan? Laguntzaileak atzerriratu gabe ere ondo egin daiteke lan, bertako bazkideen bidez; horixe ari da egiten Garapenerako Lankidetzako Andaluziako Agentzia eta Europar Batasuna bera ere bai. Estrategiak bilatu beharko genituzke, behar diren estrategiak, milioi bat lagun bertan behera

ez uzteko, giza segurtasuna izateko herriek duten eskubidea sustatzen dituzten jardueretatik erabat urrutiratzen diren argudioak emanda.

4. Bakea eraikitzearen aldeko apustu bat: oinarrian dauden emakumeen erakundeen ahotsak entzutea

“Laguntzeko ekintzek, lotsaz “garapenerako ekintzak” deitutako horiek, mendebaldeko neurritz kanpoko garapenean oinarritutako balioak hartzen badituzte ardatz gisa, hegoaldeko edo ekialdeko herritarrek betiko moduan jarraituko dute zigortuta, mendebaldeko neurritz kanpoko garapenaren helburuak lortzeko erabiliko baitira.” (Pascale Vincent. 2002).

Espainiako lankidetzak, instituzio publiko eta pribatuen eta hainbat laguntza-motaren bidez bideratuta, ahalmen izugarria du zenbait gai aldatzeko, zehazki, emakume eta nesken genakako eragin onuragarria handitzeko balio dezaketen gaiak aldatzeko, gatazkan edo gatazka ondoko egoeretan dauden emakume eta neska horien bizitzak hobera egitea lortzeko, gatazkan sartuta dauden aktore guztiek emakume eta neska horien eskubideak errespetatuko dituztela bermatzeko, eta, aldi berean, aktore horiek emakume eta nesken eskubideak urratuz gero zigorrak jasoko dutela ziurtatzeko. Hala, bada, mekanismo argiak ezarri beharko litateke, gatazkan edo gatazka ondoko alderdietan dauden pertsonen segurtasuna bermatzeko; eta, horrez gain, sistema bat finkatu beharko litzateke, ezkutuak dauden baina areagotu daitezkeen gatazken alarma goiztiarra jotzeko. Hala, aurrea hartu ahal izango genieke gatazkei, tartean dauden alderdiekin negoziazioan arituta, eta negoziatio horretan emakumeek eta gizonek parte hartu beharko lukete, baldintza berdinetan.

Hona hemen ekiteko dauden proposamen batzuk:

- “Laguntzaren arkitektura berria” generoko politikarantz bideratu beharko genuke, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren beharrezan oinarritu beharko litzateke, emakumeen benetako babesa eta sustapena egon dadin, eta emakumeek berdintasunean parte har dezaten, gizarte-, politika- eta kultura-ehundura berreraikitze erabakiak hartzerakoan, eta bakea eraikitze prozesuetan.
- Kontuan izan behar dugu arkitektura berri horrek zehaztutako oinarri eragileetako batzuk kontraesan egon daitezkeela, edo genero-erlotoak gaiak larriagotu ditzaketela; halaxe gertatzen da, esate baterako, Parisko Adierazpenak azaltzen duen alienazioaren oinarriarekin

(“Emaileek laguntza oinarrituko dute bazkide diren herrialdeek dituzten garapenerako prozedura nazionaletan, instituzioetan eta estrategietan”). Izan ere, bazkide den herrialdeak ez badu bere ekintzako planen artean barne hartzen genero-aldeko zeharkakotasuna, eta emakumeen eskubideak bermatzen ez baditu, ezin izango dira beste tresna batzuk abiarazi, adibidez, 1325 Ebazpena, 1820 Ebazpena, ez eta generoko berdintasunaren arloko nazioarteko zuzentzaraurik ere. Gainera, bazkide diren herrialdeekiko alienazioaren oinarriak oso egoera ahulean uzten du laguntza jasotzen duten herrialdeetako gizarte zibila, arriskua baitago gobernuei lotuta dauden erakundeak funts publikoekin finantzatzeko. Horrek elkarreetako eliteen oligarkia indartuko luke, eta oinarritzko erakundeei, berriz, kalte egingo lieke, eta oinarritzko erakunde horien artean egoten dira, hain zuzen, emakumeen erakunde gehienak.

- Segurtasunari buruzko alderdi askoko ikuspegia (militarra, ekonomikoa, kulturala, soziala, judiziala...) eta maila askoko ikuspegia (pribatu-publikoa, herriko-estatuko kontinuuma) behar da, gerra eta bakea kontzeptuei buruzko interpretazio manikeoaren aurrez aurre.
- Bestetik, 1325 Ebazpenari dagokionez, baliabide ekonomiko eta tekniko jakinak eta giza baliabide zehatzak bideratu behar dira lirake ebazpen hori bete dadin. Adierazle kualitatiboak eta kuantitatiboak behar dira, ebazpena ezartzeko Espainiako gobernua duen Ekintza Planaren inguruan dauden aurrerapenen berri emango diguten adierazleak. Ondo zehaztu behar da, helburuak betetzeko lanetan engaiatuta daudenen artean, zein diren Estatuko aktoreak eta zein ez diren Estatukoak. Generoko ikuspegia bakea eraikitzeke egiten diren jarduera guztietan sartzeko joera indartu behar da (2. helburua). Aurrera egin behar da emakumeen jabeak eta negoziazioko prozesuetan eta bakerako akordioetan emakumeen parte-hartzea lortzeko (4. helburua).
- Gatazka armatuek emakumeengan eta neskenengan duten eraginari buruzko azterketak eta ikerketak finantzatu behar dira.
- Justizia, kaltea konpontzea eta memoriari lotutako prozesuetan sartuta dauden emakumeei eta haien erakundeei laguntza, sostengua eta euskarria eman behar zaizkie.
- Gatazkan edo gatazka ondoko egoeran dauden eta Espainiako lankidetzaren bat jasotzen duten herrialdeetako emakumeen erakundeei ematen zaien laguntza sendotu behar da. Modu egokian bermatu

behar da ekintza-planek behar bezala betetzen dituztela herrialde horietako emakumeen agendan dauden interes estrategikoak eta beharrian bereziak.

- Nazioarteko finantzako instituzioek, gobernuaren aldeko garapenerako agentziek eta beste erakunde finantzatzaile batzuek garrantzi handiagoa aitortu beharko liokete funtsak ematen (edo maileguan uzten) dituzten herrialdeetan dagoen ustelkeriari. Hortaz, genero-arloko gehiegikeria eta ustelkeria islatzen duten ebaluazioari, gardentasunari eta kontuak emateari begira, adierazleak finkatu beharko lirатеke, eta onuraren hartzaileak ez lirатеke immuneak izan behar, haien kargua dela-eta.

“Aurrerapenaren historia gebiengoaren nabiaren kontrako ideal bat besarkatzera ausartu diren emakumeen eta gizonen odolarekin dago idatzita; adibidez, gizon beltzak bere gorputzaren jabe izateko eskubidea duela edo emakumeak bere arimaren jabe izateko eskubidea duela aldeztu dutenen odolarekin.” (Emma Goldman 1917).

Bibliografia

AI, Amnesty International (2005): *Hacer los derechos realidad. La violencia en contra de las mujeres en los conflictos armados. No más violencia en contra de las mujeres*, Editorial Amnistía Internacional, Espainia: www.amnesty.org/es/library/asset/ACT77/050/2005/es/e7bf12fd-d4d3-11dd-8a23-d58a49c0d652/act770502005es.pdf, kontsulta-data: 2011ko ekaina

AWID, Emakumearen Eskubideen eta Garapenaren aldeko Elkarte(2008): *“Folleto Informativo 1: Un panorama de la Declaración de París sobre la Eficacia de la Ayuda y las Nuevas Modalidades de Ayuda”*, La Efectividad de la ayuda para los derechos de las mujeres izeneko sailean: www.awid.org/esl/Library/Folletos-Informativos-sobre-la-Eficacia-de-la-Ayuda, kontsulta-data: 2011ko ekaina

AWID, Emakumearen Eskubideen eta Garapenaren aldeko Elkarte (2008): *“Folleto Informativo 2: Principales organismos oficiales relacionados con la implementación de la Declaración de París”*, La Efectividad de la ayuda para los derechos de las mujeres izeneko sailean: www.awid.org/esl/Library/Folletos-Informativos-sobre-la-Eficacia-de-la-Ayuda, kontsulta-data: 2011ko ekaina

AWID, Emakumearen Eskubideen eta Garapenaren aldeko Elkarte (2008): *“Folleto Informativo 3: Participación de las organizaciones sociales en la Agenda para la Eficacia de la Ayuda: El proceso paralelo – preocupaciones y recomendaciones”*, La Efectividad de la ayuda para los derechos de las mujeres izeneko sailean: www.awid.org/esl/Library/Folletos-Informativos-sobre-la-Eficacia-de-la-Ayuda, kontsulta-data: 2011ko ekaina

AWID, Emakumearen Eskubideen eta Garapenaren aldeko Elkarte (2008): *“Folleto Informativo 4: Supervisión y evaluación de la implementación de la Declaración de París”*, La Efectividad de la ayuda para los derechos de las mujeres izeneko sailean: www.awid.org/esl/Library/Folletos-Informativos-sobre-la-Eficacia-de-la-Ayuda, kontsulta-data: 2011ko ekaina

AWID, Emakumearen Eskubideen eta Garapenaren aldeko Elkarte (2008): *“Folleto Informativo 5: La Agenda de la Eficacia de la Ayuda desde una perspectiva de derechos de las mujeres”*, La Efectividad de la ayuda para los derechos de las mujeres izeneko sailean: www.awid.org/esl/Library/Folletos-Informativos-sobre-la-Eficacia-de-la-Ayuda, kontsulta-data: 2011ko ekaina

Bennet, O.; Bexley, J. eta Warnock, K. (1995): *Armas para luchar, brazos para proteger. Las mujeres hablan de la guerra*. Bartzelona, Icaria.

Garrido, Beatriz (2009): *“La violencia contra las mujeres. Un análisis a través de la producción teórica feminista”*, Temas de Mujeres, 5. urtea, 5. zk., Revista del Centro de Estudios Históricos e Interdisciplinario Sobre las Mujeres. Tucumánekoko Unibertsitate Nazionalerako Filosofia eta Letren Fakultatea: www.filo.unt.edu.ar/rev/temas/t5/t5_web_art_garrido_violencia.pdf, kontsulta-data: 2011ko ekaina

Goldman, E. (2010): *La palabra como arma*. Buenos Aires, Libros de Anarres, La Plata: Derramar (Utopia libertarioa)

Hasanbegović, A. eta Trbonja, A., et al. (2009): *Informe diagnóstico: Apoyo a la construcción de la paz mediante la aplicación de la Resolución 1325 en los Balcanes* <http://mzc.org.es/WebProyectos/Index.html>, kontsulta-data: 2011ko ekaina

Judt, T. (2011): *Algo va mal*. Mexiko, Taurus.

Kooperazio eta Hazkunde Ekonomikorako Erakundea (2011): *Efficacité de l'aide 2005-10 progrès accomplis dans la mise en oeuvre de la déclaration*

de Paris. KHEE Publishing: www.oecd.org/dataoecd/16/22/48815510.pdf,
kontsulta-data: 2011ko ekaina

Schwitalla, G. eta Dietrich, L.M. (2008): “*La desmovilización de las mujeres excombatientes en Colombia*”, Revista Migraciones Forzadas (RMF), 27 zk., (abendua) 58-59 or.: www.migracionesforzadas.org/pdf/RMF27/58-59.pdf,
kontsulta-data: 2011ko ekaina

Villellas, M (2010): “*El papel de las mujeres en la construcción de la paz: Propuestas para avanzar en la aplicación de la resolución 1325*”, Documento Marco del Seminario RESOLUCIÓN 1325: El papel de las MUJERES en la construcción de la PAZ de CEIPAZ: www.1325mujerestejiendolapaz.org/img/dossier_final.pdf,
kontsulta-data: 2011ko ekaina

Yoshimi, O. (2010): *Esclavas sexuales. La esclavitud sexual durante el imperio Japonés*. Madril, Ediciones B.

Kontsultatutako web orriak:

ECP Escola de Cultura de Pau: <http://escolapau.uab.cat> Argitalpen eta baliabide asko jaso ditu, bakearen aldeko kultura, giza eskubideak, gatazken eta bake-prozesuen azterketa, bakerako hezkuntza, desarmaea, eta gatazka armatuen prebentzioa lantzeko.

PeaceWomen: www.peacewomen.org Informazio ugari jaso da emakumeek gatazkaren prebentzioan betetzen duten zeregina sustatzeko, eta emakumeak bete-betean parte har dezaten nazioarteko bakeari eusteko ahalegintan. Orri honetan argitaratu ematen dira Nazio Batuen Kontseiluak emandako 1325 (2000), 1820 (2008), 1888 (2009) eta 1889 (2009) ebazpenak guztiz ezartzeko gomendioak eta txostenak.

Women, war and peace: www.womenwarpeace.org/ Generoko zuzentasunaren eta emakumeen jabeakuntzaren aldeko Nazio Batuen erakundea den UN Women-en orria da. Emakumeak, bakea eta segurtasuna dira orriaren ardatza.

Peacebuild: www.peacebuild.ca Kanadako gobernu kanpoko erakundeen, instituzioen eta ikasketako zentroen sarea da. Jarduera eta ekintza ugari bildu ditu, gatazketan indarkeriak dituen ondorioei eta haren arrazoiei buruz.


International Center for research on women: www.icrw.org Emakumeei buruzko ikerketarako nazioarteko zentroak hainbat eztabaida, argitalpen

eta lan bildu ditu, eta, horien bidez, emakumeak pobrezia-aren aurkako borrokan funtsezko osagaia izan daitezen lortu nahi du.

Centro de Estudios de la Mujer: www.cem.cl Emakumeari buruzko Ikasketak Zentroak genero-arloko ikasketak lantzen ditu, eta ikerkuntza-, prestatuntza-, zabalkuntza- eta aholkularitza-lanak egiten ditu, batez ere lan eta enplegu, herritartasun eta parte-hartze politiko, eta politika publikoen arloetan.

Women Action: www.womenaction.org Hedabide, komunikazio eta informazioko sare honen xedea da garapenerako gobernu kanpoko erakundeek bat egin dezaten Beijingeko plataforma berrikusteko eta abiarazteko prozesuarekin.

Global Fund for women: www.globalfundforwomen.org Emakumeentzako Funtz Globalaren orria da (Global Fund for Women). Nazioarteko erakunde honek finantziario arloko laguntza ematen die mundu osoko emakumeen giza eskubideen alde borrokatzen duten emakumeen taldeei. Lan-ildo bat dute generoko indarkeriari aurka egin eta bakea erakitzeke, emakumeen sexu- eta ugaltze-arloko eskubideak garatzeko, justizia ekonomikoa eta ingurumenezkoa bermatzeko, eta eskubide zibilak eta politikoak zabaltzeko.



**Garapenerako laguntzaren arloan
konpondu gabeko arazoa:
Subjektu femenino plurala eraikitzea**

Begoña Zabala

*Kapitalismoaren/feminismoaren aldi bonetan, zera besterik ez dugu:
bigarren mailako emakumeak salbatzen dituzten emakume kapitalistak.
USAID agentziaren mendeko adar bat da WID, eta WEDO, oro har,
zera da: nazioarteko gobernuz kanpoko erakunde bat,
Iparraldeak menderatzen duena, eta bozeramaile
gisa aritzen diren Hegoaldeko emakume ospetsuak bere artean dituena.
Garapen-arloan emakumeengana dagoen gurasokeria eta sororalismo hori, bein
batean, mendean dagoen emakumea isilarazteko modu bat da.*

Gayatri Chakravorty Spivak¹

Sarrera

Idazki honen xedea da azterketa kritiko bat egitea garapenerako lankidetzaren jardunari buruz, generoaren ikuspegitik, eta emakumeen parte-hartzea eta eragin politikoa aintzat hartuta. Hala, bada, azterketa honen helburua da Iparraldeko herrialdeek finantzaturako politikak emakumea subjektu politiko gisa –banaka eta taldeka hartuta– eraikitzeke izaten ari diren ondorioak edo emaitzak ikertzea. Ez dugu soilik jardunen azalpena eta kritika egin nahi; horrez gain, xede agerikoago bat ere badugu: politika eraldatzaileekin aurrera egin nahi dugu, emakumeen taldeak, feministak, eta gobernuz kanpoko erakundeetako emakumeak benetako motorrak izan daitezen, politika publikoak aldatuko dituzten motorrak.

Azterketa horiek parametro berriak aurkitu nahi dituzte, garapenerako lankidetzaren praktikak hor kokatzeko. Emakumeen taldeen artean eta

¹ Gayatri Ch. Spivak (2007) ikasketa postkolonialen arloko teoriarari hindu ezagun bat da, eta, aipu horretan, egileak “mendekoari” buruz etengabe egiten duen teorizazioa agertzen da –hemen, batzuetan, mendeko pertsona gisa itzuli dugu hitz hori, bi sexuak barne hartzeko, eta beste batzuetan, berriz, emakume gisa jaso dugu, hala dagokionean–, mendekoa erabat baztertuta dagoen eta inola ere kontuan hartzen ez den subjektua baita, hain zuzen, lehen munduko eliteek eta emakumeek horren alde egin dutelako, mendebaldean ardaztutako oinarri teoriko etnozentrismak erabiliz. “Mendekoak hitz egiterik ba al du?” da bere lanik ezagunenaren izena, eta, bertan, areago sakontzen du gogoeta horietan.

Akronimoak (ingelesezko siglak): WID, Emakumeak Garapenean. USAID, Nazioarteko Garapenerako Estatu Batuetako Agentzia. WEDO, Ingurumeneko eta Garapeneko Emakumeen Erakunde.

feminismoaren zati zabal batean aski hedatuta dagoen asegabetasun bat dute abiaburuan. Izan ere, talde horiek ez dute bat egiten feminismo instituzionalaren/ofizialaren parametroekin, eta politika neoliberalen aurka daude guztiz, ez bakarrik ikuspegi ekonomikotik hartuta –alde horretatik hartuta ere bai, jakina– genero-arloko politiken edo berdintasunerako politiken ikuspegitik aztertuta ere bai, ikuspegi hau eta aurrekoa bereizteko modurik badago behintzat.

Oro har, abiarazten diren politiken edo proiektuen arabera, “demokratikotzat” jotzen diren balioak, mendebaldeko gizarte guztietan maila gorenean kokatuta dauden horiek, jakintzat eta beharrezkotzat jotzen dira mundu osoko gizarte guztietan, eta, uste horretan oinarrituta, irizpide bakarrak ezartzen dira politikan parte hartzeko, eta subjektuaren eredu bakarra dago politika eta zuzenbide aldetik. Hala ere, horrek ez gaitu batere asebetetzen. Garapenerako lankidetzaren aitzakia hartuta, hamarkadak behar izan dira eztabaidatzeko eta zalantzan jarri ahal izateko Iparraldeak Hegoaldean ezarri nahi zuen garapen-eredua –edo, hobeto esan, eredu desarrollista–, eta, horren ondoren, horri ezetza eman eta alde batera utzi da. Une honetan, errotik jarri behar dugu zalantzan generoko politiken bidez Hegoaldeko emakumeei esportatu nahi zaien imaginario feminista, jakina, hemen abiarazten diren politiketan oinarrituta baitago.

Txirotutako emakumeek eraso gaitzesgarriak jasan behar izaten dituzte, hala nola, eraso ekonomikoak, fisikoak, demografikoak, ingurumenekoak, oinarritzko eskubideei edota sexu- eta ugaltze-eskubideei dagozkienak... Hala, eraso horiei begira eragina izateko aitzakia hartuta, gure gizartean nagusi den emakumearen/emakumeen banakako nahiz taldeko subjektu politikoaren eredu sartzen ari da han. Eredu horrek ematen dituen aukerak oso mugatuta daude, ez baitu inoiz ezer eskatu, gizona berdintasuna ez bada; baina gizonak, berez, bere estatusari eusten dio, emakumeek jasaten duten ebasketa bidegabeari esker. Eredu horrek, bestalde, sortzez bertakoak diren emakumeei baizik ezin ezar dakieke, demografia- eta immigrazio-arloko politikak direla-eta, emakume atzerritarrei ez baitzaie baimentzen bertako emakumeek duten rolaren bigarren mailara ere hel daitezten. Azkenik, eredu horrek emakumeen gorputz-arloko politiken eta beren eskubideen abstrakzioa egiten du, argi dagoenez, horiek ez baitute batere zerikusirik gizonen gorputzarekin, hau da, berdintasun-arloan atzeman nahi den gorputz horrekin, sexualitate, ugaltze, eta gorputz-formen ezarpenaren esparruan.

Norantz begiratu orduan? Zein adierazlek eman ahal digu ideia-aren bat politika horiei buruz eta haiek zuzentzeko izan daitezkeen moduei buruz? Erabaki dugu zenbait osagai sartzea, eta, horien artean, munta handikoa da emakumeen proiektu zehatzak aztertzea, edo emakumeen egoera zehatzak hobetzera zuzenduta dauden proiektuak aztertzea, hala eduki aldetik nola jarduera horiei bideratzen zaien kopuru aldetik, eta, orobat, tartean sartuta dauden alderdiak eta kontrako alderdiak aintzat hartzea. Zalantzarik gabe, garrantzizkoa da behar bezala aztertzea zenbat baliabide bidaltzen den, eta nondik eta norantz egiten den, baliabide horiek zein taldek kudeatzen duen, finantziario-mailan baliabideen jatorria zein den, eta, batez ere, zein diren proiektu berezietan izaten diren helmuga zehatzak. Etengabe ari dira gai hauei buruzko azterketak egiten, emaitza interesgarriak ateratzen dira, eta emaitza horiek argibide batzuk emango dizkigute, garapenerako lankidetzaren arloko estrategiak zehaztu ahal izateko.

Hala ere, ezinbestez aztertu behar ditugu garapenerako laguntzako ekintzek berekin ekartzen dituzten ikusmolde eta oinarri politikoak, generoaren ikuspegitik. Horretarako, jakina, gaingiroki aztertu behar ditugu, hala nazioarteko adierazpen handiak eta Estatu, gobernu eta nazioarteko konpromisoak, nola agentziek “genero-azuztat” edo genero-ikuspegia duten kontutzat jo diren gaiei buruz dituzten jarrerak. Bistan denez, hori guztia erkatu behar da teorizazio feministekin eta taldeen praktikekin.

Gai honetan ezin esan daitezkeen gauza bakarra da ez dela genero-ikuspegia aintzat hartu. “Generoa” ezinbestez kontuan hartzeko beharrian horretatik sortzen den erabateko generalizazioak aspertu arte betetzen ditu proiektu, balantze eta ebaluazio guztiak... eta lankidetzaren literatura teknokratiko osoa ere bai. Hainbestera, non sektore hori baita “genero” kontzeptua –hainbat diziplinako teorialari feministek bikain berritu zuten kontzeptua– gehien hondatu eta andeatu duen horietako bat. Ordutik aurrera bereziki eztabai-datuko dena zera da: “generoaz” eta “emakumeaz” edo “emakumeez” hitz egitean, hitz orokor eta homogeen bihurtzeko asmoz, erabili den kontzeptua; kontzeptu horrek, oro har, Iparraldean eraiki eta/edo imajinatu eta desiratu den emakumearen eredu nagusia baitu oinarrian. Helburu hori betetzen ez duen emakumea gure “laguntzen” subjektua izango da: biktima, ahula, bere artekoek dituzten antzinako tradizioen mendekoa, umiliatuta, zapalduta eta baztertuta, hemengo kulturek azpiratuta baino gehiago.

Ildo horretan, honelakoak esan izan dira (Cirujano, 2005): “*XX. mendearen erdialdetik aurrera, garapena bizkorrago hedatu zen mundu osoan barre-*

na demokraziaren eskutik. Koberentziaz jokatuz gero, garapenak oinarri demokratikoak hartu behar ditu barne, eta, besteak beste, oraindik lortu ez den emakumeen eta gizonen arteko sexu-berdintasuna onartu behar du, eta neurri politikoak, ekonomikoak, sozialak eta ideologikoak hartu behar ditu aintzat sexu-berdintasuna lortzeko. Hala ere, hori ez da beti horrela izan, eta mendebaldeko emakumeek eskuratu dituzten lorpenak eta onarpenak ez dira kontuan hartu beste kultura batzuetako emakumeei begira, eta gaur egun ere ukatu egiten zaizkie emakume horiei, gaizki ulertutako kultura aniztasunaren izenean.” Arrazoi handiz esan izan da garapenerako politikek ezikusiarena egin diotela generoari. Orain, argi esan dezakegu politika horietako askoren barruan dagoena zera dela: guztiz partziala eta androzentrikoa den ikuspegi bat.

Crisis... What crisis?

Gaiari heltzeko, lehenik, nire ustez mintzagai dugun azterketa eratzen duten osagaietako batzuk aipatuko ditut. Hala, bada, denbora eta inguruabar jakin batzuetan kokatuko dut dena, zeren egiturazko gaia baita hau, egoera zehatzek goitik behera baldintzatzen baitituzte garapenerako laguntza, lankidetzako politikak, eta politika feministak eta genero-arlokoak.

Nabaria denez, ezin dugu alde batera utzi ekonomiako eta finantzako krisialdian gaudela –eta ez hori soilik–, eta horrek, zalantzarik gabe, erabat baldintzatzen dituela proposatutako gai asko. Edo, hasieran baldintzatzeko arrazoirik egon ez arren, kontua da gobernuek horrelaxe jakinarazten digutela, eta horixe ezartzen dutela. Lehenbiziko murrizketen artean, murrizte-tarik zorrotzenen artean, garapenerako laguntzetako programei dagozkien murrizketak nabarmentzen dira agenda politiko guztietan. Tokiko, autonomia-erkidegoko eta Estatuko aurrekontuetan, garapenerako lankidetzako gobernuz kanpoko erakundeei emandako diru-laguntzen bidez zuzentzen diren lankidetzarako kontu-sailak oso era nabarmenean ari dira gutxitzen; eta, zenbaitetan, premiazkoagotzat jotzen diren beste “beharrizan” batzuetara ari dira bideratzen: hemen ditugun beharrizanez ari dira kasu horretan, hemengoak direnez premiazkoagotzat jotzen baitira.

Zalantzarik gabe, laguntzeko bideratzen diren baliabide ekonomikoen zenbatekoak, handia izan arren, ez du aurrez zehazten laguntzaren edukia, ezta zeregin politiko garrantzitsuetan izan dezakeen eragina ere. Hala ematen dute aditzera, adibidez, Gómez Gilek eta González Paradak, elka-

rizketa baten amaieran hau argitzen dutenean (2011:19-28): “*garapenerako laguntza ezinbestez bobetu behar da, eta hori ez da inondik ere aurrekontuei dagokion auzi butsal bat; ez, berriz hausnartu behar dira laguntzaren kontzeptuzko eta egiturazko oinarriak, eta, horretan, gizartearen multzo zabal baten konpromisoa lortu behar da, amore emateko dagoen egoera etsi kezkarri horretatik atera ahal izateko, ustezko egiak sortzen baitira egoera horretan, azterketa enpirikorik txikiena ere gaintitzen ez dutenak.*”.

Artikulu berean, Carlos Gómez Gilek garrantzia kentzen dio krisialdiak garapenerako laguntzen murrizketan izan duen eraginari, eta ez, zehazki, gutxitu den kopurua handia ez delako, baizik eta “gora zihoazen” ekonomien garaletan era ikaragarrian desitxuratu zelako: “*Mundu mailako krisialdiak ez du arriskuko edo zailtasunezko egoera batera eramanean laguntza, hori ez da egia; izan ere, laguntza-emaileek urte luzeak daramatzate laguntza hori nabita higitzen, azkenean, laguntzak dituen oinarritzko zereginak eta egin-kizunak zalantzan jartzera iritsi arte. Krisialdi sistemikoari esker, erabaki politiko publiko jakin batzuk hartu dira; erabaki horiek lehenago ere bazeuden, baina ez ziren hain esplizituak, eta orain, berriz, justifikazio osoz babesten dira. Laguntza-arloan mundu-mailan zeuden akordioak eta konpromisoak ez betetzea, funtsezko ekarpenak egiteari ezetza ematea, baliabide handiak desbideratzea ekonomia-, merkataritza- eta enpresa-arloko xedeetarako, informazioa eta datuak ezkutetzea, kopuruak apaintzea, laguntzari buruzko eta laguntzak gizartean duen benetako zereginari buruzko ezagutza lausotzea... horiek denak laguntza-emaile askok nabita hartu dituzten erabaki politikoak dira... Alderdi makro batetik aztertuta, paradoxikoa badirudi ere, garapenerako laguntza ez da lortzen ari giza garapena aurrera ateratzeko helburua. Giza eta gizartearen garapena lortzeko lagungarriak izaten ari diren osagaiak ez dira laguntza-emaileek hartzailerei banatzen dizkieten laguntzetan agertzen; aitzitik, orain dela hainbat hamarkadatik hona, mundu-mailako beste aldagai ekonomiko batzuen inguruan erutzen dira.*”²

² Artikulu berak honelaxe dio: “azken urteetan etorkinek beren sorterrietara bidali dituzten diru-sorta izugarriek lehen mailako garrantzia dute gaur egun garapenari begira, neurri handi batean xede hauetarako baliatu baitira: oinarritzko beharrianak betetzeko, eta elikadura, hezkuntza, osasuna eta ostalua indartzeko”. Jakina, laguntza horiek zuzen-zuzen bidaltzen zaizkie senideei, eta onuradunek jasotzen dituzte zuzenean, lankidetzako edo gobernuko egituretatik igaro gabe.

Aipu luze hori baliagarria izan daiteke behar bezala adierazteko, oro har, garapenerako laguntzen politikei egin zaien kritika –eta generoko ikuspegietatik azalpenak ematen hasi gabe edota aldarrikapen feministarik egiten hasi gabe–, bere muturreko oinarrian, ez dagoela gaur egungo ekonomia-eta finantza-krisialdiaren baitan. Izatekotan, eredu ekonomikoan egongo da, eta eredu horrek izan duen izaera neoliberalerako nora ezean. Ideia hori aipatu dugu, eta gero hartuko dugu berriz ondorioak ateratzeko garaian, alegia: garapenerako laguntzan huts egin duen politikaren oinarria edo azalpen bakarra ez dela oraingo egoera ekonomikoa. Hala, beraz, egoeraren hain mendeok ez diren eta gehienbat egiturazkoak diren azalpenak aurkitu beharko ditugu.

Ildo horretan, espezializatutako literatura askok nabarmendu duenez, garapenerako laguntzak eta lankidetzarako politikek kontzeptuzko eta egiturazko muga ugari dituzte. Adibide bat jartzeagatik, lehen aipatutako Spivak egile hinduak (2010) honela laburtzen du zorrozki: “*Garapenaren kontakizun handia finantzatzen eta koordinatzen duen erakunde nagusia Munduko Bankua da. “Garapen iraunkorra” esaera globaltasuna kudeatzen duten erakunde guztien hitzaldian sartu da. Zeri eutsi behar dio garapen horrek? Garapen globalaren ideologia nagusia arrazakeriazko gurasokeria da (eta, nire gogoaren kontra, sororalismoa³ ere bai, gero eta gehiagotan); bere ekonomia orokorra, kapital handia behar duten inbertsioak; bere politika orokorra, erresistentzia eta mendeak daudenak isilaraztea, eta, bien bitartean, horien protestaren erretorika etengabe berenganatzea.”.*

Hortaz, ez gara mintzatuko, oraingo eta arestiko krisialdiaren ondorioz, lankidetzaren eta garapenerako laguntza-programetan dagoen egoera penagarriari buruz; horren orde, lankidetzaren eredu sakonago bat izango dugu hizpide, kapitalismo neoliberalaren aldi honetan oinarritzen dena. Aipatzen den guztia aintzat hartuta lankidetzaren oraingo egoeraren berri izango dugu, eta, gainera, gehituko dugu zuzentasunean oinarritutako giza garapenari laguntza gutxiago ematen zaiola eta laguntza gehiago bideratzen dela txirotutako herrialdeak krisian areago hondatzen dituzten horretarako.

Jakina denez, orain dugun krisialdia kategorietan sailkatu behar dugu, eta ezin dugu inola ere onartu mundua krisialdian sartu dela, hain zuzen,

³ Sororalismoa “sisterhood” hitzaren itzulpena da, hau da, emakumeen arteko ahizpatasuna eta elkartasuna; gaztelaniazko “sororal” eta “sor” hitzen eratorria da, hitz horiek ahizpari egiten baitiote aipamen, erlijiozko ordenatan.

boteretsuek eta ekonomia- eta finantza-arloko egiturak gidatzen dituzten gobernariak norabidea bat-batean aldatzea erabaki dutenean, diru-publikoa beraiantzat metatuz beren kontuak onbideratzeko. Krisialdia lehenago sortu zen, eta haren sustraiak sakonagoak dira. Beste toki batean aipatutakoa ekarriko dut berriz hizpidera (Zabala 2009): *“Oraingo krisialdiari buruz esan nahi dudana lehenengo kontua da ez dudala soilik krisialdi ekonomikoa edo ekonomia- eta finantza-sistemaren krisia aipatu nahi. Une hauetan erabiliko dugun krisiaren kontzeptua askoz zabalagoa da. Gaur egun mugimendu alternatiboak bat datoz, denen ustez krisiak sistema ekonomikotik harantz jotzen baitu, ekoizpeneredua bera hartzen baitu barne, eta mundu-mailakoa baita. Krisialdi energetikoa da, natura-baliabideak ustiatzeko eta banatzeko sistema agortzen hasi delako. Era berean, menderakuntza kapitalista edo neoliberal eta patriarkalaren eredua krisian dago, boteredunek beren eredua indarrez ezartzen jarraituko badute, gero eta gehiago jo behar baitute armak baliatuz esku hartzera, gerrak egitera, edota herrialdeak edo matxinatuak suntsitzera. Horren ondorioz, biztanleek samaldaka aldatu behar dute lekuz, batez ere emakumeek haurrekin, eta, era horretan, milioika erbesteratu agertzen dira, herrigabeak, aurkitzen dituzten babeslekuetan ere bizirik iraun ezin dezaketanak. Krisialdi ideologikoa da, pentsamendu bakarra baitago bertan, “demokrazia” deitu duten eredu politiko bat barne hartzen duena, baina, bistan denez, eredu horrek ezer gutxi du demokratikotik. Gainera, ustelkeriaren mugek eta lapurreria kontaezinen bidez metatutako kapitalak zeharkatzen dute eredu hori. Era berean, krisialdiak nazioartean sexuaren arabera dagoen lan-banaketa baldintzatzen du. Hargatik, eredu demografikoaren oinarrian migrazioak daude. Aldi berean, lotura du zaintzen krisia deitu dugun zera horrekin, eta, horrela, nazioz haraindiko zaintzen kateak sortzen dira, eta horrek hemengo eta beste leku batzuetako emakumeentzat dituen ondorio ugariak.”.*

Nire iritziz, hortxe jarri behar ditugu berriz garapenerako laguntzak, sistemikotzat jotzen duten oraingo krisialdiaren lehenbiziko zantzuak sumatzen diren une horretan. Une horretantxe kapitalismoaren eredu neoliberalak bortizki egin behar du bira, mundua menderatzeko dituen jarraibideak berriz egokitze aldera, emakumeen gaineko menderakuntza ere barne hartuta. Generoari buruzko hitzontzikeria ez da baliagarria izango zeregin hori egiteko. Gertatzen ari den moduan, legezkotasuna kentzen bazaio eta dituen jatorri feministekin zuen lotura hausten bazaio, zera besterik ez da geratuko: hitzez adierazitako hutsalderiak.

Garapenerako laguntzaren generoko ildoak

Literatura feminista ugari eta ona dugu, eta hor argi ematen zaigu aditzera garapenerako laguntzako programetan generoaren ikuspegitik esku hartzeko dauden ildoak. Adostasun erabatekoa dago lankidetzaren arloan baliatu diren estrategia guztiak aztertzerakoan; eta, generoaren ikuspegitik ikertzean ikusi denez, estrategia horiek ez dituzte asebate edo neurri batean baizik ez dituzte bete emakumeek dituzten beharrianak. Hargatik, ez dut berriz esango hainbat liburutan eta gidaliburutan aurkitu ahal dena, eta, eranski-nean agertzen den bibliografiara jotzeko adierazteaz gain, Caroline Moser (1991) eta Wendy Harcourt (2011) baizik ez ditut berariaz aipatuko. Dirudienez, ikerketa eta eztabaida horien ondorioz, azkenean, giza garapen iraunkorraren ikuspeirik orokorrenen barruan, garapenean dagoen generoa da gehien onartzen den ildo orokorra. Beste une batean egingo diogu kritika garapenean dagoen generoaren ikuspegiak aurrez dituen kontzeptuei, baina orain bereziki hartuko dugu kontuan ikuspegi horien oinarrian dauden formulazio instituzionalak.

Literatura horrek guztiak, eta praktikak ere bai, gai honetan dauden oinarriko bi tresnara eramaten gaitu:

- 1979. urtean egindako Emakumearen aurkako bereizketa-mota guztiak ezabatzeko biltzarra (CEDAW, ingelesezko siglak direla-eta) tresna juridiko ezinbestekoa da, nazioarteko zuzenbide positiboa delako, eta ahalegina egiten duelako 1948. urteko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak hotsandiko izen horren atzean ezkututzen duen hutsune larria orekatzeko, gizonak baizik ez baititu aintzat hartzen, gizonetzkoentzat baita.⁴
- 1995eko Bejingeko Ekintzarako Plataforma eta Adierazpena. Akordio horiek Nazio Batuek antolatutako Emakumeari buruzko Munduko IV. Biltzarrean dute abiaburua, eta puntu gorentzat jotzen dira mundu osoko gobernuen arteko adostasunari begira, genero-arloko berdintasuna lortzeko helburuarekiko konpromisoari dagokionez. Hala, hitz ematen dute jabeakuntzaren eta generoko berdintasunaren alde esku hartuko dutela, eta, horretarako, generoko ikuspegia barne hartuko

⁴ Adierazpenari buruzko kritika bat kontsultatu nahi izanez gero, Emakume Internazionalistak taldeak Kordobako Jardunaldi Feministetan aurkeztu zuen txostena irakur daiteke, "Todos los derechos para todas" izeneko (Eskubide guztiak emakume guztiontzat). Hemen ere eskuragarri dago: www.zabaldi.org.

dutela Estatuan, eskualdean eta nazioartean dauden politika eta programa guztietan (Cirujano, 2005).

Bi dokumentu horien inguruan akordio, hitzaldi, garapen eta protokoloen sare oso bat ehundu da, lankidetzaren arloan ezartzeko; eta horrek eratu du gutxi gorabehera 1980tik 2000ra bitartean laguntzako politikan nagusi izan den ildoa. Nabarmendu behar da, Beijingeko IV. Biltzarra izan zela Nazio Batuek antolatutako biltzar horien arteko azkena, hurrengoak –hau da, Beijing+5 (2000. urtean egin) eta Beijing+10 (2005ean)– jarraipenerako biltzar gisa eratu baitira, eta, horietan, oso urruti geratu baitira aspaldiko biltzar arrakastatsu eta erdugarri haren hasierako itzaropenak, edota, Paula Cirujanoren hitzetan esateko, azken biltzarrari buruz ari dela: *“Nazio Batuen egoera geopolitikoa islatu zen, Estatu Batuek abaleginak egin baitzituzten agenda neokontserbadore bat ezartzeko, eta emakumeen giza eskubideei buruzko akordioak eta nazioarteko adostasuna zalantzan jartzeko.”*

Agiri horien eta beren garapenen ingurunean, eta horien oinarrian dagoen nazioarteko zein Estatuko sare instituzional osoan, egin dira, hain zuzen, ekarpen teoriko interesgarrienak lankidetzarekin aurrera egiteko, genero-ikuspegitik eta lankidetzaren eraldatzailearen parametroetatik abiatuta. Garapenean dagoen generoaren eta giza garapen iraunkorraren ikusmolde interesgarriak izan dira akuilu nagusia zeregin hauetan interesa duten erakundeek aurrera egin dezaten, eta neurri batean, baina ez askotan, emakumeen beharrezanekin eta interes taktiko eta estrategikoekin bat egi-ten duten proiektu zehatzak gauzatu dituzte.

Hala ere, proiektu zehatzak genero-ikuspegitik egindako azterketetan sakontzen duten zenbait emakume egileren kritikak jasotzen dituzte. Ildo horretan, Arantza Chacónek eta María Lópezek (2011) honela azaldu dute: *“zalantzarik gabe, giza garapenaren ikuspegia hurbilpen teoriko bat da, generoko gaiekiko aurreko ikuspegiak baino askoz sentiberatasun gehiago duten garapen-ereduetara urreratzeko. Alabaina, giza garapenaren gogoetabidea ikuspegi feministatik berrikustean, argi ikus dezakegu orain arte nagusi izan den hitzaldiak zantzu patriarkal argiak dituela, nahiz eta arestian abaleginak egin diren analisisen esparruan generoa barne hartze-ko... Truong (1997) bezalako egileen iritziz, butsuneak daude bi motatako generoko teoriaren alde egiten duen argudioan: alde batetik, ekonomia ekoizlea motor nagusitzat jotzeko ikusmolde maskulinoa, eta ugaltzearen eta zaintzearen ekonomia naturaren ondoriozkoztat hartzea, eta, bestetik, sexualitatearen inguruan dagoen isiltasuna eta gizon eta emakumeen arteko menderakuntzako politikak. Egia da, azken urteotan, garapenerako*

laguntzako erakundeek genero-ikuspegia barne hartu dutela nabitaetzko eskakizun gisa, genero-ikuspegiko proiektuak prestatzerakoan, baina, bala ere, orain arte, ikuspegi hori ez da praktikan gauzatu, eta orri batean inprimatutako hitzaldi formal bateko zati bat balitz bezala geratzen da.”

Laburbiltzeko, nolabait esan daiteke sistema kapitalistaren aldi neoliberalaren gune gogorak aurre egiten diela gaur egun ere ikuspegi feministei. Sistema hori hain ondo definitzen duen mundua da, alegia, mundu ekonomikoa, ekoizpen-ereduei eta merkatuen esparruari murriztuta, merkatuak baitira, beren azterketetan, garapenaren neurria zehazten dutenak. Kanpoan uzten dira “emakumeen zereginak”, ugaltzeko edo zaintzeko lanak, edota bizirau-terko milioika emakumeek egiten dituzten nekazaritza eta abeltzaintzako zereginak; eta garapen bidean dauden herrialdeetan, horiei esker asebate ahal dituzte milioika familiek beren beharrianik oinarritzkoenak. Emakumeek berriz ere ikus dezakete zeregin femeninoak ez direla aintzakotzat hartzen.

Era berean, goian aipatutako bi egileek argi aipatzen dute dagoen beste urritasun nagusia, sexualitateari buruzko politiketan eta gizonek emakumeen gainean duten menderakuntzan agertzen dena. Gorputzari buruzko politikak –edo zabalago esanda, sexualitateari buruzko politikak– giza garapenaren ildo nagusietan ageri ez direla pentsatzea ez zait azterketarik egokiena iruditzen. Izan ere, egon badaude, baina ez dago bat-etortzerik politika horiek ezartzeko moduari dagokionez. Gailur eta biltzar askotan, sexu- eta ugaltze-arloko eskubideei buruz hitz egitean abiarazten diren programak eta proiektuak emakumeen gorputzei buruzko politikak dira. Politika bera dugu agerian, jaiotze-tasa haziak dituzten herrialde txiroetan jaiotza kontrolatzeko proiektuak zabaltzen direnean, esleitzen dizkieten baliabide urriak kontuan izanik. Azken batean, paradigma eurozentrikoak baliatzen dira ikuskera horretan, eta Iparraldeko ereduaren prozedura “demokratikoak” ezartzen dira, kaltea jasaten duten emakumeen borondatea aintzat hartu gabe.⁵

Garai honetan, XX. mendeko azken bi hamarkadetan, genero eta lankidetzari lotutako gaiak gero eta garrantzi handiagoa dute, eta adostasuna

⁵ Sexualitateari buruzko politikei buruzko, edo, zabalago hartuta, gorputz-politikei buruzko gai honi dagokionez, ezinbestekotzat eta oso iradokitzailetzat hartzen dut Wendy Harcouten arestiko liburua (2011). Liburu horren oinarrian, egileak lankidetzako zereginetan izan duen ibilaldi luzea azaltzeaz gain, ikuspegi feministak daude, ikuspegi horiekin osorik bat etorri ez arren, emakumearen gorputza hartzen dute ardatz gisa, eta hori oso didaktika erabilgarria eta ulerkorra da.

gero eta zabalagoa da gai horietan. Wendy Harcourt (2011, b) eta Itziar Hernández Zubizarretari jarraiki (2011), denboraldi horretan izan diren une gogoangarri historikoak aipa ditzakegu, hau da, nazioarteko hitzaldiak eta akordioak, eta, era berean, emakumeen eskubideen aldeko mundu-mailako mugimenduan emakumeek izan duten parte-hartzea:

Une historiko gogoangarriak:

- 1980: Emakumeei buruzko Munduko II. Biltzarra
- 1981: CEDAW sartzen da indarrean
- 1985: Emakumeei buruzko Munduko III. Biltzarra (Nairobi)
- 1990: Giza Garapen Iraunkorraren Paradigma
- 1992: Ingurumen eta Garapenari buruzko Biltzarra eta Lurrari buruzko Gailurra
- 1993: Giza Eskubideei buruzko Biltzarra (Viena)
- 1994: Biztanleria eta Garapenari buruzko Biltzarra (Kairo)
- 1995: Gizarte Garapenari buruzko Gailurra (Kopenhage)
- 1995: Emakumeei buruzko Munduko IV. Biltzarra (Beijing)
- 1996: Elikadurari buruzko Munduko Gailurra
- 2000: Beijing+5 (New York)

Emakume egileak oro har bat datoz, lehen esan bezala, hau aipatzen baitute: *“Beijingeko Emakumeari buruzko Munduko Biltzarraren bidez (1995), emakumeek arreta gorena bereganatu zuten Nazio Batuetan gune publiko gisa. Milaka lagunek parte hartu zuten –guztira 40.000 lagun izan baitziren biltzar ofizialetan eta gobernuz kanpoko erakundeek egindakoetan–, baina, horrez gain, hamaika lagun zeuden zuzeneko harremanetan, he-
dabide eta informazio eta komunikazioaren teknologia berrien bidez... Biltzar hori, Nazio Batuek laurogeita hamarreko hamarkadan bultzatu zituzten beste horiekin batera... elkarrizketarako guneak zabaldu zituzten, batetik, Nazio Batuen erakundeen eta politiken eta, bestetik, emakumeen eskubideak aldeztu zituzten taldeen artean; eta, hala, agenda berriaren norabideak eta nazioarteko garapen eta lankidetzarako politikak finkatuz joan ziren.”* (Hernández, 2011).

Hortaz, emakumeen eskubideen aldeko mundu-mailako mugimenduari dagokionez, denboraldi horretan mugimendu feministak, emakumeen mu-

gimenduek eta gobernuz kanpoko erakundeek batera parte hartu zuten, nazioarteko instituzioen gune mugakideetan, batetik, instituzioen sareen barruan, “lobby” garrantzitsuaren zeregina betez, eta, bestetik, gobernuz kanpoko erakundeen gailur paraleloetan, zehazki, Beijingen une gorena izan zuten horietan. Wendy Harcourtek (2011, b) azterketa arina eta esku irmoz zehaztua egiten du, eta, bertan, honelaxe dio: *“konprometituta zeuden emakume talentudun horien mikropraktikak lagungarriak izan ziren praktika biopolitikoaren multzo oso berri bat eratu ahal izateko emakumearen gorputzaren inguruan, Nazio Batuetara iristeko bidea negoziatzen zuten bitartean... Abalegin horiei esker, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko gaiak munduko garapenerako agendaren barruan sartu ahal izan ziren, bai eta beste gai batzuk ere, hala nola, sexu aldeko gogokotasuna, ugaltzeari eta osasunari lotutako eskubideak, amen heriotza-tasa, natura-baliabideak eskura izateko aukera, genero-arloko justizia, generoa eta merkataritza eta zaintzaren ekonomia. (...) Urte horiek berrikustean, argi ohartuko gara emakumeen taldeak nagusi ziren praktika biopolitikoaren multzoan sartu zirela, eta, hori egitean, aurrez aurre zituzten zapalkuntzako molde asko indartu zituztela. Emakumeek ondo zekiten sistemaren zati bat izateak zekartzan arriskuak zein ziren, eta bazekiten batzar handi horiek egiten ematen zuten denborak beste ekintza batzuetatik urruntzen zituela.”*

Hala, bada, mendearen bukaeran zeuden adierazpen politikoak eta mundumailako politika feministaren agenda oso interesgarria zen, eta emakumeen eskubideak hartzen zituen ardatz gisa; baina mugimenduak oso apustu estrategiko arriskutsua egin du eta, oraingoz, ez du emaitza askorik izan. Frustrazioa eta desilusioa aski ez balira Nazio Batuen guneetan eta haren ingurunean izan diren esku-hartze horiek zalantzan jartzeko, munduko handikiek estrategia politiko berriak diseinatuta zituzten, eta, horietan, ez zituzten inondik ere aintzat hartzen gorago emakumeen mugimenduen mikropraktikak deitutako esku-hartze horiek; izan ere, askoz ere politika irmoagoak zituzten, adierazpen neoliberalez beteak, eta emakumeen eskaerak ia aintzakotzat hartzen ez zituztenak.

Jakina, horretarako, 90eko hamarkadan adierazitako generoko paradigmatik erabiltzen jarraituko dira, baina ordurako aski faltsututa egongo dira, hasierako aldarrikapen feministez desjabetuta, eta, beraz, ez dira aski izango izaera neoliberalesko politikei galga emateko. Bestalde, aurreko urteetan, probasaioak egin dira politika horiekin, txirotutako herrialdeetan nahitaez ezarritako Egiturazko Doikuntzako planen bidez.

Atal honen barruan, laburbilduz, denboraldi osoan indarrean egon diren bi paradigma berreskuratu behar ditugu, parte-hartze eta eragin politikoari dagozkionak. Nazio batuen eta nazioarteko erakundeetan izan den parte-hartze eta eragin politikoaren paradigma, eta lobby lana, emakumeen taldeek eta gobernuz kanpoko erakundeek adostasun zabala lortzeko egingdako ahalegina... oso eztabaidagarria dena onartu ahal izateko.

Emakumeen eskubideak eratzeari eta orokortzeari dagokionez, eztabaidatzeko modukoa da –eta hala jasotzen du mugimendu feministak–, Iparraldeko emakumeek “eskuratu” dituzten eskubideak hedatzea mundu osoko emakume guztiengana, eta mendebaldekoak ez diren beste mundu batzuetako ohitura atzerakoien emaitzatatzat jotzea mugak.

XXI. mendea: Milurtekoko Garapenerako Helburuek zehazten dute ibilbidea

Carmen de la Cruzek honelaxe azaltzen du (2010): *“Aurrerakadak eta atzerakadak onartuta, aipatu behar dugu bamarkada bukatzean, XXI. mendearen hasieran, lubaki izugarria zegoela aurreko hamarkadetan herrialdeek hartutako konpromisoen eta horiek benetan betetzeko eta garapenerako praktikan sartzeko zegoen moduaren artean. Hargatik, Nazio Batuek konpromiso horietako asko berriz formulatzea proposatu zuten, eta, 2000. urtean, Milurtekoko Adierazpena sinatu zen, bat-etortze handia izan baitzen nazioarteko garapenerako helburuei begira; eta agiri horrek 2015. urtea ezarri zuen adierazpenak betetzeko epe gisa. Adierazpen horrek estatuen erkidegoak garapen-arloan zituen kezka ugariak jaso zituen, zortzi helburu zehatzen bidez (Milurtekoko Helburuen bidez), pobrezia eta gosea ezabatzea, hezkuntza unibertsala lortzea, generoen arteko berdintasuna, haurren heriotza-tasa gutxitzea, amen osasuna hobetzea, GIB-HIESari aurka egitea eta ingurumen-arloan iraunkortasun-maila lortzea ardatz gisa hartuta. Adierazpen horren arabera, ezinbestezkoa da pertsona guztien giza eskubideak baliatzen aurrera egitea –batez ere, emakumeen eskubideak baliatzen– genero-arloko berdintasuna lortu abal izateko, baina, hala ere, adierazpenak ez du agendarik jasotzen konpromiso horiek finantzatu abal izateko, ez eta gomendiorik ere, kanpoko zorraren zama astuna gutxitu abal izateko, zama horrek eragin larria baitu diru-sarrera baxuak eta ertainak dituzten herrialdeetako aurrekontuetan.*

Honezkero aldaketa kualitatibo nabarmena izan da, eta ez da, zehazki, hemen adierazten dena, alegia, helburuak berriz zehazteko beharrarena.

Askoz ere larriagoa da. Helburuak berriz zehaztu dira, bai, baina horretarako bazter uzten dira aurrekariak eta, batez ere, mundu-mailako adostasuna lortzeko beste ahalegin bat egiten da, baina, kasu honetan, gobernuak baizik ez dira elkartzten –Iparrekoak zein Hegokoak– helburuok berriz zehazteko, gobernuz kanpoko erakundeak, taldeak eta mugimenduak alde batera utzita. Muturreko pobrezia gutxitzeko promes urrun eta tentatzailea izanda –era nabarmenean gora egin duena gainera–, giza garapen iraunkorraren paradigmari begira interesgarrienak diren ikuspegiak aldatu dira, eta, batez ere, generoko ikuspegitik egindako azterketa. Milurtekoko Garapenerako Helburuek emakumeen eta feministen taldeei pizten dizkieten errezeloa eta kritika erabatekoa da.

Orain, azter ditzagun Milurtekoko Garapenerako Helburuak, dagokigun gaiari lotuta. Merezi du azpimarratzea adierazten diren zortzi helburuetatik batek baizik ez duela lehentasun gisa aipatzen generoko ikuspegia. Zehazki, hirugarren helburuak egiten du, honelaxe: *“Gizonen eta emakumeen arteko zuzentasuna oinarritzko helburua da giza garapenarekin aurrera egin ahal izateko. Nazio Batuen Garapenerako Programak konpromisoa hartu du genero-arloko zuzentasuna benetan gauzatu ahal izateko, ez bakarrik agindu moralala izateagatik, guztion ongizatea eta oparotasuna lortzeko modua izateagatik ere bai.”*

Milurtekoko Garapenerako Helburuek lehen adierazitako helburuak zehazten dituzten helmuga jakinak dituzte, eta, hirugarren helburuari begira, helmuga hau aipatzen da: *“Generoen arteko desberdintasunak ezabatzea lehen eta bigarren hezkuntzan, abal dela 2005. urtea iritsi aurretik, eta hezkuntzako maila guztietan 2015. urtea iritsi baino lehen.”*

Azkenik, eskakizunak betetzeko adierazleak zehazten dira; lau adierazle hauek dira:

- a) Nesken eta mutilen arteko harremana lehen eta bigarren hezkuntzan.
- b) Emakumeen eta gizonen alfabetizazio-tasen arteko harremana, 15 eta 24 urte bitarteko adinean.
- c) Nekazaritzakoa ez den sektoreko langileen artean dagoen emakumeen proportzioa.
- d) Estatuko parlamentuan emakumeek betetzen dituzten aulkien proportzioa.

Aurreko atalean, denboraldi horretan izandako une historikorik gogoangarrienak ikusi ditugu, eta 2000. urtean abiarazten den aldian ere badira zenbait une gogora ekartzeko modukoak; hauek:

- 2000: Milurtekoko Garapenerako Helburuak eta Milurtekoko Adierazpena
- 2002: Garapenerako Finantziatorako Biltzarra, Monterreyko Adostasuna izenez ezagutzen dena
- 2003: Harmonizazioari buruzko Maila Goreneko Foroa, Erroma
- 2005: Garapenerako Laguntzaren Eraginkortasunari buruzko Maila Goreneko II. Foroa, Parisko Adierazpena izenez ezagutzen dena
- 2008: Laguntzaren Eraginkortasunari buruzko Maila Goreneko III. Foroa (Akkra, Ghana), eta Akkrako Ekintza Programa
- 2011: Laguntzaren Eraginkortasunari buruzko Maila Goreneko IV. Foroa, Busan, Hego Korea.

Denboraldi horretan, mugimendu feministek eta emakumeen taldeek ez zuten oso iruzkin itxaropentsurik egiten, garai batean bezala. Jarrera kritika zorrotzagoa zegoen, generoari buruzko adierazpen zabalagoak nahi baitzituzten, lehenago adostuta zegoenarekin bateratuago egon zitezkeen adierazpenak. Zortzi helburuetatik bakar bat dagokio estuki generoko ikuspegiari, eta datu hori aski esanguratsua da. Helmugei dagokienez, helburu hori hezkuntzan kokatzea ere aski esanguratsua da, hezkuntza ez baita zehazki generoko helburu estrategiko bat, edo, besterik ez bada, gehiago baitagokie interes praktikoei. Egia da, genero-arloko zuzentasuna eta emakumeen jabetasuna aipatzen direla helburu gisa, baina oso esanahitsua da egiten den adierazpen manipulatu, aditzera ematen baita zuzentasuna azken batean guztion ongizaterako dela garrantzitsua. Jakina denez, emakumeengan inbertsioa egiten duenak, azken batean, familiaren ongizatean egiten du inbertsioa.

Milurtekoko Garapenerako Helburuak ezarri direnetik halako sentipena dago: nolabaiteko atzerakada izan dela, aurreko mendean izan ziren lorpenei dagokienez. Egia da konpromisoak ez zirela bete, eta mugak lortzeko aukera oso urruti dagoela oraindik, baina egia ere bada orain egiten diren adierazpenak are urrunago daudela, emakumeen taldeen gutxieneko xedeak izateko urruti. Eskaintzen den gozokia, hau da, pobrezia ezabatzea, edo erdira gutxitzea 2015. urterako, ez da behar zen bezain

gozoa eta gustagarria, emakumeen aldarrikapen historikoak ahaztu ahal izateko. Gainera, ez da sinesgarria pobreziarekin ezabatu ahal izateko asmoa, nahiz eta erdizkako asmoa izan, oro har, helburuak ez baitira betetzen ari. Badirudi gozokiak pozoitutako fruituak dituela ezkutatuta, nahi ez diren fruituak.

Aldi berean, mugimendu feministak boterearen aurrean erasokorragoak diren beste dinamika batzuekin hasten dira. Mundu osoa zeharkatzen duten erantzun globalez kutsatuta, honezkero ez dago azpikoetan aritzeko lekurik, politika neoliberalen aurrez aurre jarriarik dauden mugimenduetan sartzeko, adibidez, Emakumeen Munduko Martxan, munduko gizarte-foroetan, kontragailurretan edo globalizazioaren aurkako mugimenduan. Bestalde, egia ere bada mugimendu feminista desilusionatuago dagoela garapenerako laguntzaren birtualtasunaren aurrean –laguntza hori atzeraka egiten ari baita konpromisoei dagokienez– eta, orobat, lobby baten zereginak izan duen eraginkortasunaren aurrean –itxuraz, ikaragarri handitu baita lankidetzako proiektuei lotutako burokrazia–.

Carmen de la Cruzek (2010) bereziki azpimarratu ditu Milurtekoko Garapenerako Helburuetan, Monterreyko Adostasunean eta Parisko Adierazpenean jasotako jarraibideak ezartzeari buruz egin diren balantzeetako alderdi batzuk: *“Emakumeen erakundeek eta sareek prozesu garrantzitsua bultzatu dute nazioartean gune horiei begira (...) Abiaburutzat hartzen duten ustea zera da: garapenerako zirkulu ofizial gebienek, gaur egun, zebarkako gai gisa hartzen dute genero-arloko berdintasuna, garapenerako helburua den aldetik, eta gai horrek ez du argitasunik kontzeptu aldetik, ez eta helburu argi eta neurgarrikeri ere, horien jarraipena egin ahal izateko. Egoera horrek areago handitzen du erretorika ofizialaren eta ekintzaren artean dagoen zuloa. Diotenez, aldaketa ugari egin behar dira Estatuan, nazioartean eta era sistemikoan genero-arloko berdintasunaren erronkari ekin ahal izateko, hain aurkakoa den testuinguruan. Testuinguru hori, bestalde, larritu eta gaizkiagotuta dago, egungo mundu-mailako finantza-krisia, eta elikadura eta klimari lotutako krisiak direla-eta, testuinguru aldakorra baitago krisialdi horien inguruan, merkatuan dagoen lehia nabasgarriak baldintzatutakoa. (...) Nazio Batuen Emakumeari buruzko Batzorde Juridikoaren XXX. Bilkuran, 2007. urteko garapenerako behar zen finantzamendua aztertu zen. Biltzar horren txostenak bereziki azpimarratzen du behar-beharrezkoa dela sexuen artean dirauen desberdintasunak dakartzan kostuak ezagutzera ematea, eta neurriak hartu behar direla egoera hori konpontze aldera. Txostenak dioenez, Milurtekoko Garapenerako Hirugarren Helburua lortu*

ezik, litekeena da biztanle bakoitzeko hazkundearen tasak %0,1 eta % 0,3 arteko murrizketa izatea herrialdeetan. Egindako zenbatespenen arabera, Asia eta Ozeano Bareko alderdiak 42.000 eta 47.000 milioi dolar bitartean galtzen ditu urtero, emakumeek oso aukera urriak dituztelako lan-arloan txertatzeko, eta, horrez gain, 16.000 eta 30.000 milioi artean galtzen ditu, bezkuntza-arloan sexuen artean dagoen desberdintasunaren ondorioz.”

Balantze suntsitzaile hori are etsigarriagoa da ekonomia aldetik, batez ere kontuan hartzen badugu ekonomia orokorretik abiatuta egiten dela azterketa. Hau da, ez dira emaitzak aztertzen emakumeei gerta ahal zaienari eta gertatzen zaienari begira; aitzitik, emaitzak oro har aztertzen dira, emakumea aintzat hartu ezik gizarte osoari zer gertatu ahal zaion kontuan izanik. Emaitza frustragarria da, eta gainera faltsututa dago, emakumeen interesen ikuspegitik hartuta.

AWID elkarteak egindako azterketa batek⁶ (2006), jarraibide garrantzitsuak ematen dizkigu laguntzaren eraginkortasuna aztertzeko emakumeen erakundeen ikuspegitik. Azterketa horren arabera, egia da emakumeen taldeen eta erakundeen kopuruak gora egin duela, baina aldi berean horietako gehienak –aztertutako ia 1.000 erakunderen lagin batetik, bi heren– oso txikiak dira, eta haien urteko aurrekontua 50.000 dolarretik beherakoa da.

Era berean, nabarmentzeko modukoa da, 2005. urtean jasotako laguntzei dagokienez, mundu osoan emakumeen eskubideen alde lan egiten duten 729 erakundeen sarrerak 79 milioi dolarrera ere ez zirela iristen.

Funtsak jasotzeko dauden joerei dagokienez, azterketaren arabera, aztertutako erakundeen erdiak baino gehiagok finantziario gutxiago jasotzen ari dira 2000. urtetik hona. Laginaren %67k dioenez, zailago egiten zaie funtsak jasotzea orain duela bost urte baino, eta, beraz, langile eta funts gehiago bideratu behar izan dituzte zeregin horretarako. Erakunde guztiek diotenez, 2006. urteko lan-plana betetzeko, beren aurrekontua bikoiztu beharko lukete.

Nabarmendu behar da talde txikiak finantzatzeko eredu hori oso kaltegarria dela, taldeek, diru-galera handiak izateaz gain, ekintzaileak galtzen ari baitira; gainera, oso kostu haziak lortu behar dituzte finantziarioa lortzeko,

⁶ AWID, akronimoa (ingelesezko siglak): Emakumearen Eskubideetarako eta Garapenerako Elkarteak.

azkenean, aparatua berak irensten du antolamendua, eta, beraz, zalantzan dago emakumeen jabekuntza⁷ lortzeko xedea noraino irits daitekeen; izan ere, taldeek beren buruari eutsi behar diote –eta hori ez da arbuizatzeko moduko kontua–, baina ez luke helburu nagusia izan behar. Hor du abiaburua Haitiko ekintzaile batek adierazten zuen pasadizo aski mingarri honek: nahiago zuela bere herriko politikari ustele “eskupekoa” eman, lankidetzako teknokratei gastuak ordaindu baino.

Hurbilago dauden lekuetan, Nazioarteko Garapenerako Lankidetzako Agentzia Espainiarrak berak (AECIDek) 2009. urteko “Genero-arloan jarduteko plan sektorialean” aditzera ematen duenez, 2004. eta 2008. urteen artean generoko gaitan aurrekontuak hazkunde nabarmena izan du, sektoreka bana daitekeen garapenerako laguntza ofizial gordina %3,26tik %8,68ra igaro baita. Hala, 2004. urtean 50 milioiko aurrekontua egon zen, eta 2008an, berriz, 299 milioikoa izan zen.

Ez da oso erraza kopuru horien balorazioa egitea, baina beti izaten da berri pozgarria generoko zuzentasuna lortzeko proiektuetarako lagungarriak diren kopuruek eta ehunekoek gora egitea. Ez dirudi, baina, azterketek horrelako balorazio onik egingo dutenik, ezta jarrera ofizial eta instituzionaletatik egindako horiek ere Hiru adibide baizik ez dut aipatuko; anekdotiko samarrak izan arren, baliagarriak izan baitaitezke jarraibideren bat azaltzeko.

Gutziz suminduta zegoen lagun batek 2011ko azaroaren 23ko Estatuko Aldizkari Ofizialaren kopia bat bidali zidan artikulu hau idazten ari nintzenean. Hor, Nazioarteko Lankidetzarako Estatuko Idazkaritzaren 2011ko azaroaren 5eko Ebazpena agertzen da (garai hartan PSOEek gobernatzen zuen idazkaritza). Ebazpen horren bidez, diru-laguntzak ematen zaizkie parlamentuan ordezkaritza duten Estatu osoko alderdi politikoen mendeko fundazioei eta elkarteei, sistema demokratikoa prestatzeko, sendotzeko eta hedatzeko jarduerak sustatze aldera. Gutzira emandako diru-laguntza 2.200.000 eurokoa da. Diruz lagundutako fundazioak, berriz,

⁷ Kontzeptu honi dagokionez, Kate Youngek zera argitzen du (1997): “begien bistako zentzu batean, jabekuntzaren xedea da jendeak bere bizitzaren kontrola bere gain har dezan: gauzak egiteko trebetasuna lortzea, agendak finkatzea, ekitaldiak trukatzea, aurrez egiten ez zen modu batean. Alabaina, feministen ustez, jabekuntza hori baino zerbait gehiago da: emakumeek genero gisa bete duten mendeko jarrera iraunarazten duten prozesuak eta egiturak errotik aldatzea da”. Jakina, feminista ez den literaturak normalean ez dio zentzu hori ematen.

alderdi hauetakoak dira: PP, PSOE, UPyD, BNG, ERC, PSC, UDC eta CDC. Proiektuek dituzten era askotako izenburuak ikusita, ez du ematen jarduerara guztietatik –gehienbat, munduko hainbat tokitan egingo diren topaketa eta ikastaroetatik– bakar bat ere generoko gaiei bereziki lotuta dagoenik. Ikus daitekeenez, kopurua ez da oso handia, baina benetan sumintzeko modukoa dena da lankidetzarako funtsak bereziki bideratzen dizkietela alderdi politikoen fundazioei, berezko deialdia eginez, alderdi horien ideia “demokratikoen” proselitismoa egiteko.

Kasu zehatz bat aztertuko dut, toki-arlokoa, eta ildo horretan hizpidera ekarriko dut 2011ko uztailaren 20an Politika Sozial eta Kontsumoko zuzendari nagusiak eman zuen Ebazpena (garai hartan, UPN-PSNk eratzen zuten gobernu). Ebazpen horren bidez, diru-laguntzetarako deia egiten da, garapen bidean dauden herrialdeetan gizarte- eta ekonomia-arloan esku hartzeko, urte askotako garapen-programen esparruan, 2011-2013 denboraldian. Ebazpena argitara eman zen garaian, Nafarroako gobernuz kanpoko erakundeek era informalean jakin zuten garapenerako hezkuntzako proiektuetarako deialdia –ordurako argitaratuta eta eskabide guztiak izapidetzeko onartuta egon arren–, erabat indargabetu zutela, eta urte horretan ez zutela laguntzarik emango xede horretarako, aurrekontuko zailtasunak argudiatuta.

Deialdi horretan 9.989.054 euro banatu zizkieten 18 proiekturi, eta, oso ikuspegi zabal eta izendun batetik hartuta, proiektu horietatik 6 baizik ez ziren izan emakumeen interesei eta generoko zuzentasunari buruzkoak, eta 2.409.946 euroko kopurua jaso zuten guztira. Oso esanguratsua da beste 13 eskabideri diru-laguntzarik ez ematea, eskatzen zen puntuazioa lortzen ez zutela argudiatuta, “egokitasun instituzionala” izeneko atal batean, horien artean bai baitziren emakumeei bereziki zuzendutako proiektu batzuk. Nolanahi ere, deigarriena zera da: onura jaso zuten erakundeetako batzuk Eliza katolikoari lotutako garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak zirela, eta haietako batzuk, gainera, genero-arloko zuzentasuneko proiektuak aurkeztu zituztela.

Espainiako lankidetzaren gaiari buruz nabarmendu nahiko nukeen hirugarren oharra lehen aipatu dugun Paula Cirujanok idatzitako liburuari buruzkoa da (2005). Izenburuak berak ondorioaren berri ematen digu, izen hau baitu: “Atzeratutako estrategia. Generoa eta nazioarteko lankidetzaren Espainian”. Lankidetzaren ofizial eta instituzionaletik gertu dauden

egileen artean barne hartuko nuke nik egile hori, ez Estatu espainiarreko instituzioekin bat egiten duelako, hein batean salatutako atzerapenaren errua leporatzen baitie, baizik eta, oro har, aztergai ditugun parametro kontzeptualak onartzen dituelako.

Egile honek nazioarteko eta Espainiako lankidetzaz aztertzen du liburuan barrena, generoko ikuspegitik; eta, aditzera ematen duenez, hainbat arrazoi direla-eta, oraindik ez dira betetzen ari ez proposatutako helburuak, ez eta helmugak ere. Horrekin esan nahi dut AECID elkarteak aski modu hanpantuan emandako datuak kenduta, oro har zera uste izaten dela: garapenean eta, bereziki, txirotutako herrialdeen garapenean, generoa konpondu gabeko arazoa dela Espainiako lankidetzan.

Eragin eta parte-hartze politikoaren oinarri feministak: subjektu politiko unibertsaletik harantz

Hitz horiek zer esan nahi duten definitzeko eta praktikan nola gauzatzen diren zehazteko, ahalegin handia egin behar da, munduko bi aldeetako mugimendu feministen, agentzien eta finantziario-emaileen praktikak eta ikuskerak aztertu behar baitira. Kasu honetan, aski zabala da mugimendu feminista autonomoen eta feminismo instituzionalaren artean sumatzen den adostasun eza. Nazioarteko zein gobernuko instituzioek kontzeptuak eta aldarrikapenak desjabetu dituzte, mugimendu feministak metatutako horretatik urrunduz; eta, horren ondorioz, zeregin izugarria dugu aurretik, berriz definitu eta eraiki beharko baititugu praktika feministarako guztiz baliogabetuta geratu diren kontzeptu eta ideia asko. Hala, bada, oraingo proposamena hauxe da: erabili izan diren kontzeptuak berriz kokatzea, eta, ahal den neurrian, berriz zehaztea.⁸

Esparru honetan argitu behar dugu mugimendu feministek ekarpen eta hausnarketa asko egin dituztela, eta argi eta garbi utzi nahi izan dugu aipatutako literatura horren azpian dauden kontzeptuak. Ondorio gisa, eta aurrera begira izango dugun lanerako dekalogo modura, aditzera emango ditugu zein izango diren ikuspegi feminista duen lankidetzaz eraldatzailea lortzeko proposamenen ardatz nagusiak.

⁸ Hemen, 6. oharra aipatuko dut berriz, jabekuntzaren kontzeptuari dagokiona.

- **Ez da ekonomia, ergelok!!!**⁹ Badirudi beharrezkoa dela mugimendu feministak erantzuna eman diezaion munduko ekonomialarien nagusikeriazko esaldi hain erabili horri. Garapenerako eta lankidetzarako laguntzen politikaren oinarrian ez dago oraingo krisialdiaren azalpena, zientzia ofizialak hala ulertzen duen arren. Guztiz onartezina da orain arte gizakien eta emakumeen beharrezkoei eusteko hutsik gabeak ziren gizartearen estatuko politikak zeharkatzen eta deuseztatzen dituen ekonomia- eta finantza-krisialdiaren ikuskera; onartezina da, behintzat, era kritikoa aztertzen ez badugu hortik harantz huts egin duen sistema ekonomikoa, eredu neoliberalak sustatzen duen hori. Hasieran aipatutakoari berriz helduz, kritikaren oinarrian ez dago oraingo krisia, baizik eta eredu kapitalistaren eta patriarkalaren sistemarik zaharrena. Hausnarketa horren osagaririk garrantzitsuenak aipatu ditugu honezkerok; hala, beraz, behin eta berriz errepikatzen ibili gabe, baieztapen gisa utziko dugu.

- **Subjektu femenino unibertsala.** Nire ustez, Iparreko herrialdeak garapenerako laguntzako eta lankidetzako politikan egiten ari diren akatsik handienetako bat hau da: emakume izateko hartzen duten eredu –teorikoki– eta eredu hori orokor bihurtzeko duten asmoa. Emakume izatea hemen eta mundu osoan. Nire iritziz, subiranotasuneko oinarri unibertsalei egindako eraso larria eta bidegabea dira modernotasunaren eta ongizatearen estatuan kokatuta dagoen gizonezko ikasiaren ereduarekin “berdintasunean” egongo den subjektu bat eraikitzeak berekin dakartzan teorizazio filosofikoak eta politikoak, eta subjektu hori munduko edozein tokitara zabaltzea, subjektuen gainera ere igaroz.

Eztabaida hori oso garrantzitsua da feminismoaren baitan –ez dut ezkutatu nahi–. Hala ere, aditzera eman nahi dut ez dela “mugimenduaren” eztabaida bat, baizik eta “mugimenduen” arteko eztabaida bat. Emakume askok urte luzeak eman ditugu emakumeen bereizgarriak nabarmentzen –maila, etnia, nazioa, sexu-aukera eta abar aintzat hartuta–, eta, beraz, borrokan eta aldarrikapenen bereizgarriak azpimarratzen.

Puntu horri dagokionez, ez dugu amore eman behar: ez gatoz bat ereduarekin, dagoen imaginario bakarrean, eredu hori emakumezkoa den

⁹ Jatorrizko testuko gaztelaniazko “estúpidos” (ergelok) hitza berdez azpimarratuta agertzen da, ordenagailuaren zuzentzaileak nabarmenduta; kontua da, erro horri dagokionez, femeninoan dagoen hitza baizik ez duela onartzen zuzentzaileak, “estúpida”, alegia. Desbideratze maskulinista argi horiek gorabehera, ez dut hitza alde batera utziko.

subjektu bat baita, eta berdintasuna, jabekuntza eta parekotasuna bezalako oinarriak eskuratu nahi baititu, baina emakume askoren eskakizunak eta ikuskerak alde batera utzita.

- **Subjektu femenino “ahula”**. Emakume guztiak berdinak ez badira –berdintasuna lortzeko ahaleginak gorabehera–, eta, hain zuzen, berdintasun gutxien duten emakumeak –beste kultura eta beste mundu batekoak direlako edota pobregokoak direlako– sufrimendu gehien dutenak eta baldintzarik okerrenetan bizi direnak baldin badira, desberdintasun horixe da, izan ere, subjektu ahul bilakatu dituenak. Kontzeptu instituzional berria agertzen da, Estatuaren eta bere instituzioaren zerbitzuan. Hala, txirotutako herrialdeetako emakumearen imaginarioa eratzen da, eta, hor, emakumea biktima da, sufritzen du, minak jota dago, bortxa jasaten du, salerosi egiten dute, prostituzioan aritu behar du, emigratzailea da... Eta, aldi berean, estereotipo horren kontrako alderdia ere eratzen da: bere burua besteei eskaintzen dien emakumea da, langilea, familia elikatzen duena, solidarioa... Hala, bada, ahulak dira, oso atzeratuta dauden kulturetatik datozeelako, erlijio eta sineskeria matxistak dituztelako, gizonezkoekiko menderakuntzazko harremanak ankerrak direlako, haien sistema politikoak demokratikoak ez direlako, antzinako praktika bekatuzkoak dituztelako... Beren nortasunaren alderdi onaz desjabetuta egonik, errazagoa da gainerrako guztia ere kentzea eta haien izenean aritzea. Eta ahul izateari utzi nahi badiote, honezkero eraikita dagoen subjektuarekin berdindu beharko dute beren burua.

Deigarriena da imaginarioaren eraikuntza hain dela sendoa, non etengabe egiten baitzaie deia beren herrialdeetako parlamentuetan esku har dezaten, parekotasunari jarraiki, emakumeen ohiko guneetatik atera daitezen eta bostere-guneak beregana ditzaten, gune guztietan jabekuntza eskura dezaten, kosta ahala kosta berdintasunaren alde borroka egin dezaten, seme-alaben kopurua murriztu dezaten... baina, hainbeste sufritzen duten emakume kementsu horiek hona etortzen direnean, gure herrialdeetara –ziurrena, berdintasunaren agindu eurozentristak betez–, lurraldean jarraitzeko eskubidea ere ez baitzaie onartzen. Kanpora botatzen ditugu zuzenean. Haietako askok, ziurrena oso saiatuak eta nekaezinak direlako, bertan gelditzea lortzen dute; baina, horrelakoetan, eskubiderik ez izateaz gain, ez dute eskubideak izateko eskubiderik ere (Hannah Arendt). Emakume batzuek, agindu heteroarauemailetara erabat egokituta daudenez, egoitzabaimena lortuko dute, etxeko eta familiako zaintzaile gisa aritzeko lan interesgarri baten bidez, baina eskubideak guztiz murriztuta izango dituzte,

dirudienez subjektu horrek ez baitu berdintasuna onartzen. Eta emakume hori subjektu ahula dela esan beharrean, hobeto zehaztu beharko genuke, subjektu gisa zegozkion eskubideei dagokienez zaurtutako emakumea dela esanda.

- **Subjektu femenino plurala.** Aipatutakoaren moduko unibertsaltasunezko asmoaren aurrez aurre, hauxe lortu nahi dugu: besterik ez bada ere errealtateei dagokienez emakumeen artean dagoen aukera-sorta zabala barne hartuko duen subjektu femeninoa berreskuratu nahi dugu. Begien bistako galdera nagusitzen da: zer da berdintasuna, emakume guztiei ezarri / guztiengana zabaldu behar den eskubide bat ala paradigma unibertsal bat? Berdintasuna, norekin? Berdintasuna, noren aurrez aurre?

Mugimendu feministek eztabaida sakona egin beharko dugu gai horri buruz, eta ibilaldi luzea egin beharko dugu harekin. Ez digute ziria sartuko, ez dugu sinetsiko kultura aniztasuna ona dela, nondik-nahikoa den. Erronka askoz sakonagoa da. Gainera, emakume euskaldunok ondo ezagutu beharko genuke eztabaida hori, etengabe ari baikara borrokan hain suntsituta dagoen gure taldeko nortasunari eutsi nahian. Ez gure arbasoekin jolas kulturantzunak egiteko baserri zaharretan edo haitzulo hotzetan, baizik eta erabakitzen duguna izan ahal izateko, indarrez ezarritako nortasunak alde batera utzita.

- **Emakumeen parte-hartze politikoa.** Botereen banaketa dontsuan eta oraingo hauteskunde-sisteman oinarritzen den mendebaldeko sistema demokratikoa guztiz mitifikatuta dago, eta sarritan lausotu egiten ditu egungo politikako bururik bikainenak ere. Parte-hartze politikoa oso kontzeptu zabala eta oso errealtate konplexua da, eta, beraz, ezin da berdindu parlamentuetan eta instituzioetan parekotasunean parte hartzeko aukera izatearekin. Izan ere, idatzitakoa berriz ikusten badugu, ohartuko gara Milurtekoko Garapenerako Helburuen eraginkortasuna neurtuko duten adierazleetako bat dela; hau da, itxura denez, emakumeen jabeak neurtzeko, Estatuko parlamentuan dauden emakumeen kopuruari erreparatuko zaiola.

Oraingo sistema demokratikoarekiko dagoen debozioak zurriz dituzte, ziurrena –aurreko atalean adierazi dudanez–, Espainiako parlamentuan ordezkariak politikoa duten alderdi politikoei jasotzen dituzten diru-laguntzak (eta zergatik ezabatzen dituzte ordezkariak politikorik ez duten alderdiak? Nire ustez, finantziario politikoa eta alderdien ilegalizazioa aipatu beharko genituzke hemen, baina ez du loturarik gaiarekin...).

Andrea Cornwallen bi paragrafo aipatuko ditut, aldi berean Wendy Harcourtek helarazi dizkigunak (2011), nire irudirako aski argigarriak baitira dagokigun gaiari begira: *“Emakumeari eta garapenari buruz nagusi den pentsamenduak itxuraz aurrerakoia den ortodoxia hartu du, baina ez du lortzen konpromisoa izatea munduko emakumeen bizipen eta asmoen errealitateekin... Emakumeari buruzko hitzontzikeria baikorrak gero eta esparru zabalagoa hartzen du: emakumea bakea, oparotasuna eta demokrazia lortzeko mugimenduaren abangoardian kokatzen duen erretolika. Horrelaxe doaz kontuak: eman boterea emakumeei, eta garapenaren motorra izango dira. (...) Feministek maiz onartu dute emakumeek “nonbait duten boterea” onartzen dutenean, eta beste emakume batzuekin batera aritzen direnean “norbaitekin boterea” baliatzeko, orduan, eragile gisa “aritzeko boterea” eskuratzen dutela. Esperientzia feministak frogatu duenez, prozesuak bide askotatik jo dezake, baina horretarako oso gutxitan hartu behar dira jabekuntza arinaren aldeko bultzatzaileek aurreikusituen dituzten lasterbideak”.*

Emakumeek botere politikoaren gune instituzionaletan parte hartzeak duen garrantzia ezertan gutxitu gabe, nire ustez, egokiagoa da gure erakundeek praktiken bidez laguntza eman diezaieten emakumeen erakundeei eta erakunde feministei, “norbaitekin boterea” bultzatzeko, eta emakumeen ekimena eta autoantolakuntza, ahal dugun heinean, sustatzeko. Gero, “aritzeko boterea” lortuko dugu, gune politikoetan zuzenean esku hartzeko, eta, jakina, horrek ez du soilik esan nahi instituzio edo hauteskundeetako guneetan esku hartzea.

- **Emakumeen eskubideak.** XX. mendeko azken hamarkadetan garapenerako laguntzan emakumeen eta feministen taldeek gehien eskatu duten ildoetako bat emakumeen eskubideen aldeko borroka izan da. Eskubide guztiak emakume guztientzat, lelo hori milaka mobilizaziotan izan da lur osoan barrena. Bestalde, emakumeen eskubideak giza eskubideak ere badira, eta formulazio edo eskakizun hori ere mota guztietako foro, biltzar eta kontrabiltzarretan azaldu da.

Hala izan da, alde batetik, nabarmena denez, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1948) ez delako aski, eta, bestetik, mendebaldeko demokraziako estatuen konstituzio gehienetan –hala nola Estatu espainiarrekoan– paragrafo labur bat baizik ez baitzaio eskaintzen, zehazki, 14. artikuluan, eta ez emakumeen eskubideak aipatzean, baizik eta gutxiengoekiko be-reizkeria eza azaltzen duenean.

Hargatik, garapenaren paradigmen funtsezko oinarriak ez luke berdintasuna, zuzentasuna edo jabetasuna izan behar, emakumeen eskubideak baizik; eta eskubide horiek ez dira gizonek emakumeentzat finkatu dituzten eskubideak.

- **Gorputzaren subiranotasuna, gorputzari lotutako politikak.** Emakumeen gorputza beren aldarrikapenen eta borrokaren funtsezko osagaia izan da. Hori ederki dakigu guk, emakumeok, eskatu egiten baitugu eta geure gorputzaz jabetzen baikara; baina garapenerako plangintzen egileek eta finantziario-emaileek ere ondotoxo dakite. Haiek egiten dute emakumeen gorputzari buruzko plangintza, eta beti aipatzen dituzte gorago dauden beste interes batzuk, gorputz arrunta eta dagozkion eskubideak baino goragoko balioak.

Ez zaizkit murriztapenak gustatzen, ez eta zentraltasun bakarra ere, baina, era pedagogikoan, nik uste dut emakumeen gorputzaren gaineko subiranotasuna, bere erabateko autonomia, edota beste pertsona eta instituzio batzuekiko duen independentzia aldarrikatzea, azken batean, paradigma egokia izan daitekeela, Wendy Hoarcourtek dioenez (2011). Ariketa praktiko gisa, oso erabilgarria izango litzateke emakumeen gorputza eztabaidaren erdian jartzea. Izan ere, egon badago, baina ez da berariaz esaten. Hala Iparrean nola Hegoan agertzen da, biztanleriari buruzko politiketan, jaiotza-tasa kontrolatzeko edo pizteko politiketan, gerrari buruzko politiketan, turismo eta emigratioari lotutako politiketan, familiei laguntza emateko politiketan, lan-arloko horietan... Munduko gobernariak erabakitzen dituzten neurri horiek guztiak, nola edo hala, emakumeen gorputzaren gainetik igarotzen dira.

Emakumeek beren gorputzen xedea beren kabuz bakarrik erabaki ahal izateko eskubidea eskubide unibertsaltzat hartuz eta joz gero, gure eskubideak berriz formulatzeko aukera interesgarria izango genuke eskura. Era horretan, adibidez, emakumeek askatasunez erabaki ahal izango lukete beste leku batzuetara joatea, lekualdatuak edo salerosiak izan beharrik gabe. Esate baterako, emakumeek askatasunez erabakiko lukete sexu-zerbitzuak egiten aritzea soldataren truke, prostituitzen ari direla jo behar izanik gabe. Era berean, emakumeak erabaki ahal izango luke zenbat seme-alaba izan, politika demografikoen, erlijiozko sinesmenen edo mendekotasun patriarkalaren arabera erabaki beharrik gabe. Azken batean, emakumeek erabakiko lukete nola deitu eta ezagutu behar zaien, senarrari dagokion izena indarrez hartu beharrik gabe.

Bibliografia

- AECID (2009): *Espainiako Lankidetzarako Plan Zuzentzailea, 2009-2012*. Madril, Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioa.
- AWID (2006): *¿Dónde está el dinero para los derechos de las mujeres? Una evaluación sobre los recursos y el papel de las financiadoras en la promoción de los derechos de las mujeres y el apoyo a las organizaciones que trabajan por los derechos de las mujeres*. Mexiko.
- Chacón, A. eta M. López Belloso (2011): “Feminismo y cooperación descentralizada: experiencias de la Unión Nacional de Mujeres Saharauis y la Red Vasca de Apoyo a la UNMS”; hemen: Larrañaga, M. eta Jubero, Y.
- Cirujano, P. (2005): *La estrategia demorada. Género y cooperación internacional en España*. Madril, Los libros de la Catarata.
- De la Cruz, C. (2010): “Financiación para el desarrollo, género y derechos de las mujeres”, hemen: Maqueira V (arg.): *Mujeres, Globalización y Derechos Humanos*. Madril, Ediciones Cátedra. (2. edizioa).
- Gómez Gil, C. eta J. M. González Parada, (2011): Ayuda al Desarrollo para tiempos de crisis. *Viento Sur*, 117. zk., (uztaila), 19-28 or.
- Harcourt, W. (2011): *Desarrollo y políticas corporales. Debates críticos en género y desarrollo*. Bartzelona, Edicions Bellaterra.
- (2006): “Reflexiones sobre el movimiento global por los derechos de las mujeres”.
- Hegoa (2010): *Actas del Encuentro “Feminismos en la agenda de desarrollo”*. Bilbo: Hegoa eta UPV-EHU.
- Hernández Zubizarreta, I. (2011): “Desarrollo y cooperación: una visión inclusiva”, en *Desarrollo humano sostenible, Cooperación y Educación al Desarrollo* (V. modulua) Calcuta Ondoan, Donostia.
- Larrañaga, M. eta Jubero, Y. (arg.) (2011): *La cooperación y el desarrollo humano local. Retos de la equidad de género y la participación social*. Bilbo, Hegoa.
- Moser, C. (1991): “Las mujeres en la planificación del desarrollo. Necesidades prácticas y estratégicas de género”, *Políticas de cooperación al desarrollo y participación de las mujeres*, Hegoa, Bilbo.

Ayuda en Acción, Entreculturas eta InteRed (2009): *El papel de la cooperación española en el cumplimiento de las metas de la Plataforma de Beijing*.

Spivak, G. (2010): *Crítica de la razón poscolonial. Hacia una historia del presente evanescente*. Madril, Akal.

Viadero, M. eta Alberdi, J. (2011): *La incorporación de la participación y la equidad de género en las cooperaciones autonómicas*. Bilbo: Hegoa eta UPV/EHU.

Young K. (1997): “El potencial transformador en las necesidades prácticas: empoderamiento colectivo y proceso de planificación”, hemen: León, Magdalena (konp.) *Poder y empoderamiento de las mujeres*. T.M. eta Facultad de Ciencias Humanas, Bogotá.

Zabala González, B. (2011): “Un feminismo para construir ciudadanía”, *Actas del Encuentro: Feminismos en la agenda del desarrollo*. Bilbo, Hegoa.

(2009): “Feminismo para tiempos de crisis”, hemen: Jornadas Feministas de Granada. Hemen dago eskuragarri: www.feministas.org

Zabala, I. (2010): “Estrategias alternativas en los debates sobre género y desarrollo”, hemen: Revista de Economía Crítica, 9. zk. Hemen eskuragarri: <http://revistaeconomiccritica.org>

